<sup>4</sup> *Bat* eta *batzuk* artikulua izateaz gain, zenbatzaile gisa era erabiltzen dira euskaraz (Euskaltzaindia 2021). Lan honetan determinatzaile gisa erabili diren agerpenak aztertu dira.

ikertzaileen aburuz. Erakusleak eta izenordainak maiztasunaren eraginaren arabera azter ditzakegu eta aditz/morfema modalen kasuan, bi fenomenoak jorratzea daukagu. Gainera, haurren ekoizpena aztertu duten aurreko lanek ez dituzte aditz/morfema modalak xehetasunez ezta banaka arakatu ere. Hala, proiektu honek egingo duen ekarpenetariko bat hori izango da.

### 2.3 Datuen trataera

Gure corpora osatzeko, Valle eta Alonsok (2015) egindako grabazioen transkripzioak hartu ditugu CHILDES plataformatik (MacWhinney 2000). Aukeratutako lau haurrek 21 grabaketa dituzte batez beste eta grabaketa bakoitzak 21 eta 30 minutu artean irauten du (batez besteko 25 min.). Lan honetarako, haur bakoitzaren bosna grabaketa aztertu ditugu, hots, guztira hogeitaz. 2-3 urteko umeen grabaketak 2;06-3;07 urte bitartean egindakoak dira eta 3 urteko haurrenak, aldiz, 3;07-3;11 urte bitartean. Bi arrazoiengatik aukeratu ditugu tarte horiek; alde batetik, adin bakoitzeko bikote bat egon dadin eta, grabaketak bakarka aztertzeaz gain, bikoteka arakatzeko modua izan dezagun; eta bestalde, lau haurrok 3;07 adineko grabaketa izan dezaten. Hala, haur guztien adin bereko grabaketa bana azter dezakegu umeen arteko alderik dagoen ikusteko. 1. taulan haur bakoitzaren transkripzioak zerrendatu ditugu haurraren adinaren arabera:

**1. taula.** Haur bakoitzaren grabaketa-zerrenda  
(grabaketa egin orduan haurrak zuen adina kontuan izanik)

	S1	S2	S3	S4
<b>Grabaketak</b>	02;06;24	02;06;20	03;07;14	03;07;11
	02;07;07	02;07;04	03;08;11	03;08;09
	02;10;06	02;10;23	03;09;08	03;09;06
	03;00;03	03;00;07	03;10;08	03;10;07
	03;07;22	03;07;20	03;11;12	03;11;03

*Azalpena:* Taulan ageri diren adinak «urtea; hilabetea; eguna» formatuan azalduta daude.

1. taulan ikus daiteke S1en eta S2ren adinak berdinak direla, urte-hilabeteari dagokienez. Orobat, S3k eta S4k ere adin bera dute. Aztertutako transkripzioak Brian MacWhinneyk (2000) plazaratutako artikularen zehaztapenen arabera transkribatu zituzten Valle eta Alonsok (2015). Esan bezala, transkripzio horiek CHILDES datu-basetik eskuratu ditugu. Gure analisi-rako, arakatu nahi genituen morfemak hurrek zein adinekin ekoizten zituzten eta zein hurrenkeratan azaltzen diren jaso dugu. Ageriko forma duten morfemak bakarrik zenbatu ditugu, alegia, fonologikoki azaleratzen direnak.

Grabaketak testuinguru naturaletan egin ziren, haurren etxean edo kallean, eskolatik atera ondoren, Valle eta Alonsoren (2015) arabera. Saiotan bi edo kide gehiagoren arteko elkarrizketak jasotzen dira, alegia, haurraren beraren eta familiako beste kide baten edo batzuen (e.g. ama, aita edo nebarreben) artekoak. Aztertzaileek oso gutxitan parte hartu zuten.

Lan honek duen helburuetako bat hizkuntza morfemen maiztasunak haurren ekoizpenean duen eragina neurtzea da. Horretarako, aztergai diren morfemen maiztasuna aztertu dugu lehenik, *Euskal Hiztegiaren Maiztasun Egitura* (EHME) (Acha eta beste 2014) datu-basea erabiliz. EHME euskal hitzen maiztasun-hiztegia da eta *Ereduzko Prosa Gaur* (EPG) corpusean oinarrituta dago, non 25,1 milioi testu-hitz dauden. Datu-baseak izenak, aditzak, adberbioak, inflexio- eta eratorpen-morfemak zenbatzen ditu. Horri esker, lan honetan aztertuko diren morfemen maiztasuna kalkulatu ahal izan dugu; alegia, corpusean duten agerpenaren araberrako frekuentzia.

### 3. Emaitzak

Lan honetan morfema funtzionalen ekoizpenean maiztasunak eta lotu/aske izateak duten eragina aztertu dugu. Arakatu ditugun kategoria funtzional guztietan ezin izan ditugu, ordea, bi faktore horiek ikertu, kategoria batzuek ez dutelako morfema loturik; hots, izenordainek eta erakusleek. Halaber, kasu gramatikal guztien formak lotuak dira, eta ezin izan dugu EHME-ren (Acha eta beste 2014) araberrako haien maiztasuna kalkulatu. Hala ere, *-ke-* morfema modalaren maiztasuna kalkulatu ahal izan dugu, morfema hori barruan hartzen duten adizki guztien maiztasunaren batura eginez. Beraz,

determinatzaile mugatuetan eta aditz/morfema modaletan bi faktoreak aztertzea daukagu. Hala, kategoria bakoitzean arakatu daite(z)keen faktorea(k) neurtu d(it)ugu. Informazio hori guztiori tauletan adieraziko dugu azpiatal bakoitzaren hasieran. Kategoria bakoitzean honelaxe aurkeztuko ditugu emaitzak: a) lehenik, haur guztien emaitza orokorrak azalduko ditugu, b) bigarrenik, bikoteka bereizirik (2-3 urteko haurrak eta 3-4 urteko umeak, ordena horretan) emango ditugu eta, c) azkenik, haur guztiek partekatzen duten grabazioan (3;07) lortutako emaitzen berri emango dugu.

### 3.1 Kasu gramatikalen azterketa kategoriaren arabera

Atal honetan kasu gramatikalen azterketa egingo dugu kategoriaren arabera. Horretarako, haurren transkripzioetan jasotako datuak taula batera ekarri ditugu. 2. taulan<sup>5</sup> haur bakoitzak ekoiztutako forma guztien kopurua ageri da, kasuaren arabera sailkatuta.

2. taula. Kasu gramatikalen agerpenak kategoria guztietan

KASU-MARKA	<i>Haur bakoitzak ekoiztutako morfema-kopurua</i>				GUZTIRA
	S1	S2	S3	S4	
ABS	338	332	264	162	1096
ERG	56	56	38	39	189
DAT	5	8	7	7	27

Kasuei dagozkien formen artean, haurrek ekoitzi dituzten forma gehienak absolutibokoak (% 83,5) dira, ondoren ergatibokoak, erabilera askoz

<sup>5</sup> Honako laburdura hauek erabili ditugu tauletan: ABS = absolutiboa; DAT = datiboa; ERG = ergatiboa; PL = plurala; SG = singularra.

txikiagoarekin, (% 14,4), eta azkenik, datibokoak, erabilera oso-oso mugatuarekin (% 2,1). Adin bereko haurren bikote gazteagoari erreparatuta (2 urteko umeak), aipatutako joera hori erakutsi dute kategoria guztietan. Bigarren bikoteak ere joera nagusiari jarraitu dio. Nahiz eta joera orokorra jarraitu, umeen artean aldakortasuna ikus daiteke, gazteenetarikoa batek lehen grabaziotik hiru kasuak erabili dituelako. Besteez, ordea, ergatiboa eta datiboa ondorengoko grabazioetan baliatu dituzte. Haur guztiek partekatzen duten grabaketan (3;07), eredu bera ikus dezakegu: haur guztiak gai dira absolutibo singularra erabiltzeko eta gehienak absolutibo plurala ere bai (S4 izan ezik). Ergatiboa S1ek eta S2k bakarrik erabili dute. Bestalde, haur batek ere ez du datiboko formarik baliatu. Singularreko eta pluraleko formei dagokienez, singularra askoz emankorragoa da plurala baino, kasu guztietan. Izan ere, haurrek ez dute ergatibo ezta datibo pluraleko formarik ere erabili.

### 3.2 Determinatzaile mugatuak: artikulua eta partitiboa

Atal honetan determinatzaile mugatuen berri emango dugu. 3. taulan determinatzaile askeen maiztasunak eta ekoiztako morfema-kopuruak ikus ditzakegu. Maiztasuna EHMEren ereduaren arabera kalkulatu dugu.

3. taula. Determinatzaile askeen maiztasunak EHMEren maiztasun-ereduaren arabera eta ikerketa honetan aztertutako haurren ekoizpena

DETERMINATZAILE ASKEAK	Maiztasuna (milioi hitzeko kalkulaturia)	Ekoiztako morfema-kopuruak
<i>Bat + ABS SG (bat)</i>	9504,26	89
<i>Bat + ERG SG (batek)</i>	1291,63	2
<i>Bat + ABS PL (batzuk)</i>	990,95	13
<i>Bat + DAT SG (bati)</i>	396,58	0
<i>Bat + ERG PL (batzuek)</i>	285,44	0
<i>Bat + DAT PL (batzuei)</i>	43,4	0

3. taulan ikus daitekeen moduan, *bat* determinatzaileak dauka maiztasunik handiena (9504,26) eta *batzuei* determinatzaileak, ordea, maiztasunik txikiena (43,4). Gainera, *bat* determinatzaileak maiztasunik handiena izateaz gain, hurrek gehien erabiltzen duten determinatzailea ere bada.

4. taulak hurrek ekoizitako artikulak bilduta dakartza, ekoizitako adina kontuan hartuta. Taulan ageri diren datuek lotu/aske izatearen ezaugarriaren berri ematen digute, *-a* vs *bat* eta *-ak* vs *batzuk* alderaketa egin baitugu.

4. taula. Artikuluen agerpena, adina kontuan hartuta

HAURRAK	ALDAGAIK	Singularra		Plurala	
		<i>-a</i>	<i>bat</i>	<i>-ak</i>	<i>batzuk</i>
S1	kopurua	148	61	34	11
	adina	2;06;24	2;06;24	2;06;24	2;10;06
S2	kopurua	157	7	23	0
	adina	2;06;20	2;06;20	2;06;20	-
S3	kopurua	106	12	28	2
	adina	3;07;14	3;07;14	3;07;14	3;10;08
S4	kopurua	78	9	9	0
	adina	3;07;11	3;09;06	3;08;09	-
GUZTIRA	kopurua	489	89	94	13
Guztira, LOTUAK ( <i>-a</i> , <i>-ak</i> ): 583					
Guztira, ASKEAK ( <i>bat</i> , <i>batzuk</i> ): 104					

Hurrek ekoizitako artikuluei begiratzuz gero, ia gehienak lotuak dira (% 85,2). Morfema askeen artean, hurrek *bat*, *batzuk* eta *batek* soilik era-

bili dituzte eta gehienak absolutiboan azaldu dira (% 96,1). Pluralaren erabilera, oro har, singularra baino askoz mugatuagoa da eta, gainera, plurala maiztasun handiagoaz ageri da morfema lotuetan askeetan baino, horietan *batzuk* baino ez baitugu aurkitu. Bikoteei erreparatzen badiegu, antzeko joera ikus dezakegu. 3;07 grabaketan haur guztiak *-a* determinatzailea erabiltzeko gai dira eta hiruk *bat* eta *-ak* formak baliatu dituzte. Agerpen-ordenari dagokionez, 3 haurrek singularreko forma guztiak (*-a* eta *bat*) eta forma lotu plurala (*-ak*) erabiltzen dituzte aztertutako lehen grabazioan. *Batzuk* forma, berriz, beranduago ageri da eta bi umek bakarrik baliatu dute. S3 da partitiboa erabili duen ume bakarra (3;10 adinarekin).

### 3.3 Izenordainak

Izenordainak izango ditugu aztergai atal honetan. Batetik, 5. taulan izenordainen maiztasunak eta ekoizitako morfema-kopuruak ikus ditzakegu. Bestetik, 6. taulan emaitza berak aurkeztu ditugu baina haur bakoitzak ekoizitakoak banaturik eta ekoizpenaren adina zehaztuta. Maiztasuna EHMEren ereduaren arabera kalkulatu dugu.

5. taula. Izenordainen maiztasuna EHMEren maiztasun-ereduaren arabera eta ikerketa honetan aztertutako haurren ekoizpena

IZENORDAINAK	<i>EHMEren araberako maiztasuna (milioi hitzeko kalkulaturia)</i>	<i>Ekoizitako morfema-kopuruak</i>
1. pertsona (SG)	4066,77	123
3. pertsona (SG)	3891,65	1
3. pertsona (PL)	1037,04	0
2. pertsona (SG)	751,8	64
1. pertsona (PL)	618,33	7
2. pertsona (PL)	274,55	0

5. taulari erreparatzen badiogu, haurrek gehien erabili dituzten izenordainak 1. pertsona singularrekoak direla (% 63,1) ikus dezakegu. Ondoren, alde nabariarekin, 2. pertsona singularrekoak (% 32,8) baliatu dituzte. 1. pertsona pluralekoak (% 3,6) eta 3. pertsona singularrekoak (% 0,5) oso gutxi erabili dituzte, eta 2. eta 3. pertsona pluralekoak ezer ere ez. Ikus daitekeenez, haurrek baliatu dituzten forma gehienak singularrekoak dira (% 96,4) eta plurala 1. pertsonarekin soilik ekoitzi dute.

5. taulak helduen corpuseko maiztasunaren berri ere ematen digu. EHMEn arabera, maiztasun handiena 1. pertsona singularreko izenordainek dute eta ondoren, 3. pertsonakoek (singularrekoak eta pluralekoak).

6. taulan haur bakoitzak ekoiztako izenordain-kopurua jaso dugu, horiek lehen aldiz ekoiztako adina eta erabilitako izenordainak (pertsona eta numeroaren arabera) kontuan hartuta. Errenkadek haurren emaitzak erakusten dituzte. Horiek bitan banatuta daude; alde batetik, haur bakoitzak ekoiztako izenordain-kopurua bildu dugu, eta, bestetik, izenordain horiek zein adinekin ekoitzi duten eta zein(tzuk) izan d(ir)en lehen erabilitako izenordaina(k) aditzera eman dugu.

**6. taula.** Izenordain-kopurua eta lehen aldiz zein adinekin ekoitzia den

HAURRAK	ALDAGAIAK	1 (SG)	2 (SG)	3 (SG)	1 (PL)	2 (PL)	3 (PL)
S1	kopurua	32	24	1	2	0	0
	adina	2;06;24 (ni,nik)	2;06;24 (zuk)	3;07;22 (bera)	2;10;06 (guk)	-	-
S2	kopurua	45	13	0	2	0	0
	adina	2;06;20 (nik, ni)	2;10;23 (zu, zuri, zuk)	-	2;06;20 (guk)	-	-

S3	kopurua	23	10	0	1	0	0
	adina	3;07;14 (nik)	3;07;14 (zuk)	-	3;10;08 (guk)	-	-
S4	kopurua	23	17	0	2	0	0
	adina	3;07;11 (nik)	3;09;06 (zuk, zu)	-	3;08;09 (guk)	-	-

*Azalpena:* Adin bakoitzean ekoiztako izenordain zehatzak etzanez adierazi ditugu.

Adin bereko bikoteetara joanda, bi bikoteek antzeko joera dutela ikus daiteke. Era berean, S1 da *bera* izenordaina baliatu duen ume bakarra: haur guztiek partekatu duten grabazioan (3;07) erabili du. Kasuei erreparatuta, haurrek ergatiboko (% 67) izenordain gehiago erabili dituzte, ondoren absolutibokoak (% 30) eta azkenik datibokoak (% 3). Haur guztiek partekatu duten grabaketan, gehienbat absolutibo eta ergatiboko izenordainak baliatu dituztela ohartu gara, S2k soilik erabili baitu datiboko *zuri* izenordaina eta ume guztiek *nik* erabili dutelako. Horrez gain, S1ek eta S2k *zu* erabili dute. Agerpen-ordenari begiratuz gero, 1. pertsonako izenordainak beti hasierako saioetan ageri direla ikusi dugu, eta bi umeren kasuan, 2. pertsonakoak ere bai. Gainerako umeen transkripzioetan, geroago azaldu dira 2. pertsonako izenordainak. 3. pertsonako izenordaina S1en azken grabazioan bildu da eta beronek bakarrik erabili du.

### 3.4 Erakusleak

Atal honetan erakusleen azterketa egingo dugu. Batetik, 7. taulak erakusleen maiztasunak erakusten ditu, EHMEren emaitzak kontuan izanik eta corpusean maiztasun handienetik txikienera dutenen arabera ordenaturik. Halaber, haurrek erakusleak zenbat aldiz erabili dituzten jaso da. Bestetik, 8. taulan emaitza berak aurkeztu ditugu, baina haur bakoitzak ekoiztakoak banaturik eta ekoizpenaren adina zehaztuta.

7. taula. Erakusleen maiztasuna EHMEren maiztasun-ereduaren arabera eta ikerketa honetan aztertutako haurren ekoizpena

ERAKUSLEAK	<i>EHMEren araberako maiztasuna (milioi hitzeko kalkulaturia)</i>	<i>Ekoiztako morfema-kopuruak</i>
2. gradua (SG)	4774,38	80
2. gradua (PL)	2141,78	16
1. gradua (SG)	2003,44	370
3. gradua (SG)	1788,52	9
3. gradua (PL)	1037,05	0
1. gradua (PL)	779,11	9

7. taulak erakusten du 2. graduko erakusleek dutela maiztasunik handiena (4774,38) eta pluraleko 1. gradukoek, berriz, txikiena (779,11). Ekoizpenari dagokionez, singularreko 1. gradukoak dira erabilienak.

8. taulan haur bakoitzak ekoiztako erakusle-kopurua agertzen da, horiek lehen aldiz ekoiztako adina eta erabilitako erakusle mota kontuan hartuta. Errenkadek haurren emaitzak erakusten dituzte. Horiek bitan banatuta daude; alde batetik, haur bakoitzak ekoiztako erakusle-kopurua ageri da, eta bestetik, erakusle horiek zein adinekin ekoitzi dituzten eta zein(tzuk) izan d(ir)en lehen erabilitako erakuslea(k) aditzera eman da.

## 8. taula. Erakusleen kopuruak, lehen agerpenaren adina kontuan hartuta

HAURRAK	ALDAGAIK	1. gradua (SG)	2. gradua (SG)	3. gradua (SG)	1. gradua (PL)	2. gradua (PL)	3. gradua (PL)
S1	kopurua	74	55	0	0	6	0
	adina	2;06;24 (hau, honi)	2;06;24 (hori)	-	-	2;07;07 (horiek <sub>ABS</sub> )	-
S2	kopurua	115	7	8	5	1	0
	adina	2;06;20 (hau)	2;06;20 (hori, horrek)	2;07;04 (hura)	2;06;20 (hauek <sub>ABS</sub> )	3;07;30 (horiek <sub>ABS</sub> )	-
S3	kopurua	70	14	1	0	8	0
	adina	3;07;14 (hau, honek)	3;07;14 (hori)	3;07;14 (hura)	-	3;07;14 (horiek)	-
S4	kopurua	41	4	0	4	1	0
	adina	3;07;11 (hau)	3;08;09 (hori)	-	3;09;06 (hauek <sub>ABS</sub> )	3;11;03 (horiek <sub>ABS</sub> )	-

Goazen emaitzetara: ohartu gara haurrek lehenik ekoitzi dituzten erakusleak ez datozela guztiz bat EHME<sub>n</sub> maiztasunik handienak dituztenekin. Izan ere, EHME<sub>n</sub> gehien erabiltzen diren erakusleak 2. graduak dira (ikus 7. taula), singularrekoak eta pluralekoak. Haur gazteenen corpusean, ordea, 1. eta 2. graduak erakusleak ekoitzi dira lehenik, nagusiki, singularrekoak. Bi corpusetako maiztasunak ere ez datoz bat. Helduen corpusean 2. graduak erakusleak gehien erabili arren, gurean haurrek singularreko 1. graduak erakusleak (% 76,4) gehiago erabiltzen dituzte. Ondoren, singularreko 2. graduak (% 16,5) dira erabilienak, baina bien artean alde handia dago. Horien ostean, pluraleko 2. graduak (% 3,3)

azaldu dira eta geroago, singularreko 3. gradukoak (% 1,86) eta pluraleko 1. gradukoak (% 1,86). Haur guztiek 1. eta 2. graduko erakusleak erabili dituzte. 3. graduko forma erabiltzen duten haurren artean, bata 2-3 urteko umeen taldekoa da (S2) eta bestea 3 urteko haurren multzokoa (S3). Hortaz, badirudi haurrek hiru urte betetzen duten unerako, hiru formez jabetuta daudela, singularrean, behintzat. S1ek 1. eta 2. graduko erakusleen ekoizpen orekatuagoa du, gainerako umeei baino forma gehiago ekoitzi dituelako. Singularreko erakusleak pluralekoak baino lehenago agertu dira kasu gehienetan eta askoz gehiago erabili dituzte (singularrekoak % 95 eta pluralekoak % 5). Gainera, singularra eta plurala 1. eta 2. graduko erakusleetan azaldu da. 3;07 grabazioa aztertzean, denek *hau* erakuslea erabili dutela ikusi dugu, baina guztiek ez dute singularreko 2. gradua (*hori*) ekoitzi. Grabazio horretan, haur guztiek absolutiboko eta ergatiboko formak baliatu dituzte S2k izan ezik. Hark datibo singularreko 1. graduko erakuslea (*honi*) ekoitzi du. Erakusleen kasu gramatikalei buruz zera esan dezakegu: forma gehienak absolutibokoak dira (% 94,4), ondoren ergatibokoak (% 4) eta azkenik datibokoak (% 1,6).

### 3.5 Modalak

Analisiaren azken atal honetan, modalen berri emango dugu. 9. taulan morfema modalen maiztasuna ikus dezakegu EHMEn ereduaren arabera kalkulatu. Orobat, haurrek ekoiztako modal-kopurua jaso da. Bestetik, 10. taulan haurren corpusaren emaitzak aurkeztu ditugu baina haur bakoitzak ekoiztakoak banaturik eta ekoizpenaren adina zehaztuta.

**9. taula.** Modalen maiztasunak EHMEren maiztasun-ereduaren arabera eta ikerketa honetan aztertutako haurren ekoizpena

MODALA	EHMEren araberako maiztasuna (milioi hitzeko kalkulaturia)	Ekoiztutako morfema-kopurua
<i>behar</i>	3906,57	120
<i>nahi</i>	3008,84	48
<i>-ke-</i>	2926,05	0
<i>ezin</i>	1481,16	13
<i>ahal</i>	912,39	0

9. taulan ikusten da helduen corpusean maiztasunik handiena (3906,57) *behar* modalak daukala eta *ahal* modala dela maiztasun txikiena duena (912,39). Haurren ekoizpenari erreparatuta, *behar* modala da erabiliena.

Goazen orain, bada, modalen kopuruak aztertzeraz. Hona hemen 10. taula, emaitzak jasota.

**10. taula.** Modalen kopuruak, lehen agerpenaren adina kontuan hartuta

HAURRAK	ALDAGAIK	MORFEMA MODALAK				
		<i>behar</i>	<i>nahi</i>	<i>ezin</i>	<i>ahal</i>	<i>-ke-</i>
S1	<i>kopurua</i>	23	4	1	0	0
	<i>adina</i>	2;06;24	2;07;07	3;07;22	-	-
S2	<i>kopurua</i>	17	4	2	0	0
	<i>adina</i>	2;06;20	2;10;23	2;06;20	-	-
S3	<i>kopurua</i>	33	22	9	0	0
	<i>adina</i>	3;07;14	3;07;14	3;07;14	-	-
S4	<i>kopurua</i>	24	18	1	0	0
	<i>adina</i>	3;08;09	3;07;11	3;09;06	-	-

10. taula horretan ikusten dugun moduan, haurrek gehien erabili duten modala *behar* (% 62) da. Horren ostean *nahi* (% 30) eta *ezin* (% 8) baliatu dituzte, hirugarrena neurri askoz txikiagoaz. Haur guztiek guk aztertu ditugun bost morfema modaletatik hiru ekoitzi dituzte: *behar*, *nahi* eta *ezin*. Alabaina, ez dute *ahal* ezta *-ke-* erabili. Adin bereko bikoteak aztertuta, S1ek eta S2k modalak ordena desberdinean erabiltzen dituztela ohartu gara, baina biek ekoitzi dute *behar* lehenik. Zaharragoa den bikoteak, S3k eta S4k osatzen dutenak, ordea, bilakaera desberdina du. S3k hiru aditz modalak ekoitzi ditu lehen grabazioan (3:07). S4k, aldiz, *nahi* erabili du grabazio goiztiarrean (3:07), ondoren *behar* (3:08) eta azkenik *ezin* (3:09).

#### 4. Eztabaida

Lan honen bidez, momentura arte egin ez den galdera bati erantzuna eman nahi izan diogu: morfema funtzionalen maiztasunak eta morfema horien lotu/aske izatearen ezaugarriak euskaraz jabetzen ari diren haurren ekoizpena baldintzatzen al dute, beste hizkuntzetan egin diren pertzepzioko ikerketetan ikusi den moduan? Hau da, haurrak lehen morfema funtzionalak ekoizten hasten direnean, haiek dakizkiten guztiak erabiltzen ez dituztenez, baizik eta pixkanaka agertzen direnez, ekoizten dituzten morfemen ordena pertzepzioko azterketetan zehaztutakoaren parekoa al da? Galdera horiek erantzuten saiatzeaz gain, lan honek beste helburu bat ere badu: euskararen jabekuntzaren gainean egindako lanetan lortutako emaitzak guk jasotakoekin alderatzea. Kontuan izan behar dugu euskararen jabekuntzaren gaineko lanak ez direla asko, edo, behintzat, beste hizkuntza batzuei buruzko lanekin alderatuz, urriak direla.

##### 4.1 Maiztasunaren eragina

Aztertu ditugun morfema guztietan ezin izan dugu EHMEren arabera maiztasuna kalkulatu. Adibidez, datu-baseak ez digu kasu gramatikalen maiztasuna kalkulatzeko aukerarik ematen eta, hortaz, ezin izan dugu kategoria horretan maiztasunaren eragina neurtu. Orobat, determinatzaile lo-

tuen maiztasunik ezin izan dugu kalkulatu. Hala ere, aztertu ditugun gainerako kategorietan, alegia, determinatzaile askeetan, izenordainetan, erakusleetan eta aditz modaletan, datu hori lortu egin dugu.

Determinatzaile askeen kasuan, haur guztiek lehen erabiltzen duten determinatzailea *bat* da; hots, EHMEEn (Acha eta beste 2014) maiztasun handiena duena. Gure azterketako bi haurrek *batzuk* determinatzailea erabili dute, nahiz eta hori ez den EHMEren ereduaren arabera maiztasun handiena duena, baizik eta hirugarrena. Hortaz, maiztasunak determinatzaile askeetan hasieran eragina duela esan dezakegu, haur guztiek erabili duten determinatzaile bakarra dagoelako eta guztiek ere hasieratik *bat* baliatu dutelako.

Izenordainei dagokienez, haur guztiek lehen eta gehien ekoitzi dituzten formak 1. pertsonakoak dira, hots, sarrienak. Haur gehienek erabili duten bigarren izenordain mota 2. pertsonakoa da, nahiz eta horren maiztasuna handienetarikoa ez den. Ondoren, 3. pertsonako izenordaina baliatu dute umeez, baina ekoizpen bakarra topatu dugula esan beharra dago. Beraz, izenordainen artean, corpusetako agerpenaren araberako hitzen maiztasunak eragina du hasieran bakarrik, 1. pertsona singularreko formak erabili baitituzte. Horrek lotura izan lezake, beharbada, haurren garapen psikologikoarekin eta mundu-ikuskeraz txikia izatearekin; beren burua eta beren inguruko pertsonak izendatzen hasten dira, beste norbaiti erreferentzia egin aurretik. Gainera, ez da harritzekoa haurren ekoizpena EHMEk erakusten duen ereduarekin guztiz bat ez etortzea, EHMEko corpusa liburuz eta idatzitako prentsez osatuta dagoelako eta horietan erabiltzen diren izenordain gehienak 1. eta 3. pertsonakoak direlako. Bestalde, aipatu beharra dago haurrek baliatu dituzten izenordainen forma gehienak ergatibokoak direla.

Erakusleetara etorrira, gure ikerketako haurrek erabili dituzten erakusleak aztertuta, ikus daiteke haurrok bi urte betetzen dutenerako, 1. eta 2. graduez jabetu direla eta 3. graduko formak beranduago agertzen direla (gutxienez bi urteko umeen kasuan). Hortaz, esan genezake corpusaren agerpenaren araberako maiztasuna eta erakusleen ekoizpena bat datozela neurri batean, EHMEEn maiztasun handiena 2. eta 1. graduko erakusleek baitute.

Azkenik, morfema modalei buruz, esan daiteke haurrek aditz modalak ekoizteko erakutsi duten ordenak, oro har, bat egiten duela EHMEren maiztasun-ereduak islatzen duenarekin; hots, haurrek lehenik EHMEko corpusean maizagoak diren modal askeak ekoizten dituztela: *behar*, *nahi* eta *ezin*. Ezin *-ke-* morfema modalaz gauza bera esan. EHMEren maiztasun handikoa bada ere, guk aztertu dugun haurren corpusean ez da behin ere agertu.

Beste hizkuntzetan egindako ikerketetara itzultzen bagara, gogora ekar dezagun frantsesaz eta ingelesaz jabetzen ari diren haurrek lehenik maiztasun handiko morfema funtzionalak bereganatzen dituztela (Shi eta beste 2006b; Shi eta beste 2006c). Gure ikerketako datuak, oro har, emaitza horiekin bat datozela esan genezake. EHMEren maiztasun-ereduaren arabera ekoiztako morfemak dira determinatzaile askeak, modalak eta, maila apalagoaz, izenordainak eta erakusleak. Hortaz, euskaraz jabetzen ari diren haurren artean ere morfemen maiztasunak eragina du berak ekoizten ari diren lehen morfema funtzionaletan. Nolanahi ere den, gogoan izan behar dugu atal honetan aurkeztutako maiztasun-datuak idatzizko testuez osatutako corpus baten arabera kalkulatu direla. Haurrei zuzendutako helduen hizkeraren corpusik ez dugu lan honetarako aurkitu.

#### 4.2 Morfemak lotuak edo askeak izatearen eragina

Lanaren beste helburu bat da morfemen izaera lotuak edo askeak ekoizten dituzten morfema funtzionalen ordenan duen eragina aztertzea. Lehen esan dugun bezala, euskaraz ez da egin eragin hori neurtzen duen lanik.

Determinatzaile mugatuaren artean, haurrek honako aukera hauek zituzten, singularrean eta pluralean: *-a* edo *bat* eta *-ak* edo *batzuk*. Gainera, partitiboaren kasuan, haur bakar batek (S3) baino ez duela ekoizti ikusi dugu. Haur guztiak gai dira *-a*, *-ak* eta *bat* formak erabiltzeko, baina *batzuk*, bik bakarrik baliatu dute. Hortaz, determinatzaile mugatuaren artean, haurrek lehenik forma lotuak erabiltzen dituzte eta, ondoren, askeak. Modalei dagokienez, gure azterketako haurrek modal askeak soilik erabiltzen dituzte: *behar*, *nahi* eta *ezin*.

Gure azterketako emaitzak frantsesaz jabetzen ari diren haurren azterketarekin (Shi eta beste 2006a) alderatzen baditugu, bi joera nabarmentzen dira: alde batetik, haurrak determinatzaile mugatuak baliatzen dituztenean, lehenik forma lotuak erabiltzen hasten dira eta ondoren askeak, bai singularrean eta bai pluralean ere. Frantseseko morfema funtzional ohikoenak askeak dira, eta horiexek dira haurrek lehen ikasten dituzten morfemak. Euskaraz, berriz, ez da hori gertatzen, determinatzaile mugatu sarriena lotua delako (-a). Hala ere, euskarak determinatzaile mugatu askea ere badu (*bat*), eta horrek zein faktorek duen indar handiagoa aztertzeko aukera ematen digu: morfemak lotuak edo askeak izateak edo maiztasunak. Determinatzaile mugatuen kasuan, maiztasuna da aldagaririk garrantzitsuen. Aditz modalei erreparatzen badiegu, kontrako egoera azaldu zaigu, forma lotua ez zaigulako grabazio bakar batean ere agertu. Alabaina, determinatzaile eta modalen arteko desberdintasunak ere badira. Izan ere, determinatzaile mugatuen kasuan, forma lotua da, antza denez, maiztasunik handiena duena, datu hori EHMEren maiztasun-ereduan berretsi ezin izan dugun arren. Modalen kasuan, aldiz, *-ke-* ez da maiztasun handiena duen morfema modala, hirugarrena baizik. Bere aurretik aditz modal (eta aske) bi daude: *behar* eta *nahi*. Beraz, kasu horretan, bi aldagaiak leudeke *-ke-* morfema lehenetariko morfema modala izatearen kontra, ez baita askea eta ez baita maiztasun handia.

#### 4.3 Beste lanekiko alderaketa

Lanaren hirugarren eta azken helburua da gure emaitzak aurretik gaiaren inguruan egindako lanetan lortutako emaitzekin konparatzea. Hasieran esan dugun bezala, gure ikerketan egindako analisia Vallek eta Alonsok CHILDESen plazaratutako datuetan oinarrituta dago. Haien grabazioen corpusetik lagin bat hartu dugu, aurretik aztertuta ez zeuden alderdiak lantzeko. Atal honetan Barreñaren (1995), Ezeizabarrenaren (1996), Zubiriren (1997) eta Valle eta Alonsoren (2015) emaitzak izango ditugu hizpide. Barreñak, Zubirik eta Valle eta Alonsok guk landutako alderdi gehienak aztertu zituzten, eta Ezeizabarrenak, bere aldetik, aditz morfologia ikertu zuen.

Azter dezagun, lehenik, izenaren morfologia. Gure emaitzetan, kasu gramatikalei dagokienez, hau da gehien errepikatu den ordena: absolutibo singularra, absolutibo plurala, ergatibo singularra eta datibo singularra. Guk aztertutako haur batek ere ez du ergatibo ezta datibo pluralik erabili. Emaitza horiek Barreñak (1995) doktoretza-tesian aztertutako haurren emaitzekin bat datoz, bai eta Zubiriren azterketako umeetako batekin ere. Valle eta Alonsok (2015) egindako azterketan ez zuten xehetasun handirik jaso. Determinatzaileen eremuan, haurrek lehenik forma lotuak erabiltzen dituztela erakutsi dute gure emaitzek, eta, ondoren, askeak. Horrek bat egiten du Barreñak (1995) eta Zubirik (1997) beren ikerketetan eskuraturako emaitzekin. Ezeizabarrenak (1996) eta Valle eta Alonsok (2015), berriz, ez zioten atal horri beren lanetan erreparatu. Partitiboari dagokienez, gure laneko haur bakar batek erabiltzen du 3;07 adinarekin. Kontrara, Zubiriren (1997) laneko haurrak gai dira 2;04-2;10 arteko adinarekin partitiboa erabiltzeko; hots, gure azterketako umeak baino urtebete lehenago, gutxi gorabehera. Izenordainez esan genezake gure laneko haurrek 1. pertsonako izenordainak erabiltzen hasi direla eta 2. pertsonakoak ondoren. Haurretako batek *bera* forma baliatu du. Ildo beretik, Barreñaren (1995) ikerketak antzeko emaitzak erakutsi zituen, lehenik, haren esanetan, 1. pertsonako izenordainak erabiltzen direlako eta geroago, 2. pertsonakoak. Zubiriren (1997) kasuan ere, gure emaitzak berretsi egin dira.

Azkenik, aditz eta morfema modaletan gure ikerketako haurrek erakutsi duten ordena hauxe da: *behar*, *nahi* eta *ezin*. Gainera, haur bakar batek ere ez du *ahal* modala ekoitzi, ezta *-ke-* lotua erabili ere. Orain arte egin diren lanen artean, Valle eta Alonsok (2015) bakarrik aztertu zuten modalen jabekuntza. Dena dela, beste egileek eskura jarri dizkiguten datuetatik ondorio batzuk atera litezke. Barreñak (1995), esate baterako, bestelako ordena aurkitu zuen, bere azterketako umeek lehenik *ezin* eta ondoren *behar* erabili zutelako, hirugarrenik *nahi* eta, azkenik, *ahal* (3;04 urterekin). Ezeizabarrenaren lanean (1995), aldiz, lehenik *ezin* agertu zen, gero *ahal* (3;00 urterekin) eta, azkenik, *behar*. Zubiriren (1997) ikerketan, orokorpenak egitea zaila da, haur bakoitzak ordena desberdin bati jarraitu ziolako. Valle eta Alonsok (2015), beren aldetik, *behar* eta *ezin* modalak 2;06-3;00 adinarekin agertu direla diote, *nahi* baino lehenago, azken hori 3;01-3;06

tartean jaso zutelako. Nolanahi ere, bi urte baino lehenagoko daturik aztertu ez denez, benetan ez dago jakiterik adin hori baino lehenago modalak agertzen ote diren.

## 5. Ondorioak

Azterketa honetan euskaraz jabetzen ari diren lau haur elebakarren hizkuntza-jabekuntza aztertu dugu. Haurrak morfema funtzionalak apurka-apurka erabiltzen hasten dira eta guk morfema horien ordena arakatu nahi izan dugu. Zehazki, ordena horretan bi aldagaik duten eragina edo indarra neurtu dugu; alegia, morfema funtzional bakoitzaren maiztasuna eta morfemak lotuak edo askeak diren. Izan ere, beste hizkuntza batzuetan egin diren zenbait ikerketak haurren pertzepzioan bi faktore horiek eragina dutela erakutsi dute, hots, lehenago jabetzen direla maiztasun handiena duten morfemez eta, horien artean, forma askea dutenez. Guk bi faktore horiek morfema funtzionalen ekoizpenean ere eragiten ote duten aztertu dugu. Gainera, aurretik ikertutako hizkuntzetan ez bezala, euskaraz gehien erabiltzen diren formak ez dira askeak beti, baizik eta lotuak. Orain arte ez da aztertu bi aldagai horiek ekoizpenaren ordenan duten eragina, beraz, lan honek egiten duen ekarpena berritzailea da.

Haurren transkripzioak arakatu ostean, hauexek dira eskuratu ditugun emaitzarik esanguratsuenak:

- Haurrek honako ordena honi jarraitzen diote kasu gramatikalak ekoiztean: 1) absolutibo singularra, 2) absolutibo plurala, 3) ergatibo singularra eta 4) datibo singularra. Emaidza hauek Barreñak (1995) eskuratutakoak berresten dituzte.
- Determinatzaileetan, lehenik forma lotuak erabiltzen dituzte eta, ondoren, askeak. Askeen artean, maiztasun handia duen formarekin hasten dira haur guztiak: *bat*. Barreñaren (1995) eta Zubiriren (1997) azterketetan emaitza berak ikus ditzakegu. Hala ere, horren ostean ez dute maiztasun handiena duen forma erabiltzen (*batek*), *batzuk* baizik. Hortaz, determinatzaileen lehen ekoizpenetan, maiztasunak lehentasuna du morfemen izaera askearen edo lotuaren gainetik. Bestetik,

2 eta 3 urteko umeek partitiboa ekoiztea oso zaila da. Guk aztertutako datuetan 3;07 urterekin agertu da. Haurrek partitiboa aztertutako gainerako determinatzaileak baino beranduago ekoizten dutela erakusten digu horrek.

- Izenordainetan, haurrek lehenik 1. pertsonakoak erabiltzen dituzte eta, ondoren, 2. pertsonakoak. Ordena bera baliatzen dute Barreñaren (1995) eta Zubiriren (1997) ikerketetako haurrek; hortaz, izenordainak ekoizten hasten direnean, umeek ez diote, antza denez, maiztasunari erabat erreparatzen, ekoizten dituzten lehenak usuenak izan arren, ondoren ez diotelako EHMEk erakusten duen ereduari jarraitzen. Beraz, badirudi maiztasunak hasieran eragina duela. Horren arrazoia haurren garapen psikologikoa eta munduaren ikuskera mugatua izan liteke. Alegia, beren ingurura mugatzen direla eta, horregatik, 1. eta 2. pertsonako izenordainak bakarrik erabiltzen dituztela. Kontuan hartu beharra dago, horri dagokionez, euskarazko 3. pertsonako izenordainak erakusleak direla edo erakusleetatik eratorriak direla. Beharbada horrek ere erabileran eragina izan lezake.
- Erakusleei dagokionez, EHMEn maiztasunik handiena duten erakusleak 2. graduak izanagatik ere, gure umeek nagusiki singularreko 1. eta 2. graduak erakusleak lehenago erabili dituzte. Ondoren, 3. graduak eta 2. graduak pluralekoak.
- Modalak aztertuta, hauxe da haurrek erakusten duten ordena: *behar*, *nahi* eta *ezin*. Hortaz, gure laneko haurrek EHMEren maiztasun-ereduarekin bat egiten dute, forma askeen artean sarrienak erabili izan dituztelako lehenik. Nolanahi ere den, haurrek ez dute forma loturik ekoizti, nahiz eta horren maiztasuna hirugarren handiena den EHMEn. Eredu hori ez dugu aurreko ikerketetan ikusi, horiek aldakortasun handia erakusten baitute.
- Gure emaitzak frantsesaz eta ingelesaz jabetzen ari diren haurren emaitzekin (Shi eta beste 2006b; Shi eta beste 2006c) alderatzen baditugu, antzeko joera aurkituko dugu morfemen maiztasunaren arabera ekoizpenari dagokionez. Izan ere, determinatzaile askeetan eta modaletan, badirudi EHMEren maiztasun-eredu bera dutela. Erakusleen kasuan, EHMEn maiztasun handiena duen forma ez da haurrek

gehien erabiltzen dutena. Eta izenordainetan, hasieran eragiten du. Hortaz, euskaraz ere haurrak, oro har, morfema sarrienak ekoizten hasten direla esan genezake.

- Morfemak lotuak/askeak izatearen ezaugarriari dagokionez, haur frantsesak lehenik morfema askeez jabetzen direla ikusi dugu (Shi eta beste 2006a). Euskararen kasuan, bi joera antzeman ditugu: determinatzaile mugatueta, lotuak lehenak dira; modaletan, aldiz, askeak. Emaizta horien atzean dauden arrazoiak izan litezke, beharbada, batetik, determinatzaile lotuek duten maiztasun handia; eta, bestetik, haurrak lehenik determinatzaileez jabetzen direla. Izan ere, modalen jabekuntza beranduago gertatzen da. Halaber, euskara, oro har, morfologikoki konplexuagoa da frantsesa eta ingelesa baino, eta horrek beharbada morfema lotuen jabekuntza erraztu lezake. Nolanahi ere den, modalen kasuan, gure emaitzetan umeek askeak bakarrik erabili dituztela ikusi dugu, hortaz, morfema lotuen lehentasunari ez zaio kategoria guztietan zehar eutsi. Edozein kasutan, lortu ditugun emaitzek agerian jarri dute zein garrantzitsua den tipologikoki desberdinak diren hizkuntzak aztertzea.

Emaizta horiek ikusita, esan dezakegu corpusetako agerpenaren araberrako maiztasunak eta morfemak lotuak edo askeak izateak euskaraz ere, munduko beste hizkuntzetan bezala, eragina dutela haurren lehen morfema funtzionalen ekoizpenean. Nolanahi ere den, etorkizunean gure datuak berresteko, ikerketa gehiago egin beharko liriateke, hautatutako lau umeen artean alde handia ikusi baitugu. Batetik, haurren corpora zabaldu beharko litzateke eta haur gehiagoren hizketa aztertu. Eginkizun hori honelako lan baten zereginetatik harago dago, jakina, baina etorkizunean bide horretatik jarraituz gero, eskuratu ditugun emaitzok berresten ote diren jakin ahal izango genuke. Era berean, gaur egungo haurren mintzaira aztertzea garrantzitsua iruditzen zaigu, egungo euskararen egoera, Leitza eta Goizueta bezalako herrietan, ez delako 1992an zenaren berdina, eta datu eguneratuagoak eskuratuko genituzke.

Bestalde, maiztasunari dagokionez, hurrei zuzendutako hizkeraren corpora aztertzea egokia litzateke. Horrelako corpus bateko hitzen maiztasunei

buruzko informazioa eskuratzea edukiko bagenu, modu zuzenagoan aztertu ahal izango genuke maiztasunak haurren hizkuntza-jabekuntzan duen eragina. Esaterako, haurrei bideratutako hizkeraren corpusa arakatuko bagenu, ziurrenik 1. eta 2. pertsonako izenordain gehiago aurkituko genituzke, 3. pertsonakoak baino, corpusa elkarrizketek osatuko luketelako. Alabaina, guk erabilitako corpusa testu idatziek osatzen dute, non 3. pertsonako izenordainak askoz ugariagoak diren. Jakin badakigu EHMEren corpusa erabili izana gure lanaren mugetako bat izan dela, baina haurrei zuzendutako hizkeraren corpusik gure esku ez zegoen eta eskuragarri izan ditugun baliabideekin jardun dugu.

Labur esanda, haur euskaldunen elebakerren hizkuntza-jabekuntza aztergai duten lan gehiagok aukera emango digute euskararen gaineko ikerketan sakontzeko, aurretik egindako lanetan eskuratutako emaitzak berresteko eta guk aztertu berri ditugun bi aldagaiek morfema funtzionalen jabekuntzari nola eragiten dioten hobeto ulertzeko. Horri lotuta, tipologikoki ezberdinak diren hizkuntzak aztertzea berebizikoa da, hizkuntza-jabekuntzaren prozesua bere osotasunean ulertu nahi badugu.

## Bibliografia

ACHA, Joana, LAKA, Itziar, LANDA, Josu eta SALABURU, Pello (2014). «EHME: a New Word Database for Research in Basque Language», *Spanish Journal of Psychology* 17. <https://doi.org/10.1017/sjp.2014.79>

APALAUZA, Amaia (2008). «Nafarroako ipar-mendebaleko euskara: Imotz, Basaburu Nagusia, Larraun eta Araitz-Betelu», *Fontes Linguae Vasconum* 107: 63-104.

BARREÑA, Andoni (1995). *Gramatikaren jabekuntza-garapena eta haur euskaldunak*. EHU.

EUSKALTZAINDIA (2021). *Euskararen gramatika*. Euskaltzaindia.

EZEIZABARRENA, María José (1996). *Adquisición de la morfología verbal en euskera y castellano por niños bilingües*. EHU.

GERVAIN, Judit, NESPOR, Marina, MAZUKA, Reiko, HORIE, Ryota eta MEHLER, Jacques (2008). «Bootstrapping Word Order in Prelexical Infants: A Japanese-Italian Cross-Linguistic Study», *Cognitive Psychology* 57 (1): 56-74.

HALLÉ, Pierre A., DURAND, Catherine eta DE BOYSSON-BARDIES, Barbara (2008). «Do 11-Month-Old French Infants Process Articles?», *Language and Speech* 51 (1-2): 23-44.

HUALDE, José Ignacio eta ORTIZ DE URBINA, Jon (2003). *A grammar of Basque*. Mouton de Gruyter.

LARRAÑAGA, Maria Pilar (1994). «Kasuen bilakaera euskaraz eta gaztelaniaz», in J. Meisel (arg.), *La adquisición del vasco y del castellano en niños bilingües*. Iberoamericana: 113-150.

LEITZAKO UDALA (d.g.). *Euskara Leitzan*. Leitzako Udala. <https://www.leitza.eus/es/euskara-leitzan>

MAC WHINNEY, Brian (2000). «The CHILDES Project: Tools for Analyzing Talk» (third edition). (Volume I: Transcription format and programs; Volume II: The database). *Computational Linguistics* 26 (4): 1-117.

MARQUIS, Alexandra eta SHI, Rushen (2012). «Initial morphological learning in preverbal infants», *Cognition* 122: 61-66. <https://doi.org/10.1016/j.cognition.2011.07.004>

MINTZ, Toben (2004). «Morphological segmentation in 15-month-old infants», in A. Brugos, L. Micciulaa, eta C.E. Smith (arg.), *Proceedings of the 28th Annual Boston University Conference on Language Development 2*. Cascadilla Press: 363-374.

MINTZ, Toben (2013). «The segmentation of sub-lexical morphemes in English-learning 15-month-olds», *Frontiers in psychology* 4, 24: 1-12.

ORTIZ DE URBINA, Jon (1989). *Parameters in the grammar of Basque: a GB approach to Basque syntax*. Foris.

SANTELMANN, Lynn eta JUSCZYK, Peter W. (1998). «Sensitivity to discontinuous dependencies in language learners: evidence for limitations in processing space», *Cognition* 69 (2): 105-134.

SHI, Rushen (2014). «Functional Morphemes and Early Language Acquisition», *Child Development Perspectives* 8 (1): 6-11.

SHI, Rushen, CUTLER, Anne, WERKER, Janet eta CRUICKSHANK, Marisa (2006a). «Frequency and form as determinants of functor sensitivity in English-acquiring infants», *The Journal of the Acoustical Society of America* 119 (6): 61-67.

SHI, Rushen, MARQUIS, Alexandra eta GAUTHIER, Bruno (2006b). «Segmentation and representation of function words in preverbal French-learning infants», in *Proceedings of the 30th annual Boston University Conference on Language Development*: 549-560.

SHI, Rushen, WERKER, Janet eta CUTLER, Anne (2006c). «Recognition and Representation of Function Words in English-Learning Infants», *Infancy* 10 (2): 187-198.

SHI, Rushen eta LEPAGE, Mélanie (2008). «The effect of functional morphemes on word segmentation in preverbal infants», *Developmental Science* 11 (3): 407-413.

TRASK, Robert Lawrence (1998). «The typological position of Basque: then and now», *Language Sciences* 20 (3): 313-324.

VALLE, Roberto Soto eta ALONSO, Gerardo Aguado (2015). «Apuntes sobre la adquisición de la morfosintaxis del euskera en niños de 2 y medio a 5 años», *Revista de Logopedia, Foniatría y Audiología* 35 (1): 30-49.

ZUBIRI, Juan José (1997). *Izen sintagmaren determinazioaren eta kasuen jabekuntza eta garapena hiru urte arte*. (Goizuetako bi haur euskaldun elebakarren jarraipena). EHU.

ZUBIRI, Juan José eta PERURENA, Patziku (1998). *Goizuetako Aranoko hizkerak*. Nafarroako Gobernu.

# Hizkera Akademikoaren Oinarriko Treibetasunak: definitzeko eta ezaugarriak ulertzeko marko teoriko bat<sup>1</sup>

Habilidades Fundamentales del Lenguaje Académico:  
Un marco teórico para su definición y caracterización

Compétences fondamentales du langage académique :  
Cadre théorique pour leur définition et caractérisation

Core Academic Language Skills: A Theoretical  
Framework for Defining and Characterizing Their  
Features

GASPAR, Artzai  
Nafarroako Unibertsitate Publikoa (NUP)  
artzai.gaspar@unavarra.es  
ORCID: <https://orcid.org/0000-0001-5507-6983>  
DOI: <https://doi.org/10.59866/eia.v2026i71.330>

Jasotze-data: 2025/05/23

Behin-behineko onartze-data: 2026/02/02

Behin betiko onartze-data: 2026/03/16

---

<sup>1</sup> Lan honek Espainiako Gobernuako Zientziaren, Berrikuntzaren eta Unibertsitateen Ministerioaren dirulaguntza jaso du [Laguntza kodea: FPU19/00414].

Lan honek hizkera akademikoari buruzko berrikusketa bibliografiko bat eskaintzen du, Hizkera Akademikoaren Oinarritzko Trebetasunak (CALS) proposamen teorikoan oinarriturik. 44 ikerlan aztertuz, hizkera akademikoaren definizioa, ezaugarri linguistiko eta kognitiboak, idazmen- eta irakurmen-gaitasunekiko loturak eta balio soziala aztertzen dira. Gainera, oinarri teoriko sendoa eskaini ez ezik, ikerlanak ikuspegi linguistiko, pedagogiko eta sozialetatik inplikazio eta ondorio esanguratsuak ere aurkezten ditu.

**Gako-hitzak:** hizkera akademikoa, CALS, idazmen-gaitasuna, irakurmen-gaitasuna, balio soziala, didaktika.

Este trabajo presenta una revisión bibliográfica sobre el lenguaje académico, centrada en la propuesta teórica Habilidades Fundamentales del Lenguaje Académico (CALS). Se revisan 44 trabajos de investigación y se analizan definiciones clave, características lingüísticas y cognitivas, su relación con la lectoescritura, así como su valor social y educativo. La revisión ofrece una base teórica sólida y plantea implicaciones pedagógicas desde perspectivas lingüísticas, cognitivas y socioculturales.

**Palabras clave:** lenguaje académico, CALS, competencia escrita, competencia lectora, valor social, didáctica.

Cette étude propose une revue de 44 travaux sur la langue académique, centrée sur le cadre théorique Compétences fondamentales du langage académique (CALS). Elle examine ses définitions, caractéristiques linguistiques et cognitives, liens avec la lecture et l'écriture, ainsi que sa valeur sociale et éducative. L'analyse souligne les implications pédagogiques issues de perspectives linguistiques, cognitives et socioculturelles.

**Mots-clés :** langage académique, CALS, compétence écrite, compétence en lecture, valeur sociale, didactique.

This study offers a bibliographic review of academic language with a focus on the Core Academic Language Skills (CALS) framework. A total of 44 research studies are reviewed, encompassing both theoretical and empirical contributions from diverse disciplinary and cultural contexts. It examines key definitions, linguistic and cognitive features, links to writing and reading skills, and its broader social and educational value. The review provides a comprehensive theoretical foundation and outlines pedagogical implications from linguistic, cognitive, and sociocultural perspectives.

**Keywords:** Academic language, CALS, writing competence, reading competence, social value, didactics.

GASPAR, Artzai (2026). «Core Academic Language Skills: A Theoretical Framework for Defining and Characterizing Their Features», *Euskera Ikerketa Aldizkaria* 71 (1): 81-116.

1. Sarrera
  2. Metodologia
    - 2.1 Helburuak eta ikerketa-galderak
    - 2.2 Literatura berrikusteko metodoa
      - 2.2.1 Arakatutako datu-baseak eta biltegiak
      - 2.2.2 Hautatutako materialaren tipologia
      - 2.2.3 Literatura berrikusteko prozedurak
  3. Hizkera akademikoari buruzko marko teorikoa
    - 3.1 Hizkera akademikoaren definizioa
    - 3.2 Hizkera Akademikoaren Oinarrizko Trebetasunak: CALS proposamena
    - 3.3 Hizkera akademikoa eta idazmena
    - 3.4 Hizkera akademikoa eta irakurriaren ulermena
    - 3.5 Hizkera akademikoaren balio soziala eta irakaskuntza
  4. Eztabaida
  5. Ikerlanaren mugak eta etorkizunari begirako zenbait urrats
- Bibliografia

## 1. Sarrera

Ikasleak, normalean, aurrez aurreko komunikaziorako prestatzen dira familian sozializatuz, alabaina, eskola-testuinguruan izaten dituzten interakzioak oso ezberdinak izan ohi dira. Ikasleek komunikazio arruntean maila ona izanagatik ere, zaila gerta dakieke eskolan hizkera akademikoa garatzea (Cummins 2008). Uccellik eta Menesesek (2015), esaterako, baieztatzen dute eskolan hizkera akademikoa dela testuen ulermena oztopatzen duen faktore garrantzitsuenetariko bat. Modu berean, Menesesek *et al.*ek (2017) azaltzen dute gaur egungo nerabeek ez dutela hizkera akademikoa behar bezain ongi menderatzen.

Gizartean, ordea, hizkuntzaren erregistro akademikoa menderatzea ezinbestekotzat hartzen da. Izan ere, hari esker hiztunak argudiatzeko eta testu konplexuak ulertzeko gaitasuna izango du eta komunikazio teknika menderatuko du, eta hori beharrezkoa da, besteak beste, osasun sistemarako, politikarako eta informaziorako sarbidea bermatzeko, goi-mailako ikasketak egin ahal izateko eta lan-aukera hobeak izateko (Deignan 2022; Meneses *et al.* 2017).

Hori horrela, artikulu honetan hizkera akademikoaren gaineko berrikusketak bibliografiko bat egin nahi da. Izan ere, hainbat autorek (ikus, adibidez, Aguilar, Uccelli eta Phillips Galloway 2020) argudiatu izan dute hizkera akademikoa, funtsezkoa izateagatik, tradizionalki oso modu mugatuan definitu izan dela, barne hartzen dituen elementu eta inplikazio linguistiko, pedagogiko eta sozial andana alboratuz.

Muga horren aurrean, jarraian, hizkera akademikoa definitu eta ezaugarritu nahi da, eta, besteak beste, Core Academic Language Skills (CALs) proposamen teorikoan (Hizkera Akademikoaren Oinarritzko Trebetasunak; aurrerantzean, CALs) jarriko da arreta (Uccelli *et al.* 2015). Proposamen teoriko horrek hizkera akademikoa definitzeko eta ezaugarritzeko marko osatu bat eskaintzen du, osagai linguistiko eta kognitiboei erreparatuz eta hizkera akademikoa irakasteko zenbait oinarri finkatuz. Halaber, ikerketa honetan hizkera akademikoaren, idazmenaren, irakurmenaren eta hizkeramota horrek daukan balio sozialaren arteko loturak ikertuko dira.

## 2. Metodologia

Jarraian, ikerlan honen alderdi metodologikoak azalduko dira: helburuak, ikerketa-galderak, eta berrikusketa bibliografikoa osatzeko erabili diren prozedurak.

### 2.1 Helburuak eta ikerketa-galderak

Lan honen helburu orokorra hizkera akademikoari buruzko berrikusketa bibliografiko bat gauzatzea da, bereziki Core Academic Language Skills (CALS) proposamen teorikoan arreta jarriz (Uccelli *et al.* 2015). Hizkera akademikoa, elementu linguistiko bat izateaz gain, hezkuntza-arrakastarako giltzarria ere bada. Izan ere, nabarmen eragiten du ikasleen idazmen- eta irakurmen-gaitasunetan, baita aukeren berdintasunean ere, hizkera horri esleitzen zaion balio sozialaren ondorioz.

Testuinguru horretan, berrikusketa honek azken urteotan hizkera akademikoaren eta CALS proposamenaren inguruan garatu diren ikerketa garrantzitsuen azterketa teorikoa eskaini nahi du, baita hizkera akademikoaren eta irakurmen- zein idazmen-gaitasunen arteko harremanak aztertu ere. Era berean, hizkera akademikoari esleitzen zaion balio sozial eta hezitzailea azpimarratu nahi da, hizkera-mota horrek hezkuntza-aukeretan izan ditzakeen inplikazioekin batera. Modu horretan, hizkera akademikoaren definizio eta azalpen osoagoa eskaintzea da helburua, ikuspegi linguistiko, pedagogiko eta sozialak uztartuz. Hori esanda, hauek dira lan honen helburu espezifikoak:

1. Hizkera akademikoa definitzea, ezaugarritzea eta dauzkan inplikazio didaktikoak aztertzea. Era berean, hizkera akademikoaren motak deskribatzea.
2. Hizkera akademikoari buruzko CALS proposamen teorikoa aurkeztea, barne biltzen dituen elementu eta trebetasun kognitiboak aztertzea, eta horiek neurtzeko zenbait oinarri berrikustea.

3. Hizkera akademikoaren eta idazmenaren eta irakurmenaren arteko erlazioak aztertzea, CALS proposamen teorikoan oinarrituz.
4. Hizkera akademikoaren balio sozialaren eta irakaskuntzaren arteko erlazioak berrikustea.

Horiek horrela, hona hemen ikerlan hau gidatzen duten ikerketa-galdera eta azpigalderak:

— IG1: Zer da hizkera akademikoa eta zer-nolako ezaugarriak ditu?

- Zertan datza hizkera akademikoari buruzko CALS proposamen teorikoa?
- CALS proposamena aintzat hartuz, zer-nolako erlazioa dago hizkera akademikoaren, eta idazmen- eta irakurmen-gaitasunen artean?
- Zer-nolakoa da hizkera akademikoari esleitzen zaion balio soziala, eta zer eragin du horrek ikasleengan?

## 2.2 Literatura berrikusteko metodoa

Hizkera akademikoaren, CALSen eta irakurriaren ulermenaren arteko harremani dagokionez, oso antzeko ondorioak atera daitezke. Idazmenean bezala, hizkera akademikoaren eta CALSen ezagutza zuzenean lotua egon daiteke irakurriaren ulermenarekin (Aguilar, Uccelli eta Phillips Galloway 2020; Meneses *et al.* 2017; Phillips Galloway *et al.* 2020a; Phillips Galloway eta Uccelli 2019). Gaitasun hori garatzeko ere, beraz, komenigarria litzateke hizkera akademikoaren didaktikak zazpi trebetasun horiek kontuan izatea: ikasleak zazpi trebetasun horietan trebatuta (adibidez, testu akademikoak antolatzea, hiztegi metalinguistikoa ulertzea edo hiztegi akademikoa identifikatzea) irakurmen-gaitasun altuagoak lortzen dira. Kontuan izanda ikerketek ohartarazten dutela ulermen-arazoak eragiten dituzten faktore garrantzitsuenetariko bat hizkera akademikoan gaitasunik ez izatea dela, CALS proposamenak erantzun sendoa ematen dio problematika horri (Uccelli eta Meneses 2015).

Halaber, ikerketek argi adierazten dute hizkera akademikoa ez dela linguistikoki defini daitekeen elementu-multzo soil bat (Deignan 2022). Ikuspegi pedagogikotik, hizkera akademikoa testuinguru soziokultural batean garatzen den praktika bat da, hezkuntzan eta gizartean arrakasta izateko funtsezko elementua. Ondorioz, hizkera akademikoari esleitzen zaion balio sozialari eta horrek dauzkan inplikazioei erreparatzea ezinbestekoa da.

Aipatuenez, izan kapital kulturalagatik, izan klase sozialagatik, zenbait ikaslek zailtasunak izan ditzakete hizkera akademikoa eskuratzeko. Kontuan izanik klase ertain-altuko ikasleek erraztasun handiagoa dutela hizkera-mota hori garatzeko, ezinbestekoa da irakasleek hizkera akademikoa behar bezala irakastea eta ikasle guztiek eskuratzen dutela bermatzea. Horretarako, ikasle guztiek hizkera akademikoa oso-osoan gara dezaten, CALSei arreta berezia eskaintzea irtenbide eraginkorra izan daiteke, izan ere, definizio eta planteamendu osatua eskaintzen du, hein handi batean ikasleen hezkuntza-arrakastarako oinarriak zehaztu ditzakeena. Uccellik (2023) ohartarazten duenez, didaktika hori modu estrategikokoan planifikatu behar da, didaktika egokia bideratzeko, ikasleen arteko arrakalak saihesteko eta aukera-berdintasuna bermatzeko. Ikuspegi sozial hori zein planifikazio horiek bermatu ezean, eskolatik kanpo kapital kultural handiena duten ikasleek soilik garatu ahaliko dute hizkuntza oso-osoan. Hortaz, klase ertain-altuko ikasleek arrakasta izateko aukera gehiago izango dituzte. Ondoriozta daiteke, beraz, CALS proposamenak aukeren berdintasuna bermatzeko eta ikasle guztiek hizkera akademikoa osotasunean garatzeko marko interesgarria eskain dezakeela, idazmenaren eta irakurmenaren didaktika egokiago planteatzen lagundu dezakeena.

Azkenik, CALSen proposamenak euskararen didaktikari egiten dion ekarpena eztabaidatzea funtsezkoa da. Lehenago aipatuenez, CALSetan biltzen diren trebetasunak oso erabilgarriak izan daitezke euskararen didaktikarako, besteak beste, Euskal Herrian zehazten diren helburu, eduki eta gaitasun kurrikularrak bat datozeelako zazpi trebetasun horiekin. Aldiz, onartu beharra dago oraindik ere ikertzeke dagoela zazpi CALS horiek nola bideratu beharko lirartekeen euskararen irakaskuntzan. Euskarak berezko ezaugarri linguistiko eta soziolinguistikoak ditu, eta, beraz, hori abiapuntu hartuta aztertu beharko litzateke zazpi trebetasun horiek nahikoak diren,

euskararen kasuan guztiak baliagarriak eta aplikagarriak diren, eta, oro har, zein indargune eta ahulgune dituzten. Zentzu horretan, nazioarteko literatura zientifikotik datorkigun proposamen honek ortzi-muga pedagogiko interesgarria eskaintzen du, baina gure testuinguruak berezkoak dauzkan ezaugarrirei ere erreparatu beharko zaie aplikagarritasun praktiko zehatzagoak definitzeko. Leoneten, Lucasen eta Lamarkaren (2025) eta Gasparren (2025) ikerketek, esaterako, CALSak Bigarren Hezkuntzan aplikatzeko zenbait proposamen egiten dituzte eta efektu positiboak azpimarratzen dituzte. Hala ere, ikerketa horiek gure testuinguruan gauzatu diren bakarretarikoak dira, eta, ondorioz, analisi gehiago egin beharko lirateke CALSen aplikagarritasuna aztertzeko.

## 5. Ikerlanaren mugak eta etorkizunari begirako zenbait urrats

Ikerlanaren mugei dagokienez, kontuan izan behar da berrikusketa bibliografiko honetarako lagin mugatu bat bildu eta hautatu dela. Osaturiko marko teorikoa eta ateratako ondorioak, hortaz, zehaztapen hori aintzat hartuz ulertu behar dira. Zentzu horretan, beharrezkoa da berrikusketa gehigarriak egitea, beste testuinguru batzuetan egindako ikerketak aztertzea eta, era berean, adin-tarteei erreparatzen dieten ikerlanak hautatzea.

Azkenik, kontuan hartuta ikergai hau etengabe garatzen eta ikertzen ari dela eta, ondorioz, egunetik egunera aurrerapenak egiten direla eta ondorio berriak ateratzen direla, berriki argitaratu diren eta argitaratzear dauden ikerlanei ere erreparatu beharko zaie. Horrekin batera, berrikusketa honetan, batik bat, artikulu zientifiko eta liburuak hautatu dira. Baliteke bestelako euskarrietan aurrerapen interesgarriak topatzea, hala nola doktorego-tesietan edo nazioarteko konferentzien aktetan. Ikerlan honetan lan horiek ez dira aintzat hartu, baina etorkizunari begira lanok markoa nabarmen aberastu dezakete, datu enpiriko gehigarriak eskainiz.

## Bibliografia

AGUILAR, Gladys, UCCELLI, Paola eta PHILLIPS GALLOWAY, Emily (2020). «Toward biliteracy: Unpacking the contribution of mid-adolescent dual language learners' Spanish and English academic language skills to English reading comprehension», *Tesol Quarterly* 54 (4): 1010-1036. <https://doi.org/10.1002/tesq.570>

ANDREEV, Linda eta UCCELLI, Paola (2023). «The secret life of connectives: A taxonomy to study individual differences in mid-adolescents' use of connectives in writing to persuade», *Reading and Writing* 37: 1-32. <https://doi.org/10.1007/s11145-023-10425-3>

BAILEY, Alison L. (2007). *The language demands of school: Putting academic English to the test*. Yale University Press.

BERMAN, Ruth A. eta NIR-SAGIV, Bracha (2007). «Comparing narrative and expository text construction across adolescence: A developmental paradox», *Discourse Processes* 43 (2): 79-120. <https://doi.org/10.1080/01638530709336894>

BIBER, Douglas eta CONRAD, Susan (2009). *Register, genre, and style*. Cambridge University Press.

BIBER, Douglas, CONRAD, Susan eta REPPEN, Randi (1998). *Corpus linguistics: Investigating language structure and use*. Cambridge University Press. <https://doi.org/10.1017/CBO9780511804489>

CAIN, Kate eta OAKHILL, Jane (2006). «Profiles of children with specific reading comprehension difficulties», *British Journal of Educational Psychology* 76 (4): 683-696. <https://doi.org/10.1348/000709905x67610>

CUETOS, Fernando eta RAMOS, José Luis (1997). *Batería de evaluación de los procesos lectores en el alumnado del tercer ciclo de Educación Primaria y Educación Secundaria Obligatoria (PROLEC-SE)*. TEA Ediciones.

CUMMINS, Jim (2008). «BICS and CALP: Empirical and theoretical status of the distinction», in N. Hornberger (arg.), *Encyclopedia of language and education*. Springer: 487-499. [https://doi.org/10.1007/978-0-387-30424-3\\_36](https://doi.org/10.1007/978-0-387-30424-3_36)

CUMMINS, Jim (2016). «Reflections on Cummins (1980), "The Cross-lingual dimensions of language proficiency: Implications for bilingual education and the

optimal age issue.”», *TESOL Quarterly* 50: 940-944. <https://doi.org/10.1002/tesq.339>

DEIGNAN, Alice (2022). «Academic language and the school transition», in A. Deignan, D. Candarli eta F. Oxley, *The Linguistic Challenge of the Transition to Secondary School*. Routledge: 24-51. <https://doi.org/10.4324/9781003081890-2>

DENG, Ziyun, UCCELLI, Paola eta SNOW, Catherine (2022). «Diversity of Advanced Sentence Structures (DASS) in writing predicts argumentative writing quality and receptive academic language skills of fifth-to-eighth grade students», *Assessing Writing* 53: 1-13. <https://doi.org/10.1016/j.asw.2022.100649>

GARCÍA, J. Ricardo, SÁNCHEZ, Emilio, CAIN, Kate eta MONTOYA, Juan Manuel (2019). «Cross-sectional study of the contribution of rhetorical competence to children’s expository texts comprehension between third- and sixth-grade», *Learning and Individual Differences* 71: 31-42. <https://doi.org/10.1016/j.lindif.2019.03.005>

GARCÍA, J. Ricardo, BUSTOS, Andrea eta SÁNCHEZ, Emilio (2015). «The contribution of knowledge about anaphors, organizational signals and refutations to reading comprehension», *Journal of Research in Reading* 38: 405-427. <https://doi.org/10.1111/1467-9817.1221>

GASPAR, Artzai (2024). «Kontzientzia metalinguistikoa eta eleaniztasuna: berrikusketa bibliografiko bat», *Fontes Linguae Vasconum* 138: 649-676. <https://doi.org/10.35462/flv138.9>

GASPAR, Artzai (2025). «Developing metalinguistic awareness through pedagogical translanguaging: an introspective study in the Basque Country», *International Journal of Multilingualism*: 1-23. <https://doi.org/10.1080/14790718.2025.2600538>

HALLIDAY, Michael (2004). *Collected works of M.A.K. Halliday*. Vol. 5, *The language of science*. Continuum.

HYLAND, Ken eta TSE, Polly (2004). «Meta-discourse in academic writing: A reappraisal», *Applied Linguistics* 25 (2): 156-177. <https://doi.org/10.1093/applin/25.2.156>

JO, Claire W. (2021). «Exploring general versus academic English proficiency as predictors of adolescent EFL essay writing», *Written Communication* 38 (2): 208-246. <https://doi.org/10.1177/0741088320986364>

JORRÍN ABELLÁN, Iván M., FONTANA ABAD, Mónica eta RUBIA AVI, Bartolomé (2021). *Investigar en educación*. Editorial Síntesis.

LABOV, William (1969). *A study of non-standard English*. National Council of Teachers of English.

LEONET, Oihana, LUCAS, Olatz eta LAMARKA, Ane (2025). «Bigarren Hezkuntzan eskola-hizkuntza garatzeko diziplinarteko diseinu bat: kasu-azterketa bat», *Fontes Linguae Vasconum* 140: 405-432. <https://doi.org/10.35462/flv140.6>

MENESES, Alejandra, UCCELLI, Paola, SANTELICES, María Veronica, RUIZ, Marcela, ACEVEDO, Daniela eta FIGUEROA, Javiera (2017). «Academic language as a predictor of reading comprehension in monolingual Spanish-speaking readers: Evidence from Chilean early adolescents», *Reading Research Quarterly* 53 (2): 223-247. <https://doi.org/10.1002/rrq.192>

MILLER, Diane M., SCOTT, Chillys E. eta MCTIGUE, Erin M. (2018). «Writing in the Secondary-Level disciplines: A systematic review of context, cognition, and content», *Educational Psychology Review* 30 (1): 83-120. <https://doi.org/10.1007/s10648-016-9393-z>

MIZUNO, Jorge eta MOSS, Gillian (2009). «La ecología: Una noticia de moda. El registro periodístico y la transitividad en un texto de ciencias naturales», in M. Shiro, P. Bentivoglio eta F.D. Erlich (arg.), *Haciendo discurso: Homenaje a Adriana Bolívar*. Chirimi: 647-660.

NAGY, William, BERNINGER, Virginia W. eta ABBOTT, Robert D. (2006). «Contributions of morphology beyond phonology to literacy outcomes of upper elementary and middle-school students», *Journal of Educational Psychology* 98 (1): 134-147. <https://doi.org/10.1037/0022-0663.98.1.134>

NAVARRO, Juan José eta RODRÍGUEZ, Isabel (2011). *Prueba de evaluación de la conciencia sintáctica* (CS-ORD). (Eskuizkribu argitaragabea).

NAVARRO, Juan José eta RODRÍGUEZ, Isabel (2014). «Evaluación de la conciencia sintáctica: Efectos de la verosimilitud en la resolución de tareas y en su relación con la comprensión de oraciones», *Revista Signos* 47 (84): 64-90. <https://doi.org/10.4067/S0718-09342014000100004>

PHILLIPS GALLOWAY, Emily eta UCCELLI, Paola (2019). «Examining developmental relations between core academic language skills and reading

comprehension for English learners and their peers», *Journal of Educational Psychology* 111 (1): 15-31. <https://doi.org/10.1037/edu0000276>

PHILLIPS GALLOWAY, Emily, QIN, Wenjuan, UCCELLI, Paola eta BARR, Cristopher D. (2020a). «The role of cross-disciplinary academic language skills in disciplinary, source-based writing: Investigating the role of core academic language skills in science summarization for middle grade writers», *Reading and Writing* 33 (1): 13-44. <https://doi.org/10.1007/s11145-019-09942-x>

PHILLIPS GALLOWAY, Emily, UCCELLI, Paola, AGUILAR, Gladys eta BARR, Cristopher D. (2020b). «Exploring the cross-linguistic contribution of Spanish and English academic language skills to English text comprehension for middle-grade dual language learners», *Sage Journals* 6 (1): 1-20. <https://doi.org/10.1177/2332858419892575>

RAMOS, José Luis eta CUETOS, Fernando (2011). *Evaluación de los procesos lectores: PROLEC-SE manual*. TEA Ediciones.

RAVITCH, Sharon M. eta RIGGAN, Matthew (2017). *Reason & rigor: How conceptual frameworks guide research*. Sage Publications.

SÁNCHEZ, Emilio eta GARCÍA, J. Ricardo (2009). «The relation of knowledge of textual integration devices to expository text comprehension under different assessment conditions», *Reading and Writing* 22 (9): 1081-1108. <https://doi.org/10.1007/s11145-008-9145-7>

SCHLEPPGREGELL, Mary J. (2001). «Linguistic features of the language of schooling», *Linguistics and Education* 12 (4): 431-459. [https://doi-org.ehu.idm.oclc.org/10.1016/S0898-5898\(01\)00073-0](https://doi-org.ehu.idm.oclc.org/10.1016/S0898-5898(01)00073-0)

SCHLEPPGREGELL, Mary J. (2004). *The language of schooling: A functional linguistics perspective*. Routledge.

SCHLEPPGREGELL, Mary J. (2014). «Purposeful grammar», *For the learning of Mathematics* 34 (2): 44-45.

SILVERMAN, Rebeca D., COKER, David, PROCTOR, C. Patrick, HARRING, Jeffrey, PIANTEDOSI, Kelly W. eta HARTRANFT, Anna M. (2015). «The relationship between language skills and writing outcomes for linguistically diverse students in Upper Elementary School», *The Elementary School Journal* 116 (1): 103-125. <https://doi.org/10.1086/683135>

SNOW, Catherine eta UCCELLI, Paola (2009). «The challenge of academic language», in D.R. Olson eta N. Torrance (arg.), *The Cambridge handbook of literacy*. Cambridge University Press: 112-133.

UCCELLI, Paola (2023). «The language demands of analytical reading and writing at school», *Written Communication* 40 (2): 518-554. <https://doi.org/10.1177/07410883221148727>

UCCELLI, Paola eta MENESES, Alejandra (2015). «Habilidades de lenguaje académico y su asociación con la comprensión de lectura en la escuela primaria y media: Un nuevo constructo operacional», *Miríada Hispánica* 10: 179-206.

UCCELLI, Paola eta PHILLIPS GALLOWAY, Emily (2017). «Academic language across content areas: Lessons from an innovative assessment and from students' reflections about language», *Journal of Adolescent & Adult Literacy* 60 (4): 395-404. <https://doi.org/10.1002/jaal.553>

UCCELLI, Paola, BARR, Christopher D. eta PHILLIPS GALLOWAY, Emily (2016). *Core Academic Language Skills Instrument (CALs-I)*. [https://admin.jet.org.za/clearinghouse/projects/printed/resources/language-and-literacy-resources-repository/uccelli\\_2016\\_ies\\_cals\\_report-1.pdf](https://admin.jet.org.za/clearinghouse/projects/printed/resources/language-and-literacy-resources-repository/uccelli_2016_ies_cals_report-1.pdf)

UCCELLI, Paola, BARR, Christopher D, DOBBS, Christina L, PHILLIPS GALLOWAY, Emily, MENESES, Alejandra eta SÁNCHEZ, Emilio (2015). «Core academic language skills: An expanded operational construct and a novel instrument to chart school-relevant language proficiency in preadolescent and adolescent learners», *Applied Psycholinguistics* 36 (5): 1077-1109. <https://doi.org/10.1017/s014271641400006x>

UCCELLI, Paola, PHILLIPS GALLOWAY, Emily, AGUILAR, Gladys eta ALLEN, Melanie (2020). «Amplifying and affirming students' voices through CALs-informed instruction», *Theory into Practice* 59 (1): 75-88. <https://doi.org/10.1080/00405841.2019.1665413>

VENEGAS, René (2010). «Multi-dimensional analysis of an academic corpus in Spanish», in G. Parodi (arg.), *Academic and professional discourse genres in Spanish*. John Benjamins: 101-119.

# Nokaren erabileraren ikerketa Goizuetan

Investigación sobre el uso del registro informal  
femenino en Goizueta

Recherche sur l'utilisation du registre informelle  
femenine au Goizueta

Research on the use of female informal address form in  
Goizueta

LUJANBIO BEGIRISTAIN, Oihana

Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU), Euskal Hizkuntza eta Komunikazioa Saila

oihana.lujanbio@ehu.eus

ORCID: 0000-0002-0867-7177

DOI: <https://doi.org/10.59866/eia.v2026i71.331>

Jasotze-data: 2025/05/29

Behin-behineko onartze-data: 2026/01/21

Behin betiko onartze-data: 2026/03/30

Goizuetako nokaren erabilera berreskuratzeko moduak aztertzea du helburu nagusi ikerketa honek, ikerketa-ekintza parte-hartzailea metodologian oinarrituta. Horretarako, noka ikasi eta praktikatzeko saio batzuk antolatu dira 19 parte-hartzaileekin. Bertan, bi ikuspegitatik aztertu da nokaren erabilera. Alde batetik, soziolinguistikaren ikuspegitik, emakume horiek nokaren ezagutzan eta erabileran dituzten abiapuntu desberdinak eta izan duten bilakaera aztertu da. Beste alde batetik, genero-ikuspegitik, parte-hartzaileek nokari buruzko hausnarketak egin dituzte, nokaren egoeran eta egoera hori eragin duten arrazoietan sakonduz. Ondorio nagusia izan da noka-saioek parte-hartzaileen erabileran eragiteko balio izan dutela, eta ikasteko eta erabiltzen jarraitzeko gogoia dutela.

**Gako-hitzak:** euskara informala, hika, noka, hizkuntza-tratamendua, soziolinguistika.

El objetivo principal de este estudio es analizar cómo se puede recuperar el uso de la forma femenina del lenguaje informal (*noka*) en Goizueta, basándose en la metodología

investigación-acción participativa. Para ello, se han organizado unas sesiones para aprender y practicar *noka*, que han contado con 19 participantes. Se ha analizado su uso desde dos puntos de vista. Por un lado, desde el punto de vista sociolingüístico, se han analizado los diferentes puntos de partida y la evolución de las participantes en el conocimiento y el uso de este tratamiento lingüístico. Por otro lado, desde el punto de vista de género, las participantes han reflexionado sobre la cuestión, ahondando en la situación y en las razones que existen para ello. Se ha constatado que las sesiones han servido para fomentar el uso de *noka* entre las participantes y que tienen ganas de seguir aprendiéndolo y utilizándolo.

**Palabras clave:** euskera informal, euskera, *hika*, *noka*, tratamiento lingüístico, sociolingüística.

L'objectif principal de cette étude est d'analyser les moyens de récupérer l'utilisation de la forme féminine du langage informel (*noka*) à Goizueta, en se basant sur la méthodologie recherche-action participative. Pour ce faire, des sessions d'apprentissage et de pratique du *noka* ont été organisées avec 19 participants. Son utilisation a été analysée sous deux angles. D'une part, du point de vue sociolinguistique, les différents points de départ et l'évolution des participants dans la connaissance et l'utilisation de ce traitement linguistique ont été analysés. D'autre part, du point de vue de genre, les participants ont réfléchi à la question, en approfondissant la situation et les raisons qui y sont liées. La conclusion principale a été que les sessions de *noka* ont influencé l'utilisation des participants et qu'elles ont envie de continuer à l'apprendre et à l'utiliser.

**Mots-clés:** basque informelle, *hika*, *noka*, traitement linguistique, sociolinguistique.

The main objective of this study is to analyze the ways to recover the Basque informal address form *hika*, based on the participative action-research methodology. In this context, a workshop to revitalise the female form *noka* has also been organized in Goizueta, which have had 19 participants. In this research, the use of *noka* has been analyzed from two points of view. On the one hand, from the sociolinguistic point of view, the impact of this workshop was analyzed regarding the different starting points and the evolution of these women in the knowledge and use of this linguistic treatment. On the other hand, from the gender point of view, the participants have reflected on *noka*. The main conclusion has been that the *noka* sessions have served to influence its use on participants and that they are eager to continue learning and using it.

**Keywords:** informal Basque, *hika*, *noka*, address form, sociolinguistics.

LUJANBIO BEGIRISTAIN, Oihana (2026) «Research on the use of female informal address form in Goizueta», *Euskera Ikerketa Aldizkaria* 71 (1): 117-166.

1. Sarrera
2. Aurrekariak
  - 2.1 *Hizkuntza hautuen eta generoaren arteko gurutzaketa arnasguneetan jardunaldia*
  - 2.2 Beste ikerketa batzuk
3. Helburuak
  - 3.1 Noka-saioterako taldea osatzea eta hiztunen erabilera behatzea
  - 3.2 Goizuetan hika zabaltzeko bideak aztertzea
  - 3.3 Nokaren erabileraren gainean hausnartzea
4. Metodologia
  - 4.1 Metodo kualitatibo eta kuantitatiboak
  - 4.2 Ikerketa-ekintza parte-hartzailea
  - 4.3 Noka-saioak
5. Emaitzak
  - 5.1 Parte-hartzaileek nokaren erabileran egin dituzten aldaketak
  - 5.2 Goizuetan hika zabaltzeko bideak
  - 5.3 Nokaren erabileraren gaineko hausnarketak
6. Ondorioak

#### Bibliografia

#### Eranskinak

1. galdetegia (Diagnosia)
2. galdetegia (Hikaren erabilera)
3. galdetegia (Nokaren erabilera)
4. galdetegia (Ikastaroaren balorazioa)

## 1. Sarrera

Goizueta euskararen arnasguneetako bat da, euskara bertakoen mingain eta bihotzean lasai bizi da. Emakumezkoen lagunarteko erabilerak ez dauka osasun bera, ordea. Hika hitz egiteko euskara ongi ezagutzea oinarrizko baldintzat hartu ohi da; horregatik ez da erabiltzen euskararen ezagutza apaleko eremu soziolinguistikoetan. Euskararen ezagutza altua den eremuetan, berriz, herri askotan toka mantendu den arren, noka ez da erabiltzen<sup>1</sup>. Ikerketa honetan, Goizuetan noka berreskuratzen hasteko lehen pausoak ematea izan da helburu. Horretaz gain, genero ikuspegitik begiratura, hainbat hausnarketa egin dira, nokaren galeraren arrazoietan sakonduz.

Beti espero izan da emakumea txukuna, egokia, otzana, esanekoa... izatea. Exijentzia edo eskakizun gehiago ditu alderdi guztietan, baita hizkuntzan ere. Herritarrek hori zenbateraino identifikatzen duten aztertu da ikerketa honetan eta, behin horretaz ohartuta, helburua da lagunarteko hizkera erabiltzeko hautua egiteko oinarri gehiago izatea. Noka aritzean «zerbette gaizki itten aiko bazina bezela» sentitu ordez, gurea ere baden hitz egiteko modu gisa landu da saioetan, eta praktikatzeko espazioa, tresnak eta oinarriak eskaini dira.

## 2. Aurrekariak

Hainbat euskal herritan hasiak dira hika eta, bereziki, noka berreskuratzeke lanean. Herri horietan egindakoaz gain eta askoren abiapuntu, Oñatiko esperientzia dugu. Ibilbide oparoa egin dute bertan eta han egindako lanketa oso aintzakotzat hartu da lan honetan ere<sup>2</sup>. Hitanoa eta, batez ere, noka biziberritzeko sortu zen *Ingo xonau!* proiektua, 2019an, Oñatin. Noka galtzen ari zen han ere: hiztun gazteenek 50 urte inguru zituzten.

---

<sup>1</sup> Toka gizonezkoei zuzentzean erabiltzen den forma alokutiboa da, eta noka emakumezkoei zuzentzean erabiltzen dena.

<sup>2</sup> Eskerrak ematen dizkiot lerrootatik Euskaltzaindiko Mintzola egitasmoari ikerketa hau aurrera eramateko emandako sariagatik. Horretaz gain, Larraitz Zubeldia Arruabarrena ere eskertu nahi dut, lan hau hobetzeko egindako zuzenketa eta ohar egokiengatik.

Desagertu aurretik, herritar taldetxo bat bildu zen eta berreskuratzen saiatzea erabaki zuen. Badiharduguk gidatzen duen proiektua eredugarri da gainerakoentzat eta *Ahotsak.eus* webgunean dago ikusgai, gaiaren gainean sortutako dokumentalarekin batera. Horretaz gain, hitanoaren erabileran eragiteko hainbat bide jorratu dira, hikalaguna, hikako adizkien bildumak eta hika-ikastaroak tartean.

Proiektua abiatzeko, ikerketa-diagnosi bat egin zuten, eta emaitza garrantzitsuenen artean ikusi zen parte-hartzaileen aurreko belaunaldian jada emakumeek gutxi erabiltzen zutela noka; transmisiorik eza lehenagotik heldu da, beraz, eta hori da Euskal Herriko beste herrietan ere ikusten dena. Goizuetan, behintzat, hala zioten bertakoek elkarrizketak egin zitzaizkie-nean (Lujanbio 2016: 101):

Hitanoaren erabilerari dagokionez, genero eta adinaren arabera aldeak ikusi ditugu. Eta ez gazteen artean bakarrik; badirudi lehenagotik heldu den kontua dela. Adineko emakumeen artean, seitik bakar batek esan digu lagunekin eta seme-alabekin askotan erabiltzen duela [...]. Gainerako emakumeek ez dute normalean erabiltzen eta, erabiltzen dutenetan, oso gertukoekin egiten dute. Erabiltzen duenetako batek lagunekin eta ahizpekin erabiltzen omen du, baina haserretzean bakarrik. Adineko gizonezkoek esan digutenaren arabera, beraiek adineko emakumezkoek baino gehiago erabiltzen dute hika: lagunekin adineko gizonezko guztiek erabiltzen dute. Gazteen artean, espero genuen egoera topatu dugu: mutilek askoz gehiago erabiltzen dute hika nesken aldean [...]. Mutilek emakumezkoekin normalean erabiltzen ez badute ere, anaiekin, edo mutilak diren lagunekin beti erabiltzen dute.

Goizuetaren ondoan dagoen Leitzan ere egin dituzte hainbat ekimen hikaren inguruan. Alde batetik, Joana Saralegik (2021) Leitzako egoeraren azterketa bat egin zuen 2021eko ekainean, whatsapp bidez galdeketa bat zabalduz. Bestetik, Fernando Oartzunek (2022) Leitzako hika formak bildu ditu, bereziki, emakumezkoek zuzentzeko erabiltzen diren adizkiak jaso eta zabaltzeko.

Saralegiren ikerketako erantzunak 16-74 urte bitarteko herritarrenak dira eta, emaitzen arabera, euskara erabiltzen den herria izan arren, hika

% 31k erabiltzen du askotan, eta % 21ek batzuetan. Generoaren arabera alderaketa eginda, argi ikusten da aldea: «hiketan inoiz egiten ez dutenen kasuan, 73 emakumeak dira, 7 gizonak eta generoa zehaztu ez duen bat. Askotan egiten dutenen artean, berriz, bakarra da emakumea eta 30 gizonezkoak dira» (Saralegi 2021: 44-45). Leitzan ere beste leku euskaldunetan topatzen den errealitatea dugu.

Egoera hori irauli nahian, zortzi saioko ikastaro bat antolatu zuten Oiartzunek eta Ima Zestauk 2023ko udazkenean, irail-abendu bitartean. Ikastaro horretan parte hartuta, han ikasitakoak baliatu dira Goizuetako saioak antolatzean; bai metodologiari dagokionez, baita ikastaroaren balorazioan bildutakoei dagokienez ere. Izan ere, galdetegi bat pasatu zitzaizen parte-hartzaileei ikastaroaren bukaeran, eta erantzun haietatik ateratako ondorioak kontuan hartu dira Goizuetako ikerketa martxan jartzean. Erantzun horien artean aipatzen zen hika praktikatzeko saio gehiago behar direla; hain zuzen, horretan aritu ziren Oiartzun eta Zestau 2024-2025 ikasturtean ere.

Hemen azaldutakoez gain, jardunaldi batetik ere ekarpen ugari jaso da ikerketa hau egiteko garaian. Jarraian azalduko dira handik jasotakoak.

### **2.1 *Hizkuntza hautuen eta generoaren arteko gurutzaketa arnasguneetan jardunaldia***

UEUk, 2023ko uztailean, *Hizkuntza hautuen eta generoaren arteko gurutzaketa arnasguneetan* jardunaldia antolatu zuen Tolosan. Bertan parte hartu zuten hainbat hizlariren hausnarketek jarri dute ikerketa honetarako oinarria, besteak beste. Jarraian, bertan plazaratutako ideia interesgarri batzuk bilduko dira.

Lorea Agirrerren esanetan, antropologia linguistikoaren ikuspegitik, hizkuntza ez da komunikazio-tresna hutsa. Hizkuntza, gizartearen isla izateaz gain (gizarte- eta botere-harremanak hizkuntzaren bidez adierazten dira), gizartea aldatzeko tresna ere izan daiteke. Gizartearen antolatze- eta ulertze-sistema hizkuntzan islatzen dela gaineratu zuen, adibide gisa, Ipar Amerikako navajo eta txerokien artean bost sexu-generoko gizarteak

daudela azalduz. Ideia horretatik abiatuta, Goizuetan aurrera eraman den ikerketaren helburuetako bat izan da noka ikasiz eta praktikatuz gizartean aldaketa bat eragitea: hizkuntza-praktika berdinzaleago bat gauzatzea.

Idurre Eskisabelek lan teorikoak praktikara ekartzen hasteko garaia dela azpimarratu zuen, «ideiak lurrera, gorputzetara ekartzekoa». Eta horri ondokoa gaineratu zion: «feminismoak guregan eraldaketa eskatzen du eta hori zailagoa da besteari aldatzeko eskatzea baino». Ideia hori ekartzen da hona, norbere hizkuntza-praktiketan berriz ere noka erabiltzen hastea zaila dela ohartzen garelako. Izan ere, gure hitz egiteko modua aldatzea eskatzen du eta, lehenik, ikastea. Zailtasun horri bide ematea izan du helburu Goizuetako ikerketak, noka-saioak antolatuta, ikasteko eta praktikatzeko aukera izateko.

Onintza Legorbururen arabera, emakumea ahalduntzeko prozesuan koka daiteke nokarako mudantza (2018: 134-135). Genero-sistemak emakumeak hikatik ateratzen ditu, eta espazioa berriz hartzeko tresna gisa erabil daiteke noka berreskuratzea. Espazioari esanahi berria ematea ekar dezake noka berriz erabiltzeko. Goizuetako ikerketan, noka-saioek ahalduntzean eraginik duten aztertu nahi izan da.

Hiru hizlari horien hitzetatik ateratako ez gain, ideia interesgarriok azpimarratu eta ekartzen dira aipatutako jardunalditik:

- Arnasguneen zaintza. Arnasguneak bizigarri egitea da erronka, gutzientzat bizigarri. Hizkuntza- eta genero-praktikak elkarrekin despatriarkalizatzeko beharra eta aukera dago. Herri txikien biztanleen gorabeherak aztertzean, ikusten da emakume gehiago atera ohi direla herri txikietatik kanpora. Horren arrazoietakoa bat bertan lan egiteko aukera gutxiago egotea izan daiteke, eta baita bertan lasai (eta aske) bizitzeko ezintasuna ere.
- Euskara askatasunarekin lotzen dugu euskaldunok? Hikak eman dezake askatasun-sentsazio hori, aisiarako arnas gisa formulatuta, adibidez? Azken batean, hika da hizkera informala, emakumeari kendu zaiona edo berak alde batera utzi duena. Egoera lasai eta arduragabean erabiltzekoa, emakumeak bizi-fase batzuetan (amatasunean, adibidez) oso gutxitan izaten duen egoera.

- Hitanoak emakume hiztunak galdu ditu: hitanoa ez da ezkontzen feminitatearekin. «Señorita» bat izateko ez dugu noka erabiliko, zuka edo erdara baizik.
- Toka anaitasuna praktikatzeko bidea bada, ahizpatasuna indartzeko noka?
- Interseksionalitatea da bidea (*taliban* eta *feminazi* deitzen digute aho- tsa goratzen dugunean): identitatetik justizia sozialera; euskalgintza- tik feminismora.

Egiteko hori interesgarria izanda ere, inguruko emakumezko lagunei hika hitz egiten hastea proposatzean jasotako erantzunetan ez da ikasteko grina- rik adierazten; beste egiteko bat bailitzan hartzen dute orain noka ikasten hastea. «Aurretik beste lehentasun batzuk ditut», esan dit euskaltzale femi- nista batek baino gehiagok, hasperen eginez. Aisiarekin eta lagun-giroare- kin lotuta ikastea proposatuta ere, argi ikusten da denbora eskatzen duela, aurrena, ikasteak. Leku askotako emakumeok ez dugu «modu naturalean» jaso, toka-erabiltzaileek bezala, eta esfortzu bat egin behar da, hasieran, ikasteko.

## 2.2 Beste ikerketa batzuk

Hemen aurkezten den ikerketari ekiteko, jardunaldiko hizlarien lan eta ideiez gain, Euskal Herrian hikaren gainean egin diren hainbat lan aztertu dira (Alberdi 1994, Bereziartua eta Muguruza 2018 eta 2020; Iantzi 2023; Jaunarena 2024; Legorburu 2018 eta 2021; Lizartza 2009, Muguruza, Be- reziartua eta Etxeberria 2020; Oiartzun 2022, Saralegi 2021), abiapuntu egokia izateko asmoz.

Horiez gain, bi lan azpimarratu nahi nituzke, Goizuetan egindakoarekiko duten paralelismoengatik. Alde batetik, Amorrortu, Goirigolzarri eta Orte- gak (2021) egindako ekintza-ikerketa parte-hartzailea dago, *Bilbo Handiko unibertsitate-ikasleen mudantza-prozesuak* izenekoa. Bertan gazteen euskara- erabilera areagotzeari begira egin duten planteamendua oso parekagarria da ikerketa honetan egin denarekin. Ikertzaile horiek egindako galderak oso baliagarriak dira hika bultzatu nahi dutenentzat ere (2021: 12): «Zelan bizi

dute Bilbo inguruko euskaldun gazteek aktibazio-nahia? Posiblea da Bilbo moduko testuinguruan mudantza-prozesu bat gauzatzea? Zelan sortu daitezke baldintzak Bilbokoaren moduko testuinguru erdaldunean gazteek euskararen aldeko eraldaketa egin dezaten?».

Galdera horiek gurera ekarrita, hauxe galdetuko genuke:

- Nola bizi dute Goizuetako emakumeek noka hitz egiteko aktibazio-nahia? Eta gizonezkoek?
- Posible da testuinguru horretan mudantza-prozesu bat egitea?
- Nola sortu daitezke baldintzak Goizuetan bezalako testuinguru euskaldunean noka erabiltzearen aldeko eraldaketa aktibatzeke?

Paralelismoa eginda, argi ikusten da alde nabarmena dagoela bi eremuetako euskalduntasun-mailari dagokionez. Era berean, ezagutza mailan ere desberdintasuna dago: Bilboko ikerketan parte-hartzaileek euskaraz komunikatzeko nahikoa gaitasun baduten arren, Goizuetan nokaren ezagutza ez dago bermatua parte-hartzaileen artean.

Bide beretik, *EquiLing* egitasmoari aipamena egingo zaio hemen, ikerketa honen ezaugarriekin guztiz bat egiten baitu. *EquiLing* egitasmoak «kontzientzia linguistiko kritikoa eta hiztunen agentzia: berdintasun soziolinguistikorako ekintza-ikerketa» gisa definitzen du bere burua. Ikerketa-ekintza parte-hartzailea da hori ere, gazteekin egina, hika edo nokarako mudantza egiteari begira dituen antzekotasunengatik kontuan hartu beharrekoa.

*EquiLing* ikerketa-proiektuak ikerketa soziolinguistikoaren bitartez hizkuntzek gizarteko parekotasunik ezak nola sortzen, mantentzen eta erreproduzitzen dituzten ulertu eta prozesu horietan eragin nahi du. Proiektuak bi helburu ditu: alde batetik, hizkuntzak gizarteko parekotasunik ezen eraikuntzan duen rola ezagutza sakona izatea eta, bestetik, hiztunek eta soziolinguistek eraikuntza hori bideratzen duten prozesuak nola alda ditzaketen aztertzea. Interesgarriak dira, era berean, biltzen dituen kontzeptuak, hala nola kontzientzia linguistiko kritikoa, hiztunen agentzia, ideologia linguistikoaren araberrako hiztun-ereduak, subjektibitatea eta herritartasun linguistikoaren, betiere norabide honetan: praktika linguistikoaren aldibereko

existentzia harmoniatsua sustatzea, eta hiztunek beren buruekiko eta besteekiko errespetua eta berdintasunezko ordena soziolinguistiko inklusiboagoa gauzatzea.

### 3. Helburuak

Atal honetan, Goizuetan egindako ikerketaren hiru helburu nagusiak azalduko dira, horietan lortzea aurreikusten zena zehaztuz.

#### 3.1 Noka-saioetarako taldea osatzea eta hiztunen erabilera behatzea

Hasteko, noka berreskuratzeko interesa dutenekin taldea osatzea eta noka praktikatzea izan da egin beharrekoa. Saio horien bidez, trebakuntza hasi zenetik hiztunek erabilerari dagokionean izandako bilakaera behatu da. Helburu honi dagokionez, noka-saioetako partaideek erabileran hobekuntza izatea aurreikusi da eta, saioetan zenbat eta parte-hartze aktiboagoa eta jarraituagoa izan, erabileran emaitza hobeak izatea espero izan da.

#### 3.2 Goizuetan hika zabaltzeko bideak aztertzea

Behin taldea osatuta, Goizuetan hika zabaltzeko bide egokienak zein diren aztertu nahi izan da. Horretarako, aurretik egina dagoena baliatu da: alde batetik, Zubiri eta Perurenaren (1998) *Goizuetan eta Aranoko hizkerak* liburuan bilduta dauden hika-formak hartu dira abiapuntutzat. Horretaz gain, Oñatiko eta gainerako herrietako esperientziak aztertu dira. Bide horretatik argitaratu zen Goizuetako *Xapo* aldizkarian bertako oinarritzko hika adizkien taula (Oñatiko esperientzian eta Goizuetako aldizkarian ere «txuleta» deitutakoa), eta hori ere baliatu da noka-saioetan.

Helburu hau betetzeko, saioetako partaideek hikarekiko ikusten dituzten beharrak bildu eta horien araberrako lehentasunak jarri dira. Horrekin lotuta, beste herrietan hika-formak zabaltzeko egindakoak aztertzea eta gurera gehien egokitzen direnak aukeratzea izan da zeregina. Ikerketa honek iraun

duen denboran ez dugu aukerarik izan material berria sortzeko, baina bai beharrak identifikatu eta lehentasunak jartzeko.

### 3.3 Nokaren erabileraren gainean hausnartzea

Hirugarrenik, Goizuetan noka zergatik ez den ia erabiltzen aztertzea izan da helburu. Talde horretan hausnartu da zergatik galdu den hika emakumezkoen artean, gizonetzkoen artean hain osasuntsu egonda. Hausnarketa hori Euskal Herriko gainerako testuingurua aintzat hartuta egin da. Era berean, arreta jarri da Goizuetan noka mantendu duten hiztun-taldeetan, jardunbide egokiak biltzeko asmoz.

Goizuetan noka zergatik ez den erabiltzen aztertzean, hipotesia da emakumeen artean hika erabiltzea okerrago ikusia egon dela. Hori dela eta, uler daiteke emakumezkoen artean hikaren erabilera galdu izana, gizonetzkoen artean osasuntsu egonda. Euskal Herriko gainerako inguruetan topatzen diren antzeko egoera eta arrazoiak aurkitzea espero da hemen ere. Horretaz gain, noka mantendu dutenak baserritarrak eta adinekoak izatea aurreikusi da.

## 4. Metodologia

Aurreko puntuan azaldutako helburuak lantzeko erabili den metodologiaren ezaugarrien berri emanen da jarraian.

### 4.1 Metodo kualitatibo eta kuantitatiboak

Esan bezala, Goizuetako hika zabaltzeko eta noka berreskuratzean interesa dutenekin noka praktikatzeko, dagoeneko beste herrietan egindako esperientziak baliaitu dira. Leitza, Oiartzun eta Oñatiko saioen berri jaso da, bereziki, eta baita hango irakasleen laguntza ere<sup>3</sup>. Esperientzia honetan,

---

<sup>3</sup> Bihozkie hemendik nire eskerrik beroenak.

noka praktikatu dutenen eboluzioa behatu da; horretarako, saioen aurretik eta ondoren parte-hartzaileek noka zenbat erabiltzen duten aztertu da galdetegi bidez (ikus eranskinetan 1. eta 4. galdetegiak), eta hor kokatzen da metodo honen alde kuantitatiboa. Helburua izan da irailetik abendura bitartean egindako saioen ondorioz hiztunen erabileran alderik egon den ikustea, eta aldaketa eragin duten gakoak identifikatzea.

Horretaz gain, metodo kualitatiboa izan da nagusi. Esaterako, Goizuetan noka zergatik ez den erabiltzen aztertzeko, behaketa zuzena erabili da (Juaristi 2003: 195-215; Zarraga eta beste 2010: 310), hikako ikastaroan parte hartzen dutenen iritziak eta bizipenak jasoz. Izan ere, behaketa zuzenaren bidez, beste teknikekin baino gutxiago eragiten da pertsonengan; ikertzaileak gutxiago baldintzatzen ditu aztertu nahi diren portaera eta adierazpenak, eta horrek datu hobeak lortzen laguntzen du.

Behatzailea lau modutan ager daiteke behatuen aurrean: 1) behatzailea ezezaguna da ikertzen ari den taldearentzat, eta era naturalean parte hartzen du behaketa egiten duen bitartean, 2) behatzailea ezezaguna da taldearentzat, eta era artifizialean parte hartzen du (asmatutako rol edo paper bat betez), 3) behatzailea ezaguna da, eta ez du taldean edo ikertzen ari den egoeran parte hartzen (kanpotik behatzen du), 4) behatzailea talde batean integratzen da eta ezaguna da (Juaristi 2003: 207-209). Aukerarik onena ezaguna den behatzailearena da, 4. modua, alegia, eta modu horretan egin da lan ikerketa honetan, taldean integratutako behatzaile ezaguna izanez.

Horrekin batera, eztabaida-taldea metodologia ere erabili da, gai batzuk sakonago aztertzeko. Teknika horren azken helburuak honako hauek dira (Hernández 2010: 308): alde batetik, gai baten arlo garrantzitsuenak eza-gutzea eta, bestetik, gai horren gainean taldekideek izan ditzaketen ikuspuntuak ikertzea eta sor daitezkeen adostasun eta desadostasunak aztertzea. Helburu horiek bete ahal izateko, moderatzailearen lana oso garrantzitsua da, bere eginkizun nagusia taldekideen artean eztabaida eta iritzi-trukea ahalbidetuko duen giroa sortzea baita.

Eztabaida-taldea oso teknika egokia da gertakari edo gai baten gainean egon daitezkeen iritzi eta ikuspuntu ezberdinak ezagutu ahal izateko (Hernández 2010: 309). Kasu batzuetan, ordea, iritzi bat nagusitzen zela eta

denek ez zutela iritzia ematen ikusita, galdetegiak ere erabili dira metodologia osatzeko: bi galdetegi eman zaizkie banaka betetzeko (ikus 2. eta 3. eranskinak). Galdetegi horietan, hainbat gai landu dira, aurrekarien atalean aipatutakoak, adibidez. Horietako batzuek pentsatzeko denbora eskatzen zuten eta galdetegiak horretarako aukera ematen dute.

Galdetegiak, behaketa zuzena eta eztabaida-taldea metodoak erabili dira, beraz. Horien bidez eraldaketa eragitea izan da helburu, eta metodo horiek esku-hartze baten bidez eraman dira aurrera. Hori guztia barnebiltzen du ikerketa-ekintza parte-hartzaileak; ikerketa egiteaz gain, gizartean aldaketak eragiteko ikerketa-modu interesgarria da metodologia hori, eta horregatik dago lan honen hezur-muinean.

#### 4.2 Ikerketa-ekintza parte-hartzailea

Azkenaldian hainbat ikerketatan erabili izan den metodoa da ikerketa-ekintza parte-hartzailea izendatutakoa (ingelesez *Participatory Action Research* edo PAR). Ikerketa-ekintza parte-hartzaileak hiru osagai nagusi ditu (Colmenares 2012: 109), eta Goizuetako ikerketan hiru osagai horiek bete-betean daude:

- Ikerketa-prozedura sistematiko, kontrolatu eta kritiko bat da, helburu praktikoa zehatz batekin errealitatearen alderdiren baten gainean gogoetatzea eta hori aztertzea helburu duena.
- Ekintza ez da ikerketaren azken helburua bakarrik; izan ere, ekintza bera ezagutza-iturri da, eta, aldi berean, esku hartzeko modu bat.
- Parte-hartzaileak esan nahi du prozesuan, ikertzaile profesionalekin batera, proiektuaren hartzaile den komunitateak ere parte hartzen duela. Komunitate hori ez da ikerketa-objektu soiltzat hartzen, baizik eta bere errealitatea ezagutu eta eraldatzen laguntzen duen subjektu aktibotzat.

Colmenaresek (2012: 106-107) aipatzen dituen helburuak ere partekatzen ditu gure lanak:

Las metas de la investigación-acción son: mejorar y/o transformar la práctica social y/o educativa, a la vez que procurar una mejor comprensión de dicha práctica, articular de manera permanente la investigación, la acción y la formación; acercarse a la realidad vinculando el cambio y el conocimiento. Asimismo, los actores sociales se convierten en investigadores activos, participando en la identificación de las necesidades o los potenciales problemas por investigar, en la recolección de información, en la toma de decisiones, en los procesos de reflexión y acción. En cuanto a los procedimientos, se comparten discusiones focalizadas, observaciones participantes, foros, talleres, mesas de discusión, entre otros.

Goizuetako ikerketan nokaren erabilera eraldatu nahi izan dugu, erabilera horren azpian dagoena ulertuz, aldi berean. Ikerketaz gain, formazioa (nokako adizkiak landu dira) eta ekintza (noka praktikatu dugu, ikasgelan eta tabernan) uztartu ditugu. Horrela, ikertzailearekin batera, hausnarketen bidelagun izan dira noka-saioetako parte-hartzaileak. Noka gehiago erabiltzeko beharrak identifikatu ditugu elkarrekin, eta informazioa elkarrekin bildu dugu: zein dira noka erabiltzen duten emakumeak? Ondoren egin beharrekoen artean ere beren iritzia kontuan hartu da: nola zabaldu behar lirateke hikako formak, ahalik eta jende gehienak erabil ditzan?

Aurreko lerroetan esandakotik ondorio gisa ateratzen da ikerketa-ekintza parte-hartzaileak beste ikuspegi metodologikoetatik bereizten duten ezaugarri oso bereziak dituela, eta ezaugarri horiek, hain zuzen, gizartea eraldatzeko bideragarriago eta egokiago egiten dutela.

Soziolinguistika Klusterraren ikerketa batean ere metodologia hori erabili da. Autoreen esanetan (Goikoetxea eta beste 2015: 157), metodologia horren lehentasuna errealitatean esku hartzea da. Zentzu horretan, ikertzailea aldaketa-eragile bihurtzen da prozesuan zehar. Horretaz gain, azpimarragarria da ikerketa parte-hartzaile horretako partaideen harremanean datzala gakoa, eta konektibitate-mailan dagoela bere potentzialtasuna. Ikerketa-prozesuak berak sortzen ditu sare berriak, eta ardura soziala da ikerketarako motibazioa. Ezaugarri horrek gure ikerketa-proiektuan egin denarekin bat egiten du.

Metodologiaren azalpenaren atalarekin amaitzeko, hurrengo puntuari, esku-hartze hori egiteko baliatu diren saioen berri emanen da, ikerketaren oinarri ezinbesteko izan dira eta.

### 4.3 Noka-saioak

Erronka izan da ikerketa aurrera eramateko noka-saioak antolatzea eta bertan parte hartu nahi zuen taldea biltzea; hori gabe ezin izango zatekeen ikerketa egin. Lehen zeregina saioak prestatzea izan da. Zazpi saio antolatu dira, helburu bikoitzarekin: noka praktikatzea eta nokaren gaineko hausnarketak egitea. Prestatutakoak hainbat kontraste pasatu ditu, lehenengoa, herriko *Zirhikatu* taldeko kideekin eta euskara teknikariarekin egindako bileran. Bileraren helburuak izan ziren aurretik herrian hikaren gainean egindakoa ezagutzeko, ikerketa honen asmoen berri ematea eta haien ekarpenak jasotzeko aukera izatea. Beraien iritzia jaso nahi zen eta baita saioetan parte hartzeko prestutasunaren berri izan ere. Goizuetako *Zirhikatu* taldearekin asmoak elkarbanatu eta beren harrera ona jaso ondoren, saioak prestatu eta zabaltzeari ekin zitzaion.

#### — Zabalpena eta parte-hartzea

Bi euskarri erabili ziren zabalpena egiteko: batetik, herriko berrien whatsapp-taldean deialdia egiteko kartela eta, bestetik, bideo bat. Aurretik 2022ko azaroan Euskaraldia zela-eta *Zirhikatu* taldekoek egun baterako saio bat antolatu zuten; Goizuetako hika mantendu eta berreskuratzeko helburuarekin saio horretara joateko deia egin zieten bideo baten bitartez herri-tarrei. Jende askok eman zuten izena, 50 lagunetik goiti. Noka-saioak esperientzia harekin lotzea eta berriz ere bideo bat grabatzea proposatu zuten taldekideek, aurrekoarekin lotuta, jendea izena ematera animatzeko.

Esan bezala, zazpi saio izanik, konpromiso handiagoa eskatzen zuten oraingoak eta, gainera, «noka-saio» bezala izendatzearekin, ematen du emakumeei zuzendutako ikastarotzat hartu zuela jendeak. 19 pertsonak eman zuten izena, denak emakumeak. Adin-tartea 26 urtetik 74 bitartekoa izan zen: 25-40 urte bitarteko sei lagun, 41-55 bitarteko bost, eta 56-75

bitarteko zortzi. Saioak ostegunetan egin ziren, 18:30etik 20:00etara, Goizuetako udaletxeko ganbaran.

Oso talde parte-hartzailea izan zen; saio guztietara denak etorri ez baziren ere, saioetan izugarriko inplikazioa eta parte-hartzea egon zen. Parte-hartzaileen profilarri begiratu, herrian ekintza eta proiektu desberdinetan dabiltzanak direla nabarmena da, emakume parte-hartzaileak eta eredu-garriak hainbat ikuspegitatik.

### 1. irudia. Sare sozialen bidez egindako deialdia



Noka-saioetarako egin zen bideoa whatsapppe zabaldu zen soilik. 2022ko Euskaraldirako prestatu zuten bideoa, berriz, *Erran.eus*-en dago ikusgai (Zirihikatu, Goizuetako Euskaraldiko lantaldea 2022).

#### — Saioen edukiak

Irailetik abendura bitarteko saioetan hika eta, bereziki, nokako formak lantzearekin batera, hausnarketak egin dira. Batzuetan, trebatze-ariketetan bertan txertatu dira hausnarketak. Ondorengo taulak biltzen ditu saioetako

eduki nagusiak (noka-saioei buruzko informazio xeheagorako, ikus Lujanbio 2025):

**1. taula.** Noka-saioen eduki nagusiak

Saioak	Edukiak
<b>1. saioa</b> Irailak 19	AURKEZPENA: saioen helburuak eta metodoa, elkar ezagutzea. PRAKTIKA: orainaldiko aditzak, oinarrizko esaldi batzuk. 1. GALDETEGIA: hiztunen hasierako ezagutza eta erabilera aztertzeke, inkesta pasatu.
<b>2. saioa</b> Urriak 3	TEORIA ETA PRAKTIKA: hikaren historia, orainaldiko aditzak eta elkarrizketa. HAUSNARKETAK: 1) Jardunbide egokien bilketa: zein emakume ezagutzen dituzue? Zergatik egiten dute noka? Zein ezaugarri dituzte noka mantendu dutenek? 2) Zergatik galdu da hika eta, bereziki, noka?
<b>3. saioa</b> Urriak 17	TEORIA ETA PRAKTIKA: hikako eta alokutiboko formen erabilera egokiaz. HAUSNARKETAK: 2. GALDETEGIA
<b>4. saioa</b> Urriak 31	TEORIA ETA PRAKTIKA: lehenaldiko aditzak, erabilera kalean (pintxo-potea). HAUSNARKETAK: zein material, baliabide da egokia Goizuetan hika zabaltzeko?
<b>5. saioa</b> Azaroak 14	TEORIA ETA PRAKTIKA: hikako eta alokutiboko formen erabilera egokiaz.
<b>6. saioa</b> Azaroak 28	PRAKTIKA
<b>7. saioa</b> Abenduak 12	PRAKTIKA BALORAZIO-GALDETEGIA: hiztunen erabilera-aldea aztertzeke, inkesta pasatu.

Bi asteko tartea egon dira saio batetik bestera eta, giroa ez hozteko, saioetan landutakoa praktikatzeko ariketatxoak edo galderak bidali dira whatsapp taldearen bidez; saiokideek bereziki eskertu dute. Adizkien

taulak eta aurkezpenetako powerpointak partekatzearekin batera, ariketa praktikoren bat bidali zaie.

## 5. Emaitzak

Emaitzei dagokien atalak hiru zati ditu: alde batetik, nokaren erabileraren gainean jasotako emaitzak azalduko dira; lehen atal hori ikerketaren 1. helburuari dagokio. Beste alde batetik, Goizuetan hika-formak zabaltzeko bideak aztertu dira, 2. helburuarekin lotuta. Azkenik, nokaren erabileraren gainean noka-saioetako parte-hartzaileekin egindako hausnarketak dira mintzagai; zati horrek ikerketaren 3. helburuari erantzuten dio. Emaitzen atal hau ikerketako hiru helburuen arabera antolatu da, beraz.

### 5.1 Parte-hartzaileek nokaren erabileran egin dituzten aldaketak

Noka-saioetarako taldea osatzea eta hiztunen erabilera behatzea zen lehen helburua eta, esan bezala, 19 emakume taldea elkartu da. Taldea osatuta, alde batetik, parte-hartzaileen profilaraz hausnartu da: zergatik ez dute izena eman 26 urte baino gazteagoek? Eta gizona? Hor hutsune bat dago, izan ere, mutilek ere noka ikastea behar dugu, haiek emakumeekin (eta noka zuzentzea nahiko lukeen edozeinekin) noka hitz egin ahal izateko. Beste alde batetik, noka lantzeari begira, hausnartu da emakumez bakarrik osatutako taldeak erraztu egin duela ikasketa, noka-formetan zentratzea ahalbidetu baitu egoerak.

Saiokideek nokaren erabilerari dagokionean egin duten aldaketa aztertzeko, saioen hasieran eta bukaeran galdetegi bana bete dute (ikus 1. eta 4. eranskinak). Aurreneko galdetegian, ikastaroa egin aurretik zuten hikaren ezagutzaren eta erabileraren gainean galdetu zaie parte-hartzaileei, eta, azkenekoan, haren erabilerari dagokionean egindako aldaketez itaundu zaie, saioen balorazioa egitearekin batera. Jarraian azalduko dira nokaren erabilerari buruzko puntu nagusiak:

— **Parte-hartzaileek saioen bidez bultzada bat jaso dute; ezagutzan eta praktikan sakondu dute. Hika ez erabiltzetik saioetako kideekin hika hitz egitera pasatu dira, gutxienez**

Aurreneko eta azken galdetegiko erantzunak alderatuta, denek esan dute ezagutzan sakondu dutela, eta pertsona gehiagorekin aritzen direla, gutxienez, saioekideekin.

Parte-hartzaileen abiapuntua hauxe izan da: 19 lagunetik 9k esan dute ez dutela hitanorik erabiltzen. Beste 9 kidek «gutxi» edo «pixkot» erabiltzen dutela erantzun dute, eta bakarrak erantzun du egunerokoan erabiltzen duela. Erantzun horiei maiztasun zehatzagoa eman nahian, ehunekoaz galdetuta esandakoari erreparatuko zaio: gehienek % 0,1-1 arteko erabilera dutela esan dute, eta % 2 eta % 5ean erabiltzen duela erantzun du beste parte-hartzaile banak. Kontuan hartu behar da ezagutzari buruz galdetutakoan, bik bakarrik esan dutela nahikoa badakitela, adineko batek eta gazte batek. Zehatzago esateko, «Hiketako gaitasuna: zer esateko edo adierazteko gai haiz?» galderari honela esan diote: «ustez, nahikoa», «Orainaldian, lehenaldian eta etorkizunean esaldi sinpleak eta erdi-modukoak egiteko moduan naiz orain».

Azken galdetegian bildutako erantzunetatik ateratako ondorioa hauxe da: gutxienez, saioetako kideekin hika erabiltzearen aldeko hautua egin dute. Horretaz gain, batzuk, erdia baino gehiago (19tik 11 lagun), beste pertsona batzuekin hasi dira hika hitz egiten: saioetatik kanpo 2-10 pertsona gehiagorekin, hain zuzen (batek aipatu du 10eko kopurua, besteek 2-3, 4-5 lagunekin erabiltzen hasi dira). Normalean, lagunekin eta familiako kideekin egin dute erabiltzeko hautu hori. Erantzuleetako bik esan dute lanean ere aldatu dutela erregistroa, gazteen adin-tartekoek. Eta aldaketa hori modu estandarrean egin dute: emakumeekin noka eta gizonekin toka erabiliz.

— **Aldaketa egiteko beharrezkoak: norbere ezagutza lantzea eta solaskidea prest egotea**

Aldaketa egiteko behar izan dutenari buruz galdetuta, askok haien ezagutza-beharra azpimarratu dute, adinekoek bereziki; eta beste askok so-

laskidearekin aurrez egin beharreko kontrastea. Izan ere, solaskideak prest egon behar du hika aritzeko, aldeko jarrera erakutsi behar du. Aurrena, beraz, hizkeran eginen duten aldaketa horretaz hitz egitea beharrezko ikusi dute. Erantzun honetan argi ikusten da ideia horren garrantzia: «Pertsona konketu horiek aldaketarako jarrera izateaz gain, elkarrekin aldaketarekiko elkarriketak izan ttinau. Hala, kontzientzia handia dugula jakinta, errazagoa dun bion helburua den hori lortzeko aldaketak egitea».

Beste parte-hartzaile honek ere ildo beretik erantzun du, norbere ezagutzan ere azpimarra eginez: «Alde batetik, erraza izandu dun herriko emakume askorekin hitz egiteko ateak ireki dizkidalakoz ikastaroak. Baina oraindik aditz-aukera mugatua daukiala sentitzen dinat eta horrek elkarriketetan gutxi sakontzera edo orainaldian hitz egitera eraman zeanen. Bestetik, hikaz hitz egin aurretik azalpen bat eman beharra zeukenan, bestela ondokoari raro itten zin».

— **Aldez aurreko ezagutza hikara erraz salto egiteko gako**

Erregistro-aldaketa gauzatzea erraza egin ote zaien galdetuta, askotariko erantzunak egon dira. Desberdintasuna nabaria da aurretik noka zerbait ezagutzen zutenen eta batere ezagutzen ez zutenen artean: zekitenek errazago egin dute aldaketa. Besteek aurrena ikasi behar izan dute, edo zekiten apurra finkatu, ongi barneratu. Eta, horretarako, praktika eta denbora behar da.

— **Taldearen laguntza eta solaskidearen konpromisoa ezinbestekoak**

Gutxi zekitenen artean, batzuek nabarmentzen dute elkarren artean errazagoa izan dela, «giro ona egon delakoz». Modu berean, beste parte-hartzaile honek ere hala dio: «Ez dinat sekula hitzein eta aldatzea zaila itten zian. Baina besteak nere antzera ikusitakoan animatzen hasi nun». Eta berriez ere solaskidearen inplikazio beharra agertu da: «Aldatzeko ez dun erraza izan. Ni saiatzen nun laguneren arten hika itten, bino beraiek, gehienak mutilak, ez diten jarraitzen elkarriketa osoa (lehenengo esaldik bai)».

Besteen agenzia ere garrantzitsua da oso, beraz. Askok azpimarratu dute solaskidearen prestutasuna behar dutela, parte-hartzaile honek bezala: «Aldaketa egin dut beste kideak ere noka edo toka aritzeko prest daudelako,

nahiz eta batzutan zaila egiten zaigun». Baina kontuan hartzeko beste elementu garrantzitsu bat agertu zaigu hemen: norberarenaz gain, solaskidearen inplikazioa edo konpromisoa ere beharrezkoa da aldaketa egin ahal izateko. Zentzu honetan, gizona ere noka jakitea eta egitea ezinbestekoa da.

— **Aldaketak egon dira erabileran, baina trabak eta ezinak ere bai**

Izan ere, erantzun positibo horiekin batera, negatiboak ere jaso dira:

- Saioetako taldekideez gaindi erabilera zabaltzeko zailtasuna. Goian aipatutako arrazoiengatik, askok saioetako kideekin erregistroa erraz aldatu dute, baina saioetatik kanpo ez dute horretarako testuinguru aproposik izan.
- Aurretik bazekitenek ez dute aldaketa handirik nabaritu: lehen noka hitz egiten zuten adina pertsonekin aritzen dira. Taldeko bi lagun izan dira horiek; ezagutzan sakondu bai, baina ez dute erabileran aldaketarik izan, lehen bezainbeste lagunekin aritzen baitira.
- Aurrera jarraitzeko, zerbait gehiago behar lukete. Erantzun honetan askok esandakoa biltzen da: «Saio hauen bidez erraza izan dun, gure artean sortu baitinagu horretarako espazioa. Hemenetik aurrera konpromiso hori mantentzea izango dun benetakoa lana eta ardura, gure ondorengoek ezagutuko baditen, behintzat».

Lehen helburuari dagokionez, beraz, noka-saioetako partaideek erabileran hobekuntza izatea aurreikusi da eta emaitza hori izan da. Saioetan zenbat eta parte-hartze aktiboagoa eta jarraituagoa izan, emaitzak hobekuntza izatea aurreikusi da eta hor ertz desberdinak agertu dira: alde batetik, aurretik ezagutza zutenek errazago egin dute aldaketa, nahiz eta saio guztietara ez etorri. Nahikoa zuten beren ezagutza eta saio batzuetako azalpen eta euskarria, etxean edo ingurukoekin gehiago erabiltzen hasteko. Bestalde, saioen aurretik erabilera handia zuen kide batek bere horretan mantendu du erabilera, nahiz eta saio guztietara etorri eta parte-hartze oso aktiboa izan. Bere kasuan, solaskide kopurua handitzea behar luke, saioetatik kanpo, erabilera areagotzeko.

## 5.2 Goizuetan hika zabaltzeko bideak

Goizuetan hika zabaltzeko bideaz hausnartzeko helburuarekin lotuta, galdera hau izan da: «Zein da modu egokiena Goizuetan hika zabaltzeko?». Galderari erantzuteko, Euskal Herrian sortutako materiala eta esperientziak kontuan hartu eta baliatu dira: praktika-taldeak, taulak, liburuxkak, liburuak...

Saiotako parte-hartzaileek praktika landu nahi zuten batez ere. Dena den, horretarako oinarri bat ere behar dutela jakin badakite, askok ez baitituzte ezagutzen aditz-forma asko, orainaldikoez aparte. Lehen aurreratu bezala, dagoeneko Goizuetako oinarritzko aditzekin osatutako taula egina dago, Oñatikoa eredu hartuta; herriko *Xapo* aldizkariaren bidez egin zen zabalpena 2022an. Horretaz gain, Zubiriren eta Perurenaren liburuan (1998) bertako forma anitz bilduta daude (ikus 146.-155. orrialdeak, bereziki hikako tratamenduz ari baitira, baina liburuan zehar beste adizki-aula gehiago ere badaude). Saiokideen esanetan, ordea, ez da erraza bertatik beharrezko aditza topatzea eta ikastea.

Taldeari Goizuetako aditz-formak zabaltzeko moduari buruz galdetuta, hau izan da erantzuna, gehien kasuan: ez dutela liburu potolo batera joko eta taula asko ikusteak jendeari atzera eragiten ahal diola. Gaiaren konplexutasuna aipatu da taldean, eta taula asko egoteak bilatzeko zailtasuna sor dezakeela ere esan da. Oinarritzko aditzak jasoko dituzten taula gutxi batzuk izatea egoki ikusi da, nahiz eta jakin aditz guztiak ez direla bertan egonen. «Txuleta» deitutako taulari zabalpen handiagoa ematea ere azpimarratu da, erraza izanen litzatekeela esanez, paperean inprimatuz edo whatsappera bidaliz. Bide batez, hori izan da Euskaraldiaren Hikaldian egin dena, 2025eko maiatzean: Euskaraldiko txapa banatzearekin batera, hikako oinarritzko adizkiak biltzen dituen plastifikatutako taula bat eman zaie izena emandakoei.

Horretaz gain, *Appa hi!* aplikazioa ere aipatu da. Adinaren arabera erakargarritasun eta erabilera desberdina izango lukeela uste dute parte-hartzaileek, baina baita, aplikazioa erabiltzeko erraza baldin bada, helduagoek gehiago erabil dezaketela ere, denbora gehiago baitute. Goizuetako

Udalari *Appa hi!* Goizuetara egokitzeko proposamena egin zaio, baina erantzunaren zain gaude oraindik.

### 5.3 Nokaren erabileraren gaineko hausnarketak

Esan bezala, ikerketako 3. helburuarekin dago lotua puntu hau, alegia, «erabileraren gainean hausnartzea» helburuari dagokio puntu honetan azalduko dena. Izan ere, nokaren erabilerarekin batera, hainbat gai landu dira parte-hartzaileekin nokaren galerarekin lotuta. Jardunbide egokien gainean ere hausnartu da, zailtasunak zailtasun, emakume batzuek erabiltzen baitute. Parte-hartzaileei Goizuetan noka erabiltzen duten emakumeei buruz galdetu zaie: zein diren eta ea baduten ezaugarri berezirik noka egiten jarraitzeko. Galdera horiez gain, lan honen 2. atalean aipatutako gaiak ere ekarri dira.

Hausnarketak egiteko, esan bezala, hainbat metodo erabili dira: eztabaida-taldeak, behaketa zuzena eta galdetegiak (2. eta 3. galdetegiak, hain zuzen). Eztabaida-taldeen eta behaketa zuzenaren bidez iritzi nagusiak bildu dira, baina batzuetan sakontzeko ezintasuna nabaritu da. Gainera, hainbat gai berriak ziren saioetako kideentzat eta denbora behar izan dute haien gainean hausnartzeko. Horregatik, galdetegi idatziak ere erabili dira; erantzunetan sakontzeko eta horretaz hausnartzeko denbora eman zaie horrela. Hona hemen egindako galderak eta bildutako erantzunak:

— **Zergatik galdu da hika eta, bereziki, noka?**

Hainbat arrazoi aipatu dira:

1. Elizak hika desegoki eta itsusitzat jo izana

Parte-hartzaile batzuek azpimarra egin dute gai honetan. Ez dago erabat argi hikaren erabileraren aurkako iritzia apaiz jakin batzuek izan ote zuten, edo orokorrean Elizak ote zuen jarrera hori. Edozein modutan, argi dago hika egitea ez zegoela ongi ikusia. Goizuetar heldu eta adinekoen artean jasotako sentsazioa hori da; batek baino gehiagok esan du ez dela errespetuzko hizketa.

Hemendik atera daitekeen ondorioa da hika erabiltzen zuenak araua hausteko ausardia eta, beharbada, posizio soziala ere bazuela.

## 2. Arauak zorrotzagoak dira emakumeekin, emakumeak dena ongi egin beharra du

Idea honekin adierazi nahi izan dute emakumeari exijentzia gehiago jar-tzen zaiola gauzak egiteko garaian; dena ongi egin behar du, baita hitz egin ere. Gizonak ere bai, baina errazago onartzen zaiola gizonezkoari edozer, zioten. «Nekatua zeok eta...»; edozein aitzakiak balio du gizonezkoak zerbait «gaizki» egitea baimentzeko.

Aurreko puntuan esandakoarekin lotua dago hau: emakumea sozialki eta ekonomikoki botere gutxikoa izan den heinean, arau sozialari eutsi behar dio, onartua izanen bada. Legorburuk dioen bezala (Irureta 2019: 4): «Botere gabeak prestigioa daukanari heltzen dio, edo gatzelaniari edo, kasu honetan, zukari».

2. galdetegian hikari buruzko arauen eta topikoen gainean galdetuta ere, taldekideen ustea izan da emakumeei araua zorrotzago jarraitzea exi-jitu izan zaiela, oro har. Ondorengo puntuan sakonduko da ideia horretan.

## 3. Emakumearen feminitatea eta noka talkan

«Neskak finak izateko ezin zitenan hika aritu. Neskei gehiago eragiten zitenan sailkatze horrek (gizonak libreago honetarako ere)». Baieztapen horrekin nahiko ados daudela erantzun dute parte-hartzaile gehienek 2. galdetegian.

3. galdetegian egindako galdera baten erantzunetan, uste horrekin lotura duen ideia aurkitu da. Galdera hau egin zitzaien: «Hire ustez jendeak ze iritzi du nokaz? Eta tokaz? Iritzia berdina da?». Hara erantzunak, adinaren arabera, gazteenetatik hasita helduenetara (azken zazpiak dira helduen eta adinekoen multzokoak, lau erantzun helduenak, hiru adinekoenak):

## 2. taula. Nokaren gaineko iritziak

«Askori entzun ditet noka “ <b>itsuski</b> ” edo “ <b>zakar</b> ” gelditzen dela emakumeen ahotan, aldiz, toka gizonezkon arten normaltasunez hartzen ditzen. Nik eztiñat iritzi bera. Ez nuke esango zakartasun kontua denik biño jendek iritzi hori din».
«Toka arrunt zabaldua zeon, ta noka emakume <b>edadetuk</b> beran arten itten ditzen».
«Iritzia ez da berdina, nire ustez. Zenbait lagunek (neskak) beraiei hika ez egiteko esan izan didate, nesken gan ez zaiela gustatzen, <b>zakarra</b> delako. Tokaren galerak nokarenak baino hauts gehiago harrotuko lituzkeela uste dut».
«Noka indartzen ari dun, apustu egiten ari gaitun. <b>Orain artean toka</b> izan dun lehenetsia».
«Toka gizartean onartua dago, <b>noka berriz ez da ia entzuten</b> ».
«Noka erabiltzea ez dun hain ohikoa. Iritzia etzekinat berdina ote den baina <b>hobeto ikusia izan ziteken toka egitea</b> ».
«Toka oso zabalduta dago gazte ta helduetan. Noka egiten duena berriz, askotan <b>zakar</b> gisa edota <b>adinekoen arteko gauza</b> bezela ikusi daiteke».
«Emakumen artean <b>zakarragoa</b> sumatzen dun agian. Gutxiago entzun dugulako edo?».
«Jende askok ez du ezagutzen noka eta toka. Ta bestetik <b>toka askoz ezagunagoa</b> da noka baino».
«Toka normalizatuagoa zeon ta erabilera ez dun jendentzat arrotza. Noka <b>gutxio aittua</b> denez <b>arraroagoa</b> itten dun. Jenden iritzia <b>zakarroa</b> gelditzen dunela dun, ta bortitzoa, gutxio entzun dinaulako, pentsatzen dinat».
«Hortaz bakarrik hitz in dinat taldekokin».
«Denetarik entzun dinat: <b>zakarra, errespeto falta...</b> ».
«Ez. Jendek <b>toka erraxago</b> hitzeitten din. Noka gehio kostatzen ziun».

## 4. Adinaren arabera, arauen eta topikoen pisua arinduz doa

Parte-hartzaileen erantzunetan ikusitako beste ideia bat da hori. 2. galdetegian hikari buruzko topiko batzuen gainean galdetuta, adinak joera bat markatzen du. Izan ere, gazteagoek gutxiago egiten dute bat ideia

horiekin. Hauek dira hikaren galeraz galdetuta, galdetegian jasotako erantzunak:

- «Zaharragoei ezin zienagu hika egin. Beraz, hika erabiltzeko aukera gutxiago zeonan».
- «Hika aritzea maila akademiko bajuoa izatekin lotua zeonan. Baserrikoa izatekin lotua zeonan».
- «Bazeon mailakatzeko bat: erdara/euskara/hika; maila altuagoa ezkerrean dagoenak/zakarragoa, analfabetoagoa eskuinerago dagoenak».

Gazteagoek ideia horiekiko adierazten duten urruntasunak erraztu egiten du berriz ere noka erabiltzeko saltoa egitea.

— **Jardunbide egokien bilketa: noka aritzen diren emakumez**

Lehen hausnarketa mamitsuaren aldean, bigarren honetan aurreikusi baino zailtasun gehiago topatu dira. Ikusi den bezala, noka erabiltzen duen emakumea izatea ez da batere erraza izan, eta ondorioa da uste baino emakume nokadun gutxiago ezagutzen ditugula Goizuetan.

5. Noka aritzen diren emakumeen zerrenda uste baino murriztagoa

Emakume gutxi batzuen izenak esan dira, 15 bat lagunena dena, eta askotan izenak errepikatu dira: emakume batzuk ezagunak dira noka aritzen direlako; ezaugarri deigarria da. Aldi berean, beste erabiltzaile batzuk oso ezkutukoak edo ezezagunak izan dira beraien erabileragatik, lagunenguruzak izateagatik bakarrik dakigu noka erabiltzen dutela; hortik ondorioztatzen dugu ez dutela jendaurrean erabiltzen. Bigarren multzo horretan askoz ere gehiago egonen direla badakigu, baina guztiak identifikatzeak lan sakonagoa eskatuko luke.

Puntu honetan aztergai den hirugarren helburuari dagokionez, «Goizuetan noka mantendu duten hiztun-taldeetan arreta jarri nahi zela» adierazten zen, uste baitzen noka mantentzen zuten taldetxoak izanen zirela. Besteak beste, gutxienez bikote bat behar duzulako norbaitekin hika aritzeko. Adibide isolatuak aurkitu ditugu, ordea; alegia, hiztun bakarra beste nor-

baitekin hitz egiten duena, eta, gehienez ere, bikoteak dira, eta ez talde handiagoak. Eta horiek nukleo familiarren barruko bikoteak izan dira: bi ahizpa edota ama-alabak. Beraz, emaitzen artean aipatzekoa da kopurua uste baino murriztagoa eta sakabanatuagoa dela.

#### 6. Noka ari diren emakumeen ezaugarriak biltzea ere ez da erraza izan

Honela bada, emakume-zerrenda murrizta da, baina izen batzuk bildu ditugu. Haien ezaugarri bereizgarriez galdetuta, ez gara gai izan berehala zerrenda osatzeko, ordea. Emaitza bat horixe izan da: uste baino zailagoa egin zaigu noka hitz egiten dutenen ezaugarriak antzematea eta zerrendatzea. Beharbada galdera alderantziz egin behar genuen: «zein ezaugarri ditu noka erabiltzen dituen emakumeak?» galdetu ordez, «zein ezaugarri ematen dizkio noka erabiltzeak emakume horri?».

Parte-hartzaileei galdetuta, hurbiltasunarekin eta konfiantzazko harremanarekin lotu dute denek noka: «Nere kasuan, hitz egiten ari naizen pertsonarekiko dudan konfiantza mota adierazten din hikak/nokak. Horregatik, ez zean denekin ateratzen. Xarma berezia din».

Hari horri tiraka, emakumeek konfiantza-giroan, alegia, lagunekin egoteko izan dituzten aukerez galdetu behar da: horrelako girorik baimentzen duen egoerarik izan dute? Aisialdira eta lan-girora jotzen dugu berehala, eta argi ikusten da gizonezkoen eta emakumezkoen artean egon den aldea. Horregatik, askotan familiako kideetara mugatu da erabilerak, ahizpen artekora gehienbat. Izan ere, adinagatik, amari edo amonari ere ezin zitzaion hika aritu. Beste ikerketa batzuetan topatutako egoera berbera da hori: «nokeak, askoz ere bizitza makalago eta murriztagoa du, kasurik onenean, ahizpen artean» hitz egiten baita (Alberdi 1994: 987).

Hasieran gaia eztabaida-talde gisa planteatu zen, eta hor ideia gutxi ateraziren. Hala ere, bi saiotan gaia landu ondoren, ateratako ideiak laburtzen dira hemen:

- Inguruan emakume nokadunak izan behar dituzte, gainera, konfiantzazko harreman bat dutenak.

- Emakumearen historiagatik, ez da erraza izan horrelako inguru-neak izatea; ezkontzean laguntasunezko harremanak desagertu dira. Gainera, emakumeak ez du taldeko lan-girorik edo aisiarik izan, gure ingurunean behintzat. Salbuespen gisa aipatu izan dira eliz ataria eta auzolana. Eliz ataria ez da, ordea, taberna bezain informala, eta auzolana ez da eguneroko kontua.
- Beraz, ausaz bezala, inguruan konfiantzazko emakumeak izan dituzten emakume «isolatu» eta «sakabanatuen» zerrenda murritz bat baino ez dugu bildu ahal izan.

Ondoren, galdetegiaren bidez, erantzun gehiago bildu ahal izan dira. Eta hortik honako emaitza hau: noka erabiltzea ausardiarekin, errebeldiarekin, ziurtasunarekin eta hanka sartzeko lotsa ez izatearekin lotu dute parte-hartzaile batzuek. Honelako erantzunak eman dituzte:

- «Ausardia edo errebeldia puntu bat din nire ustez».
- «Ausarta, besteek esango edo pentsatuko dutenari beldurrik ez diona».
- «Hanka sartzeko lotsarik ez duena edota jendeak esanen due-nari garrantzi gehiegi ematen ez diona».
- «Hanka sartzeko lotsarik ez izatea».
- «Emakume segurua ikusten dinat, konfiantzazkoa».
- «Bere buruaren jabe dena».

Beste alde batetik, badira noka erabiltzearen eta pertsonaren izaeraren arteko loturarik ikusten ez dutenak ere: «Hika erabiltzeak ez dakar ezaugarri berarekin. Estereotipoetan erortzearen antzekoa iruditzen zait».

Gehiago sakondu nahian, parte-hartzaileei ere galdetu zaie nokarekiko duten ikuspegiak, beraiek ere noka erabiltzen duten emakumeak direnez gero. 3. galdetegian aukeratu ahal zituzten erantzunen artean, galdetegia erantzun zuten 14 parte-hartzaileek nokarekiko ikuspegi baikorra dute<sup>4</sup>:

---

<sup>4</sup> Galdetegia Internet bidez betetzekoa zen, eta adinaren arabera aldea egon da erantzuleen artean: gazte guztiak erantzun dute, baina helduen artean 4k (5etik) eta adinekoen artean 3k (8tik) eman dute erantzuna.

- Ahizpatasuna indartzeko baliagarri ikusten dinat noka, emakume artean ere gozo eta informal hitz egiteko (10 erantzule).
- Nire adierazpidea osatzeko modu bezala ikusten dinat hika, lagunarteko hizkera informala osatzekoa (8 erantzule).
- Emakumea ahalduntzeko baliagarri ikusten dinat hika, gizonekin modu infomalen berdintasunen hitz egiteko (7 erantzule)<sup>5</sup>.
- Espero den horretatik ateratzen dena, emakume librea (6 erantzule).
- Ahalduntzeko modu gisa ikusi dute: emakumearekiko exigentzia haundiagoa dun. Hika hitz egitean akatsak eginez gero, horretaz ohartzeko balio zean, eta inportantzia kentzen saiatzen nun (6 erantzule).
- Pertsona ziurra (4 erantzule).
- Emakumeak bizitza publikoan leku gehiago hartzen dion heinen, hika gehiago erabiliko din (3 erantzule).

Ahalduntzearekin zerikusirik ez duela dioenik ere agertu da: «Hika egiteak ez duela pertsona ahalduntzen esango nuke. Ezagutza bat gehiago da, egunerokotasunean erabili nahi bada, erabili daitekeena. Erabiltzen ez duena ere izan daiteke emakume ahaldundua. Beharbada, hika erabiltzeak ez dakar berarekin, kontzientzia maila eta gizartearen egoera aztertzeke aukera ematen du».

## 6. Ondorioak

Atal honetan, ikerketa-proiektutik ateratako ondorio nagusiak laburbiltzen dira.

---

<sup>5</sup> Gero, kurioski, jende gutxik aipatu du ahaldundua sentitu dela balorazio-galdetegian.

— **Parte-hartzaileek nokaren erabileran gora egin dute noka-saioei esker. Nokaren ezagutza eta erabiltzeko baimena ere beharrezkoak dira**

Emaitzetan azaldu bezala, parte-hartzaileek beren ezagutzan eta praktikan sakondu duten heinean, hikaren erabileran gorakada izan dute. Hika ez erabiltzetik, gutxienez, saioretako kideekin erabiltzera pasatu dira.

Horretaz gain, ikerketan nabarmendu da aldaketa egiteko bi alde daudela: norbera eta solaskidea. Norberak nahikoa ezagutza izateaz gain, parekoak ere izan behar du eta, gainera, aritzeko prest egon behar du. Aurretik beraien artean aldaketa horretaz hitz egitea funtsezko elementutzat jo dute parte-hartzaile askok. Biek aldaketarekiko konpromisoa hartzea ezinbestekotzat ikusi da, aldaketak luzaroan iraun ahal izateko.

— **Ezagutzatik erabilerara salto egiteko «zubi-espazioak»**

Txepetxek (1987) esandakoa aintzat hartuta, motibazioa-ezagutza-erabilerara hirukoa kontuan hartzekoa da hizkuntza-erabileraz ari garenean. Nahikoa motibazio behar da ezagutzarako saltoa egiteko, eta nahikoa ezagutza hizkuntza-erabilerara aldatzeko. Nokaren kasuan ere antzera gertatzen da.

Parte-hartzaileen artean nokaren ezagutza-maila desberdineko kideak izan ditugu: batzuek saioretara etorri aurretik bazuten nahikoa ezagutza, eta beste batzuek gutxiago edo batere ez. Ezagutza gutxi edo batere ez zutenen artean, zaila izan da forma horren erabilerara noka-saioretatik kanpo hedatzea; noka-formak dagoeneko ezagutzen zituztenek, ordea, salto hori errazago egin dute eta jende gehiagorekin hitz egiten hasteko bultzada eman diete noka-saioei. Azken horien kasuan, noka-saioei «zubi-espazio» gisa funtzionatu dutela esan daiteke. Izan ere, zubi-espazioetan, ikaskuntza berriak ahalbidetzen dira, «sozializazio berriak» bizitzen dira, diskurtso eta praktika alternatiboak sortzen dira eta horiek pertsoneri «boterea» ematen diete, hau da, zubi-espazioan ikasitakoak eta bizi izandako eraldaketak ahaldu egiten ditu hiztunak, eta aldaketa horiek beste espazio batzuetara eramateko gai bihurtzen dira (Amorrortu, Goirigolzarri eta Ortega 2021: 14).

— **Taldetasunak eta espazio seguruek garrantzi handia dute nokarako mudantza egiteko**

Balorazio-galdetegiaren erantzunen artean, askotan nabarmendu da taldeko giroak eta konfiantzak sortu duela noka praktikatu ahal izateko egokiera. Puntu horrek duen garrantzia ulertzeko, baliagarria da Amorrortu, Goirigolzarri eta Ortegak euskararako hizkuntza-mudantza egiteko unerako emandako azalpena, «espazio seguruari» garrantzia ematen diona (2021: 13):

Euskararen aktibazioa eta eraldaketa ahalbidetzen duten espazioetan jarri nahi dugu arreta, espazioaren kontzeptuak, hiztunaren hautu eta erantzukizun indibidualetan argia ipini ordez, talde-hautu eta erantzukizunetan ipintzea ahalbidetzen digulako. Hiztunek gizarte-harremanak espazio jakinetan dituzte, espazio jakinetan sentitzen dira seguru, ala ez, eta espazio jakinetan izan ditzakete sozializazio berriak eta euren hizkuntza-praktiketan aurrerapausoak eman; gainera, subjektibotasunean, hau da, hiztun bezala sentitzen diren eran, aldaketak izan ditzakete eta horrek euren hizkuntza-portaeran eragin. Zentzu horretan, espazioak berebiziko garrantzia dauka mudantza-prozesuetan.

Osatu den taldea espazio seguru edo babesgune gisa identifikatu dugu taldekideok hasieratik, hainbat erantzunetan agertu den bezala. Babesgune edo espazio segurua honela azaltzen dute autore horiek (2021: 13-14):

Mudantza-prozesuen berri ematen duten hiztun berriek askotan «espazio seguru» edo «babesguneei» buruz hitz egiten dute. Bereziki hizkuntza gutxituen testuinguruan babesguneak honela ulertu dira: gizarte-espazioak non hizkuntza gutxitua erabili nahi dutenek horrela egin dezaketen, hori egitea «normala» eta espero daitekeena dela ontzat ematen delako.

Zentzu horretan, argi ikusi da emakumez bakarrik osatutako taldea izateak erraztu duela noka ikasi eta erabiltzea: alde batetik, formen erdia soilik ikasi behar izan da, nokakoak bakarrik zirelako jomuga (eta ez tokakoak); beste alde batetik, emakume-taldea izanda, taldekide batzuek errazago identifikatu dute babesgune gisa. Dagoeneko nahiko talde heterogeneoa zen adinari dagokionez eta beste aldagai bat ez gehitzeak «taldeago» egin

gaitu: emakume-taldea. Ikerketaren planteamendua egitean ez genuen mugatu emakume-taldea izanen zela, baina intuizioz emakumez osatua izateak praktika erraztuko zigula aurreikusi zen.

Espazio segurua ez da bakarrik hizkuntza-aldiera berria erabil daitekeen lekua, baizik eta hizkuntza-zuzentasunarekin lotutako arauak ere lasaiago har daitezkeen espazioa ere bada. Eta horretaz gain, «norberaren burua, eguneroko bizitzan testuinguru konplexuagoetan aurkeztu aurretik, modu ezberdinean aurkezteko (edo aurkezten saiatzeko) espazio egokia ere bada: babesgunea den espazioak mudantza prozesua egiten laguntzen du eta legitimitzailea izan daiteke, berez. Hiztun berriak bere eraldaketa-prozesuan aurrerapausoak egiten baditu, espazio honetatik bizitzaren beste espazio batzuetara mugitzeko aukera gehiago izango ditu» (Amorrortu, Goirigolzarri eta Ortega 2021: 14). Gure ikerketan, esan bezala, parte-hartzaile batzuek lortu dute noka-saioetatik kanpo hika erabiltzea.

— **Emakumeak historian zehar izan duen lekuak eragina du oraingo hizkuntza-praktiketan**

Idea honekin lotuta, hainbat arrazoi agertu dira ikerketan: Elizaren edo apaizen eragina, emakumeekin arauak zorrotzagoak izatea... Horrek zerikusia du emakumeak izan duen botere faltarekin eta, ondorioz, ezarritako arauetara aurre egiteko zailtasunekin. Hizkuntza-aldakortasuna aztertzen duten autoreek landu izan dute gai hori, ikusita emakumeek gizonezkoek baino lehenago aldatu ohi dutela hizkera prestigiozko aldaeretara (Lujanbio 2016: 25-28). Mendebaldeko literatura bariasionistan antzeman izan da hizkuntzaren arauak eta estatusak gehiago eragiten dietela emakumeei, eta hizkuntza emakumeek beren autoritatea eta gizarte-posizioa baieztatzen bitartekotzat hartzen dutela esan izan da.

Era berean, puntu hau lotua dago espazioaren irudikapenarekin. Espazioaz ari garenean, kontuan hartu behar da espazioa, fisikoaz gain, sinbolikoa eta soziala ere badela, eta horrek garrantzi handia duela espazio horretarako espero ditugun erabilerei dagokienez. Adibidez, taldekideek aipatu dute ez dela berdina noka-saioetarako aukeratutako aretoan aritzea edo, kanpoan aritzea, tabernan esaterako. Ikusgarritasuna irabazi zuen gure saioak tabernara atera ginenean: «hola badakite guk ere bada-

kiula hika eta gurekin hasiera animatu littezke». Horretaz gain, espazioaren berregituratze sinbolikoan ere eragina izan duela azpimarratuko nuke; taberna bera emakumeena ere badela nahikoa barneratua dugun honetan, tabernan ere hika aritu gaitezkeela ikusi genuen praktika horren bidez. Ideia hori azaltzen dute Amorrortuk, Goirigolzarrik eta Ortegak (2021: 15):

Espazioa produktu sozial bat da, eta prozesu historiko baten emaitza. Prozesu horretan, espazio jakin batean objektiboki gertatzen diren praktika espazialei, haren inguruan sortzen diren irudikapen sinbolikoei edo sortzen duen iruditeria sozialari buruzko gaiak nahasten dira. Horrela, espazioa ez dute osatzen bakarrik testuinguru soziolinguistikoari dagozkion elementuek, esate baterako, euskaldun kopuruak, edo erabilera ehunekoak; badaude beste elementu batzuk ideologiek, hizkuntza-balioekin eta arau sozialekin zerikusia dutenak, eta askotan aurreiritzi moduan funtzionatzen eta erabilera eragozten dutenak, adibidez, gazteen artean Bilbon euskaraz hitz egitea frikia dela pentsatzea. Espazio sinboliko eta sozial hori zelan osatzen den garrantzitsua da hiztunen hizkuntza-praktikak hobeto ulertzeko eta mudantza-prozesuetan gazteek izan ditzaketan zailtasun eta oztopoak aurreikusteko.

Zentzu horretan, hausnartu behar genuke zein estereotipo edo aurreiritzi ditugun emakume batek noka egiten duenean: frikia da? Arraroa? Ausarta? Eta hori guztia lotuta dago puntu honekin:

— **Emakumearen feminitatea eta noka talkan**

Parte-hartzaileek nokaren gainean dagoen iruditeria bildu dute ikerketan: noka aritzea itsuski dela, zakarra. Adineko emakumeek bakarrik erabiltzen dute eta, tokaren aldean, okerrago ikusia dago; ondorioz, ezezagunagoa da (§ 5eko 2. taulan horrelako adibide gehiago daude).

— **Noka ari diren emakumeen zerrenda motza**

Goian esandako guztiaren ondorioz, uste baino motzagoa izan da egunerokoan Goizuetan noka erabiltzen duten emakumeen zerrenda. Eta ez da erraza izan noka aritzen diren emakumeen ezaugarriak biltzea ere. Hasiera

batean, behintzat, zaila egin zaie parte-hartzaileei noka erabiltzailea ezaugarri zehatz batzuekin identifikatzea. Seguru asko, denetarik dago eta ezin gara estereotipoetan erori, erantzule batek esan bezala.

— **Hikarekiko ikuspegia lehen baino baikorragoa da emakumeen artean. Gizonezkoen artean?**

Historiaren zama hori hor dugu, eta gaurdaino iristen zaizkigu haren oihartzunak. Emakumearekiko exijentzia eta gizonarekikoa ez da berdina bizitzako hainbat arlotan. Hala ere, nokarekiko ikuspegia aldatuz doala ikusi da ikerketan; bai parte-hartzaile gazteagoengan hikarekiko estereotipoen pisua arinduz doalako, bai, beraien kasuan bederen, nokarekiko duten ikuspegia baikorra delako ere. Orokorrean, gaur egun joera hori dela esan daiteke.

Ikerketa honetatik kanpora gelditu da gizonezkoek nokarekiko gaur egun duten ikuspegia, baina argi dago haien papera ere oso garrantzitsua dela nokaren etorkizunarentzat.

— **Hika euskara informala da, eta aisiarekin lotuta dago, baina, hasteko, aisialdian tartea eskaini behar zaio**

Ikerketaren abiapuntuan aurreikusi genuen noka praktikatzek eman dezakeela halako askatasun-sentsazioa, euskara informala praktikatzen dugun heinean, euskararekiko dugun gabezia hori osatuta. Ikerketak aurrera egin duen heinean, konturatu gara bi ikuspegitatik hel dakiokela kontu horri. Alde batetik, gaur egun noka aritzeko, aurrena ikasi egin behar dugu emakume gehienok (baita gizonek ere). Beraz, gure aisialdiko denbora bat eskaini behar diogu aritu ahal izateko.

Bestetik, parte-hartzaileen balorazioetan jaso da oso gustura egon direla saioetan, batez ere taldean eroso sentitu direlako. Beraz, aisialdian nokari tarte bat eginda, emakumeek euren artean «ongi pasatu» dute, «gustura» egon dira eta «partaide» sentitu dira. Kontuan hartzekoa da puntu hau: egiten den esfortzua eta jasotzen dena kontuan hartuta, zenbat lagun egonen da noka ikasteko pausoa emateko prest?

— **Euskararen erabileran eragitea helburu duten egitasmoekin antzekotasunak daude noka bultzatzean ere**

Euskararen eta hikaren erabilera bultzatzeak erronka eta bide-orri antzekoak ditu batzuetan, eta, gainera, modu interesgarrian bat egiten ari dira azkenaldian, adibidez, Euskaraldian. 2025eko edizioan, *Hikaldia* bere baitan kokatu du Euskaraldiak, hikari bultzada emateko. Hala diote Garbiñe Bezeziartua eta Beñat Muguruzak ere (2020: 139): «iruditzen zaigu zukaren eta hikaren artean gertatzen diren fenomenoen azterketan ikusitakoak transferitu daitezkeela euskara eta gaztelania/frantsesaren dikotomiara, baita beste hizkuntza gutxitu batzuen testuingurura ere».

Bilboko gazte euskaldunekin egindako ikerketan ere antzekotasunak daude. Beren errealitatea deskribatzean, gazte horiek euskara erabiltzeko dituzten zailtasunak noka praktikatu nahi dutenen antzekoak direla ikusten da. Alegia, Bilbon euskaraz aritu nahi duen euskaldunak Goizuetan noka aritu nahi duenaren antzeko egoera dauka; solaskiderik ez: «gazteek eurek adierazi zuten Bilbo moduko hiri nahikoa erdaldunetan gazte hiztun berriek zailtasun handiak dituztela egunerokoan euskara erabiltzeko eta euskararen aldeko mudantza egiteko [...]. Baina euskararen hiztun berriez gain, Bilbon familian euskara ikasten dutenek ere sarri antzeko oztopoak aurkitzen dituzte, baita, ezberdintasunak ezberdintasun, testuinguru oso euskaldunetik Bilbora datozen gazteek ere» (Amorrortu, Goirigolzarri eta Ortega 2021: 12).

Beste parekotasun bat ere badago euskararen hiztun berrien eta hika hasi nahi dutenen artean: aldaketa egiteko une erabakigarriak daude. Euskararen hiztun berrien kasuan, hizkuntza horren alde egiteko momentu erabakigarriak hauek dira (Ortega eta beste 2021: 13): «1) testuinguru oso euskaldun batera bizitzen joatea, 2) bikote batekin hasterakoan, 3) guraso bihurtzerakoan, 4) sare berrietan edo jarduera berrietan sartzean, eta 5) kontzientzia hartzean. Derrigorrezko hezkuntzako ikastetxea aldatzea eta unibertsitatean hastea ere mudantzarako aukera bezala agertu ziren». Hika erabiltzeko saltoa egiteko ere aintzat hartzeko moduko momentuak dira horiek. Gure ikerketan, 3. eta 5. momentuen pisua agertu da nabarien; guraso bihurtzearena eta kontzientzia hartzearena, alegia. Izan ere, ama ba-

tek baino gehiagok aipatu du ondorengoei hika transmititzeko nahia, hori egin ezean, galduko dela azpimarratuz. Oro har, nokaren galerarekiko eta «orain ala inoiz ez» izatearen kontzientzia nabarmena izan da taldekideen artean.

— **Aurrera jarraitzeko, zerbait gehiago behar dute parte-hartzaileek**

Jarraitzeko euskarriak, taldea... behar dira; zerbait, aurrera egin ahal izateko. Hor dugu *Appa hi!* aplikazioa, edo oinarrizko aditz-taulekin liburuxka bat egiteko ideia. Dagoeneko oinarrizko aditzekin egindako taula («txuleta») ere hor dago, beste euskarri batzuetan zabaltzeko aukera ematen duena (sare sozialetan, paperean baina solte, *Xapo* aldizkaritik aterata...). Euskaraldiarekin batera hika praktikatzeko deia eta aukera ere izan dugu 2025eko maiatzean. Jarraikortasuna eta praktika eskaintzen duen zerbait beharko litzatekeela ikusten da, ordea; mintzapraktika egiteko talde bat, adibidez.

Horretaz gain, hurrengo puntuan proposatzen den bidetik zerbait egitea interesgarria litzateke: herri askotan egin diren esperientziak bateratu eta irakasteko eredu bat sortzea, beste herrietan horrelako saioak martxan jaretzea errazteko.

— **Aurrera begira, esperientziaren sistematizazioa egitea interesgarri**

Aurrera begira, Goikoetxeak eta bestek erabilitako metodologia baliatzea interesgarri izan daiteke: esperientziaren sistematizazioa egitea, alegia. Honetan datza metodologia hori (Goikoetxea eta beste 2015: 69-70): «Esperientzia bat edo batzuen interpretazio kritikoa dugu sistematizazioa, zeinak berauen ordenamendu eta berreraikitzearen bitartez, bizitutako prozesua aurkitu edo azaltzen duen, baita prozesuan eragin duten faktoreak ere, zein, nola eta zergatik erlazionatu diren horrela elkarren artean». Sistematizazioak ezaugarri hauek ditu:

- **Prozesua.** Prozesu bat aurrera eramanez ahal izateko alde zuzeneko ibilbide bat aurreikusi behar da.
- **Parte-hartzailea.** Jarduera parte-hartzailea proposatzen duen metodoa dugu sistematizazioa definizioz. Horrek zera dakar,

parte-hartzaileen arteko konfiantzan oinarritutako lan-eremua sortzea ezinbestekoa dela, non iritziak partekatu, konparatu eta eztabaidatzea posible den.

- **Ordenatzea.** Sistematizazioak organizazio lana dakar derrigorez, esperientziaren ekintzei eta ezagutzaren ordena logikoari jarraituz. Esperientzia horren inguruan interpretazio kritikoa egitea ahalbidetuko duen antolakuntza, hain zuzen.
- **Oroimen historikoa.** Sistematizazioak esperientziaren historia berreskuratu eta beronen oroimena mantentzen laguntzen du.
- **Analisia eta interpretazioa.** Hona hemen sistematizazio guztien elementu oinarritzkoa. Behin oroimen historikoa berreskuratu eta ordenatu denean, beronen interpretazioa beharrezkoa suertatzen da esperientzia objektibatu ahal izateko eta, horrela, ikasketak atera ahal izateko.
- **Ikasketa eta ezaguera berriak.** Esperientziak sistematizatzeak dakarren onura nagusia ikasketa eta ezaguera berriak sortzea da. Lortutako ezaguera horiek eskarmentu praktikotik harago doaz, eta, ondorioz, ikasketa-prozesu horren erabilgarritasuna handiagoa ere bada.
- **Eman eta zabaldu.** Ezaguerak lortzeko prozesu gehienetan gertatzen den bezalaxe, sistematizaturiko esperientziaren esparru berean jarduten diren gainerako kideekin konpartitu ahal izatea erabilgarria da oso.

Esperientzia hori sistematizatzearen ondorioak izan dira parte hartu duten kideek egindakoa eurenganatzeta eta taldekide guztiak ahalduntzen edo boteretzen laguntzea; izandako praktika ongi jasotzea eta hobetzeko ezagutza sortzea; eta proposamen eta praktika berriak sortzeko jarraibideak lortzea (Goikoetxea eta beste 2015: 157).

Hemen aurkeztu den ikerketan ere ondorio horiek bete dira hein batean, eta beste herri batzuetan erabil daitekeen esperientzia gauzatu da.

## Bibliografia

AHOTSAK.EUS. «Ingo xonau! Oñatin noka berreskuratu eta hitanoa biziberritzeko proiektua». 2024/05/24an kontsultatua. <https://ahotsak.eus/egitasmoak/ingo-xonau/>

ALBERDI, Xabier (1994). «Hitanoa non eta nork erabiltzen duen», *Euskera: Euskaltzaindiaren lan eta agiriak* 39 (3): 983-993.

AMORRORTU, Estibaliz, GOIRIGOLZARRI, Jone eta ORTEGA, Ane (2021). «Ekintza-ikerketa partehartzailea euskararen hiztun aktibo bihurtzeko babesgune eta zubi-espazio», *BAT Soziolinguistika Aldizkaria* 120 (3): 11-26. <https://bat.soziolinguistika.eus/produktua/ekintza-ikerketa-partehartzailea-euskararen-hiztun-aktibo-bihurtzeko-babesgune-eta-zubi-espazio/>

BEREZIARTUA, Garbiñe eta MUGURUZA, Beñat (2018). «Erabileraren gakoak egoera informaletan eta gazteen artean. Hitanoa Azpeitiko gazteen artean», *Hermes* 60: 24-28.

BEREZIARTUA, Garbiñe eta MUGURUZA, Beñat (2020). «Euskal hiztun natiboak, ez-natiboak eta hitanoa», in SANTAZILIA, Ekaitz, KRAJEWSKA, Dorota, ZULOAGA, Eneko eta ARIZTIMUÑO, Borja (arg.), *Fontes Linguae Vasconum 50 urte: ekarpen berriak euskararen ikerketari*: 127-140. <https://doi.org/10.35462/fontes50urte.8>

COLMENARES, Ana Mercedes (2012). «Investigación-acción participativa: una metodología integradora del conocimiento y la acción», *Voces y Silencios: Revista Latinoamericana de Educación* 3 (1): 102-115. <https://doi.org/10.18175/vys3.1.2012.07>

EQUILING. «Kontzientzia linguistiko kritikoa eta hiztunen agentzia: berdintasun soziolinguistikorako ekintza-ikerketa». 2024/07/20an kontsultatua. <https://www.equiling.eu/eu/euskadi>

GOIKOETXEA, Nekane (zuz.), MARKO, J. Inazio, ÁLVAREZ, Maite, GUTIERREZ, Rober, MINER, Imanol, SUBERBIOLA, Pablo eta UGALDE, Izaro (2015). *Eralan ikerketa-proiektua 3. Euskararen erabilera lan-munduan*. Soziolinguistika Klusterra.

HERNÁNDEZ, Jone M. (2010). «Hizkuntzak aztergai: ikerketa-metodoetara oinarritzko hurbilpena», in BEGIRISTAIN, Oihana (koord.). *Soziolinguistika eskuliburu*. Eusko Jaurlaritza; Soziolinguistika Klusterra.

IANTZI, Maider (2023, uztailak 1). «Nola gurutzatzen dira hitanoa eta generoa arnasmuneetan?». *Naiz*. [https://www.naiz.eus/eu/hemeroteca/gaur8/editions/gaur8\\_2023-07-01-07-00/hemeroteca\\_articles/nola-gurutzatzen-dira-hitanoa-eta-generoa-arnasmuneetan](https://www.naiz.eus/eu/hemeroteca/gaur8/editions/gaur8_2023-07-01-07-00/hemeroteca_articles/nola-gurutzatzen-dira-hitanoa-eta-generoa-arnasmuneetan)

JAUNARENA, Ana (2024). «Nokaren higatzea Ortzaizen». Master Amaierako Lana. Université Bordeaux Montaigne eta EHU. [https://www.euskaltzaindia.eus/dok/mintzola/Jaunarena\\_Ana\\_MAL\\_Nokaren\\_higatzea\\_Ortzaizen.pdf](https://www.euskaltzaindia.eus/dok/mintzola/Jaunarena_Ana_MAL_Nokaren_higatzea_Ortzaizen.pdf)

IRURETA, Onintza (2019). «Nokaren galera. Sexismoak gutxietsitakoa feminismoak suspertu al dezake?», *Larrun* 239.

JUARISTI, Patxi (2003). *Gizarte ikerketarako teknikak. Teoria eta adibideak*. Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.

LEGORBURU, Onintza (2018). «Genero rolek hitanoaren erabileran izan duten eragina: Antzuolako herritarren diskurtso eta praktikak», *BAT Soziolinguistika Aldizkaria* 109: 111-138. <https://bat.sociolinguistika.eus/produktua/bat-109-2018-4-genero-rolek-hitanoaren-erabileran-izan-duten-eragina-antzuolako-herritarren-diskurtso-eta-praktikak/>

LEGORBURU, Onintza (2021). «Ética transversal: la revitalización lingüística y el empoderamiento de las mujeres». HIBIL-Herri Indigenen Hizkuntzen Biziberritze Estrategiak Indartzeko Lankidetzeta Sarea. Garabide elkarte [bideoa]. <https://www.youtube.com/watch?v=jsoeqacmSLs>

LIZARTZA, Ritxi (2009). *Hitanoa. Mintza hadi, lagun! Hika egiten ikasteko eskuliburua*. Mara Mara Taldearen Hizkuntza Zerbitzuak, L.G.

LUJANBIO, Oihana (2016). «Hizkuntza-aldakortasuna euskarari. Nafarroa ipar-mendebaldeko bi udalerritan egindako azterketa». Doktore-tesia. ADDI. [https://addi.ehu.es/bitstream/handle/10810/19581/TESIS\\_LUJANBIO\\_BEGIRISTAIN\\_OIHANA.pdf?sequence=1](https://addi.ehu.es/bitstream/handle/10810/19581/TESIS_LUJANBIO_BEGIRISTAIN_OIHANA.pdf?sequence=1)

LUJANBIO, Oihana (2025). «Noka berreskuratzeko saioak: komunikazio informala lantzeko proposamena», in UNAMUNO, Lorea, UNAMUNO, Maribi (arg.). *Komunikazioa euskaraz: lanketa eta azterketarako proposamenak*. EHU.

MUGURUZA, Beñat, BEREZIARTUA, Garbiñe eta ETXEBERRIA, Juanito (2020). «Ez da mattetzen erakutsi». *Azpeitia, hitanoa eta generoen arteko arrakala*, *Uztaro* 115: 117-143. <https://doi.org/10.26876/uztaro.115.2020.6>

OIARTZUN, Fernando (2022). *Hika eta toka. Noka ere toka!* Altzadi.

SARALEGI, Joana (2021). *Aizan, neska! Inien al diñu hiketan? Leitzako hikaren erabileraren inguruko azterketa*. Hiznet-eko Sakontze Egitasmoa, ikerketa argitaragabea.

«TXEPETX», SÁNCHEZ CARRIÓN, José María (1987). *Un futuro para nuestro pasado, claves de la recuperación del euskara y teoría social de las lenguas*. ASJUren gehigarriak. <https://ojs.ehu.es/index.php/ASJU/article/view/8593/8341>

ZARRAGA, Arkaitz, COYOS, Jean-Baptiste, HERNÁNDEZ, Jone M., JOLY, Lionel, LARREA, Imanol, MARTÍNEZ, Loren, URANGA, Belen eta BILBAO, Paul (2010). *Soziolinguistika eskuliburua*. Eusko Jaurlaritza, Soziolinguistika Klusterra.

ZIRHIKATU, Goizuetako Euskaraldiko lantaldea. (2022). «Hikako forma mantentzeko saiora deia». [bideoa]: <https://erran.eus/leitzaldea/1667473526175-hikako-forma-mantentzeko-hitzordua-antolatu-dute-goizuetan-ostiral-honetan>

ZUBIRI, Juan Joxe eta PERURENA, Patziku (1998). *Goizuetan eta Aranoko hizkerak*. Nafarroako Gobernuak, Goizuetako Udala eta Aranoko Udala.

## Eranskinak

### 1. galdetegia (Diagnosia)

#### **NOKA-saioak: aldez aurreko ezagutzak eta norberaren helburuak**

Galdetegi honetako erantzunak zehaztu ahalik eta gehiena. Hona galderak **hiketari** (pixkanaka hasteko...):

— Ikastaroan izena emateko arrazoi nagusia?

— Ikastaroarekin lortu nahia? Aurreikuspenak.

— Hiketari aritzen al haiz?

Norekin?

Non? Etxean, lagunartean, auzoan, lanean?

— Zenbat pertsonarekin aritzen haiz? Noka edo toka?

— %ekotan jarrita, egunean zenbatean erabiltzen dun noka? Eta toka?  
% 0? % 25?...

— Noiztik aritzen haiz? (Esan hire adina ere)

— Hiketari gaitasuna: zer esateko edo adierazteko gai haiz? Besteiei ulertzeko?

— Goizuetako hiketari mintzoarekin zein harreman edo hurbiltasun-maila dun? Beste euskararen batean aritzen haiz? Batuan?

- Hiketan ikasteko ikastarorik egin al dun inoiz?
- Aurrera begira, zein aukera edo aurreikuspen erregistro hori erabiltzeko?
- Hire hizketako ohiturak egokitzeke, aldaketaren bat egiteko prest?
- Besterik aipatu nahi?

## 2. galdetegia (Hikaren erabilera)

### Esaldi hoikin ados al yo?

1. Zaharragoei ezin **zienagu** hika egin. Beraz, hika erabiltzeko aukera gu-txiago **zeonan**.

Oso ados neon | Nahiko ados neon | Eneon bate ados | Etzakinat ze esan

2. Hika aritzea maila akademiko bajoa izatekin lotua zeonan. Baserrikoa izatekin lotua zeonan.

Oso ados nagon | Nahiko ados neon | Eneon bate ados | Etzakinat ze esan

3. **Bazeonan** mailakatze bat:

- Erdara / euskara / hika
- Maila altuagoa ezkerrean dagoenak / zakarragoa, analfabeto-  
goa eskuinerago dagoenak

Oso ados neon | Nahiko ados neon | Eneon bate ados | Etzakinat ze esan

4. Hika aritzea baserrikoa izatekin lotua **zeonan**.

Oso ados neon | Nahiko ados neon | Eneon bate ados | Etzakinat ze esan

5. Neskak finak izateko ezin **zitenan** hika aritu. Neskei gehiago eragiten **zitenan** sailkatze horrek (gizonak libreago honetarako ere).

Oso ados neon | Nahiko ados neon | Eneon bate ados | Etzakinat ze esan

### Noka aritzen dian emakumek

— Ordun, nola **dun** posible emakume horiek noka aritzea? Zergatik ez **diten** hainbeste eragiten kontu horiek?

— Ziurtasun gehiago **diten**?

— Baserrikok **ttun** eta ez **zeten** kontu horiek hainbeste eragiten (nola-bait, «kanpoago» bizi dialako)?

— **Baditen** ezaugarri bereziren bat?

— Idatzi zerrenda bat noka hitz egiten **diten** pertsonana:

### 3. galdetegia (Nokaren erabilera)

#### Intuizioak kontrastatzen

##### Adina:

- 26-40
- 41-55
- 55 urtetik goiti

##### Ikasketak:

- Lehen Hezkuntza
- Bigarren Hezkuntza
- Lanbide Heziketa
- Unibertsitatea
- Beste zer bait: \_\_\_\_\_

**Eman iritzia lasai!**

1. Ze ezberdintasun ikusten dun hika eta zukaren artean? Zer eman le-zake hikak, zukak ematen ez duena?
  
2. Hire ustez jendeak ze iritzi du nokaz? Eta tokaz? Iritzia berdina dun?
  
3. Zein ezaugarri ttin noka aritzen den emakumeak? Aukera zan hiretzat egokiena.
  - Lotsatia
  - Lotsagabea
  - Ez din horrekin zerikusirik.
  - Beste erantzun bat: \_\_\_\_\_
  
4. Zein ezaugarri ttin noka aritzen den emakumeak? Aukera zan hiretzat egokiena.
  - Ziurtasunik gabea
  - Pertsona ziurra
  - Ez din horrekin zerikusirik.
  - Beste erantzun bat: \_\_\_\_\_
  
5. Zein ezaugarri ttin noka aritzen den emakumeak? Aukera zan hiretzat egokiena.
  - Bere buruaren jabe dena (ekonomikoki).
  - Ekonomikoki pobrea dena.
  - Ez din horrekin zerikusirik.
  - Beste erantzun bat: \_\_\_\_\_
  
6. Zein ezaugarri ttin noka aritzen den emakumeak? Aukera zan hiretzat egokiena.
  - Espero den horretatik ateratzen dena, emakume librea.
  - Ez din horrekin zerikusirik.
  - Beste erantzun bat: \_\_\_\_\_

7. Zein ezaugarri ttin noka aritzen den emakumeak? Aukera zan hiretzat egokiena.

- Erdigunetik kanpora bizi dun, baserrian. Edo han jaio eta bizi izandakoa dun.
- Herri erdian jaio eta bizi izan dun.
- Bizi den lekuarekin ez din zerikusirik.
- Beste erantzun bat: \_\_\_\_\_

8. Zein ezaugarri ttin noka aritzen den emakumeak? Aukera zan hiretzat egokiena.

- Fina
- Zakarra
- Ez din horrekin zerikusirik.
- Beste erantzun bat: \_\_\_\_\_

9. Hi ere noka aritzen den emakumea haiz, honezkero, maila baten edo besten. Ezaugarri horietakoren batekin identifikatzen dun hire burua?

- Lotsa gutxikoa.
- Pertsona ziuorra.
- Nire buruaren jabe nun ekonomikoki.
- Espektatibetatik kanpora bizi nun, emakume libretzat dinat nire burua.
- Baserrian bizi nun edo bizi izandakoa nun.
- Beste erantzun bat: \_\_\_\_\_

10. Zerbettetan lagungarri izaten ahal dun hika emakumeentzat?

Emakumeak lagunarteko hizkeraren zati bat galdu din hika ez erabiltzearekin.

Azken batean, hika dun hizkera informala, egoera lasai eta arduragabeetan erabiltzekoa, emakumeari bereziki galarazi zaiona.

Esaldien hauen artean, ba al da bakarren bat ados yona? Aukeratu nahi adina.

- Nire adierazpidea osatzeko modu bezala ikusten dinat hika, lagunarteko hizkera informala osatzekoa.
- Emakumeak bizitza publikoan leku gehiago hartzen dion heinen, hika gehiago erabiliko din.
- Ahizpatasuna indartzeko baliagarri ikusten dinat noka, emakume arden ere gozo eta informal hitz egittek.
- Emakumea ahalduntzeko baliagarri ikusten dinat hika, gizonekin modu infomalen berdintasunen hitz egittek.
- Etzakinat zer esan, ez dinat erantzun horietako bakar bat garbi ikusten.
- Beste erantzun bat eman nahi badun, aurrekoa hire hitzekin osatu, hementxe dun aukera: hika zertan izaten ahal dun baliagarri emakumearentzat? \_\_\_\_\_

#### 4. galdetegia (Ikastaroaren balorazioa)

*Adina:*

1. Ikastaroan izena emandakoan izandako aurreikuspenak bete dittun?
  - a. Bai, espero nuena bete dun.
  - b. Bai, espero nuena bete dun eta espero nuena baino gehiago ikasi dinat.
  - c. Ez, ez dun egokitu nire aurreikuspenetara.
  - d. Beste erantzun bat: ...
2. Zer gustatu zin gehina?
3. Zerbeste aldatuko yunen? Zerbeste falta izan dun?

4. Ikastaroan hasiz geroztik, hika gehiago erabili dun?
  - a. Bai, pertsona ezagun batzuekin aldatu egin dinat erregistroa.
  - b. Bai, pertsona ezezagunak ezagutu eta hika hasi dinagu harremana.
  - c. Ez, lehen adina hitz egiten dinat.
  - d. Beste erantzun bat: \_\_\_\_\_
5. Zenbat pertsona berrirekin hasi haiz hika hitz egiten?
  - a. Ikastaroko kideekin bakarrik.
  - b. Ikastaroko kideez gain, 2-3 pertsona berrirekin.
  - c. Ikastaroko kideez gain, 4-5 pertsona berrirekin.
  - d. Beste kopururen bat: \_\_\_\_\_
6. Hasi berri horiekin zein forma erabiltzen dun? Toka? Noka?
  - a. Gizonezkoekin toka
  - b. Emakumezkoekin noka
  - c. Ez-bitarrekin adostu egin dinagu nola egin.
  - d. Beste erantzun bat: \_\_\_\_\_
7. Non aldatu dun zuka/hika hitz egitea?
  - a. Etxean
  - b. Lagunartean
  - c. Tabernetan
  - d. Lanean
  - e. Inon ez
  - f. Beste erantzun bat: \_\_\_\_\_
8. Aldaketa egiteko zer behar izan dun?
  - a. Nik hika ezagutzea.
  - b. Solaskideak hika ezagutzea.
  - c. Solaskidea prest egotea, aldeko jarrera erakustea.
  - d. Aldaketa horretaz hitz egitea gure artean, aurrena.
  - e. Beste erantzun bat: \_\_\_\_\_

9. Erraza izan dun aldaketa? Zergatik?
10. Hika erabiltzen hasita, zerbaitetan aldaketarik sumatu dun? (aukeratu bat edo gehiago).
- a. Harremantzeko moduan (azalduko dun gehiago? Gertukoago, informalago...)
  - b. Komunikatzeko moduan (azalduko dun? Indartsuago...)
  - c. Solaskidearengan (azalduko dun?)
  - d. Solaskidea emakume edo gizon izan desberdintasunik nabaritu dun?
  - e. Beste diferentziaren bat sumatu dinat (azaldu):
  - f. Desberdin sentitzen nun hika arita (zertan?):
  - g. Ahaldundua sentittu naun (zertan?):
  - h. Ahizpatasuna senttittu dinat (zertan?):
  - i. Diferentzia sumatu dinat, baina ez zekinat nola adierazi.
  - j. Ez dinat diferentziarik sumatu.

11. Etorkizunean, zer beharko huke hika gehiago erabiltzeko?

12. Egingo al dun ikastaroaren balorazioa, 10 bat lerrotan?

- a. Egutegi-ordutegi-iraupena-espazioa (udaletxeko ganbara).
- b. Metodologia: azalpenak-praktika-dinamika-materiala.
- c. Ikastaldea: kopurua-partaide sentitu haiz?
- d. Hobetzeko alderdiak.

Nire balorazioa:



# Euskal kulturgileen presentzia Euskal Herriko zenbait idatzizko komunikabide digitaletan: adimen artifiziala (AA) aplikatzea eduki-multzo handiak aztertzeko<sup>1</sup>

La presencia de los y las creadoras culturales vascas en algunos medios de comunicación digitales escritos del País Vasco: aplicación de la inteligencia artificial (IA) al análisis de grandes conjuntos de contenidos

La présence des créateurs et créatrices culturels basques dans certains médias numériques écrits du Pays Basque : application de l'intelligence artificielle (IA) à l'analyse de grands ensembles de contenus

The Presence of Basque Cultural Creators in Selected Digital Print Media of the Basque Country: Applying Artificial Intelligence (AI) to the Analysis of Large-Scale Content Sets

---

<sup>1</sup> Eskerrak eman nahi dizkiogu Orai Adimen Artifizialeko Zentroari prozesaketa teknikoa burutzeagatik. Ikerlana gauzatzeko ezinbesteko izan da Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza ekonomikoa (Erref.: 2024.0339), baita NOR ikerketa-taldearena ere (IT1438-22). Halaber, eskerrik beroenak Kultur Sorkuntzaren Transmisio Taldeari.

MIMENZA CASTILLO, Libe<sup>2</sup>

Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU). NOR Ikerketa Taldea.

libe.mimenza@ehu.eus

ORCID: <https://orcid.org/0000-0002-4944-824X>

MARTINEZ JUEZ, Ane<sup>3</sup>

Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU). NOR Ikerketa Taldea.

ane.martinezj@ehu.eus

ORCID: <https://orcid.org/0009-0000-4772-2439>

BURRESO PARDO, Naroa<sup>4</sup>

Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU). NOR Ikerketa Taldea.

naroa.burreso99@gmail.com

ORCID: <https://orcid.org/0009-0006-3380-4699>

AMEZAGA ALBIZU, Josu<sup>5</sup>

Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU). NOR Ikerketa Taldea.

josu.amezaga@ehu.eus

ORCID: <https://orcid.org/0000-0002-9072-3637>

DOI: <https://doi.org/10.59866/eia.v2026i71.332>

Jasotze-data: 2025/09/04

Behin-behineko onartze-data: 2026/01/23

Behin betiko onartze-data: 2026/04/01

Euskal kulturgileen ikusgarritasun mediatikoa aztertzea du xede lan honek, Euskal Herriko 2023ko 11 hedabide digitaletako «kultura» ataleko edukien bidez. Testu-meatzarritza eta adimen artifizialeko teknikak aplikatuta, 5 637 kulturgile identifikatu dira (euskaraz aritzen diren 2 679). Emaitzek erakusten dute hizkuntza (komunikabideetako edukiak euskaraz ala erdaraz ekoiztea) funtsezkoa dela euskal kulturaren ikusgarritasunean. Halaber, ikerketak ikuspegi kuantitatiboa eta teknologikoa uztartzen dituen ekarpen berritzailea eskaintzen du.

**Gako-hitzak:** euskal kultura, adimen artifiziala, komunikabideak, euskara, *agenda setting*.

---

<sup>2</sup> Lanaren kontzeptualizazioa, diseinu metodologikoa, baliabideak, datuen prozesaketa, datuen analisia eta artikulua idazketa.

<sup>3</sup> Datuen prozesaketa, datuen analisia eta lanaren berrikuspena.

<sup>4</sup> Datuen balioztatzea, datuen prozesaketa, datuen analisia eta lanaren berrikuspena.

<sup>5</sup> Datuen prozesaketa, datuen analisia eta lanaren berrikuspena.

Este trabajo tiene como objetivo analizar la visibilidad mediática de los y las creadoras culturales vascas, a partir de los contenidos de la sección «cultura» de 11 medios digitales del País Vasco durante 2023. Aplicando técnicas de minería de textos e inteligencia artificial, se han identificado 5 637 creadores y creadoras culturales (2 679 que trabajan en euskera). Los resultados muestran que el idioma (si los contenidos mediáticos se producen en euskera o en otro idioma) es un factor clave en la visibilidad de la cultura vasca. Asimismo, la investigación ofrece una contribución innovadora que combina un enfoque cuantitativo y tecnológico.

**Palabras clave:** cultura vasca, inteligencia artificial, medios de comunicación, euskera, *agenda setting*.

Cette étude a pour objectif d'analyser la visibilité médiatique des créateurs et créatrices culturels basques, à partir des contenus publiés en 2023 dans la section « Culture » de onze médias numériques du Pays Basque. En appliquant des techniques de fouille de texte et d'intelligence artificielle, 5 637 créateurs et créatrices ont été identifiés (dont 2 679 s'expriment en basque). Les résultats montrent que la langue (que le contenu médiatique soit créé en basque ou dans une autre langue) constitue un facteur clé de la visibilité de la culture basque. En outre, cette recherche constitue une contribution innovante, combinant une approche quantitative et technologique.

**Mots-clés :** culture basque, intelligence artificielle, médias, basque, *agenda setting*.

This study aims to analyze the media visibility of Basque cultural creators, based on the content from the «culture» sections of 11 digital media outlets in the Basque Country during 2023. By applying text mining and artificial intelligence techniques, 5,637 cultural creators were identified (2,679 of whom work in Basque). The results show that the language of production (whether media content is created in Basque or in another language) is a key factor in the visibility of Basque culture. Furthermore, the research offers an innovative contribution by combining a quantitative and technological approach.

**Keywords:** Basque culture, artificial intelligence, media, Basque language, *agenda setting*.

MIMENZA, Libe, MARTINEZ, Ane, BURRESO, Naroa eta AMEZAGA, Josu (2026). «The Presence of Basque Cultural Creators in Selected Digital Print Media of the Basque Country: Applying Artificial Intelligence (AI) to the Analysis of Large-Scale Content Sets», *Euskera Ikerketa Aldizkaria* 71 (1): 167-214.

1. Sarrera
2. Ikergaiaren egoera
3. Ikerketa-helburuak eta -galderak
4. Metodologia
  - 4.1 Ikergaiaren zedarritzea
  - 4.2 Datu-bilketa
  - 4.3 Datuen prozesaketa
  - 4.4 Datuen analisisa
5. Emaitzak eta eztabaida
6. Ondorioak
  - 6.1 Ekarpenak
  - 6.2 Mugak
  - 6.3 Etorkizunerako zenbait ikerketa-ildo

#### Bibliografia

## 1. Sarrera

Kulturgintzak funtsezko eginkizuna betetzen du komunitatearen nortasunaren, hizkuntzaren eta sormenaren transmisioan. Bereziki, euskarazko kulturgintzak balio estrategikoa du hizkuntzaren biziberritzeari eta jendar-tearen kohesio kulturalari dagokionez. Oraindik ez da sistematikoki neurtu euskal kulturgileek Euskal Herriko komunikabideetan duten presentzia hori zenbatekoa eta nolakoa den.

Gaur egun, komunikabideek jendarteko iruditeria kolektiboa eraikitzekeo duten boterea ukaezina da. Hedabideetan zein kultur erreferente ageri diren, eta zein maiztasunez, iritzi publikoan eta komunitatean nagusitzen den diskurtsoaren adierazle ere bada. Horregatik, euskarazko kulturgintzak komunikabideetan duen ikusgarritasuna aztertzea beharrezkoa da, fenomeno horren egoera zehazteko eta hobeto ezagutzeko.

Ikerketa honen xedea, beraz, Euskal Herriko komunikabideetan euskal kulturgileen ikusgarritasunaren egoera kuantitatiboki aztertzea da. Horri erantzuteko, adimen artifizialeko (AA) hizkuntza-eredu neuronalak (LLM) aplikatu dira gizarte-zientzietako eta euskarazko ikerketan, testu-meatarritza eta hizkuntza naturalaren prozesamenduko (NLP) teknikak eta algoritmoak baliatuta. Ikerlanaren bidez, eta 2023an komunikabideetan argitaratutako kultur eduki digitaletan oinarrituta, euskal kulturgileen 5 637 erregistroko datu-base bat sortu da. Prozesua automatizaturia izan da zati batean, baina eskuzko kodetze-lanarekin osatu da fidagarritasuna eta analisirako kategorizazioa bermatzeko.

Azterketarako erabili den lagina ondorengo 11 hedabide digitalen osatzen dute: *alea.eus*, *amboto.org*, *argia.eus*, *berria.eus*, *diarivascos.com*, *eitb.eus*, *elcorreo.com*, *goiena.eus*, *kazeta.eus*, *naiz.eus* eta *noticiasdenavarra.com*. Horien edukiak prozesaturia, berriz, bi ikerketa-galdera erantzun dira: alde batetik, zenbat euskal kulturgile, eta zenbat aldiz, agertzen diren komunikabideetan; bestetik, nortzuk diren komunikabideetan agertzen diren euskal kulturgileak.

Artikulu honetan, lehenik, ikergaiaren egoera eta aurrekari nagusiak aztertuko dira; ondoren, ikerketa-helburuak eta -galderak zehaztu, metodo-

logia azaldu, eta, jarraian, emaitzak eta eztabaida garatu; azkenik, ondorio nagusiak, ikerlanaren ekarpenak eta mugak aurkeztuko dira.

## 2. Ikergaiaren egoera

Ikergaiari buruzko nazioarteko ikuspegia osatzeko, Web of Science eta Scopus datu-base akademikoetan bilaketa arakatzailak egin dira («Basque culture», «Basque cultural production», «Basque media» edota «Basque language» bezalako gako-hitzekin osatutako bilaketa-kateen bidez), baina euskal kulturgintzari eta Euskal Herriko komunikabideei buruzko lan espezifikorik ez da aurkitu. Euskal kulturgileen presentzia mediatikoa gai lokala da, eta tokikoa den heinean, ez da ohikoa nazioarteko aldizkari indexatuetan; aitzitik, ikergaiaren gaineko lanak euskarazko ekoizpen zientifikoa aurkitzen dira. Horrenbestez, azterketa sakonagoa egin da euskarazko ekoizpena bildu, aztertu eta zabaltzea xede duen Inguma datu-basean.

«Euskal kultura» gako-hitzaren bilaketak 90 emaitza<sup>6</sup> itzultzen ditu Ingunan; 1968 eta 2023 bitarteko 60 artikulua, zazpi liburu eta hiru doktorego-tesi (Amezaga Albizu 1994; Amezaga Etxebarria 2016; Iztueta Azurmendi 2014) tartean, besteak beste. Halaber, franko dira «Euskal Herria» (76) edo «Kultura» (67) jakintza-arloetan sailkatutako lanak, baina askoz apalagoa da «euskara» (15), «komunikabideak» (3), «kazetaritza» (2) edo «Internet» (2) etiketapeko lanen bilduma. Gure ikergaia zeharkatzen duen bigarren multzo horretako lan gehienak, gainera, XXI. mendearen bigarren hamarkadatik aurrerakoak dira.

«Kulturgintza» bilaketa-terminoaren atzean ere bada, adibidez, Ane Larrinagaren tesia (Larrinaga Renteria 2006) eta, batez ere, azterlan honetan

---

<sup>6</sup> Lan honetan, «euskal kultura» esamoldea kakotx artean bilatu da, hitz-konbinazio zehatz hori agertzen den dokumentuak soilik identifikatu eta aztertzeko. Halaber, azterketa bibliografikoa, kakotxik gabeko bilaketa ere egin da —«euskal» eta «kultura» hitzak solte edo ordena ezberdinean ageri dituzten dokumentuak bilatzeko—, eta askoz emaitza orokorrak agertu dira horrela, 14 892 dokumentu hain zuzen ere. Beraz, ikerlan honetan espezifikotasuna hobetsi da, testuinguru kontzeptual zehatzari lotutako lanak identifikatzeko helburuarekin.

erreferentzia markotzat baliatu diren bi artikulu (Agirre Dorronsoro *et al.* 2011; Astiz eta Rubio 2016).

Lehen artikuluan, «Euskal kulturgintza: nondik gatoz, non gaude, nora jo beharko genuke. Eztabaidarako proposamen bat» azterlanean (Agirre Dorronsoro *et al.* 2011), oinarri teoriko sendoa eskaintzen da euskal kultura aztertzeko. Egileek kulturgintza ulertzeko ikuspegi sistemiko eta harremanetan oinarritutakoa proposatzen dute, eta «eremu» kontzeptua baliatzen dute eragile-sarearen egituraketa aztertzeko. Zehazki, hiru oinarri ekarri dira lan horretatik ikerlan honen ardatzera: lehena, euskara gutxiengoaren hizkuntza minorizatua dela, eta euskal kultura, ondorioz, gutxiengoaren kultura minorizatua (Agirre Dorronsoro *et al.* 2011: 15); bigarrena, euskal kultura euskaraz sorturiko kulturatzat hartzen dela, eta, horrenbestez, funtsezkoa dela bereiztea berbazko euskarazko kultura, berbazko erdarazko kultura eta ez-berbazko kultura (*ibid.*); eta, hirugarrena, hedabideen artean lau eragin-eremu bereizten direla —euskalgintzako euskarazko hedabideak, hedabide publiko euskaldunak, erdalgintzako hedabide publiko zein pribatuak, eta hedabide elebidunak (Agirre Dorronsoro *et al.* 2011: 71-72)—. Oinarri horiek baliatu dira azterlan honetan, alde batetik, euskal kulturaren definizio operatiboa finkatzeko, eta, bestetik, ikerketa-kategoriak sailkatzeko.

«Kulturgintza norabidearen atakan» artikuluan (Astiz eta Rubio 2016), berriz, Durangoko 2015eko Azokako Gogoetaren Plazan parte hartu zuten 22 sortzaile, kulturgile eta erakundeetako ordezkariaren hitzen sintesia jasotzen da. Gerediaga Elkarrekin eta Jakinek antolatutako saio horietan, euskal kulturarentzat zentralak diren lau gai nagusi landu ziren: ikusgarritasuna, kultur politika, transmisioa eta prestigioa. Komunikabideek transmisio-tresna gisa duten garrantzia kontuan hartuta, eta lan honen ikergaia osatzen dutenez, arreta berezia jarri da hedabideek euskal kulturaren ikusgarritasunean duten eraginaren gaineko hausnarketetan. Hain zuzen, duela hamarkada bat kezka partekatu bat plazaratu baitzen: euskal kultura ez dela ikusgarria, ez euskaraz ez dakitenen artean, eta ezta euskaldunek osatutako komunitate trinkoenaren baitan ere. Azterlan honen bidez argi apur bat eman nahi diogu kezka horri, euskal kulturgintzaren ikusgarritasunaren neurketa kuantitatiboa eginez komunikabideetan.

*Jakin* aldizkarian argitaratutako bi lan horiek gako esanguratsuak dira, bai euskal kulturgintzaren gaineko eztabaida eta gogoeten erreferentzia gisa, bai horietatik ikerlan honetarako hartutako zimenduetan; baina biak —honako lan hau ez bezala— ikuspuntu kualitatibotik osatutako begiradek eraikitakoak dira.

Bada beste lan erreferente bat ikuspegi kuantitatibotik heltzen diona gaiari, Elkar Fundazioak 2018an jendarteratutako merkatu-ikerketa, Euskal Herri osoan 2 500 inkestaren bidez egindako irakurketa eta musika ohituraren inguruko azterketa (Siadeco 2017). Hauxe lanak azpimarratu zuen euskararen merkatuaren gaineko datu inportantea: Euskal Herriko 15 urtetik gorako hamar biztanletik zazpi dira irakurleak, % 58 berriz ohiko irakurleak —1 500 000 lagun—; euskarazko ohiko irakurleak, aldiz, % 6 baino ez —160 000 lagun—, eta euskaldunen artean ohiko irakurleak dira % 22,9. Halaber, euskarazko ohiko irakurleen datuak bat egin zuen euskarazko prentsa irakurleen datuarekin —% 5,6k esan zuen irakurritako bi egunkari nagusitik bat euskarazkoa zela—. Euskarazko idatzizko ekoizpenaren inguruko merkatua, ondorioz, 150 000 lagun ingurura mugatzen dela ondoriozta daiteke, eta horrek berak adierazten du oso tamaina mugatuko kontsumo-esparrua dela.

Merkatu-ikerketa horren irakurketa egin zen «Euskarazko kulturaren kontsumoa ulertu nahirik» artikuluan (Amezaga Albizu 2018) eta, bertan berretsi ikerketak agerian utzi zuela euskarazko kultur produktuak populazioaren zati mugatu batera baino ez zirela benetan iristen, eta, ondorioz, kontsumoaren ahulezia nabaria zela. Halaber, ohartarazten da komunikabideen kontsumoa eta kultur produktuen kontsumoa ez daudela elkarrengandik oso urrun (Amezaga Albizu 2018: 51), eta, komunikabideek lehen mailako sozializazio-eragile gisa jarduten dutenez, funtsezko eginkizuna dutela kultura baten transmisioan eta hedapenean. Are, «Industria kulturalaren garapena» (Azpillaga Goenaga 1990) zein «Euskal Kultura industriaren enpresak» (Juaristi Larrinaga 2015) azterlanetan, kultura industriaren erdigunean kokatzen dira hedabideak.

Behin marko orokorra finkatuta, ikergaia gehiago zehaztuta egin da bilaketa bibliografikoa, argitzeko asmoz ea komunikabideetako euskal kultur-

gintzaren presentziari buruzko lanik ba ote dagoen. Diziplina konkretu edo produktu kultural zehatzen inguruko kasu-azterketak badaude —herri-musikari buruzkoak, edo film, liburu edota hedabide jakin bat ardatz dutenak—, baina azterlan honetan landuko denaren antzekorik deus ez.

Literaturan hutsunea identifikatu da, hortaz: ez dago azterketarik euskal kulturgileen presentzia mediatikoari buruz. Alegia, zenbat aldiz eta nortzuk agertzen diren ez da sistematikoki neurtu, eta horrek gabezia nabarmena eragiten du euskal kulturgintzaren ikusgarritasunaren ezagutza objektiboan. Lan hau ekarpen bat da hutsune horri ikuspegi kuantitatibo batetik heltzen hasteko.

Metodologiari dagokionez, gainera, adimen artifizialeko (AA) hizkuntza-eredu neuronalak (LLM) aplikatu dira datu-multzo handiak aztertzeko, hau da, corpus mediatiko handi batean ikusgarritasuna kontatzeko; horretarako, testu-meatzaritzako eta hizkuntza naturalaren prozesamenduko (NLP) teknikak eta algoritmoak aplikatuta.

AAk eta NLPk zientzia konputazionala eta linguistika uztartzen dituzte; eta, hastapen kontzeptuala XX. mendearen erdialdekoa bada ere (Turing 1950), benetako garapena zein aplikazioa azken hamarkadetan hedatu dira. Gaur egun, sarean dauden datu- eta dokumentu-kopuru handiak azter daitezke, eta informazio baliagarria erauz daiteke, ondoren hori aztertu eta ezagutza baliotsua sortzeko. Adibidez, online albiste-multzo handiak arakatura *agenda setting* azterketa aplikatzeko (Kim *et al.* 2014) balia daitezke halako teknikak, berdin aldaketa kulturalen eredu makroskopikoak detektatzeko denbora-tarte zabaleko testu-multzo handiak analizatuta (Lansdall-Welfare *et al.* 2017), atzerriko langileei buruz hedabideetan sortzen den narratiba aztertzeko (Lee 2019), diskurtso politikoetako protagonistak identifikatzeko (Barić, Papay eta Padó 2024), krisi-egoeretan komunikabideetako albisteen analisia egiteko (Mykkänen *et al.* 2024), pil-pilean den gai jakin baten gaineko iruditegi eta diskurtsoa aztertzeko —adibidez, AAren integrazioa kazetaritzan— (Calvo, Cano-Orón eta Morales-i-Gras 2025), edo Eusko Legebiltzarreko 2012-2020 bitarteko aktak aztertuta ondorioztatzeko, esaterako, euskararen agerpena % 21ekoa izan zela bi legegintzaldi horietako diskurtsoetan (Orbegozo-Terradillos *et al.* 2025).

Beraz, agerikoa denez, halako metodologia baliagarria izaten ari da aktoreak identifikatzeko, alborapenak antzemateko, narratibak aztertzeke edota aniztasuna ebaluatzeke.

Euskal Herriko komunikabideetan ikerlan honen aurretik bi lan aitzindari egin dira. Lehen, prentsa digitalean emakumezkoek zenbateko presentzia duten kuantifikatzeko hiru hedabide digitalen atarietako urtebeteko ekoizpenarekin burutu zen ikerlana (Saralegi Urizar 2019) eta, bigarrena, euskarazko prentsaren narratibaren ardatz geografikoak aztertzeke beste hiru ataritan eta hiru urteko materialarekin egindakoa (Beloki Leitza eta Saralegi Urizar 2020); kasu horretan, gainera, testu-meatzaritza eta Wiki-data uztartuta. Lan horien bidetik, ikerlan honek antzerako prozesu automatikoak eta berritasun gisa eskuzkoak konbinatzen ditu, ikergaiaren gaineko ulermen sakonagoa eskuratzeko.

Horrenbestez, hona literaturan aurkitu den bigarren hutsunea: euskararen ikuspegitik, oraindik oso urria da AA, LLM edo NLP tekniken aplikazioa. Areago, euskarazko kulturgintzaren presentzia mediatikoa neurtzeke xedez baliatu den azterketarik ez da aurkitu. Hutsune hori kontuan hartuta, lan honek ekarpen bat egiten dio teknika aurreratuen gizarte-zientzietako aplikazioari.

### 3. Ikerketa-helburuak eta -galderak

Ikerketa hau gizarte-zientzien esparruan kokatzen da, eta berritasun metodologiko gisa, adimen artifizialeko hizkuntza-eredu neuronalak (LLM) aplikatu dira datu-multzo handiak aztertzeke; prozesu automatikoa eskuzko balioztatze eta sailkapen lanarekin konbinatuta. Alde horretatik, ikerketa-helburuetako bat metodologia kontrastatzea izan da.

Era berean, ikerlan honen xede nagusia da euskal kulturgintzak Euskal Herriko komunikabideetan duen presentzia mediatikoa nolakoa den eza-gutzea, hizkuntzari begiratuta bereziki. Horretarako, arreta bi alderditan jarri da: batetik, euskal kulturgileak zenbat agertzen diren kultur edukietan;

bestetik, nortzuk diren kulturgile horiek. Ez da hipotesirik frogatu nahi, baizik eta ondoko ikerketa-galderak erantzutea bilatzen da.

1. IG: Zenbat euskal kulturgile eta zenbat aldiz agertzen dira komunikabideetan?
2. IG: Nortzuk dira komunikabideetan agertzen diren euskal kulturgileak?

Galdera horiei erantzunez, Euskal Herrian euskal kulturgileek zer espazio mediatiko duten jakin nahi da, eta horren bidez, euskarazko kulturgingintzaren ikusgarritasunaren egoerari buruzko ezagutzan sakondu.

## 4. Metodologia

Euskal Herriko komunikabideetako euskal kulturgileen presentzia nolakoa den aztertzeko xedez, adimen artifiziala baliatu da, bost ikerketa-erabakitan oinarritutako eduki-multzo handi batetik abiatuta, datu-base bat eraikitzeko. Jarraian, metodologiaren funtsezko urratsak azaltzen dira: abiaburuko erabakiak, datu-bilketa, datuen prozesaketa eta analisia.

### 4.1 Ikergaiaren zedarritzea

Lehenik eta behin, adimen artifizialeko hizkuntza-eredu neuronalak aplikatzea erabaki da gizarte-zientzietako eta euskarazko ikerketan, testu-meatzaritzako eta hizkuntza naturalaren prozesamenduko teknikak zein algoritmoak baliatuta datu-multzo handiak prozesatzeko eta horietan joerak identifikatzeko.

Bigarrenik, Euskal Herrian euskal kulturgileek zer espazio mediatiko daukaten ezagutzeko, eremu mediatikoa zedarritu da; horretarako, eskaintza eta kontsumo ohiturak kontuan izanda.

Eskaintzari dagokionez, Euskal Hedabideen Behatokiak osatutako euskarazko komunikabideen erroldaren arabera (Datutegia d.g.), euskarazko 127 hedabide zeuden 2023an: 81 tokikoak (% 64), zortzi lurralde-mailakoak

(% 6), bederatzi nazionalak (% 7) eta 29 tematikoak (% 23). Multzo horretan, orotara, euskarazko 230 produktu biltzen dira —paperezko egunkari zein aldizkariak, irriatiak, telebistak eta atari digitalak—; zehazki, web atariak dira euskal komunikazio-produktuen ia erdia (% 46). Euskara hutsean egiten den eskaintza horri, gainera, euskarri guztietako Euskal Herriko komunikabide elebidunak gehitu behar zaizkio, eta baita eskaintza erdalduna ere.

Arreta euskal herritarren kontsumo mediatikoan jarriz gero, hedabide digitalak gailentzen dira: 2019an CIESeK euskal herritarrei pasatako inkesta baten arabera<sup>7</sup>, hamar euskal herritarretatik zortziren ohiturazko hedabide zen ordurako prentsa digitala (% 83) eta ia erdiaren lehentasunezko aukera (% 44) —lehentasunezko sarbide nagusi izanda telebista, irratia edo paperezko aukeren aurretik—. 2023an EAeko biztanleei egindako beste inkesta baten arabera (Eusko Jaurlaritza 2023), berriz, eguneroko albisteen kontsumoa 2010ean % 13 izatetik 2023an % 52 izatera pasa zen Interneten. Halaber, CIES<sup>8</sup> inkestaren 2024ko datuen arabera, Hego Euskal Herriko 14 urtetik gorako hamar biztanletik zortzik kontsumitzen ditu albistek online. Hara kontsumitzaileen gaur egungo hautu digitalaren beste bi ebidentzia: lehena, paperezko egunkari kontsumitzaileak baino gehiago izan ziren hedabidearen izena Interneteko bilatzailean jarri zutenak 2024. urtean; eta, bigarrena, 35 urtetik beherakoen artean sare sozialak izan ziren informatzeko euskarri hautatuena —beste ezein sarbideren aurretik—.

---

<sup>7</sup> EHUko HGH ikerketa-taldeak 2019an egindako arnasa luzeko kazetaritzaren inguruko azterketa baten parte da datu-iturri hau eta CIES enpresarekin batera uztailean Araban, Bizkaian, Gipuzkoan, Iparraldean eta Nafarroa Garaian zabaldu zuten inkesta bat du oinarri (Manias, Gurrutxaga eta Ramirez de la Piscina 2020).

<sup>8</sup> CIES inkesta urtero errepikatzen da, bi olatutan, 1984az geroztik. Hego Euskal Herriko audientzia-ikerketa horretan, 8 725 inkesta egin ziren 2024ko datu-bilketa metatuan (akats tarteak  $\pm$  % 1,05, % 95eko konfiantza-mailarako).

Ipar Euskal Herrian ez dago CIESen pareko neurketarik, Frantziako Médiamétrie audientzia neurketa-enpresak egiten dituen lanak ez baitira adierazgarriak lurraldean. Hortaz, noizean behin egiten diren Euskal Herri osoko datu-bilketa puntualak gain, geure datu propioak sistematikoki batzeko azpiegitura sortzeko dugula gogorarazten digu hutsune honek beste behin.

Nazioartean bezala (Newman *et al.* 2025), gurean ere, bai eskaintza, bai eskaera digitala gailentzen direnez, euskarazko kulturgintzaren presentzia mediatikoa aztertzeko ariketa hedabide digitaletan oinarritzea erabaki da, komunikabideen webguneak arakatuz, horrenbestez.

Hedabideen aukeraketak eragin du hirugarren erabakia. Euskal Herriko hedabideen artetik 11 komunikabidek osatutako lagina aukeratu da azterketarako, audientzia handienekoak hobetsita (CIES d.g.; Datutegia d.g.) eta eskaintzaren ordezkagarritasuna bilatzeko xedez zabalpen geografikoa<sup>9</sup> eta hizkuntza<sup>10</sup> kontuan hartuta. Hurrenkera alfabetikoaren arabera, ondoko webguneek osatu dute lagina: *alea.eus*, *anboto.org*, *argia.eus*, *berria.eus*, *diariovasco.com*, *eitb.eus*, *elcorreo.com*, *goiena.eus*, *kazeta.eus*, *naiz.eus* eta *noticiasdenavarra.com*.

Ikergaia mugatzeko laugarren erabakiaren atzean *noiz* eta *non* zehaztu dira: 2023ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitarte, lagineko web-

---

<sup>9</sup> Lagineko hedabideen zabalpen geografikoa behatuta, lau dira Euskal Herri mailakoak (*argia.eus*, *berria.eus*, *eitb.eus* eta *naiz.eus*), bina Bizkaian (*anboto.org*, *elcorreo.com*) eta Gipuzkoan (*diariovasco.com*, *goiena.eus*) hedatzen direnak eta bana Araba, Nafarroa eta Ipar Euskal Herria ardatz dutenak (*alea.eus*, *noticiasdenavarra.com*, *kazeta.eus*).

<sup>10</sup> Euskaraz gain, beste hizkuntza batean ere aritzen diren hedabideak aukeratu dira; ea hizkuntzak eraginik duen arakatu asmoz, hain zuzen ere. Horretarako, gutxienez bi eletan edukiak argitaratzen dituzten komunikabideak hautatu dira (euskaraz aparteko hizkuntza gaztelania izanda), beraz, euskarazko edukiak eta gaztelaniazko edukiak landu eta argitaratzen dituzten markak gehitu dira laginera: *diariovasco.com*, *eitb.eus*, *elcorreo.com*, *naiz.eus* eta *noticiasdenavarra.com*.

Horiek guztiek argitaratzen dituzte bai euskarazko bai gaztelaniazko edukiak haien webguneetan, baina maila ezberdinetako praxia da batean-beste. Hartara, hizkuntza-irizpide ezberdinetako hedabideak daude laginean: adibidez, bi hizkuntzetako bertsioak eskaintzea bi nabigazio-hizkuntza aukeran jarrita (*eitb.eus*), edo euskarazko zein gaztelaniazko edukiak eskaintzea erabiltzailei haien nabigazio-hizkuntza edozein dela ere (*naiz.eus*), edo euskaraz eduki gutxi batzuk lantzea atal jakinetan eta euskaraz nabigatzeko aukerarik ez ematea (*diariovasco.com*, *elcorreo.com*, *noticiasdenavarra.com*). Trataera ezberdin horiek kontuan hartzekoak dira emaitzen irakurketan.

guneetako «kultura» ataletan<sup>11</sup> argitaratutako idatzizko edukiak<sup>12</sup> (bai euskarazkoak, bai gaztelaniazkoak, hala dagokionez).

Azkenik, bosgarren erabakia, euskal kulturgileen identifikazioari lotutakoa da. Lan honetan euskarazko sortzaileak hartzen dira euskal kulturgi-letzat; baina euskaraz eta beste hizkuntza batzuetan ere aritzen direnak agertuko direnez analisi corpusean, hainbat hizkuntza-kategoria sortuko dira, ondorioz euskarazko kulturak zer pisu hartzen duen jakiteko.

## 4.2 Datu-bilketa

Behin ikergaia zedarrituta, 11 webgunetako «kultura» ataleko edukiak bildu eta formatu garbian ezarri dira<sup>13</sup> estaldura handiko lagina osatzeko. Automatizatutako prozesu baten bidez, edukiaren HTMLtik izenburua eta

---

<sup>11</sup> Hautatutako hedabide guztiek dute «kultura» atal bat haien webguneetan, eta hori izan daiteke erabiltzaileen menu aukera. Hala ere, hedabide guztiek ez dute haien webguneko atal hori modu berean betetzen: batzuek kultur eduki guztiak kokatzen dituzte bertan, beste batzuek agenda aparte lantzen dute, batzuetan kultur eduki batzuk beste ataletakoren batean kokatzen dira halaberharrez... Eta, beraz, ikerlan honetan soilik «kultura» atala kontuan hartu denez gero, honek badakar emaitzen irakurketan kontuan hartu beharko den alborapen bat, ez baita aztertutako hedabideen kultur ekoizpen guztia ikertu. Gainera, beste zenbait gauza gertatzen dira lagineko hainbat komunikabideren kasuan: batek (*argia.eus*) lizentzia libreko beste hedabide batzuetako edukiak ere zabaltzen ditu bere «kultura» atalean; beste batek (*berria.eus*) euskal musika lantzeko aparteko ataria dauka (*badok.eus*); hirugarren batek (*eitb.eus*) bere irrati eta telebista publikoetan ere lantzen ditu kultur edukiak; eta, laugarren batek (*naiz.eus*), «kultura» atalaz gain, musikaren inguruko aparteko atal propioa eta kultur edukiak markaren beste agerkari batzuetan (*Naiz Irratia* edo *Gaur 8* kasu) argitaratzeko lan planteamendua ditu. Edonola ere, «kultura» atala izan daiteke eta bada erreferentzia komuna atari digitalak nabigatzerakoan eta, beraz, azterketarako nahikoa adierazgarria.

<sup>12</sup> Ikerketan testu-meatzaritzako eta hizkuntza naturalaren prozesamenduko teknikak eta algoritmoak erabiliko direnez, audio edo ikus-entzunezko edukiak alboratu egin dira eta soilik idatzizko materialarekin osatu da analisi corpusa. Jakina eta kontuan hartzekoa da geroz eta multimedioak direla komunikabideak egun, eta, beraz, alderdi horiei ere erreparatzea interesgarri izango da beste ikerketa batzuetan. Edozelan ere, lagineko komunikabide guztiek dute testu ekoizpen esanguratsua haien «kultura» ataletan, hortaz, testuetako edukia nahikoa adierazgarria da.

<sup>13</sup> Datu-bilketat, prozesaketa teknikoaz eta datu-basearen osaketaz Orai NLP Teknologia arduratu da, Elhuyarren adimen artifizialeko zentroa.

gorputza soilik erauzi dira<sup>14</sup>, *boilerplate removal* izeneko teknikak erabilia eta horien bidez baztertuta testuaren zati ez diren elementuak (adibidez, publizitatea, erlazionatutako albisteak, egilea eta abar). *Boilerplate removal* prozesua bi pausotan<sup>15</sup> egin da, garbiketa-kalitate gorena bermatzeko.

Aurrez ezarritako irizpideak betetzen dituzten kasuak hartu dira aintzat, eta honela osatu da ikerketarako lagina: 24 246 kultur eduki ezberdin erauzi dira, 8 512 euskarazkoak (% 35,1) eta 15 734 gaztelaniazkoak (% 64,9).

### 4.3 Datuen prozesaketa

Behin datu-bilketan azterketarako lagina osatuta (1. urratsa), bertako edukietan agertzen diren euskal kulturgileak detektatzeko ondoko sei pausoko prozesua jarraitu da:

1. Eduki bakoitzeko euskal kulturgile hautagaiak identifikatu dira *Meta-Llama-3-70B-Instruct* hizkuntza-eredu handia (LLM) erabilia<sup>16</sup>.
2. Identifikatutako kulturgile berdinen aldaerak bateratu eta normalizatu dira (adibidez, «Néstor Basterretxea» vs «Nestor Basterretxea»), eta zarata garbitu da.
3. Datu-basea birdimentsionatu da, ondorengo analisirako operazionalizatu ahal izateko.
4. LLMak aurkitutako euskal kulturgile hautagaiak sailkatu dira automatikoki; honetarako, euskal kulturgileen kanpoko ezagutza-base bat sortu eta harekin kontrastatuta.

---

<sup>14</sup> Datuen erauzketa 2024ko ekainean egin zen, horretarako beharrezkoak izan ziren harpidetzak eginda.

<sup>15</sup> Lehenengo pausoen, *Trafilatura* tresna erabili da lehenengo garbiketa egiteko. Bigarrenean, *ad hoc* garbitzaileak inplementatu eta erabili dira lehenak ondo garbitzen ez zituen iturrietarako.

<sup>16</sup> Erabilitako *Meta-Llama-3-70B-Instruct* ereduak, prozesamendua burutu zen unean, euskara eta gaztelania hizkuntzetarako libreki eskuragarri zegoen instrukziopeko LLM onena zen.

5. LLMak aurkitutako euskal kulturgile hautagaiak sailkatu dira eskuz; honetarako, kodetze-gida sortu da eta hautagai guztiak sailkatu eta egiaztatu dira —automatikoki sailkatuak barne—.
6. Euskal Herritik kanpoko kulturgileak ezabatu dira.

Sekuentzia horren aplikazioa urratsez urrats azalduko da jarraian. Lehenengo pausoan, datu-bilketako eduki bakoitzean euskal kulturgileak aurkitzeko instrukzioa ematen zaio *prompt* baten bidez LLMari. Agindua adierazteko hainbat *prompt* ebaluatu ziren lehenik, eta probetan emaitzarik onena eman zuena erabili zen albiste guztiak prozesatzeko. Horrela, 24 246 kultur edukik osatutako 12,6 milioi hitzeko corpusean, 41 188 entitate identifikatu ziren euskal kulturgile hautagai gisa. Lehen urrats honetan LLMak itzulitako emaitzen doitasuna ona izan zen (euskal kulturgile hautagaien % 71 zuzenak), eta doitasun-maila hori hobetu egin zen hurrengo urratsekin.

Bigarren pausoan, entitateen izendapenak normalizatu eta bateratu dira alde batetik. Kulturgile beraren izena hainbat modutan idatzita ager daiteke; hala nola zenbait modutan deklinatuta euskararen kasuan, gaztelaniazko edo euskarazko grafiarekin idatzita, izen laburra edo luzea eta abar. LLMak horrelako aldaerak bateratzen ditu kasu gehienetan, baldin eta albiste berean agertzen badira; aitzitik, ezin du bermatu albiste ezberdinen artean koherentzia hori mantentzea. Horri aurre egiteko, eta ikerketarako datu-basean kulturgileen izenak bateratua edukitzeko, bateraketa automatikoa aplikatu da *string similarity*aren araberako multzokatzean<sup>17</sup> eta erregela ortotipografikoetan oinarritua (deklinabidea, izen-abizenak eta azentu-markak). Bestetik, zarata lexikoaz gain, entitateen artean kulturgile ez zirenak ere garbitu dira (udalak, museoak, liburutegiak, sindikatuak, kasu), gizabanako sortzaileak hobetsita. Operazio horien ondoren, 41 188 entitatetik 32 868ra pasa da zerrenda.

Hirugarren pausoan, datu-basea birdimentsionatu da, maiztasun bakarreko entitateak ezabatuz, analisirako egokitu ahal izateko. Horrela, entitate kopurua 32 868tik 13 239ra murriztu da.

---

<sup>17</sup> *String similarity* kalkulua *machine learning* edo ikasketa automatikoaren oinarritzko eragiketa bat da; ohikoa da antzekotasuna neurtzeko informazio-bilketan zein hizkuntza naturalaren prozesamenduan.

Laugarren eta bosgarren pausoetan, entitate bakoitzari dagokion kultur-gilea identifikatzeaz gain, sailkatu ere egin da, haren sormen hizkuntza eta diziplina kontuan hartuta. Horretarako, lehenik, prozesu automatizatu bat inplementatu da, eta, ondoren, eskuzko kodetze-lana egin da.

Lehen zatirako ezagutza-base bat sortu da modu automatikoan, berariaz kanpoko iturriak konbinatuta. 1. taulan erakusten dira prozesu horretan erabilitako iturriak eta bakoitzetik eskuratutako kultur-gile-kopurua.

**1. taula.** Euskal kulturgileen sailkapenerako ezagutza-basea sortzeko erabilitako iturriak<sup>18</sup>

Webgunea	Kultur-gile kopurua
<i>dantzari.eus</i>	73
<i>ganbara.eus</i>	1 766
<i>eu.wikipedia.org</i>	684
<i>euskalaktoreak.eus</i>	338
<i>ganbila.eus</i>	407
<i>badok.eus</i>	1 503
<i>bertsoa.eus</i>	796
<i>sortzaileak.eus</i> <sup>19</sup>	2 243

*Iturria:* egileek landua.

Iturri horietan aurkitutako kultur-gile bakoitzaren ondoko metadatuak eskuratu dira, ahal izan den kasuetan, *web scraping*<sup>20</sup> bidez: izena, jaiotze-data,

<sup>18</sup> Iturri desberdinak erabiltzerakoan, kultur-gile bera iturri batean baino gehiagotan agertu da hainbatetan eta kasu horiek bateratu egin dira.

<sup>19</sup> Datu-base hau 2018an aurkeztu zen hainbat diziplinatako euskal sortzaileen katalogoa da, eta lan honetan baliatzeko jaso da egileen eskutik.

<sup>20</sup> *Web scraping* testu-analisirako edo datu-prozesamendurako erabili ohi den web-orrietako informazioa automatikoki eskuratzeko eta egituratzeko prozesua da.

diziplina, lurraldetasuna eta hizkuntza<sup>21</sup>. Ondoren, datu-basean identifikatutako 13 239 entitateetako bakoitza sortutako ezagutza-basean ote dagoen egiaztatu da; eta, hala izanez gero, ezagutza-baseko informazioa esleitu zaio.

Bigarren zatian, eskuzko kodetze-lanarekin osatu da datu-basearen sailkapena. Analisisirako corpusean bildutako 13 239 entitateetatik, 1 771 kasutan (% 13,4) baino ez da lortu sailkapenerako laguntza kanpo iturriak erabilia sortutako ezagutza-basetik; kasu horietan informazioa balioztatu egin da (hala behar izan denetan zuzenduz) eta beste 11 468 kasuak banan-banan kodetu dira.

Eginkizun horretarako kodetze-gida sortu zen, bertan sailkapen irizpideak zehaztuta kodetzaile ezberdinen arteko koherentzia bermatzeko; halaber, hainbat kontraste-saio ere egin ziren irizpideen interpretazioa bateratzeko. Hala bada, euskal kulturgileen sailkapena bi aldagairen arabera egin da: hizkuntza (aukera bakarra esleituta, eta hizkuntzarik gabeko kasuetan lurraldea adierazita) eta diziplina (gehienez hiru esleituta).

## 2. taula. Euskal kulturgileak sailkatzeko aldagaiak eta kategoriak

<b>Hizkuntza</b>	euskara hutsean, euskara + erdaretan, erdaretan, hizkuntzarik gabe
<b>Diziplina(k)</b>	antzerkigintza, arte plastikoak, bertsolaritza, dantza, literatura, musika, zinema/ikus-entzunezkoak, besteak

*Iturria:* egileek landua.

<sup>21</sup> Hemen ere garbiketa eta bateraketa egin dira.

1. irudia. Kodedutako datu-basearen itxura

id	izena	hask	bask	bis	bist	korre	ban	bast	k_e	kt	ken	ma	jeur	jeur	entzara	diplina1	diplina2	diplina3	nikuntza1	nikuntza2	lurandatauna1	bustak'zer'	
0	0	2	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	5 091	musika			beste_ee...				
0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	2 206	musika			eus				
0	0	0	2	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	2 3ur	musika			eus				
1	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	A.D	musika			beste_EH				
1	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	2 Barrn Copland	musika			beste_ee...			ez_EH	
0	2	0	0	1	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	2 Aha Tiano	musika			eus				
0	2	0	1	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	3 Abarkia antzerki taldea	antzerkia			beste_ee...				
0	2	1	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	2 Abba	musika			beste_ee...				
0	2	1	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	7 Abbas Kiarostami	zinema/ku...			beste_ee...				
0	0	1	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	3 Abcaili B. Bop	musika			beste_ee...				
0	2	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	3 Abdu'rassak Gumah	literatura			beste_ee...				
0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	2 Abel Amunategi	literatura			beste_EH				
0	0	2	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	3 Alfonso Vazquez Monvardin	besteak			beste_ee...			akademik eta ikerkuntza	
0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	2 Agustin Sanchez Laviega	arte plast...			beste_EH			akademik eta ikerkuntza	
0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	4 Abigail Labeoz	antzerkia			beste_ee...				
1	0	1	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	3 Abocin Rastre	musika			beste_ee...				
0	3	1	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	4 Abraham Boba	musika			beste_ee...				
0	3	1	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	7 Ainhoa Fernandez de Arcoabe	besteak			eus+beste			akademik eta ikerkuntza	
0	0	2	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	3 Abraham Mateo	musika			beste_ee...				
0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	2 Aburracalles	musika							
0	2	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	2 Acaña Sanchez Dominguez	arte plast...							
0	0	1	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	2 Acerer	musika			beste_ee...			ez_EH	
0	1	1	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	3 Acha Zabala	arte plast...						ez_EH	
0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	2 Ad Libitum	musika						EH	
0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	2 Ada Garrues	arte plast...						EH	
2	1	0	0	0	2	0	0	0	0	0	0	0	0	0	9 Ada Oda	musika			beste_ee...				
0	0	1	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	2 Adam Martin Skilton	literatura			beste_ee...				
0	2	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	2 Adam Altaga	zinema/ku...			beste_ee...				
0	2	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	7 Adam Kowalczyk	literatura			beste_ee...				
0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	2 Adzer	musika			eus				
0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	2 Alog Samadino	besteak			eus+baste			akademik eta ikerkuntza	
0	1	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	4 Aledia Garcia Morales	literatura			beste_ee...				
0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	2 Aledia	musika			beste_ee...				
1	3	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	3 Alesko Alcega	musika			beste_ee...				
1	3	0	1	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	5 Aitor Zabala	besteak			beste_EH			akademik eta ikerkuntza	
0	1	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	10 Adolfo Ferrnandez	zinema/ku...			beste_ee...				
0	2	1	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	10 Adolfo Guiraud	arte plast...			beste_ee...				
0	2	1	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	7 Adolfo Gutierrez Arenas	musika			eus			ez_EH	
0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	4 Adolfo Jimaga	zinema/ku...							
0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	19 Adolfo Lacort	zinema/ku...							EH

Iturria: ikerlan honetarako sortu den datu-basearen pantaila-irudia.

Horrenbestez, hirugarren pausoa identifikatutako 13 239 entitateak sailkatu dira laugarren eta bosgarren urratsetan, bakoitzari analisirako kodetze-informazioa esleituta eta tartean kulturgile ez zirenak ezabatuta. Horrenbestez, 9 532 kulturgileko datu-basea osatu da: horietatik % 59,1 Euskal Herrikoak eta % 40,9 kanpokoak.

Azkenik, seigarren pausoa, LLMari ez zaionez euskal kulturgileak ez direnak identifikatzeko eskatu, Euskal Herritik kanpokoak zarata kontsideratu behar dira analisirako eta, beraz, ezabatu egin dira. Auzi honetan, datu ziur bakarra honakoa da: gutxienez % 40,9koa da haien agerpena, baina hori baino altuagoa izan daiteke —eta hala izan da lagineko zenbait hedabidetan, % 8tik % 54ra bitarteko oszilazioan—.

Datuak prozesatu eta gero, Euskal Herriko 5 637 kulturgileko datu-basea sortu eta analisirako prestatu da. Ondoko 3. taulan jaso da datu-basea erakitzekeo jarraitu diren urratsen laburpena:

### 3. taula. Euskal kulturgileen datu-basea sortzeko jarraitutako urratsak

1	2023ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean Euskal Herriko 11 webgunetako «kultura» ataletan argitaratutako eduki idatziekin lagina osatu	24 246 kultur eduki
2	Euskal kulturgile hautagaiak identifikatu <i>Meta-Llama-3-70B-Instruct</i> hizkuntza-eredu handia (LLM) erabilia	41 188 entitate
3	Identifikatutako entitateen aldaerak bateratu, normalizatu eta zarata garbitu	32 868 entitate
4	Datu-basea birdimentsionatu, maiztasun bakarreko entitateak ezabatuta	13 239 entitate
5	LLMak aurkitutako euskal kulturgile hautagaien sailkapen automatikoa: kanpoko ezagutza-basearekin kontrastea eginda	1 771 kulturgile
6	Eskuzko sailkapena: kodetze-gidarekin hautagai guztiak sailkatu eta egiaztatuta	9 532 kulturgile
7	Euskal Herritik kanpoko kulturgileak ezabatu	5 637 Euskal Herriko kulturgile

*Iturria:* egileek landua.

#### 4.4 Datuen analisisia

Euskarazko kulturgintzaren presentzia mediatikoa zer nolakoa den aztertzeko datu-basea osatu eta balioztatutakoan, datuen analisisia egin da. Horretarako, alde batetik, analisi estatistiko deskribatzailea eta inferentziala egin da, aldagaien arteko harremana existitzen ote den ezagutzeko khi-karratuaren hipotesi kontrastea eta Cramér-en V koefiziente erabilia (Excel eta Python erabili dira lanerako). Hipotesi-kontrastea ezaugarri bati buruz egindako hipotesia onargarria edo alboragarria den erabakitzekeo prozedura estatistikoa da (Juaristi Larrinaga 2013: 181) eta Cramér-en V koefizienteak, khi-karratua oinarritutako neurri estatistiko bat izanda, bi aldagai nominalen arteko asoziazio-maila neurtzea du helburu (López-Roldán eta Fachelli 2015: 26). Bestetik, euskal kulturgileen arteko erlazioen analisisia ere egin da Force Atlas 2 bisualizazio-algoritmoa erabilia (Jacomy *et al.* 2014).

#### 5. Emaitzak eta eztabaida


Euskal Herriko 5 637 kulturgile identifikatu dira 2023ko edukiekin osatutako corpus osoan (24 246 kultur eduki, % 35,1 euskaraz eta % 64,9 gaztelaniaz). Identifikatutako kulturgile horiek 49 202 agerpen<sup>22</sup> izan dituzte.

Euskal Herriko 11 komunikabidetako «kultura» ataleko 2023ko idatzizko edukiekin osatutako euskal kulturgileen datu-basea bi aldagairen arabera sailkatu denez, hona hemen, hasteko, diziplinaren eta hizkuntzaren araberrako banaketa:

---

<sup>22</sup> Agerpen bat kontabilizatu da kulturgile bat hedabide bateko eduki batean agertu denean (albiste edo erreportaje batean, adibidez). Kulturgile hori eduki berean behin baino gehiagotan agertu bada ere, behin bakarrik kontabilizatu da.

## 2. irudia. Euskal kulturgileen eta haien agerpen kopurua diziplinaren arabera



*Iturria:* egileek landua.

Azterlan honetarako osatutako datu-baseko 5 637 kulturgileak diziplina ezberdinetan aritzen dira. Gainera, kulturgile horien % 8,3 diziplina batean baino gehiagotan<sup>23</sup> aritzen da; esaterako, antzerkigile bat zineman ere aritu daiteke. Kulturgileek sortzeko baliatzen dituzten diziplina ezberdinak hartu dira kontuan eta, beraz, 5 637 kulturgilek 6 106 diziplinatan jarduten dute. Musikaren sorkuntzan aritzen dira kulturgile gehienak (% 36) eta dantzariek osatzen dute talde txikiena (% 4,3).

Agerpen-kopuruan arreta jarrita, 49 202 agerpenak 55 666 diziplinatan agertu dira. Kulturgile-kopuruari dagokionez, literatura da bigarren talde handiena; baina kulturgile horien agerpen-kopuruari erreparatuta, hirugarren postuan geratzen da, zinema/ikus-entzunezkoak multzoaren atzetik. Hau da, literaturako sortzaileak gehiago dira, baina gutxiago agertzen dira. Bertsolariek ere aldatzen dute haien posizioa: agertutako sortzaile-kopurua

<sup>23</sup> Gehienez hiru diziplina esleitu zaizkio bakoitzari.

aintzat hartuta seigarren taldea dira, baina agerpen-kopuruaren arabera laugarrena.

Emaitzak hedabidez hedabide behatuta ere, kulturgileen talde handiena musikariena da. Hedabide bakoitzak espazio ezberdina ematen die —haien edukien hizkuntzaren arabera ere aldatu egiten da— diziiplina ezberdinetako sortzaileei; eta desbideraketa batzuk agerikoagoak dira diziiplina bakoitzaren agerpen-kopuruari erreparatuta. Adibidez, alde nabarmena dago bertsolaritzaren agerpen-mailan bi eletan aritzen diren hedabideen hizkuntza batean eta bestean: gaztelaniaz argitaratutako edukietan askoz gutxiagotan agertzen dira —eitb.eus salbu, ia eduki bera lantzen baitu bi eletan—.

Kulturgileen hizkuntza-profilaren araberako banaketak, berriz, honako itxura hartzen du:

### 3. irudia. Euskal kulturgileen eta haien agerpen-kopurua hizkuntzaren arabera



*Iturria:* egileek landua.


Euskara hutsean jarduten duten Euskal Herriko kulturgileak % 34,6 dira; hots, euskaraz soilik sortzen du herenak baino zertxobait gehiagok. Hala ere, euskara eta erdarak darabiltzatenak gehituta, euskaraz zerbait egiten

duten Euskal Herriko kulturgileak ez dira identifikatutako enpresa izatera iristen (% 47,5). Kulturgileen beste heren batek (% 33,3) hizkuntzarik gabe sortzen du; dantza edo arte plastikoetan, adibidez. Bestalde, Euskal Herriko kulturgileen % 19,2 ari da erdaretan sortzen.

Kulturgileen hizkuntzaren agerpen totalari dagokionez, euskara hutsean jarduten duten kulturgileen kopurua % 44ra igotzen da eta soilik erdaretan jarduten dutenen kopurua % 15,2ra jaisten da. Hau da, gutxiago dira euskara hutsean egiten dutenak, baina gehiagotan agertzen dira.

Jarraian aurkezten da, hedabidez hedabidez, kulturgileen hizkuntza-profilaren arabera banaketa (ehunekoak koloreztatuta eta kategoria bakoitzaren zenbaki absolutuen balioak barruan idatzita).

#### 4. irudia. Euskal kulturgileen eta haien agerpen-kopurua hizkuntzaren arabera: hedabidez hedabidez



Iturria: egileek landua.

Azterlan honetako laginean bildu diren Euskal Herriko 11 komunikabideetan aurkitutako kulturgile-kopuruari erreparatuta, euskara hutsean sortzen duten kulturgile-kopuru erlatibo handienak *kazeta.eus* (% 72,9), *argia.eus* (% 61,9) eta *anboto.org* (% 60,2) atarietan aurkitu dira; baxuenak, aldiz, *elcorreo.com* (% 23,5), *noticiasdenavarra.com* (% 26,9) *diariovasco.com* (% 41,3) webguneetako «kultura» ataletan. Euskaraz zerbait<sup>24</sup> egiten duten kulturgileak batuta ere hurrenkera berekoa da emaitza. Halaber, komunikabide horiek dira hain zuzen erdaretan bakarrik aritzen diren sortzaile gutxien eta gehien dituztenak ere.

Aitzitik, bestelakoa da zenbaki absolutuen araberrako segida: euskaraz aritzen diren —bai euskara hutsean, bai euskaraz zerbait— kulturgile gehien aurkitu dira *berria.eus*, *diariovasco.com* eta *naiz.eus* atarietan; eta gutxien *alea.eus*, *kazeta.eus* eta *anboto.org* hedabidetan. Erdaretan sortzen dutenen kopuruari erreparatuta, gehien *noticiasdenavarra.com*, *elcorreo.com* eta *diariovasco.com* webguneetan aurkitu dira, eta gutxien *kazeta.eus*, *anboto.org* eta *goiena.eus* marketan.

Agerpen-kopuruari dagokionez, ia-ia errepikatu egiten da zenbaki erlatiboen zein absolutuen argazkia. Bi salbuespen daude emaitzetan: zenbaki erlatiboetan lehena, euskara hutsezko kulturgile gutxieneko rankingaren hirugarren lekuan *eitb.eus* agertzen da (*diariovasco.com* laugarren posiziora pasata); eta, zenbaki absolutuetan bigarrena, erdaretan aritzen diren kulturgile gutxien erakusten dituztenen rankingean *argia.eus* agertzen da hirugarren (eta *goiena.eus* laugarren).

Zenbaki absolutuak ekoizpen-bolumenari lotuta daude: hedabide jeneralistek edo nazionalek, oro har, edukien kopuru handiagoa sortzen dute tokikoek baino, eta horregatik agertzen dira batzuk goiko muturrean eta beste batzuk behekoan. Zenbaki erlatiboek, berriz, hedabide bakoitzaren hizkuntza- eta kultura-irizpideak islatzen dituzte. Tokikotasunak izan dezake eragina —edo zehatzago esanda, tokiko hedabide askok euskararen aldeko elkarteekin duten lotura historikoak—, baina oro har irizpide linguistiko eta kulturalak izango dute ziurrenik eragina.

---

<sup>24</sup> «Euskara hutsean» eta «euskara + erdarak» darabiltzaten kulturgileen batura.

Beraz, badirudi hizkuntzak nolabaiteko efektua izan dezakeela; horregatik, hori argitzeko asmoz, bi operazio egingo dira segidan: alde batetik, banatuta behatuko dira hedabide elebidunek euskaraz eta gaztelaniaz argitaratutako edukiak; eta, bestetik, hedabideak eta edukiak haien hizkuntza-profilaren arabera multzokatuko dira analisisan sakontzeko.

Hona hemen lagineko hedabide elebidunen edukietako hizkuntzaren araberako praktika (ehunekoak koloreztatuta eta kategoria bakoitzaren zenbaki absolutuen balioak barruan idatzita):

### 5. irudia. Euskal kulturgileen eta haien agerpen-kopurua hizkuntzaren arabera: hedabide elebidunek edukietako hizkuntzaren arabera berezita<sup>25</sup>



Iturria: egileek landua.


<sup>25</sup> *elcorreo.com* atarian hiru eduki soilik aurkitu dira euskaraz eta, lagin txikiegia izateagatik —beraz, euskarazko edukien urritasunagatik—, batuta egin da azterlan osoan analisisa; horregatik ageri da kasu hori bereizi gabe.

Hedabide elebidunetan, ezberdin agertzen dira euskaraz soilik sortzen dutenak edukien hizkuntzaren arabera: oro har, euskarazko edukietan kulturgile gehiago eta gehiagotan agertzen dira —euskara hutsezko hedabideen pareko—, gaztelaniazko edukietan gutxiago. Ildo horretan, kulturgile-kopuruaren grafikoaren eta kulturgile horien agerpen-kopuruaren irudikapenaren artean ez dago alde nabarmenik.

Gaztelaniazko edukietan jartzen bada arreta, euskaraz argitaratzen diren edukiekin alderatuta, bai kulturgile-kopuruan, bai agerpen-kopuruan ageri da euskaraz zerbait sortzen dutenen kopuru eta agerpen-maiztasun baxua-goa. *eitb.eus* da salbuespen, ia eduki bera lantzen baitu bi eletan; ordea, euskarazko edukietan euskarazko kulturgile gehiago landu eta argitaratzen dira *diariovasco.com*, *naiz.eus* eta *noticiasdenavarra.com* atarietan.

Hurrengo irudian ikus daiteke kulturgile-kopuruaren hurrenkera, haien hizkuntza-profilaren arabera sailkatuta:

#### 6. irudia. Kulturgileen agerpen-hurrenkera, haien hizkuntza-profilaren arabera




Iturria: egileek landua.

Goiko taulan patroï bat nabarmentzen da: euskarazko edukiak argitaratzen dituzten guztien hurrenkera berdina da, hala euskara hutsezko hedabideetan nola hedabide elebidunetan. «Kultura» ataleko 2023ko idatzizko edukietan aurkitu diren kulturgileen ordena honakoa da: euskara hutsean sortzen dutenak, hizkuntzarik gabekoak, euskaraz eta erdaretan aritzen direnak, eta, azkenik, soilik erdaretan dabilzanak. Aldiz, gaztelaniazko edukietan euskarazko kulturgileak azken postuan kokatzen dira.

Hizkuntzaren eragina argitzeko, eta analisisan sakontzeko, alde batetik hedabideak eta bestetik ekoizten dituzten edukiak haien hizkuntza-profilaren arabera multzokatuko dira jarraian, ehunekoak koloreztatuta eta kategoria bakoitzaren zenbaki absolutuen balioak barruan idatzita.

**7. irudia.** Euskal kulturgileen eta haien agerpen-kopurua hizkuntzaren arabera: hedabideak eta edukiak haien hizkuntza-profilaren arabera multzokatuta



Iturria: egileek landua.

Aztertutako hedabideak hizkuntzaren arabera banatzerakoan (euskara hutsezkoak eta elebidunak), zera ageri da: euskara hutsezko hedabideetan euskara hutsean jarduten duten kulturgileak % 44,8 dira eta euskaraz zerbait sortzen dutenak % 58,9; hau da, hamarretik ia sei. Hedabide elebidunetan, aldiz, euskara hutsean jarduten duten kulturgileak % 32,5 dira eta euskaraz zerbait sortzen dutenak % 45,4; hau da, hamarretik lau pasa.

Kulturgileak zenbat agertzen diren begiratu gero, gainera, aldea handitu egiten da: euskaraz zerbait sortzen duten kulturgileen agerpen-maila % 74,4ra igotzen da euskara hutsezko hedabideetan; eta, hedabide elebidunetan kopuru hori % 52,6ra igotzen den arren, portzentajeko 22 puntuko aldea dago bien artean.

Aztertutako edukiak hizkuntzaren arabera multzokatzerakoan<sup>26</sup>, berriz, ondokoa da banaketa: euskarazko edukietan euskara hutsean jarduten duten kulturgileak % 42,9 dira eta euskaraz zerbait sortzen dutenak % 56,9. Gaztelaniazko edukietan, aldiz, euskara hutsean jarduten duten kulturgileak % 25,3 dira eta euskaraz zerbait sortzen dutenak % 38,8. Hau da, euskarazko eduki guztiak batuta, euskal kulturgileen kopurua pare bat puntu jaisten den bitartean eduki-multzo horretan, gaztelaniazko edukietan 7,2 puntu baxuagoa da euskara hutsean jarduten duten sortzaileen kopurua eta 6,6 puntu txikiagoa euskaraz zerbait egiten dutenena. Halaber, erdaretan aritzen diren kulturgileen kopurua euskarazko edukietan ez da iristen % 14ra, eta gaztelaniazkoetan % 24,2koa da —hedabide elebidunetan baino 3,4 puntu gehiago—.

Agerpen-kopuruari begiratzerakoan, askoz argiago ageri dira hizkuntzaren efektua eta aldea: euskaraz zerbait sortzen duten kulturgileen agerpen-maila euskarazko edukietan % 75,9 da, eta gaztelaniazko edukietan % 40,1. Beste era batera esanda, euskarazko hamar edukitik zazpi baino gehiagotan agertzen da euskaraz zerbait sortzen duen kulturgileren bat, eta gaztelani-

---

<sup>26</sup> Euskarazko eduki guztiak (*Alea, Anboto, Argia, Berría, eu El Diario Vasco, eu EITB, Goiena, Kazeta, eu Naiz, eu Noticias de Navarra*) eta gaztelaniazko eduki guztiak (*es El Diario Vasco, es EITB, El Correo, es Naiz, es Noticias de Navarra*) multzokatu dira.

azko hamar edukitik lautan baino ez. Portzentajeaz 36 puntuko aldea dago bien artean.

Datuek argi diote: euskara hutsean ari diren kulturgileak gehiago aipatzen dira, diziplina guztietan, euskara hutsezko hedabideetan. Gainera, datu-basean erregistratutako 5 637 kulturgileen % 13,1 soilik euskara hutsean aritzen diren hedabideetan agertu zen (sortzaile horietatik % 61,8 euskaraz zerbait egiten dutenak), eta, bestalde, % 27,9 soilik euskarazko edukietan (% 69,9 euskaraz zerbait).

Orain arte aztertutako datuen arabera, hedabideen zein edukien hizkuntza eta kulturgileen hizkuntza aldagaien arteko harremanak behar bada estatistikoki adierazgarriak izan daitezkeela pentsa daiteke. Hori argitzeko, bi aldagai kategoriko horien arteko harreman estatistikoak kalkulatu dira: khi-karratu froga estatistikoko p-balioa eta Cramér-en V koefizientearen balioa.

#### 4. taula. Aldagaien arteko harreman estatistikoaren laburpena

	1. aldagaia	2. aldagaia	khi-karratuaren p-balioa	Cramér's V
1	Hedabidearen hizkuntza	Kulturgile-kopurua hizkuntzaren arabera	$4,17 \times 10^{-42}$ ( $< 0,001$ )	0,1494
2	Edukiaren hizkuntza	Kulturgile-kopurua hizkuntzaren arabera	$1,20 \times 10^{-75}$ ( $< 0,001$ )	0,2035
3	Hedabidearen hizkuntza	Agerpen-kopurua hizkuntzaren arabera	$1,34 \times 10^{-68}$ ( $< 0,001$ )	0,2544
4	Edukiaren hizkuntza	Agerpen-kopurua hizkuntzaren arabera	$5,15 \times 10^{-190}$ ( $< 0,001$ )	0,4211

Iturria: egileek landua.


Goiko taulan ikus daitezke lau konparaketa estatistikoen emaitzak: kasu guztietan khi-karratuaren p-balioa oso txikia izan da ( $p < 0,001$ ) eta, beraz, lau kasuetan harreman adierazgarria dagoela frogatu da. Harremanaren intentsitatea ezagutzeko, eragin horren indarra kalkulatu da Cramér-en V koefizientearen bidez, eta horrela ondorioztatu da aldagai jakin batzuek elkarren arteko lotura indartsuagoa dutela.

Lehen konparaketan (hedabidearen hizkuntza vs Kulturgile-kopurua hizkuntzaren arabera), Cramér's  $V = 0,1494$  izan da, efektu txiki edo moderatua adierazten duena. Bigarrenean (edukiaren hizkuntza vs Kulturgile-kopurua hizkuntzaren arabera), Cramér's  $V = 0,2035$  izan da, eta horrek efektu moderatuagoa erakusten du. Hortaz, bi kasuetan harremana esanguratsua da, baina edukiaren hizkuntzak kulturgilearen hizkuntza-kategorien banaketan eragin handiagoa duela ondorioztatzen da. Hau da, edukiaren hizkuntza erabakigarria da; edo, aurretik ikusi den bezala, erdara sartzeak —gaztelania, zehazki, kasu honetan— dakar euskal kulturgileen ikusgarritasun baxuagoa.

Hirugarren konparaketan (hedabidearen hizkuntza vs agerpenkopurua hizkuntzaren arabera), Cramér's  $V = 0,2544$  izan da, harreman moderatua adieraziz; eta, laugarrenean (edukiaren hizkuntza vs agerpenkopurua hizkuntzaren arabera), berriz, Cramér's  $V = 0,4211$  ateratu da, eta horrek efektu handi eta sendoa erakusten du. Horrenbestez, ikus daiteke hedabidearen hizkuntzak baino askoz eragin nabarmenagoa duela edukiaren hizkuntzak hizkuntza-kategorizazioaren araberrako agerpenetan. Azken horrek erakusten du edukiaren hizkuntza bera —euskaraz edo erdaraz sortua izatea— faktore erabakigarriagoa dela komunikabideetan kulturgileak hizkuntza-kategoria jakin batean kokatzeko eta ikusarazteko orduan.

Behin zenbat euskal kulturgile eta zenbat aldiz aurkitu diren ikusita, komunikabideetan agertzen diren kulturgileak nortzuk diren erakutsi eta aztertuko da. Horretarako, 2023an agerpen gehien izan zuten 30 kulturgileen rankinga osatu da lehenik, eta, ondoren, lehen 10 postuak alderatu dira, hedabideak zein edukiak hizkuntzaren arabera multzokatuta.


## 8. irudia. Agerpen gehien izan zuten 30 euskal kulturgileen rankinga



*Iturria:* egileek landua.

Aztertutako hedabide guztietako edukietan gehien agertzen diren 30 kultur-gileak erakusten ditu goiko irudiak, jarduten duten hizkuntzaren arabera koloreztatuta. Laugarren postuan ageri da euskara hutsean sortzen duen lehendabiziko kultur-gilea, 30etik 14k sortzen dute euskara hutsean, eta 21ek euskaraz zerbait. Generoari erreparatuta, 30etik 12 dira emakumeak (lehen hamarretatik bi baino ez); eta, bestalde, 30 horietatik egun bizirik daudenak 25 dira.

**9. irudia.** Agerpen gehien izan zuten 10 euskal kulturgileen rankinga, hedabideak eta edukiak haien hizkuntza-profilaren arabera multzokatuta



*Iturria:* egileek landua.

Euskara hutsean ari diren hedabideen eta elebidunen rankingak alderatuta, lehen azpimarra: euskarazkoetan gehien agertzen den euskarazko kulturgilea elebidunetan hamargarren ageri dena baino gutxiagotan agertu da. Bestalde, elebidunetan (10etik 3) baino presentzia handiagoa ematen zaie euskaraz sortzen duten kulturgileei —kopuru eta posizio aldetik— euskarazko hedabideetan (10etik 7). Generoari erreparatuta, halaber, 10etik 4 dira emakumeak euskarazko hedabideetan eta 10etik 2 hedabide elebidunetan.


Euskarazko edukietako rankinga eta gaztelaniazkoetakoa alderatuta, berriz ere, euskal kulturgileen mapaketa ezberdinak geratzen dira agerian:

euskara hutsean sortzen dute euskarazko edukietan gehien agertutako hamar kulturgiletik zortzik (eta beste biek ere euskaraz zerbait egiten dute); aitzitik, gaztelaniazko edukietan hiru kulturgile soilik ageri dira euskaraz zerbait egiten dutenak —baina bat ere ez euskara hutsean sortzen duena; rankinga 20ra zabaldua bi agertzen dira—. Generoari behatuta, 10etik 4 dira emakumeak euskarazko edukietan eta 10etik 3 gaztelaniazkoetan.

Gehien aipatzen diren rankingak aztertuta, hortaz, argi geratzen da hizkuntzaren arabera, euskara hutsean jarduten diren kulturgileek aukera gehiago dutela euskarazko hedabideetan eta euskarazko edukietan gehien agerrarazten direnen sailkapenetan sartzeko, eta, aldiz, hedabide elebidunetan zein gaztelaniazko edukietan zailago zaiela.

Azkenik, emaitzen atala ixteko, euskal kulturgileen arteko erlazioen analisia egin da Force Atlas 2 bisualizazio-algoritmoa erabilia. Emaitza nodoen antolaketa bat da, non sare barruko taldeak edo komunitateak modu naturalean elkartzen diren, eta horrek patroiak edo azpiko egiturak identifikatzea errazten du, hala nola oso konektatutako nodoen taldeak (klusterrak) edo eragin handiagoko duten nodoak (*hubak*). Kulturgileek darabilten hizkuntzaren arabera sortu da ondoko grafoa (hizkuntzarik gabeko diziplinetan aritzen direnak kanpoan utzita):

10. irudia. Euskal kulturgileen harreman grafoa hizkuntzaren arabera




*Iturria:* egileek landua.

Irudian ikusten den gisa, elebidunen komunitateak nolabaiteko zubi lana egiten du euskaldun eta erdaldunen artean; halere, erdaldunekin euskaldunekin baino nahasiago dago. Halaber, agerpen-maila handieneko kulturgileak eremu erdaldunago edo zentroan kokatzen dira.

Kulturgile horien diziplinaren arabera koloreztatu da grafo bera jarraian:

**11. irudia.** Hizkuntzaren araberako euskal kulturgileen harreman grafoa, diziplinak koloreztatuta



*Iturria:* egileek landua.

Hona hiru azpimarra diziplinen araberako grafoari: lehena, bertsolarien komunitatea pixka bat endogamikoa dela; ageri dira literaturara edo musikara gerturatzen diren batzuk, baina, irla antzeko bat sortzen da; bigarrena, literatura, musika lagun, zentralitate handieneko diziplinak direla

—kulturgile-kopuru handienekoak ere horiek dira—; eta, hirugarrena, antzerkigintza dela diziplina ez-trinkoena; zinema eta ikus-entzunezkoak adierazpideekin oso nahasia.

## 6. Ondorioak

Ikerketaren emaitzek agerian uzten dute euskal kulturgileen ikusgarritasunak desoreka handiak dituela aztertutako komunikabide digitaletan. 2023ko «kultura» ataleko idatzizko edukiekin osatutako 11 komunikabide digitalen corpusean, Euskal Herriko 5 637 kulturgile identifikatu dira guztira. Nolanahi ere, hedabideek argitaratutako edukietan agertzen den kulturgile-kopurua desberdina da: *berria.eus* da bai Euskal Herriko, bai euskarazko kulturgile gehien ikusarazi dituen hedabidea, eta, segidan komunikabide elebidun handiak kokatzen diren arren, proportzioan, euskarazko edukietan agertzen dira gehien euskal kulturgileak.

Hartara, ikusgarritasunaren banaketa ez dator beti bat ez komunikabideen ekoizpen bolumenarekin, ez hedabide horien izaera publiko, pribatu edota tokikoarekin; hizkuntza- eta kultura-irizpideen arabera da euskal kulturgileen ikusgarritasuna.

Datuek argi diote: euskara hutsean ari diren kulturgileak gehiago aipatzen dira, diziplina guztietan, euskarazko edukietan. Izan ere, aurretik ikusi den moduan, gaztelaniaren presentziak euskal kulturgileen ikusgarritasuna nabarmen murrizten du. Horrek adierazten du edukiak euskaraz ala erdaraz sortua izateak berak baldintzatzen duela, neurri handi batean, euskal kulturgileak komunikabideetan nola eta zenbateraino agertzen diren.

Hain zuzen ere, harreman estatistikoki adierazgarria frogatu da bai hedabideen hizkuntzaren (euskara hutsezko edo elebidun) zein edukien hizkuntzaren (euskara edo gaztelania) eta horiek erakusten dituzten hizkuntza-profil ezberdinetako kulturgile-kopuruaren zein haien agerpenkopuruaren artean. Kasu guztietan, batek bestean eragiten du; hau da, hedabidearen zein edukiaren hizkuntzak eragina dauka euskal kulturgileen ikusgarritasunean. Halere, aldagai bakoitzaren indarra kalkulatu, agerian

geratu da hedabidearen hizkuntzak baino askoz eragin nabarmenagoa duela edukiaren hizkuntzak.

Hortaz, euskarazko hedabideek eta hedabide elebidunek kultur paisaia ezberdinak irudikatzen dituzte; baina, batez ere, euskaraz argitaratzen diren edukiak dira euskarazko kulturgileen ikusgarritasuna gehien lantzen dutenak. Beraz, hizkuntza da giltza. Euskarazko edukietan euskarazko kulturgileen presentzia handiagoa ageri da; hala da baita hedabide elebidunetan ere, euskara hutsezkoen pareko agertuta zenbait kasutan. Gaztelaniazko edukietan, aldiz, euskaraz sortzen duten kulturgileen agerpen-maila baxuagoa da.

Edozelan ere, gaztelaniazko edukiak lantzen dituzten komunikabide guztietan ez da portaera bera agertu: aztertutako komunikabideen artetik, *eitb.eus*<sup>27</sup> da bere gaztelaniazko edukietan euskaraz zerbait egiten duen kulturgileen agerpen-kopuru handiena duena (% 64), ondoren kokatzen da *naiz.eus*<sup>28</sup> (% 47,2), atzetik *diariovasco.com* (% 45,5) eta *elcorreo.com*<sup>29</sup> (% 41,7), eta azkena *noticiasdenavarra.com* (% 26).

Bestalde, azterlanaren marko teorikoan kokatuta, euskal kulturgileen ikusgarritasuna hizkuntza-irizpideen arabera dela ondorioztatzen ondoren, kultura-irizpideen arabera ere badela inferitzen da. Hots, eskutik dakar lehen premisak bigarren itauna: «Euskaldunak gara, euskaradunak, bai, baina kulturaz ere euskaldunak al gara?» (Agirre Dorronsoro *et al.* 2011: 71).

<sup>27</sup> *eitb.eus*, euskara hutsezko zein gaztelania hutsezko beste zenbait hedabide elebarkarekin osatutako taldeko adarra da (*eitb.eus*, *Euskadi Irratia*, *Radio Euskadi*, *Radio Vitoria*, *Gaztea*, *ETB1*, *ETB2*, *ETB3*, *ETB4* eta, salbuespen elebidun gisa, *EITBSAT*). *eitb.eus* webgunearen politika, bi bertsio linguistikoak elkarren ispilu izatea da.

<sup>28</sup> *naiz.eus* hainbat hedabidekin osatutako talde baten komunikazio produktua da: *Naiz*, *Kazeta*, *Gara*, *Gaur8*, *Zazpika*, *Mediabask* eta *Naiz Irratia*. Haietako batzuk euskara hutsezkoak dira, beste batzuk elebidunak (euskara-gaztelania zein euskara-frantsesa). Talde gisa aritzen direlarik, talde osoa kontuan hartuta erabakitzen da eduki bakoitza zein hizkuntzatan eta zein euskarritan argitaratu, taldearen hizkuntz politikari jarraiki. Beraz, kasu honetan, ikerketak *naiz.eus* eta *kazeta.eus* soilik aztertu dituela gogorarazi behar da, taldearen jardun osoa aztertu gabe.

<sup>29</sup> Vocentorenak izan arren bai *diariovasco.com*, bai *elcorreo.com*, kultur lanketa ezberdina egiten dutela ondorioztatzen da: *elcorreo.com* atarian hiru eduki baino ez dira aurkitu euskaraz, *diariovasco.com* atariko «kultura» atalean, aldiz, 723.

Bada, komunitateak beharko ditu elkarren osagarri diren hizkuntza- eta kultura-politika.

Horrenbestez, erantzunda geratu dira lan honen abiaburuan ezarritako ikerketa-galderak: zenbat euskal kulturgile eta zenbat aldiz agertzen diren komunikabideetan, eta nortzuk diren agertzen direnak.

### 6.1 Ekarpinak

Ikerlan honek bi hutsune nagusiri heldu die: alde batetik, ez zegoen euskal kulturgileen presentzia mediatikoa kuantitatiboki neurtzen duen ikerketarik; eta, bestetik, ez ziren aurrez adimen artifizialeko hizkuntza-eredu handiak (LLM) eta NLP teknikak euskarazko kulturgintzaren azterketan aplikatu. Adimen artifizialak oso ondo funtzionatzen du ezagutza orokorra-ekin, baina ezagutza espezifikoagoa eta kategoria minorizatuena behar denean, prozesu automatikoak bakarrik ez dira nahikoa oraindik ere; hori dela eta, horiek eskuzko prozesaketekin konbinatzea beharrezkoa izan da azterlan hau burutzeko. Hartara, ikerketa honek ekarpen metodologiko berri-tzailea egiten du, prozesu automatizatuak eta eskuzko kodetze-lana konbi-natuz.

Geroz eta ohikoagoa da adimen artifiziala edo hizkuntzaren prozesamen-du naturaleko algoritmoak ardatz hartzea gizarte-zientzietako ikerketan, baina baita gizarte-ikerkuntzarako adimen artifiziala erabiltzea aberasgarria dela frogatzeaz bat, hizkuntza bakoitzera —eta gurean, zehazki, euskarara— egokitutako datuak eta tresnak sortzea beharrezkoa dela azpimarratzea ere (Aztiria Urtaran 2024; Fernández de Landa eta Agerri 2025). Hala ondorioztatu da ikerlan honetan ere.

Beste hiru ekarpen ere egiten ditu lan honek: lehena, 2023ko kultur eduki digitaletan oinarrituta sortu den datu-basea, gerora beste azterketa batzuetarako baliagarria izan daitekeena. Euskaraz sortzen duten kultur-gileen orain arteko datu-base handiena sortu da, 2 679 euskal kulturgileekin (1 952 euskara hutsean aritzen direnak, 727 euskaraz zerbait egiten dutenak). Ezagutza-base hori lagungarri izan daiteke etorkizuneko azterketetan, zein adimen artifizialak euskal kulturgileak hobeto identifikatzeko entrena-

menduetan. Bigarren ekarpena azterlanak duen erreferentziazko funtzioari dagokio, euskal kulturgileen presentzia mediatikoa kuantitatiboki neurtezak ebidentzia bat eskaintzen baitu; eta, hirugarrena, komunitarioa izan liteke, lana lagungarri izan baitaiteke komunikabide, kultur eragile eta politika publikoen estrategia adostuen eztabaidari ekiteko.

## 6.2 Mugak

Euskal Herrian euskal kulturgileek zer espazio mediatiko daukaten eta eduki beharko luketen erantzutea ez da auzi erraza, eta ikerketa mugatzerakoan hartu beharreko erabakiek konplexutasuna agerian utzi dute. Lan honek, ezein ikerlanek bezala, bere mugak ditu; zehazki, hiru muga nagusi.

Lehenik eta behin, 11 hedabide digitaletara mugatu da lagina, eta nahiz eta askotariko errealitateak jaso, ez dira ez marka horien ekoizpen guztiak analizatu (soilik «kultura» ataleko idatzizko edukiak), eta ez dira irrati, telebista edota sare sozialetako edukiak barne hartu. Horrek mugatu egiten du emaitzen orokortasuna. Gainera, urte bakarreko epea zedarritu da (2023), eta urtez urte alda daiteke komunikabideen agenda, hots, zer eta nola den eztabaidatua eta nortzuk agertzen diren diskurtso horietan.

Bigarrenik, kulturgileen identifikazioa prozesu automatizatuen bidez egin bada ere, eskuzko balidazio-prozesuak behar izan dira datuen fidagarritasuna bermatzeko eta analisi-kategoriak kodetzeko (eta, halere, kodetzelanaren bueltan ere gerta daitezke interpretazio-akatsak); horrek lanaren eskalagarritasuna mugatu dezake etorkizunean. Halaber, sareko edukiaren erauzketan oinarritutako analisiak planteatzerakoan, komeni da zaintza-sistemak monitorizatu eta aztertuko duenaren mugak ezagutzeko kanpo kontrastea egitea; eta halako analisi batean, adibidez, ikergai hartu diren hedabideekin kontrastatzea haien web atalak nola osatzen dituzten, ikerketaren metodologiak sortu ditzakeen alborapenen berri ahalik eta argien izateko.

Hirugarrenik, bi absentsia nagusi ditu kartografia honek. Alde batetik, agerpen-kopuruan 1 frekuentziako gutxiengoa falta da, eta txikiak kentzeak

hain zuzen ere minorizatuari egiten dio kalte, beraz, euskarazko kulturgileari. Ikerlan honek, hortaz, badu hor alborapen bat, ez baikara gutxiengo hori —behin bakarrik eta hedabide bakarrean agertutakoa 2023an— analisisian integratzera heldu. Bestetik, Euskal Herrikoak ez diren kulturgileak falta dira: kultur edukietan detektatutako sei euskal kulturgileko lau kanpotar identifikatu dira, eta, horien identifikazio-mailak doitasun nahikoa ez duenez, ezin izan da alderaketa erlatiboa egin, baina bada hor langa esanguratsu bat. Dugun datu bakarra adierazgarria da: lagineko euskal hedabideetan % 40,9 baino altuagoa da kanpoko kulturgileen presentzia (eta alde adierazgarriak antzeman dira hedabidez hedabideko zenbaketan, % 8tik % 54ra bitartekoak).

### 6.3 Etorkizunerako zenbait ikerketa-ildo

Zalantzarik gabe, denbora eta baliabide gehiagoko analisiak ezagutza sakonagoa ahalbidetuko luke (lehen hurbilketa honen garapenean eta kanpo kontrastean atera dira, adibidez, hurrengo baterako kodetu eta aztertu beharreko zenbait aldagai: generoa, kultura hila/bizia, kulturgileen adina, kultur edukietan agertzen diren norbanako/talde/espazio/ekitaldiak, iparralde/hegoalde edo profesional/amateur ardatzak, besteak beste). Nolanahi ere, mugak esplizituki jasota, etorkizuneko ikerketetarako abiapuntua eskain dezake lan honek.

Aldi berean, azterketa kuantitatiboaren osagarri gisa, hainbat galdera ireki dira hurrengo ikerketa-ildoetan fenomenoak kualitatiboki problematizatzeko: transmisioaren eta hautagarritasunaren arteko harremana, publiko potentzialari informazioa iristen ez zaiolarik gertatzen den ikusgarritasunmuga, edota errealitatearen aldaketa soziolinguistiko eta komunikatiboaren aurrean, gaur egungo eskaintza mediatikoaren hizkuntza- eta kulturapolitiken funtzioak.

Gainera, ikerketa honetako datuek, ebidentzia zehatzak emateaz gain, gogoetarako material baliotsua eskaintzen dute hainbat eztabaida estrategikotarako. Esaterako, zein da hizkuntza bakoitzari eman beharreko papera hedabideen bidez euskal kulturgintzaren berri emateko? Kulturgintzaren eta

hizkuntzaren ikuspegitik begiratuta, zein hizkuntzatan komeni da euskal kulturgintzaren berri ematea? Euskaraz soilik emateak hedabideak euskaraz kontsumitzen ez dituztenak informaziotik kanpo uztea eragin lezake (nahiz eta euskal kulturgintzarako publiko potentziala diren); erdaraz emateak, ordea, euskaldunen artean (euskarazko kazetariaren eta euskarazko irakurlearen artean) erdara sartzea eragin lezake. Era berean, hedabideen hautuaz gain, erabiltzaileen hautua ere agertzen hasi da, eta batean zein bestean itzultzaile automatikoez zer rol joka dezaketen argitzeke dago.

Beste eztabaida ildo hau ere hausnartzekoa da: hedabideetan euskaraz argitaratzen diren edukiek euskal kulturgintzari eta bestelako kulturgintzei eman behar dieten lekua. Euskarazko edukiek bereziki euskal kulturgintza fokuratzeak bestelako kulturgintzaren berri jaso nahi duenak erdarazko edukietara jotzea eragin lezake. Hor izaera ezberdineko hedabideak ditugula gogoan hartzekoa da —nazio mailakoak dira batzuk, tokikoak beste batzuk, tematikoak beste hainbeste—, eta hautu linguistiko ezberdineko praktikak ere badirela. Aldi berean, euskal komunitatea erreferentzia eta helburu nagusi duen kulturgintza, hots euskal hitzun komunitatearen elikagai funtzioa betetzen duena, euskarazko sorkuntzak eta hizkuntzarik gabeko sorkuntzako elementu batzuek osatzen dute, eta, beraz, hitzun-komunitateari eusteko berebiziko garrantzia du kulturgile horien hedabideetako ikusgarritasunak. Hau da, euskal kulturgintzarentzat euskarazko edukiak dira bere leiho naturalena, baina orain dituen baino erakusleiho gehiago beharko ditu indartuko bada.

Hortaz, hizkuntza bakoitzari eman beharreko funtzioez komunitatean eztabaidatzea desiragarria litzateke, eta komunikazio ekosistemako eragileen rolak eta posizioak ezagutzeaz bat, sektoreko eragileen artean adostasun batera heltzen saiatzea, euskal kulturaren etorkizunaren xedetan jarduteko. Pertzepzio zabaldua da, ebidentziaz ere lagundutako intuizioa, kulturak ikusgarritasun-arazoak dituela oro har, eta euskal kultura bereziki ikusiezin dela (Astiz eta Rubio 2016: 26). Orobat, bistan da komunikazio eta kultur industria sendoak izatea dela gakoa, horiek baitira jendearengana iristeko bideak; eta horietan eragiteko modua, egon, badago (Amezaga Albizu 2018: 54). Debate horiek sakon eta patxadaz egin beharrekoak dira. Esperimentzia ezberdinetatik ikasiz, egoera berriak (soziolinguistikoak, teknolo-

gikoak zein komunikaziozkoak) kontuan hartuz, eta eragile ezberdinen parte-hartzea bermatuz (kulturgileak, hedabideak, Administrazioa, Akademia eta, ahal dela, erabiltzaileak).

Izan ere, transmititzen ez den kultura bat ezin delako hautatu, garaiak eskatzen du komunikazio sistema, kultur sistema, orainetik gerora proiektatzea; garena kartografiatzen hastea, «kultura hila» baino «kultura bizia» gailendu dadin.

## Bibliografia

AGIRRE DORRONSORO, Lorea, AREXOLALEIBA BITERI, Julen, EIZAGIRRE, Andoni, GOIKOETXEA AGIRRE, Nekane, SARASUA MARITXALAR, Jon eta URRUZOLA, Iñaki (2011). «Euskal kulturgintza: nondik gatoz, non gaude, nora jo beharko genuke. Eztabaidarako proposamen bat», *Jakin* 183/184: 11-92.

AMEZAGA ALBIZU, Josu (1994). «Herri kultura: euskal kultura eta kultura popularrak». Doktore-tesia, Euskal Herriko Unibertsitatea. [http://www.euskara.euskadi.net/appcont/tesisDoctoral/PDFak/JOSU\\_AMEZAGA.pdf](http://www.euskara.euskadi.net/appcont/tesisDoctoral/PDFak/JOSU_AMEZAGA.pdf)

AMEZAGA ALBIZU, Josu (2018). «Euskarazko kulturaren kontsumoa ulertu nahirik», *Jakin* 226: 39-64.

AMEZAGA ETXEBARRIA, Asier (2016). «Harritik herrira. Gabriel Arestiren paperak euskal kultura eta gizartean, 1954-2014». Doktore-tesia, Euskal Herriko Unibertsitatea. ADDI. [https://addi.ehu.es/bitstream/10810/17522/7/TESIS\\_AMEZAGA\\_ETXEBARRIA\\_ASIER.pdf](https://addi.ehu.es/bitstream/10810/17522/7/TESIS_AMEZAGA_ETXEBARRIA_ASIER.pdf)

ASTIZ, Iñigo eta RUBIO, Miren (2016). «Kulturagintza norabidearen atakan. Durangoko Azokako “Gogoetaren plazan” igarritako kultur estrategia bateratu baten premia eta ikusgarritasunaren erronkaz», *Jakin* 213: 11-44.

AZPILLAGA GOENAGA, Patxi (1990). «Industria kulturalaren garapena», *Uztaro. Giza eta Gizarte-Zientzien Aldizkaria* 0: 7-19. <https://aldizkariak.ueu.eus/index.php/uztaro/article/view/3676>

AZTIRIA URTARAN, Josu (2024). «Politika publiko digitalak euskararen biziberritze-aro berria bultzatzeko», *BAT Soziolinguistika Aldizkaria* 133: 31-44.

BARIĆ, Ana, PAPAY, Sean eta PADÓ, Sebastian (2024). «Actor identification in discourse: A challenge for LLMs?», *arXiv preprint arXiv:2402.00620*. <https://doi.org/10.48550/arXiv.2402.00620>

BELOKI LEITZA, Zuhaitz eta SARALEGI URIZAR, Xabier (2020). «Euskarazko prentsaren narratibaren ardatz geografikoak aztertzen testuen meatzaritza eta Wikidata uztartuz», in L. Mimenza (arg.), *Euskal hedabideen urtekaria 2019*. Behategia. <https://behategia.eus/eu/urtekaria/urtekaria-2019/>

CALVO, Dafne, CANO-ORÓN, Lorena eta MORALES-I-GRAS, Jordi (2025). «Unstoppable implementation. Technological imaginaries on Artificial Intelligence in Southern European journalism», *Journalism Practice* 19(10): 2209-2229. <https://doi.org/10.1080/17512786.2025.2522471>

CIES. (d.g.). «Estudio de audiencia de medios — Komunikabide audientzia ikerketa». <https://cies2.com/es/>

DATUTEGIA. (d.g.). «Euskal hedabideen sektorearen datuak». <https://datutegia.behategia.eus/eu>

ELKAR. (2018). «Euskal Herriko biztanleen irakurketa eta musika ohiturak azterketa - PostData». <https://postdata.elkar.eus/euskal-herriko-biztanleen-irakurketa-eta-musika-ohiturak-azterketa/>

EUSKO JAURLARITZA. (2023). «Hedabideak – Medios de comunicación». Prospekzio Soziologikoen Kabinetea – Eusko Jaurlaritzako Lehendakaritza. [https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/o\\_23tef4/eu\\_def/adjuntos/23tef4.pdf](https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/o_23tef4/eu_def/adjuntos/23tef4.pdf)

FERNÁNDEZ DE LANDA, Joseba eta AGERRI, Rodrigo (2025). «Adimen artifiziala ikerketa sozialerako: euskal hurbilpena», in *CLARIAH-EUS: Zientzia Sozialak eta Humanitate Digitalak gaur egun*. <https://addi.ehu.es/handle/10810/73014>

INGUMA. (d.g.). «Inguma - Euskal komunitate zientifikoaren datu-basea». 2025eko uztailaren 26an kontsultatua. <https://www.inguma.eus/>

IZTUETA AZURMENDI, Ibai (2014). «Euskal kultura eta hizkuntzak: diskurtsoak eta hego euskal herriko liburu-ekoizpena euskal/espainol ardatzaren argitan». Doktore-tesia, Euskal Herriko Unibertsitatea. [http://www.euskara.euskadi.eus/appcont/tesisDoctoral/PDFak/Ibai\\_Iztueta\\_TESIA.pdf](http://www.euskara.euskadi.eus/appcont/tesisDoctoral/PDFak/Ibai_Iztueta_TESIA.pdf)

JACOMY, Mathieu, VENTURINI, Tommaso, HEYMANN, Sebastien eta BASTIAN, Mathieu (2014). «ForceAtlas2, a Continuous Graph Layout Algorithm for Handy Network Visualization Designed for the Gephi Software», *PLOS One* 9 (6): e98679. <https://doi.org/10.1371/journal.pone.0098679>

JUARISTI LARRINAGA, Patxi (2013). *Aldagai bakarreko estatistika deskribatzailea eta inferentziala gizarte zientzietan: teoria eta adibideak*. Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU). <https://ikasmaterialak.ehu.eus/matematika/datuen-kudeaketa>

JUARISTI LARRINAGA, Patxi (2015). «Euskal Kultura industriaren enpresak», in *X. Soziologia eta Zientzia Politikoaren Euskal Kongresuaren aktak. Etengabeko aldaketan dauden gizarteak: errealitate soziala eta erronka zientifikoa*. Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.

KIM, Yeouul, KIM, Suin, JAIMES, Alejandro eta OH, Alice (2014). «A Computational Analysis of Agenda Setting», in *Proceedings of the 23rd International Conference on World Wide Web (WWW '14 Companion)*, 323-324. New York, NY: Association for Computing Machinery. <https://doi.org/10.1145/2567948.2577379>

LANSBALL-WELFARE, Thomas, SUDHAHAR, Saatviga, THOMPSON, James, LEWIS, Justin, Findmypast Newspaper Team eta NELLO, Cristianini (2017). «Content Analysis of 150 Years of British Periodicals», *Proceedings of the National Academy of Sciences of the United States of America* 114 (4): E457-65. <https://doi.org/10.1073/pnas.1606380114>

LARRINAGA RENTERIA, Ane (2006). «Kulturgintza esparruko eragileen tradizio intelektualak: kulturgileak gizarte mugimenduetan». Doktore-tesia, Euskal Herriko Unibertsitatea. [http://www.euskara.euskadi.net/appcont/tesisDoctoral/PDFak/ANE\\_LARRINAGA.pdf](http://www.euskara.euskadi.net/appcont/tesisDoctoral/PDFak/ANE_LARRINAGA.pdf)

LEE, Changsoo (2019). «How are ‘immigrant workers’ represented in Korean news reporting?—A text mining approach to critical discourse analysis», *Digital Scholarship in the Humanities* 34 (1): 82-99. <https://doi.org/10.1093/llc/fqy017>

LÓPEZ-ROLDÁN, Pedro eta FACHELLI, Sandra (2015). «Análisis de tablas de contingencia», in *Metodología de la investigación social cuantitativa*. Universitat Autònoma de Barcelona. <https://ddd.uab.cat/record/129382>

MANIAS, Itsaso, GURRUTXAGA, Guillermo eta RAMIREZ DE LA PISCINA, Txema (2020). «‘Fast or slow’: zein da albisteen geroa?», in *Euskal hedabideen urtekaria 2019*. Behategia. <https://behategia.eus/eu/urtekaria/urtekaria-2019/>

MYKKÄNEN, Markus, PATRON, Anri, BADHAM, Mark eta VALENTINI, Chiara (2024). «Leveraging NLP for Crisis Communication Management: A Case Study of News Media Analysis of the COVID-19 Pandemic in Two Nordic Countries», *Journal of Contingencies and Crisis Management* 32: e12611. <https://doi.org/10.1111/1468-5973.12611>

NEWMAN, Nic, ROSS ARGUEDAS, Amy, ROBERTSON, Craig T., NIELSEN, Rasmus Kleis eta FLETCHER, Richard (2025). *Digital news report 2025*. Reuters Institute. [https://reutersinstitute.politics.ox.ac.uk/sites/default/files/2025-06/Digital\\_News-Report\\_2025.pdf](https://reutersinstitute.politics.ox.ac.uk/sites/default/files/2025-06/Digital_News-Report_2025.pdf)

ORBEGOZO-TERRADILLOS, Julen, LARRONDO-URETA, Ainara, ESCRIBANO, Nayla, PEÑA FERNÁNDEZ, Simón eta AGERRI, Rodrigo (2025). «BasqueParl: descifrar la huella retórica en el Parlamento Vasco con el procesamiento del lenguaje natural», *Palabra Clave* 28 (1): 1. <https://doi.org/10.5294/pacla.2025.28.1.3>

SARALEGI URIZAR, Xabier (2019). «Euskal Herriko prentsa digitalean emakumezkoek zenbateko presentzia duten kuantifikatzen testuen meatarizta baliatuta» in *Euskal hedabideen urtekaria 2018*. Behategia. <https://behategia.eus/eu/urtekaria/urtekaria-2018/>

STADECO. (2017). *Euskal Herriko biztanleen irakurketa eta musika ohituren merkatu ikerketa*. Elkar. <https://files.eke.eus/pdf/elkar-eh-biztanleak-2017.pdf>

TURING, Alan Mathison (1950). «I.—Computing machinery and intelligence», *Mind* LIX 236: 433-60. <https://doi.org/10.1093/mind/LIX.236.433>



# Ahalera sintetikoa egon, joan eta ibili aditz sintetikoetan Leitzako euskaran

El potencial sintético de los verbos sintéticos *estar*, *ir* y *andar* en el euskera de Leitza

Le potentiel synthétique des verbes synthétiques *être*, *aller* et *marcher* en basque de Leitza

The synthetic potential of the synthetic verbs *to be*, *to go* and *to walk* in the Basque of Leitza

OIARTZUN SAGASTIBELTZA, Fernando

Ikertzaile beregaina

elixaldekoborda@gmail.com

ORCID: <https://orcid.org/0009-0008-0363-8620>

DOI: <https://doi.org/10.59866/eia.v2026i71.333>

Jasotze-data: 2025/09/01

Behin-behineko onartze-data: 2026/02/06

Behin betiko onartze-data: 2026/03/05

*Egon*, *joan* eta *ibili* aditz sintetikoen ahalera sintetikoak bizirik dirau oraindano Leitza. Adin handiko jendearen testigantzei esker, ahalera sintetikoaren bilduma osoa egitea lortu dugu aldaera guztietan: izan ahalera orainaldian, iraganaldian eta alegiazkoan; izan aditz-erregistro neutroan; izan hikako erregistro alokutiboan, alegia, igorleak solaskideari hi esanda eta hi horri dagokion marka adizkian txertatuta.

**Gako-hitzak:** aditz sintetikoak, ahalerazko aditzak, ahalera sintetikoa, Leitzako euskara, alokutiboa, hitanoa.

El modo potencial sintético de los verbos sintéticos *estar*, *ir* y *andar* sigue vivo en Leitza. Gracias a los testimonios de gente de edad avanzada, hemos conseguido hacer una recopilación completa de los verbos sintéticos potenciales en todas sus variantes: el potencial

presente, pasado e hipotético; las formas verbales del registro neutro y las del tuteo alocutivo (hitano), es decir, cuando el emisor se dirige al receptor como *tú* y eso se refleja en la forma verbal mediante la marca correspondiente.

**Palabras clave:** verbos sintéticos, verbos potenciales, potencial sintético, euskera de Leitza, alocutivo, hitano.

La forme potentielle synthétique des verbes synthétiques *être*, *aller* et *marcher* est toujours active à Leitza. Grâce aux témoignages de personnes âgées, nous avons pu réaliser une compilation compréhensive des verbes potentiels synthétiques dans toutes leurs variantes: le présent, le passé et le potentiel hypothétique, soit en formes verbales au registre neutre, soit en formes allocutives, à utiliser lorsque l'on choisit le tutoiement (*hi*) qui inscrit dans le verbe une marque du genre de l'allocutaire.

**Mots-clés:** verbes synthétiques, verbes potentiels, potentiel synthétique, discours Leitza, conjugaison allocutive, hitano.

The synthetic potential form of the synthetic verbs *to be*, *to go*, and *to walk* is still alive in the town of Leitza. Thanks to the testimonies of older people, we have managed to carry out a full compilation of the synthetic potential verbs in all their variants: the present, past, and hypothetical potential; the verbal forms in a neutral register, as well as the allocutive, to be used when we choose the «you» treatment (*hi*) that inflects the verb according to the gender of the conversation's partner.

**Keywords:** synthetic verbs, potential verbs, synthetic potential, Leitza speech, allocutive agreement, Hitano.

OIARTZUN SAGASTIBELTZA, Fernando (2026) «The synthetic potential of the synthetic verbs *to be*, *to go* and *to walk* in the Basque of Leitza», *Euskera Ikerketa Aldizkaria* 71 (1): 215-276.

1. Sarrera
2. Ahalerari buruzko azalpen orokorrak
  - 2.1 Ahalera adizki analitikoetan
  - 2.2 *-t(z)en + ahal* egitura
  - 2.3 Ahalera adizki sintetikoetan
  - 2.4 *ba-* aurrizkia adizki sintetikoetan
3. Euskararen erregistroak eta alokutiboaren erabilera
  - 3.1 Tratamendu alokutiboa
  - 3.2 Hiztunen gaitasuna erregistro informalean
  - 3.3 Erabilera sintaktikoa adizki alokutiboetan
4. Leitzako usadioa *egon, joan* eta *ibili* aditzen ahalera sortzerakoan: adizki analitikoekin nahiz sintetikoekin
5. Hizkuntzalariek eta adituek ahalera sintetikoaren gainean egindako lanak
  - 5.1 Ekarpena Iñaki Gamindek sintetikoaren ahaleraren gainean egindako lanei
6. Aditz taulen aurkezpenaz bi kontu argigarri
7. Leitzako euskararen maizenik gertatzen diren aldaketa fonetikoak
8. Ahalera sintetikoaren taulak
  - 8.1 EGON aditza
  - 8.2 JOAN aditza
  - 8.3 IBILI aditza

#### Bibliografia

#### Eranskinak:

1. eranskina. EGON aditzaren ahalera sintetikoa erabiliz ahoz jasotako adibideak
2. eranskina. JOAN aditzaren ahalera sintetikoa erabiliz ahoz jasotako adibideak
3. eranskina. IBILI aditzaren ahalera sintetikoa erabiliz ahoz jasotako adibideak

## 1. Sarrera

Artikulu honetan *egon*, *joan* eta *ibili* aditz sintetikoen ahalera sintetikoa Leitzako mintzoan jorratuko dugu haren aldaera guzietan: orainaldian, iraganaldian eta alegiazkoan. Adizki horiek guziak aztertu ditugu aditz-erregistro neutroan, baita hikako molde alokutiboan ere.

Ahalerazko adizki sintetiko horien izatea herrian bertan jaso genuen ahoz haur eta gazte denboran, garai hartan horrelako formaren bat entzuten baitzen maiz samar. Ondoren, Iñaki Gamindek Nafarroako ahaleraz-eta idatzi zuen artikuluari esker (Gaminde 1984), gehiago ikasi genuen horien gainean, eta gure euskalkiaren erabilera berezi horren balioaz jabetu. Gerrogo, Leitzako hizkerari buruzko egundainoko lanik mardulena argitaratu zen (Olano 1998), zeinetan gaineratik izanagatik ere aipatzen baitzen aditz sintetiko horien erabilera gurean. Baina, Olanoren arabera, galbide azkarrean omen ziren ordurako ahalerazko sintetikoak, eta Gamindek bilduari ez zion ekarpen esanguratsurik egin; ez zuen sakondu bilketan eta aztergaia bere hartan utzi zuen. Azkenik, 2020. urtean Leitzako hitanoaren gaineko *Hika eta Toka. Noka ere toka!* liburuaren lanketan hasiz geroztik, ahoz entzun egiten genituen ahalerazko adizki sintetikoak grabaketetan, eta Leitzako adizki horien gaineko lanketa osoa egiteko aukera izan dugu, baserrietako adin handiko jendeak ba baitarabiltza oraindik ere ahalerazko adizki sintetiko horiek.

Hala bada, ahal izatea adierazteko Leitzako ahozko mintzoan bizirik den erabilera hori ekarri nahi izan dugu hona, gramatikalariek eta hizkuntzalariek itzalitza jotzen duten erabilera. Iñaki Gamindek duela 50 urte egin-dakoan oinarrituta, *egon*, *joan* eta *ibili* aditz sintetikoen ahalera sintetikoa osotasunez eta ongi bildurik geldu dadin saiatu gara.

Horretarako, Leitzako adin handiko hiztunen mintzo erreala bildu dugu sakonki, haien jakinduria betiko isildu beharrean, bizirik gera dakigun. Elebakar izan diren hiztunen altxorrek bizirik dirau, eta, ahalerazko sintetikoen gaian bezala, lanabes aberatsa dira hiztun adindunak gure euskara bere osotasunean hornitzeko, zalantzarik ez dagoena.

## 2. Ahalerari buruzko azalpen orokorrak

Lehenik eta behin, esan dezagun ahalerak, oro har, bi funtzio nagusi dituela: alde batetik, subjektuak ekintza bat burutzeko duen gaitasuna edo ahala adieraz dezake, eta, bestetik, ekintza baten gertagarritasuna.

Aurrerago baino lehen, bereiz ditzagun aditz motak bi sail nagusitan, hitz bakarrean edo bitan ematen diren kontuan hartuta: Hitz bakarrean sortzen direnei adizki sintetiko esaten zaie<sup>1</sup>: *dakit, zihoan, darabil, daramate, zebilen*. Bi hitzetako adizkiei berriz analitiko deritze edo zenbait gramatikatan perifrastiko edo konposatu: *joanen gara, emanen dizut, ekarri zizkidan, irakurriko zuen*.

### 2.1 Ahalera adizki analitikoetan

Gaur egungo euskaran aditz gehienak adizki analitikoek bidez jokatzen dira. Esan bezala, aditz horiek bi osagai dituzte: adizki jokatugabea eta adizki jokatua. Adizki jokatugabea egiturako adizki nagusia da eta hark dakar eduki semantikoa. Adizki jokatua, berriz, egiturako laguntzailea da eta semantikoki hutsa. Adizkien aldiei dagokienez, ahalerazko adizki analitikoek orainaldiko, geroaldiko, iraganaldiko eta alegiazkoak osa ditzakete, horretarako, bakoitzari dagokion aldia erabiliz. Orainaldiko eta geroaldiko ahalerak orain aldiko laguntzailearekin osatzen dira; homonimoak dira: *orain joan naiteke, bihar ekar dezake*. Iragan aldiko laguntzailea dago iraganaldiko ahaleraren oinarrian: *joan nintekeen, ekar zezakeen*. Alegiazko aldikoa da ahalaria hipotetikoko molde analitikoa: *joan ninteke, ekar lezake*. Adibideek erakusten duten bezala, aldi guzietan, laguntzaileak *-ke* atzizki modala darama.

Gurean ere, Leitzan, beste hizkera gehienetan bezalatsu, adizki analitikoak erabiliz sortzen dira gehien-gehienetan ahalerazko orainaldikoak, geroaldikoak, iraganaldikoak eta alegiazkoak. Leitzako hitzun arruntak ez duke arazorik erabiltzeko edozein aditzen ahalerazko adizki horiek. Konpa-

---

<sup>1</sup> Euskal gramatiketan «adizki trinko» terminoa ere ohikoa izan da.

razio baterako; *atsalden e in zitzezken lan horik* (arratsaldean ere egin daitezken lan horiek); *gure motikoa saia littekek gehixeo eskolan* (gure mutikoa saia litekek gehixego eskolan); *atzo etorri hinddeken guri launtzea, ezñen aittu giñuzenen* (atzo etor hintekeen guri laguntzera, ezinean aritu gintunan).

## 2.2 *-t(z)en + ahal egitura*

Piarres Lafittek aditzera eman zigun bezala, ahala sortzeko *-t(z)en + ahal* egitura erabiltzen da ekialdeko hizkeretan: «Au lieu de *ez daiteke ikus*, on dirait aussi bien *ez da ikusten ahal*; au lieu de *ez dezakete adi: ez dute aditzen ahal*» (1962: 369).

Hala, Nafarroako eskualde askotan [aditzoia + \**edin*/\**ezan*] adizkia baztertuxea dute ahalaria sortzerakoan. Haren orde, [-*t(z)en + ahal + izan/edin*] perifrasi erabiltzen dute maizago. Aipatu berri dugun perifrasiak bezala, orainaldiko, geroaldiko, iraganaldiko eta alegiazko ahalaria adierazteko balio lezake: *Joaten ahal naiz. / Ekartzen ahal du. / Bihar etortzen ahalko naiz. / Bihar ekartzen ahalko du. / Atzo etortzen ahal nintzen. / Iaz ekartzen ahal zuen. Ahalera hipotetikoan. / Etortzen ahal litzateke. / Egiten ahal luke. / Ez duzu egiten ahal. / Ez zara etortzen ahal.*

Leitzan, Nafarroan izanagatik ere, ez dugu jaso erabilera horrenik. Bai ordea egitura hori bera erabiltzea desioa, nahia edo gogo bizia adierazi nahi denean (Lizarraga 2006). Esaterako: *Pentsatzen ahal dok!* (Pentsatzen ahal duk!) / *Ñen ahal diu abudo lana!* (Eginen ahal digu agudo lana!). Leitzan esaten den *borroa* edo begizkoa litzatekeena adierazteko garaian ere erabilera hori sistematikoa da: *Leprak yanen ahal hao!* (Leprak janen ahal hau!) / *Deabruk harrapatuko ahal do!* (Deabruak harrapatuko ahal du) / *Sorgiñek eramanen ahal hauea!* (Sorginek eramanen ahal haute!).

## 2.3 *Ahalera adizki sintetikoetan*

Arestian aipatu bezala, oro har, euskal aditz gehienak adizki analitikoek bitartez jokutzen dira, eta jokabide sintetikoa bakanagoa izan ohi da. Dena

den, badira adizki sintetikoak dituzten aditzak: *atxiki, eduki, egin, egon, ekarri, eman, entzun, eroan/eraman, erabili, etorri, ibili, iraun, irudi, izan, jakin, jario, jarraiki, joan, ukan...*

Horrezaz gain, gaur egungo euskararen ahalerazko adizki sintetikoak hagitx urriak dira, eta paradigma sintetikoetako tinkoen eutsi dieten hizkerak ere ahaleran adizki analitikoak hobesten dituzte. Hala bada, aditu gehienek arabera, ahalaria sintetikoa batez ere antzinako usadioetako begira dauden egileen idazlanetan baizik ez da agertzen. Orainaldiko adizkiek orainaldiko eta geroaldiko ahalerazko adizkiak osatzen dituzte (*orain noake, bihar dakarke*), iraganaldiko iraganaldikoak (*nindoakeen, zekarkeen*) eta alegiazko aldikoak hipotetikoak (*nindoake, lekarke*). Aldia edozein izanik, adizkiak *-ke* atzizkia beretzen du: *datorke, zetorkeen, letorke*. Sintetikoaren jokabidean, hitz bakarrekoak izaki, ahala adierazteko aipaturiko *-ke* atzizkiak gain, bere baitan biltzen dira eduki semantikoa eta osagarria (pertsonek marka, aldia...).

Den moduan delarik ere, adizki sintetikoaren urritasunari buruzko azken azalpen hori, gure euskalkiari dagokionez, gehiago zehaztu beharko litzateke zenbait aditz sintetikoetako ari garelarik bederen. Erabilera hori galdutzat jo liteke euskararen lurralde eta herri gehienetan, baita aditz sintetiko gehienek ariz gero ere. Dena dela, behinik behin, gure ikerketan jaso dugun bezala, Leitzako mintzoan ahaleraren erabilera sintetikoa oso ohikoa izan da ahozko jardunean oraindik *egon, joan* eta *ibili* aditzetan, eta gaur egun ere badarabilte molde hori gure adin handiko hiztunek.

## 2.4 *ba-* aurrizkia adizki sintetikoetan

Azken alderdi bat adizki sintetikoaren gainean: ezin daitezke esaldiaren hastapen absolutuan eman inolako partikularik gabe: *\*\*daukat, \*\*doa* haurra. Hala, normalean *ba-* aurrizkia gehitzen zaio adizkiari (*badaukat; badoa* haurra) edo gainerakoan adizkia bigarren posizioan mugitzen da (*hau daukat; haurra doa*). Murriztapen horren salbuespena agintara dugu, horretan adizkia esaldiaren hastapen-hastapenean kokatzen baita: Esate baterako: *Hago isilik!*

Gure ikerketan ere, esaldiaren hasierako *ba-* aurrizkiaren erabilera jaso dugu bete-betekoa hiztunei egindako elkarrizketetan: *Baihagoke trankil, semea lanen hasi bazak!* (Bahagoke trankil, semea lanean hasi bazaik). Hala bada, bildu ditugun kontu eta esaldi ia guztiak, ahalera adieraztekoak esan nahi baita, *ba-* aurrizkiak esanak dira.

Dena moduan delarik ere, gure hizkeran *ba-* aurrizki hori bai- bihurtzen da hikako adizkietan: *Banagoke ni gehixeo amakin* (Banagoke ni gehixeago amarekin). / *Hi re baihoake gero launtzea, ezta?* (Hi ere bahoake gero laguntzera, ezta?). Gainera, gauza bera gertatzen da gure hizkeran *ba-* aurrizkiaren ondoren *bezala* adberbioa baldin badaukagu: *Burukatea esaten zitzioren, korona bailitz bezala, burun patute.* (Buru-katea esaten zitzaionan, koroa bailitz bezala, buruan paratuta) / *Hik herea baiho bezelaxe kuidatu borda.* (Hik heurea bahu bezalaxe zaindu borda).

### 3. Euskararen erregistroak eta alokutiboaren erabilera

Aurrerago baino lehen, argi dezagun alokutiboa zer den eta gure erregistrorik ohikoenak zein diren, hurrengo atalak osatzeko ezinbestekoa baitugu.

#### 3.1 Tratamendu alokutiboa

Ingurukoekin mintzo garenean, haiekiko dugun harremanaren arabera jokatzeko dugu, zein tratamendu mota dugun solaskidearekin, hala jakatuko dugu. Horrela bereizten ditugu hizketako erregistroak. Bi sail nagusi bereiz ditzakegu gure hizkuntzan:

- a. Tratamendu neutroa edo eztabadakoa: Ez da aintzat hartzen nor dugun mezua jasotzailea, eta nornahirentzat balioko du hizketa horrek.
- b. Tratamendu alokutiboa: igorleak, erregistro neutroan ez bezala, solaskidearen marka ere islatzen du adizkian, hari zuzen-zuzenean eginez.

Alokutiboan egin daiteke «hika», Leitzan eta inguruan egiten den bezala: egon dun/duk (egon da), oro har, gertutasunez edo konfiantzaz hitz egiteko; edo bestela, «zuka» (xuka) ekialdeko euskalkietan bezala, kutsu afektiboa erantsita, mintzaera adierazkorra sortuz: joan duzu (düzü) [joan da].

Alokutibo hika erabiltzen dugunean, *-n* edo *-k* txertatuko dugu adizkian, mintzalaguna emakumezkoa edo gizonezkoa dugun kontuan hartuta. Eta hika alokutiboa aukeratuz gero (zuka-xukarekin gertatzen den bezala) adizki sistema osoa aldatzen da. Horrela, hika erregistroak adizki alokutiboak erabiltzea eskatzen du, sistema osorik egokituz: Alegia, *Non habil?* galdetuz gero, hitanoari dagozkion adizki alokutiboak erabili behar direla ezartzen digu: *Hementxe nabilen / nabilek*, erabili beharko dugu, noka (emakume batekin jolasean) eta toka (gizon batekin jolasean) bereiziz.

Bada beste tratamendu bat itzalduxea dagoena, begirunezko hirugarren pertsonaren erabilerari dagokiona, «berorika» deitua, errespetu handiz erabili izan dena apaizekin-eta mintzatzeko, alokutiborik ez duena. Gure lanean gehiegi sakondu ez badugu ere, baserri munduko zenbait familiatan egun ere badarabilte, aitortu digutenaren arabera, adin handikoekin eta, jakina, apaizekin.

### 3.2 Hiztunen gaitasuna erregistro informalean

Ritxi Lizartzak *Hitanoa mintza hadi, lagun!* liburu mamitsuan adierazi bezala (Lizartza 2009: 18-19), hitanoaren esparrurik behinena ahozko hizkerari dagokiona da. Gauza jakina da hori erregistro informalaz ari garelako, eta, oro har, biren-edo arteko elkarrizketa zuzenez. Hala bada, testu horien ezaugarriarik ohikoenak honakoak lirateke: bat-bateko elkarreragina, hutsuneekin, elipsiekin eta bukatu gabeko esaldiekin; diskurtso xumea edo sarkontasunik gabea; erritmoak, intonazioak, jardunaren abiadurak eta ahotsaren indarrak garrantzitsuak oso; irainak, txantxak, haserreak eta adierazpen ñabardurak agerikoak; adizki eta bestelako elementu askoren elipsiak; testu gitura simplea eta aditz erabilera mugatua...

Den moduan delarik ere, Leitzako ikerketan ikusi dugunaren arabera, bestelako diskurtso sakonagoak eta aberatsagoak ere gertatzen dira bi kide-

ren arteko elkarrizketetan, hika ari direla ere: adierazpen sakonagoen munduan murgiltzea, gerran hildakoez aritzea, txondorraren prozedura xehe-xehe adieraztea, sorginen gaineko sinesmenak kontatzea, gizartearen arazoak aztertzea, ametsak partekatzea, arazoei aurre egitea, hipotesiak egitea, nahiak eta abar azaltzeko argibideak ematea. Bada, guk bildutakoaren arabera, aditu batzuek aurkakoa dioten arren, gaitasun handiko hiztunek ez dute arazorik argudio-azalpen testu sakonak sortzeko hitanoa erabiliz, konplexutasun sintaktiko handiko testuak izanagatik ere.

Hortaz, gure arreta piztu du Ritxi Lizartzak aipatu izana Xabier Kintana Koldo Mitxelenarekin mintzatu zela hitanoaren erabileraz, eta galdetu zio-la ea ezagutzen ote zuen inor adizkera guzietan hitanoa ongi erabiltzen zuenik. Nonbait, nekez aurki zitekeela ahaleran eta kontu konplexuetan hitano-erabiltzailerik. Mitxelenak Kintanaren galderari erantzunez esan omen zion gaitasun handiko hiztunik ezetz, ondorengoa gehituz:

Oro har, hika egiten dutenek orainaldiko eta lehenaldiko adizkera ezagunenetan erabiltzen dute, eta inoiz hipotetikoetan ere bai, baina zaila da potentzialetan ere hika entzutea (Kintana 2005: 158).

Guk egin dugun lanean, berriz atzera esan beharrean gara, garbi ikusi dugu eskolarik gabeko adin handiko hiztunak gozo eta aberats mintzo direla, eta arazo gorriarik gabe darabiltela hitanoa adizkera guzietan, izan orainaldiko, iraganaldiko edo alegiazko, izan hipotetikoan nahiz izan ahalerazko adizkirik bitxienetan; baita aditz sintetikoan ahalerazko sintetikoetan ere.

### 3.3 Erabilera sintaktikoa adizki alokutiboetan

Euskaltzaindiak «Adizki alokutiboak (hikako moldea)» izeneko 14. arauan eman zituen adizki alokutiboen batasunerako *formak* (hikako moldeari dagozkionak). Baina oraindik ere baditugu alokutiboari buruzko bi alderdi zalantzarri erabaki gabe dirautenak. Erabilera sintaktikoari buruzkoa da lehenengoa eta erabilera sozialari, jardun-ingurumariari edo erregistroari buruzkoa bigarrena. Bigarren horri buruzko azalpenak lan honetatik kanpo gelditzen zaizkigu ditugun helburuak kontuan hartuz.

Erabilera sintaktikoari dagokionez, *Euskara Batua*ren *Eskuliburuan* (EBE) alokutiboaren gainean esanak oinarritzat hartuta, oraindainoko tradizioan, ohiko erabileran betiere, menderagailua daramaten aditzek ez dute alokutiborik eramaten: Badoala esan din. / Etortzen denean, ikusiko diagu. / Eguraldi ona bada, aterako gaitun... Galderetan ere antzera jokatu izan da egundaino, hau da, alokutiborik gabe.

Guk aztertu duguna kontuan hartuz, esanen genuke Leitzan ere base-rrietako hiztun gaituek EBEk aipatzen duen bezala jokatu izan dutela. Erabilera zuzen eta egokia izan izan dute oraindaino eskuartean dugun lan honetako adibideetan argi eta garbi ikus daitekeen eran (Ikus eranskine-tan).

Egiari zor, konturatu gara, behin edo beste, galderetan hitano adizkiak erabiltzen direla, baina erabilera naturalean, mintzamen libreak, galderetan ere ez da hitanorik erabiltzen gure Leitzan. Bestalde, aitortu behar da *eta* menderagailu bidez sorturiko kausazko perpausetan, hitanoa erabiltzea ohikoa dela: *Ze in behau mutil horrekin? Beti nahi duna itteik eta. Goor in behar zeinue.* (Zer egin behar dugu mutil horrekin? Beti nahi duena egiten dik eta. Gogor egin beharko zioagu.).

#### **4. Leitzako usadioa egon, joan eta ibili aditzen ahalera sortzerakoan: adizki analitikoekin nahiz sintetikoekin**

Arestian aipatu dugun eran, gaztaroan frankotan entzunak gara gerok ahalerazko horrelako adierazpideak gurasoenean bizi ginela. Amak edo aitak, konparazio baterako, ohartu gu norabait joan nahian ginela eta ausartzen ez, eta baimena eskatu nahian ginela, eta azkenean haiek esan: *Tira, tira, motikoa. Bazoazke, bazoazke zu re. Ez geldittu etxen, zure laun guzik hara yoa behar badue.* (Tira, tira, mutikoa. Bazoazke, bazoazke zu ere. Ez gelditu etxean, zure lagun guziek hara joan behar badute.).

Geroztik, behin gurasoen etxetik joandakoan, gero eta gutxiago entzun ditugu horrelako adizkiak. Horiek entzuteko adin handiko jendearekin egon behar baita. Hala, hainbat urtez, apenas formaren bat edo beste

entzunak garen. Dena dela, azkeneko bost urte honetan, Leitzako hitanoari buruzko lanetan hasiz geroztik, elebakar izandako baserri eremuko hitzune-kin izan ditugun jolasaldi luze horietan, aldiro entzun izan dugu aditz sintetikoetan ahalerazko adizki sintetiko *berez*i horietakoren bat. Gainera, gaude hiketako jolasaldietan maizago entzun ote ditugun erregistro neutroan ari direnean baino. Hona adibide bi: *Baihoake motel, hemen traba bakarra ittek eta* (Bahoake motel, hemen traba bakarrik egiten duk eta!); *Baihaoke neska, hementxe suen ondoan; hotza zeon eta. Zertako yoan behan uain presaka?* (Bahagoke neska, hementxe suaren ondoan; hotza zagon eta. Zertarako joan behar dun orain presaka?).

#### Ahalerazko adizki analitikoek eta sintetikoek adiera bera dute

Bi moldeen artean dagoen aldeaz, hau da, *joan haiteke* edo *bahoake* esatearen artean legokeen aldeaz hitzunei galdetuz gero, denek diote berdin-berdin esan daitekeela bata nola bestea: *eon natteken gehixeo* (egon naiteken gehixeago) edo *banaoken gehixeo* (banagoken gehixeago). Erabilera sintetiko horri dagokionez, hitzun horiek esaten dute hori dela lehengo hizketa zaharra, lehen maizago erabiltzen zena, haiek ere erabiltzen zutena. Eskolarik gabeko hizketa omen da hori. Era berean, argi eta garbi dute bi aldaera horiek gauza berbera esateko balio dutela. Hona, konparazio baterako, gure informatzailea den Migel Sukuntzaren azalpen argigarria: *Bai jaune. Berdin-berdin esateittok hoik. Eon gaittezek bai, tte bagautezek e bai. Horik bik igual dittok, bik gauze bera dittok. Uain, esanera diferentea duela. Baño gañekoan berbera dittok. Bai, gauze berbera dok.* (Bai jauna. Berdin-berdin esaten dituk horiek. Egon gaittezek bai, eta bagaudekek ere bai. Horiek biak berdin dituk, biak gauza bera dituk. Orain, esanera desberdina dutela. Baina gainerakoan berbera dituk. Bai, gauza berbera duk.).

Euskal gramatiketan ere ez da adierazten inolako alderik dagoenik ahalera adierazteko garaian adizki analitikoaren edota sintetikoaren artean. Argi dago sintetikoaren bidez oso gutxi sortzen direla ahalerazko adizkiak, baina gainontzean ez dirudi inolako ñabardurarik ere eransten den era analitikoaren edo sintetikoaren artean.

## 5. Hizkuntzalariek eta adituek ahalera sintetikoaren gainean egindako lanak

Leitzako euskararen gainean lan asko eta handiak egin dira. Adizki bilketa-lanak eta bestelakoak landuak bertako euskararen sakontzeko. Ikus nabarmenenak oin-oharreen<sup>2</sup>.

Gaurko aztergaiari dagokionez, dena den, egin diren lan horiez esan behar da Olanoren lanean bakarrean aipatzen dela, eta hark ere ataltxo txiki bat baino ez ziola eskaini. Olanok Leitzan Gamindek bildua axaletik aipatu besterik ez zuen egin, ahalerazko adizki horiek ba- aurrizkiarekin doazela zehaztuz: «Ahalerazko egitura hauek, izan ere, gaur egun beti *ba-* aurrizkiaren ondoan azaltzen baitira (guk geuk aurkitutako “bagoazke” bezala)» (Olano 1998: 237).

Bestelako euskal gramatika orokorretan, ezta euskarari buruzko ikerketa linguistikoetan ere, ez dugu atzeman sintetikoen ahalera sintetikoa jorratzen denik. Batez ere, ahalera sintetikoa garai bateko kontua balitz bezala aipatzen dute, gaur egun inon inork erabiliko ez balu bezala ahozkoan, eta idatzian ere bost egileren, hizkera zaharraren zaleren, bitxikeria gisa edo.

Guk, berriz, 2020. urtez geroztik Leitzako hiztun zaharregana jo dugu haien mintzoa gertutik lantzeko; besteak beste, hitanoa ikertzeko. Eta horri ekin bezain laster ohartu ginen, besteak beste, aditz sintetikoen ahalera gauza bizia zela eta sakondu beharrekoa gure hizkeraren zatia baita.

### 5.1 Ekarpena Iñaki Gamindek sintetikoen ahaleraren gainean egindako lanei

Gaurko langaiaren aurrekari nagusia Iñaki Gaminderen lana da (1985). Azterketa sakona eta emankorra ahaleraz eta aditz sintetikoen alokutiboaz Nafarroako hainbat euskarez, besteak beste, Leitzakoaz.

---

<sup>2</sup> OLANO, Mikel (1998); YRIZAR, Pedro (1992); GAMINDE, Iñaki (1985).

Hona hemen Gamindek artikulu hartan adierazitako zatirik nabarmenenak:

1. Nafarroan barna aditzak ikasteko bilkurak egitean zenbait aditz trinkorekin egiten diren erabilerek hagitz harritu gintuzten, izan ere, aditz trinkoek indikatibotik landa aski erabilera murrizta dute; baldintzak (bazengoz, baneko, e.a.) eta zenbait subjuntibo (gatozen, doala, e.a.) ezagun dira oraindino, baina, guk dakigularik bederen, ez hala ahalezkoak. Erabilera herritar hauek direla eta ahalezkoaz artikuluska hau egiteari interesgarri eritzi diogu, nola halaber, aditz trinko batzuren (*joan, egon eta ibili*) alokutiboak emateari ere.
2. Ahalezkoaren erabilera Nafarroan, eskuarki, ahalezkoa egiteko bi erabilera nagusi bereiz dezakegu: a: *Zu itxera yoaten al zara, zuk lana iten al duzu* b: *zu itxera yoan zaizke, zuk lana in dezakezuke*. Alegia, bata «edin» eta «ezan» aditzen bidez (b) eta bertzea, ordea, «ahal izan» aditzaren bidez egiten dena (a). Bigarren hau zenbait eskualdetan (Bortziriak, Baztan, Zugarramurdi eta Urdazubi) lehenaren ordean erabiltzen da kasik soilki. Halaz guztiz zenbait herritan bada hirugarren bat hain zuzen joan, egon eta ibili aditzekin egiten dena, adibidez: «bazoazke oyanera» «bagaudezke kontent». Bertzalde erran beharra dago ahalezko hauek ez direla herri guzietan berdin erabiltzen, eta zenbaitetan aztarnak soilki aurkitu ahal izan ditugula.

Arestian esan bezala, Gamindek aipatzen zuen ahalera sortzeko hirugarren erabilera hori da guk jorraturikoa. Eta hark egindakoaren gainean, Leitzako hizkerari dagokionez, honako alderdiak zehaztu beharrean gaude:

- a. Arestian aipatu dugun moduan, badira hiketan ari direnean ere erabilera hagitz aberatsa duten hiztunak, inolako arazorik gabe adierazten dutenak nahi dutena. Eta horretarako alegiazko, baldintzazko edo beselako adizkiak erabiltzen dituzte egoki eta zuzen.
- b. Hark bilduriko adizki batzuk guk era desberdin batean bildu ditugu. Hala, ohikoa den bezala ahozko mintzoan, bi aldaera edo gehiago leudeke zenbait adizkitan. Hona aditzez aditz Gamindek emandakoak eta guk jasotakoak:

- 1) Egon aditzaren ahalerazko adizki pluralak: Gamindek *gauzteke*, *zauzteke*, *zauztekea* eta *dauzteke* formak bildu zituen. Guk ordea *gautezke*, *zautezke*, *zautezkea* eta *dautezke* jaso ditugu hiztunen ahotan. Idazterakoan sorturiko akatsa ere izan liteke. Gure grabazioetan, behinik behin, garbi entzuten dira guk emandako aldaerak.
  - 2) *Ibili* aditzari dagokionez, pluraleko forma hauek jaso zituen hark: *gabiltzateke*, *zabiltzateke*, *zabiltzatekea* eta *dabiltzateke*. Horiek  $a > e$  asimilazioa islatu gabe ( $i + a > i + e$ ) bildu zituen hark. Gurean, askotan gertatzen den asimilazioa da hori. Eta guk jaso dugunaren arabera, asimilazio hori sistematikoki gertatzen da *ibili* aditzean. Hala, guk forma hauek jaso ditugu: *gabiltzeteke*, *zabiltzeteke*, *zabiltzetekea* eta *dabiltzeteke*.
  - 3) Hiketako adizki hauek paratu zituen hark /y/ ahoskeraz bailira bezala: *yahoke*, *yoake*, *yabilke*. Guk *hagoke*, *hoake* eta *habilke* bildu ditugu. Edozein moduz, *ba-* (*bai-*) aurrizkiak ematen dira gehien-gehienetan adizki horiek Leitzan, eta badirudi horren ondorioz eman zituela Gamindek yota soinuaz. Hala iradoki digu Mikel Olanok ere, *baiuen* eta *baieki moduko adizkiak* atalean (1998: 237). Guk, betiere, *baihaoke*, *baihoake* eta *baihabilke* jaso ditugu haren *bayagoke*, *bayoake* eta *bayabile* formen ordez.
- c. Ahalera sintetikoa orainaldian bakarria bildu zuen Gamindek: *nagoke*, *nabilke*, *noake*... Iraganaldikoa eta alegiazkoa ez zituen bere artikulua horretan jorratu. Guk tempus guzietan erabilitako adizkiak bildu ditugu: *nabilke* (ibil naiteke), *nebilke* (ibil ninteke), *nebilkeen* (ibil nintekeen)...
- d. Erregistroak kontuan hartuta, hiketako formak eman zituen Gamindek, *hi* pertsonari dagozkionak (*haoke*, *hebilke*, *hoake*). Ez ordea hikako alokutiboari dagozkion adizkiak: *neoken* (nengoken) edo *neokek* (nengokek), *nebilken* (nenbilken) edo *nebilkek* (nenbilkek), *niken* (noaken) edo *nikek* (noakek)... Guk hikako alokutiboko adizkiak ere bildu ditugu.

Xehetasunak xehetasun, Gamindek Nafarroako herri askotako adizki sintetikoak bildu zituen, baita *egon*, *joan* eta *ibili* aditzen ahalerazko sintetikoa orainaldian adieraztekoak ere. Hala, eskualde zabaletan erabilera hori bazegoelakoa agerian paratu zigun, eta hori hagitz inportantea da. Arrasto horri esker, besteak beste, osatu ahal izan dugu guk geure ikerketa.

## 6. Aditz taulen aurkezpenaz bi kontu argigarri

Osatu ditugun tauletan ahaleraren ohiko sailkapena erabili dugu: ahale-  
ra orainaldikoan, ahaleira iraganaldikoan eta ahaleira alegiazkoan. Trata-  
mentuari dagokionez, lehenik erregistro neutroko adizkiak paratu ditugu,  
eta jarraian hikako alokutiboari dagozkionak, noka eta toka. Lehendabizi,  
ezkerraldean, Leitzako euskarari paratu ditugu adizkiak, eta, ondoren, haien  
eskuinaldean, batuan.

Taulak osatzeaz gain, garbi gera dadin zertsu erabilera egiten den, nola-  
tsuko egoeretan erabiltzen den eta zer nolako kontu eta esaldiak osatzen  
dituzten adizki horiek erabiliz, hiztunen ahotik bildutako esaldi-kontu-  
kontakizun laburrak bildu, eta paratu ditugu haiek esan bezalatsu lehenik,  
eta, ondoan, batuan izanen liratekeen bezala. Horiek guziak eranskinetan  
paratu ditugu.

Hiketako jolasaldietan hitanoa erabiliz bilduriko adizki guzi-guziekin  
esaldi-eredu bana bederen islatu nahi izan dugu geure lanean, nola euskal-  
kian, hala batuan. Hori guzia egin dugu honako xede honekin: irakurleak  
argi eta garbi izan dezan noiz eta nola erabiltzen den ahaleira sintetiko hori  
gure mintzoan. Eta, bestalde, galtze bidean dugun alokutiboa era zuzen eta  
egokiz nola darabilten aztertu, edo, gutxienez, gozatu, nahi duen orok esku-  
ra izan ditzan Leitzan bilduriko adibide errealak.

## 7. Leitzako euskarari maizenik gertatzen diren aldaketa fonetikoak

Ahozko moldera hurbilpena egiten saiatu gara hiztunen mintzoa ahalik  
eta erarik zehatzenean ematearren, hiztun horien mintzoa zehatzasun osoz

ematearren, alegia. Haiek ditugu eredu, euskara hizkuntza bakarra era naturalean ikasitakoak eta gure aldean hizketa aberatsagoaren jabe. Hala, euskalkian esaten den *bezalatsu* idazten saiatu gara. Ondoren, eta ondoan, batuan izanen lukeen forma ere eman dugu ulermena eta erabilera errazteko.

Bidenabar, gure herriko hizkera interesgarriztat duen nornahirentzat lagungarria gerta daitekeelakoan, aldaketa fonetikoan berri emanen dugu jarraian. Gainera, gure ahozko euskara paperan paratu dugun bezala irakurterakoan, mesedegarria izanen zaiola iruditzen zaigu; errazagoa gerta baitaiteke ulertzea.

Hona hemen gure lanean bilduriko adierazpenetan maizenik gertaturiko aldaketa fonetikoak:

### 1. Bi bokalen artean kontsonante bat galtzea (VCV → V\_V)

Kontsonante galera horiek oso maiz gertatzen dira, eta kontsonanterik gabe paratu ditugu guk hitz horiek. Bokala luzatzea dakar gertaera horrek askotan: *baakin* «badakin», esaterako. Hona beste adibide batzuk sailetan banatuak:

/r/ dardarkari bigunaren galera: *dantzaa* (dantzara), *bordaa* (bordara), *eskolaa* (eskolara), *gue* (gure), *suen* (suaren), *beire* (begira), *lanea* (lanera), *noa* (nora), *atea* (atera), *neonen* (neronen)...

/d/ herskari ozenaren galera: *ezin* (edozein), *eo* (edo), *duelako* (dudalako), *añe* (adina), *aittu* (aditu), *beharkoiñet* (beharko dinat)...

/g/ herskari ozenaren galera: *eon* (egon), *zeok* (zegok), *haoke* (hagoke), *laundu* (lagundu), *in* (egin), *goorra* (gogorra), *heoke* (hengoke), *ezaunek* (ezagunak)...

/b/ herskari ozenaren galera: *pixkoat* (pixka bat), *metroat* (metro bat), *aleatzuk* (ale batzuk)...

### 2. $a > e$ asimilazioa: $u, i + a > u, i + e$

Askotan gertatzen da asimilazio hori gurean, herriaren izenetik beretik hasita: *Leitze* «Leitza».

**-i-** bokalaren ondoren: *nahi bedo* (nahi badu), *fabrike* (fabrika), *zebil-tzetekeken* (zebilzken), *zébiltzen* (zébiltzan), *diñet* (dinat), *anaie* (anaia), *gabil-tzetekek* (gabilzkek), *yarritte* (jarrita), *politte* (polita), *nahi been* (nahi ba-dun)...

**-u-** bokalaren ondoren: *lekue* (lekua), *mundue* (mundua), *ninddunen* (nindunan), *gauze* (gauza), *hartute* (hartuta), *zerue* (zerua), *dirue* (dirua), *eun betzutan* (egun batzuetan), *daukune* (daukaguna)...

### 3. Bokal aldaketak: $u > o$ , $i > e$ , $o-e > e-e$

**$u > o$**  irekiera, bokal aldaketa: bokalaren irekieraren ondorioz gertatzen da  $u > o$  bihurtzea. Leitzako eta inguruko herrietako adizkien ezaugarririk nabarmenetakoa. Honatx adibideak: *dok* (duk), *ditton* (ditun), *gattok* (gaituk), *gore* (gure), *bano* (banu), *baiho* (bahu), *motille* (mutila), *emakomek* (emakumeak), *somatu* (sumatu)...

**$i > e$**  irekiera edo bilakaera. Ez da sistematikoa, biak entzuten dira: *nek* (nik); *beajea* (biajea), *ekusi* (ikusita), *epurdie* (ipurdia), *itxen* (etxean)...

**$o-e > e-e$**  bokal berdintzea: omen partikularen kasuan *emen* esaten da: *asko emen ditton* (asko omen ditun).

### 4. *i* bokalaren ondorengo sabaikaritzea

Bustidura ere deitua izan den ezaugarri hori *i* bokalaren ondoren honako kontsonante hauetakoren bat datorrenean: *l*, *n*, *t* eta *d*.

/l/ albokoarekin: *Ibilli* (ibili), *mutille* (mutila), *illoak* (ilobak)...

/n/ herskari sudurkariarekin: *iñori* (inori), *diñu* (dinagu), *iñen* (eginen), *niñenen* (ninan), *giñenen* (geninan), *ninddunen* (nindunan)...

/t/ herskari gorrarekin: *yeki tte* (jaiki eta), *etorri tte* (etorri eta), *politte* (polita), *ekusitte* (ikusita), *itten* (egiten), *dittok* (dituk), *zitteken* (daiteken), *natteken* (naiteken), *yarritte* (jarrita), *littezen* (litezken), *ibillitte* (ibilita), *nahittenahiezkoa* (nahitanahiezkoa)...

/d/ herskari ozenarekin: *in dde* (egin eta), *ainddu* (agindu), *minddu* (mindu), *bilddu* (bildu), *añe* (adina), *yoateitton* (joaten ditun)...

5. /j/ fonemaren ahoskera

Gure hizkeran bi modutan ahoskatzen da /j/ fonema: gipuzkeraren arabera [x] (jan [xan]) ebakitzen da, igurzkari belar ahoskabea edo nafarre-razko ahoskeran (jan [yan]), sabaiko igurzkari ahostuna bihurtuta. Leitzan, Gipuzkoako mugatik gertu delarik ere, ahoskerarik ohikoena [y] egitearena da: joan [yoan], jasa [yasa]. Gipuzkeraren erara, [x] ahoskatuz, oso hitz gutxi dira gurean.

[y] ahoskera: *yakiñe* (jakina), *yaso* (jaso), *yo ta sue* (jo eta sua); *yoateik* (joaterik), *yaiio* (jaiio), *yostetan* (jostetan), *yekiko* (jaikiko), *yendea* (jendea)...

[x] ahoskera: *jaune* (jauna), *majin bat* (makina bat), *jainkoa* (jainkoa)...

6. /n/ herskari sudurkariaren eta /r/ dardarkari bigunaren ondoren, /s/ txistukari frikari apikari-hobikaria /ts/ afrikatua bihurtzea, eta /s./ txistukari frikari bizkarkari-hobikaria /ts./ txistukari frikaria bihurtzea

Bilakaera hori oso arrunta da gurean:

/n/ herskari sudurkariaren ondoren: *itten tziñziok* (egiten zaiok), *eman tzeidenen* (eman zidanen), *itten tziñenen* (egiten zinan), *uzten tzeidenea* (uzten zidaten), *eaten tzetik* (edaten ditik)...

/r/ dardarkari bigunaren ondoren: *behar tzetik* (behar ditik)...

Berdintsu gertatzen da ez ezezko adberbioaren ondoren /s./ txistukari frikaria datorrenean: *etzitzien* (ez zitzaidaan), *etzuna* (ez zuena), *etzekit* (ez zekiat), *etxeon ongi* (ez zegoen ongi), *etzekik* (ez zekik)...

7. Ahoskabetzea: /b/, /d/, /g/ kontsonante ahostunak /p/, /t/, /k/ ahoskabe bihurtzea

/b/: *baietz pa* (baietz ba), *ex pado* (ez badu), *yakiñe zeok pa* (jakina zegok ba), *etzekiñet pa* (ez zekinat ba)...

/d/: *Ez tin* (ez din), *ez tiñet* (ez dinat), *ez ton* (ez dun), *galazie zeon da* (galarazia zagon eta), *ez tiu* (ez diagu)...

/g/: *hemengoak katton* (hemengoak gaitun), *nahi izan ezkeo* (nahi izanez gero), *ez kiñezkenen ibilli* (ez gintezkenan ibili)...

#### 8. Aditz nagusiaren eta laguntzailearen arteko elkarketa

Maiztasun handikoa da loturik emateko joera hori eta elkarketa horrek aldaketak sortzen ditu bokaletan eta kontsonanteetan, galerak eta aldaerak. Honatx adibide batzuk: *nahi baldin baan* (nahi baldin badun), *gastatzen baak* (gastatzen baduk), *behain* (behar din), *helduk* (heldu duk), *bizik* (bizi duk), *behak* (behar duk), *yoan behanenen* (joan behar dunanean), *hondatu ittek* (hondatu egiten duk), *ze usten ba?* (zer uste dun ba?)...

#### 9. Baihaoke, baihoake eta baihabilke bezalako adizkiak

Leitzan, hiketan ari garenean, baldintza esaldietan *ba-* hutsik beharrean *bai-* erabiltzen da (*ba- + hi > bai- + hi*): *baihabilke* (bahabilke), *baiheuke* (baheuke), *baihaoke* (bahagoke), *baihaiç* (bahaiz), *baiho* (bahu), *baihoake* (bahoake), *baiheki* (baheki)...

## 8. Ahalera sintetikoaren taulak

### 8.1 EGON aditza

EGON	Ahalera sintetikoa, orainaldia					
	ERREGISTRO NEUTROA		NOKA (alokutiboa)		TOKA (alokutiboa)	
	Leitza	batua	Leitza	batua	Leitza	batua
NI	naoke	nagoke	neoken	nagoken	neokek	nagokek
HI	haoke	hagoke	haoke	hagoke	haoke	hagoke
HURA	daoke	dagoke	zeoken	zagoken zegoken	zeokek	zagokek zegokek
GU	gautezke	gaudeke	gautezken geutezken	gaudeken	gautezkek geutezkek	gaudekek
HAIEK	dautezke	daudeke	zeutezken	zaudeken zeudeken	zeutezkek	zaudekek zeudekek
ZU	zautezke	zaudeke				
ZUEK	zautezkea	zaudekete				

EGON	Ahalera sintetikoa, iraganaldia					
	Erregistro neutroa		NOKA (alokutiboa)		TOKA (alokutiboa)	
	Leitza	batua	Leitza	batua	Leitza	batua
NI	neoken	nengokeen	neokenen	nengokenan	neoken	nengokean
HI	heoken	hengokeen	heoken	hengokeen	heoken	hengokeen
HURA	zeoken	zegokeen	zeokenen	zegokenan	zeoken	zegokean
GU	geuntezken	geundekeen	geuntezkenen	geundekenan	geuntezken	geundekean
HAIEK	zeutezken	zeudekeen	zeutezkenen	zeudekenan	zeutezken	zeudekean
ZU	zeuntezken	zeundekeen				
ZUEK	zeuntezkean	zeundeketen				

EGON	Ahalera sintetikoa, alegiazkoa					
	Erregistro neutroa		NOKA (alokutiboa)		TOKA (alokutiboa)	
	Leitza	batua	Leitza	batua	Leitza	batua
NI	neoke	nengoke	neoken	nengoken	neokek	nengokek
HI		hengoke	heoke (hengoke)	hengoke	heoke (hengoke)	hengoke
HURA	leoke	legoke	leoken	legoken	leokek	legokek
GU	geuntezke	geundeke	geuntezken	geundeken	geuntezkek	geundekek
HAIEK	leutezke	leudeke	leutezken	leudeken	leutezkek	leudekek
ZU	zeuntezke	zeundeke				
ZUEK	zeuntezkea	zeundekete				

## 8.2 JOAN aditza

JOAN	Ahalera sintetikoa, orainaldia					
	Erregistro neutroa		NOKA (alokutiboa)		TOKA (alokutiboa)	
	Leitza	batua	Leitza	batua	Leitza	batua
NI	noake	noake	niken	noaken	nikek	noakek
HI	hoake	hoake	hoake	hoake	hoake	hoake
HURA	dike	doake	ziken	zoaken	zikek	zoakek
GU	goazke	goazke	gizken	goazken	gizkek	goazkek
HAIEK	dizke	doazke	zizken	zoazken	zizkek	zoazkek
ZU	zoazke	zoazke				
ZUEK	zoaz(te)kea	zoazkete				

JOAN	Ahalera sintetikoa, iraganaldia					
	Erregistro neutroa		NOKA (alokutiboa)		TOKA (alokutiboa)	
	Leitza	batua	Leitza	batua	Leitza	batua
NI	niken	nindoakeen	nikenen	nindoakenan	niken	nindoakean
HI	hiken	hindoaken	hiken	hindoaken	hiken	hindoaken
HURA	ziken	zihoakeen	zikenen	zihoakenan	ziken	zihoakean
GU	giñezken	gindoazkeen	giñezkenen	gindoazkenan	giñezken	gindoazkean
HAI EK	zizken	zihoazkeen	zizkenen	zihoazkenan	zizken	zihoazkean
ZU	ziñezken	zindoazkeen				
ZUEK	ziñezkean	zindoazketen				

JOAN	Ahalera sintetikoa, alegiazkoa					
	Erregistro neutroa		NOKA (alokutiboa)		TOKA (alokutiboa)	
	Leitza	batua	Leitza	batua	Leitza	batua
NI	nike	nindoake	niken	nindoaken	nikek	nindoakek
HI	hike	hindoake	hike	hindoake	hike	hindoake
HURA	like	lihoake	liken	lihoaken	likek	lihoakek
GU	giñezke	gindoazke	giñezken	gindoazken	giñezkek	gindoazkek
HAI EK	lizke	lihoazke	lizken	lihoazken	lizkek	lihoazkek
ZU	ziñezke	zindoazke				
ZUEK	ziñezkea	zindoazkete				

8.3 **IBILI** aditza

IBILI	Ahalera sintetikoa, orainaldia					
	Erregistro neutroa		NOKA (alokutiboa)		TOKA (alokutiboa)	
	Leitza	batua	Leitza	batua	Leitza	batua
NI	nabilke	nabilke	nebilken	nabilken	nebilkek	nabilkek
HI		habilke	habilke	habilke	habilke	habilke
HURA	dabilke	dabilke	zebilken	zabilken zebilken	zebilkek	zabilkek zebilkek
GU	gabiltzeteke	gabilzke	gabiltzeteke (gebiltzeteke)	gabilzken	gabiltzetekek (gebiltzetekek)	gabilzkek
HAIEK	dabiltzeteke	dabilzke	zebiltzeteke	zabilzken zebilzken	zebiltzetekek	zabilzkek zebilzkek
ZU	zabiltzeteke	zabilzke				
ZUEK	zabiltzetekea	zabilzkete				

IBILI	Ahalera sintetikoa, iraganaldia					
	Erregistro neutroa		NOKA (alokutiboa)		TOKA (alokutiboa)	
	Leitza	Batua	Leitza	batua	Leitza	batua
NI	nebilken	nenbilkeen	nebilkenen	nenbilkenan	nebilken	nenbilkean
HI	hebilken	henbilkeen	hebilken	henbilkeen	hebilken	henbilkeen
HURA	zebilken	zebilkeen	zebilkenen	zebilkenan	zebilken	zebilkean
GU	giñebiltzeteke	genbilzkeen	giñebiltzetekeken	genbilzkenan	giñebiltzeteke	genbilzkean
HAIEK	zebiltzeteke	zebilzkeen	zebiltzetekeken	zebilzkenan	zebiltzeteke	zebilzkean
ZU	ziñebiltzeteke	zenbilzkeen				
ZUEK	ziñebiltzetekean	zenbilzketen				

IBILI	Ahalera sintetikoa, alegiazkoa					
	Erregistro neutroa		NOKA (alokutiboa)		TOKA (alokutiboa)	
	Leitza	batua	Leitza	batua	Leitza	batua
NI	nebilke	nenbilke	nebilken	nenbilken	nebilkek	nenbilkek
HI		henbilke	hebilke	henbilke	hebilke	henbilke
HURA	lebilke	lebilke	lebilken	lebilken	lebilkek	lebilkek
GU	giñebiltzeteke	genbilzke	giñebiltzeteken	genbilzken	giñebiltzetekek	genbilzkek
HAI EK	lebiltzeteke	lebilzke	lebiltzeteken	lebilzken	lebiltzetekek	lebilzkek
ZU	ziñebiltzeteke	zenbilzke				
ZUEK	ziñebiltzetekea	zenbilzket				

## Bibliografia

ALBERDI, Xabier (1993). «Hika tratamenduaren balore sozio-afektiboak», *Fontes Linguae Vasconum* 64: 425-442. <https://doi.org/10.35462/flv64.5>

ALBERDI, Xabier (1994). «Hitanoa non eta nork erabiltzen duen», *Euskera* 39 (3): 983-993. <https://www.euskaltzaindia.eus/dok/euskera/49990.pdf>

ALBERDI, Xabier (1996a). *Eskola gramatika: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza*. Elkar S.L.

ALBERDI, Xabier (1996b). *Euskararen tratamenduak: erabilera*. Iker 9. Euskaltzaindia.

ALBERDI, Xabier (2026). «Hitanoa», *Sareko Euskal Gramatika (SEG)*. [www.ehu.eus/seg](http://www.ehu.eus/seg)

ERDOZIA, Jose Luis (2016). «Etxarrierako hitano-alokutiboak», *Fontes Linguae Vasconum* 122: 303-364. <https://doi.org/10.35462/flv122.2>

EUSKALTZAINDIA. (1979). *Euskal aditz batua*. Euskaltzaindia.

EUSKALTZAINDIA. (2021). *Euskararen Gramatika*. Euskaltzaindia.

GAMINDE, Iñaki (1985). «NOR-en ahalezko oraina eta JOAN, IBILI eta EGON aditzen alokutiboak (Nafarroan)», *Fontes Linguae Vasconum* 46: 215-264. <https://doi.org/10.35462/flv46.2>

KINTANA, Xabier (2005). «Larrazaga poeta zahar gaztearen berri onak», *Euskera* 50 (1): 129-159.

LAFITTE, Piarres (1962). *Grammaire basque (navarro-labourdin littéraire)* (2. arg.). Amis du Musée Basque et Ika.

LIZARRAGA, Bittorio (2006). «Leitzako hizkera adierazkorra: biraoak», *Fontes Linguae Vasconum* 103: 487-552. <https://doi.org/10.35462/flv103.5>

LIZARTZA, Ritxi (2009). *Hitanoa mintza hadi, lagun!* Maluta.

MITXELENA, Koldo (1983). «Euskalkien ageriko aurpegia», *Euskera* 28 (1): 245-252. <https://www.euskaltzaindia.eus/dok/euskera/50886.pdf>

OIARTZUN, Fernando (2022). *Hika eta toka. Noka ere Toka!* Altzadi Leitzako Kultur Elkartea.

OLANO, Mikel (1998). *Areso eta Leitzako hizkerak*. Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusia.

ORMAETXEA, Nikolas, «Orixe» (1987). *Quiton arrebarekin*. Ibaizabal. <https://klasikoak.armiarma.eus/pdf/OrixeKiton.pdf>

RIJK, Rudolf de (2007). *Standard Basque: A Progressive Grammar*. The MIT Press.

YRIZAR, Pedro de (1992). *Morfología del verbo auxiliar alto navarro septentrional; (estudio dialectológico)*. Nafarroako Gobernua eta Euskaltzaindia.

ZELAIETA, Edu (2008). *Baztan-Bidasoako hizkeren azterketa dialektologikoa*. Nafarroako Gobernua eta Euskaltzaindia.

## Eranskinak

### 1. eranskina

EGON aditzaren ahalera sintetikoa erabiliz ahoz jasotako adibideak

a) Ahalera sintetikoa, orainaldia.

#### Testuingurua:

Emakume batek beste bati adierazten dio badakiela etxean erazoko (zainduko) dutela.

#### Adibidea:

*Ni bizi natteken trankil, bazekiñet eta etxeok erazoko naudeala bizi naizen arten. Da nik ez tiñet gehio behar. Hil ezkeo, ez tin beharrik izaten. Da **baneoken** trankil eta gozo, neonen etxen.*

Ni bizi naiteken trankil, bazekinat-eta etxeok zainduko nautela bizi naizen artean. Eta nik ez dinat gehiago behar. Hilez gero, ez din beharrik izaten. Eta **banagoken** trankil eta gozo, neronen etxean.

#### Testuingurua:

Gizon zahar batek lagun bati esaten dio gaur egun ezin duela lanik egin baserrian.

#### Adibidea:

*Ni re **baneokek** trankil, yaio nitzen baserrin bizi bainaiz. Baño batzutan enak eotten. Ezin duelako laundu kixkaltzen eotten nak. Kasik ibilli re ez bainaiz itten, da ezin laundu lanetan. Baño tira, dena dela, betire, etxeokak denak osasunekoak eta irabazin. Eta horik holaxe ittok.*

Ni ere **banengokek** trankil, jaio nintzen baserrian bizi bainaiz. Baina batzuetan ez nauk egoten. Ezin dudalako lagundu kiskaltzen egoten nauk. Kasik ibili ere ez bainaiz egiten, eta ezin lagundu lanetan. Baina tira, dena dela, betiere, etxeokak denak osasunekoak eta irabazian. Eta horiek horrelaxe dituk.

**Testuingurua:**

Etxekoandre batek auzoko neskatxa bati esaten dio egoteko lasai suaren ondoan, hotza baitago kanpoan.

**Adibidea:**

*Bero-beroan hemen eon hobe don kanpoan hotzak baño. Ta yoane haiz yoan behanenen. Da uain **baihaoke** trankil, suen ondoan nahi añe denboan. Denantzat bazeon hemen lekue.*

Bero-beroan hemen egon hobe dun kanpoan hotzak baino. Eta joanen haiz joan behar dunanean. Eta orain **bahagoke** trankil, suaren ondoan nahi adina denboran, denentzat bazegon hemen lekua.

**Testuingurua:**

Lagun batek beste bati esaten dio semea lanean hasi bazaio, pozik egoteko moduko berria dela hori.

**Adibidea:**

*Bai, yakiñe, **baihaoke** trankiltxeo: zergatiken semea lanen hasi baldin bazak, hark irabazi inen dik. Eta irabazten baldin bado, hiri ez tik diruik eskatuko. Bee dirukin pasatukok, seuro aski. Trankil eotteko modue dok hori. Beti kezkaz ez. Semek ze inen ote due?*

Bai, jakina, **bahagoke** trankilxeago: zeren eta semea lanean hasi baldin bazaik, hark irabazi eginen dik. Eta irabazten baldin badu, hiri ez dik dirurik eskatuko. Bere diruarekin pasatuko duk, seguro aski. Trankil egoteko modua duk hori. Beti kezkaz ez. Semeek zer eginen ote dute?

**Testuingurua:**

Ahizpa batek beste bati esaten dio alabari telebistari begira egoten uzteko.

**Adibidea:**

*Gue neskatoak eskolako lanak inek badauzke, **bazeoken** lasai. Utzi zaion. Eskolako lanak in baditto, telebistai beire dagoala, nahi bedo. Ze inporta do ba?*

Gure neskatoak eskolako lanak eginak badauzka, **bazegoken** lasai. Utz iezaion. Eskolako lanak egin baditu, telebistari begira dagoela, nahi badu. Zer inporta du ba?

**Testuingurua:**

Fabrika egitea onuragarria izan zen Leitza herriarentzat.

**Adibidea:**

–Herrin fabrike in tzenen, uain yendea kontentu **bazeoket**: zergatiken hortatxetiken bizik (bizi dok) herrie, eta ingurumari hau dena, gaña. Goizuta aldetik eta, Donoztabe aldetik eta, autobuse ta autobuse ta autobuse, horrea lanea.

–Herrie fabrikek zenbat biztu dun inork etzekik.

–Herrian fabrika egin zenean, orain jendea kontent **bazegoket**: zeren eta horrexetatik bizi duk herria, eta ingurumari hau dena, gainera. Goizueta aldetik eta, Doneztebe aldetik eta, autobusa eta autobusa eta autobusa, horra lanera.

–Herria fabrikak zenbat piztu duen inork ez zekik.

**Testuingurua:**

Belar-girorik ez dela eta bi neska baserritar elkarrekin hizketan.

**Adibidea:**

Belarrea joan behar giñenen baño denboa etzeon seuroa. Goizen belar-giro pixkoat baihuen, da gu ez katton joan. Da uain atsalden kambioa din. Da uain ez katton fiatzen belarra zabaltzea. Ta uain **bagautezken**; inorako presarik ez tiñu.

Belarrera joan behar ginenan, baina denbora (eguraldia) ez zagon segurua. Goizean belar-giro pixka bat bazunan, eta gu ez gaitun joan. Eta orain arratsaldean aldaketa din. Eta orain ez gaitun fidatzen belarra zabaltzera. Eta orain **bagautezken**: inorako presarik ez dinagu.

**Testuingurua:**

Gizon batek lagun bati esaten dio hemen beste leku askotan baino hobeki bizi garela.

**Adibidea:**

–Beste lekutan baño askoz hobekio geudek hemen. Da **bagautezkek** kontentu; zergatik, aitzen dienak aitu, zenbait lekutatiken, ze kastigu dagoan ekusitte. Ekusten diu beste lekutan zahar asko, pobre asko eta mixeri asko.

–Eta hemen, berriz, uaindik e, bizitteako modun geudek biñipin. Da besteik etzeok hemen eskatzeik. Jainkoak osasune emagule urte askoan.

–Bueno, hemendik aurrea urte asko ez tittok izanen. Baño, dena dela, eskatu betire.

–Beste lekuetan baino askoz hobeki gaudek hemen. Eta **bagautezkek** kontent; zeren eta aditzen direnak adituta, zenbait lekutatik, zer kastigu dagoen ikusita. Ikusten diagu beste lekutan zahar asko, pobre asko eta miseria asko.

–Eta hemen, berriz, oraindik ere, bizitzeko moduan gaudek behinik behin. Eta besterik ez zagok hemen eskatzerik. Hark osasuna eman diezagula urte askoan.

–Bueno, hemendik aurrera urte asko ez dituk izanen. Baina, dena dela, eskatu betiere.

**Testuingurua:**

Bi neska haien lehengusuen familiaz hizketan, ongi doakiela eta pozik egotekoa dela hori.

**Adibidea:**

–Bai, gue lehengusu horin famillin etzeuden kejtazeko modun. Denak illoak eta denak lanen ai ditton, denak irabazin. Da denak e trankil bizi zittezken. Lana izan ezkeo, dirue bazeon. Da dirue izan ezkeo, bizi zitteken.

–Bai, bai, **bazeutezken** kontentu te trankil gue lehengusu horik.

–Bai, gure lehengusu horien familian ez zeuden kexatzeko moduan. Denak ilobak eta denak lanean ari ditun, denak irabazian. Eta denak ere trankil bizi daitezken. Lana izanez gero, dirua bazegon. Eta dirua izanez gero, bizi daiteken.

–Bai, bai, **bazeutezken** kontent eta trankil gure lehengusu horiek.

**Testuingurua:**

Bi anaia hizketan haien beste anaiek alorreko lanetarako girorik ez dutela.

**Adibidea:**

–Gaur **bazeutezkek** etxean gore anaiek alorrea gabe. Ta gaña, eotten baldin badie, askoz e hobe, lohiakin erabiltzen den lurra hondatu ittek.

–Hondatute uztek lohiakin itten den gauze, ta han dagoanaï re kalte itten tzitziok, artoai edo dagoanaï, lohiakin ibillite.

–Gaur **bazeutezkek** etxean gure anaia alorrera gabe. Eta gainera, egoten baldin badira, askoz ere hobe, lohiarekin erabiltzen den lurra hondatu egiten duk.

–Hondatuta uzten duk lohiarekin egiten den gauza, Eta han dagoenari ere kalte egiten zaiok, artoari edo dagoenari, lohiarekin ibilita.

## b) Ahalera sintetikoa, iraganaldia.

**Testuingurua:**

Emakume batek lagun bati kontatzen dio aitak nola jo zuen umetan bihurrikeria egiteagatik. Ondoko baserrira (Joantxenea) joan nahi zuen lagunengana eta aitak ez zion utzi.

**Adibidea:**

Behin nik Yoantxenea joan nahi yostetan ibiltzea laumekin. De attek ezetz. Zerbatte in beharra baginenen. Siesta pixkoat indde, yekiko zela ta in behar giñun hure iñen giñula. Bueno. Ta salan etzanda yarritte lurren, da kantari ni. Ta atte ondo-ondoan, koartooan. Halako baten, yeki tte etorri tte hure palize! Ni re ixil-ixillik **baneokenen**. Baño ez ninddunen eondu. Te hartu nienen palize earra. Nik e nee pikardie: attei siesta galaztea, nei utzi etzielako launeta yoaten, yostetan ibiltzea. Ta, halako baten, yekin, dde hartu besondotik eta eman tzeidenen epurdiko mamitan krixton palize.

Behin nik Joantxenera joan nahi jostetan ibiltzera lagunekin. Eta aitak ezetz. Zerbat egin beharra baginenan. Siesta pixka bat eginda, jaikiko zela eta egin behar genuen hura eginen genuela. Bueno. Eta salan etzanda jarrita lurrean eta kantari ni. Eta aita ondo-ondoan, gelan. Halako batean, jaiki eta etorri eta hura paliza! Ni ere isil-isillik **banengokenan**. Baina ez nindunan egon. Eta hartu ninan paliza ederra. Nik ere neure pikardia: aitari siesta galaraztea, niri utzi ez zidalako lagunetara joaten, jostetan ibiltzera. Eta, halako batean, jaiki dun, eta hartu besondotik eta eman zidanen ipurdiko mamietan kristoren paliza.

**Testuingurua:**

Arrebak anaiari kargua hartzen dio lehengo egun batean euria ari zuenean ateratzeagatik.

**Adibidea:**

*Lehengoan eurie botatzen tzien, zaparradaka. Ta, noa atea hitzen hi? Dena ure ittea. Earki itxen lehor-lehorren eon besteik ez eta. Gizakik ze ibiltzen tzatea? Guekin baten baiheoken hantxe. Beño ez.*

Lehengoan euria botatzen zian, zaparradaka. Eta, nora atera hintzen hi? Dena ura egitera. Ederki etxean lehor-lehorrean egon besterik ez eta. Gizakiak zer ibiltzen zarete? Gurekin batean bahengokeen hantxe. Baina ez.

**Testuingurua:**

Emakume batek gazteago bati azaltzen dio garai batean euriak askotan izorratzen ziela belar-lana.

**Adibidea:**

*Ordun nekazarie, belarreako egualdi ona itten bazun, bazeokenen pozik. Baño seittun eurie ekartzen tziñenen, da hark izurratzen geundenen denak. Askotan eurie itten tziñenen giroa kentzeko aña bakarra: «Rra», etorri. Tte, «rra», eurie yasa. Ta fuera. Belarra bustie. Ta belar bustie ezin eaman ganbara.*

Orduan nekazaria, belarrerako eguraldi ona egiten bazuen, bazegokenan pozik. Baina segituan euria ekartzen zinan, eta hark izorratzen gintunan denak. Askotan euria egiten zinan giroa kentzeko adina bakarra: Rra, etorri, eta rra, euria jasa. Eta fuera. Belarra bustia. Eta belar bustia ezin eraman ganbarara.

**Testuingurua:**

Neska batek azaltzen dio beste bati auzolanera joan zirela ondoko baserrira, eta lana bukatu zutenean geldi zitezkeela tarte batez, baina aitak ez ziela utzi.

**Adibidea:**

*Gu re eon giñezkenen han, bestekin baten, lanak bukatu giñuzenen. Beño, attek ez baitziun uzten. «Guazen da guazen.» Da hala eottezkeo, ez tin bate balio eottek. Eta eun hartan bageuntezkenen han gehixeo, baño ez!*

Gu ere egon gintezenan han, besteekin batean, lanak bukatu genituenean. Baina, aitak ez baitzigun uzten. «Goazen eta goazen». Eta hala egotez gero, ez din batere balio egoteak. Eta egun hartan bageundekenan han gehixego, baina ez!

**Testuingurua:**

Emakume batek azaltzen dio gazteago bati ezkontza adostu asko izaten zela eta senarra nolakoa izanen zen ez zutela jakiten.

**Adibidea:**

*Motille alde-aldekoa tokatu ezkeo, andrea ongi bizitze huen. Baño pardel samarra tokatzen bazen, harekin lan in behar izaten ztzienu. Da ordun izate hittuen komerik. Eta denetakoak tokatze hittuen. Batzuk txintxoak eta onak, bestek gortxeagoak eta alpertxeagoak. Denetatik izate hittuen ordun e. Batzuk politxeagoak, bestek zakarxeagoak, denetakoak. Hala, emakomek **bazeutezkenen** eskertuk eta alai senarra alde-aldekoa tokatzen bazitzioan.*

Mutila alde-aldekoa tokatuz gero, andrea ongi bizitzen zuan. Baina pardel samarra tokatzen bazen, harekin lan egin behar izaten zianan. Eta orduan izaten zitunan komediak. Eta denetakoak tokatzen zitunan. Batzuk txintxoak eta onak, besteak gogorxeagoak eta alferxeagoak, denetatik izaten zitunan orduan ere. Batzuk politxeagoak, besteak zakarxeagoak, denetakoak. Hala, emakumeak **bazeudekenan** eskertuak eta alai senarra alde-aldekoa tokatzen bazitzaian.

**Testuingurua:**

Etkez edo baserriz askotan aldatzen zen jendea garai batean, gehienak maizterrak izaten baitziren. Eta urtero berritu behar zen jabearekin jarraipena, baina askotan segimendurako ziurtasunik gabe.

**Adibidea:**

*Maixterra errenta patzea nausingana yoan, da ez paldin bazioan deus esaten, pozik bueltatze huen etxea. Ta ordun beste urte beteako seuro huen biñipin, da bittarte hortan **bazeoken** trankil. Baño batzutan hara yoan, da uzteko esan nausik. Eta ordun bilatu in behar beste etxe bat.*

Maizterra errenta pagatzera nagusia-rengana joan, eta ez baldin bazioten deus esaten, pozik bueltatzen zuan etxera. Eta orduan beste urtebeterako seguru zuan behinik behin, eta bitarte horretan **bazegokeen** trankil. Baina batzuetan hara joan, eta uzteko esan nagusiak. Eta orduan bilatu egin behar beste etxe bat.

**Testuingurua:**

Nekazaritzako lanak aroetan egin behar direlako esaera bada, baina eguraldiak lagundu behar dio baserritarrari horretan. Hori azaldu dio baserritar batek herriko lagun bati.

**Adibidea:**

*Aroatan in behar tziela gauzek nekazaritzan, baño egualdik e laundu in behar. Da launtzen tziotanen trankil **bazeutezken** baserritarrak, alorreko lanak itteko modue izaten huen ordun: lurre prestatu, te banabarra ta patata erin da. Baño giroa hinkili-hankala hasten bazen, akabo. Aroatan ittea nahittenahiezkoa baitzen, nahiz alorretako lanak, nahiz belatsoatakoak.*

Aroetan egin behar zirela gauzak nekazaritzan, baina eguraldiak ere lagundu egin behar. Eta laguntzen zienean trankil **bazeudekeen** baserritarrak, alorreko lanak egiteko modua izaten zuan orduan: lurra prestatu eta banabarra eta patata erein eta. Baina giroa hinkili-hankala hasten bazen, akabo. Aroetan egitea nahi eta nahiezkoa baitzen, nahiz alorretako lanak, nahiz belardi-soroetakoak.

**Testuingurua:**

Migelek soldadu egon zeneko kontutxo bat azaltzen dio lagun bati.

**Adibidea:**

*Ni soldadu negoala, ordenantza patu neuden, da brigadak eta haik esana bukatzen nunen, ordun **baneoken** lasai arren inorako kezkaik gabe, ta beste deuse in gabe. Mandatutan-da ibili in behar dezente, baño gañekoan espezial eondu nindduen ni Iruñen soldadu, guardik eta in gabe.*

Ni soldadu nengoela, ordenantza paratu ninditean, eta brigadak eta haiek esana bukatzen nuenean, orduan **banengokean** lasai ederrean inorako kezkarik gabe, eta beste deus ere egin gabe. Mandatuetan-eta ibili egin behar dezente, baina gainerakoan espezial egon ninduan ni Iruñean soldadu, guardiarik eta egin gabe.

**Testuingurua:**

Giro onik izan gabe alorrean lanean aritu zireneko kontua esaten dio Ferminek Tomasi.

**Adibidea:**

*Gu re eun hartan bageuntezken geldigeldik, lasai arren, alorrea yoan gabe; zergatiken kalte in behar gineioan lurrei. Baño iraultzea yoan giñuzen, da urek ondoren dena izurratue utzi zien lurre. Ekaitzek yo zien da.*

Gu ere egun hartan **bageundekean** geldi-geldirik, lasai ederrean, alorrera joan gabe; zeren eta kalte egin behar genioan lurrari. Baina iraultzera joan gintuan, eta urak ondoren dena izorratua utzi zian lurra. Ekaitzak jo zian eta.

**Testuingurua:**

Leitza herriak fabrika izatea eskertzekoa delako kontua aipatzen dio Migelek Fernandori.

**Adibidea:**

*Leitzekoak e bai, tte ingurukoak e bai majin bat, bazeutezkek kontentu Leitzen fabrike in zelako. Bittarten pobre asko baitzen hemen.*

Leitzakoak ere bai, eta ingurukoak ere bai makina bat, **bazeudekek** kontent Leitza fabrika egin zelako. Bitartean pobre asko baitzen hemen.

## c) Ahalera sintetikoa, alegiazkoa.

**Testuingurua:**

Neska batek beste bati azaltzen dio pandemia izan baino lehen lanera egunero joan behar izaten zuela Iruñera, eta gero berriz etxetik aritu zela. Eta orain ere batzuetan etxetik aritzen dela.

**Adibidea:**

*Aizan, neska. Pandemia izan baño lehen, ni Iruñera yoanez aitzen ninddunen lanen. Da ondoren etxetik aittu nan. Da uain e eun betzutan uzten tzeidenea etxetik, hara gabe. Baño beste batzuri berriz erabat uzten tzeionea. Ta nik e nahigo niken erabat ari etxetik. Baño etxetik aitzeko hori kendu dioanak e asko emen ditton, da ixillik **baneoken** ni re, horrenik e galdu gabe. Baño etzekiñet pa, ze esan. Da hortako kejatu in beharko inñet. Gañekoan ez tiñet kontseittuko.*

Aizan, neska. Pandemia izan baino lehen, ni Iruñera joanez aritzen ninddunan lanean. Eta ondoren etxetik aritu naun. Eta orain ere egun batzuetan uzten zidaten etxetik, hara gabe. Baina beste batzuei berriz erabat uzten zioten. Eta nik ere nahiago niken erabat ari etxetik. Baina etxetik aritzeko hori kendu dietenak ere asko omen ditun, eta isillik **banengoken** ni ere, horrenik ere galdu gabe. Baina ez zekinat ba, zer esan. Eta horretarako kexatu egin beharko dinat. Gainerakoan ez dinat kontsegituko.

**Testuingurua:**

Gizaseme batek beste bati azaltzen dio ez dakiela etxean zainduko ote duten, zahartu delako.

**Adibidea:**

*Etxen erazoko naueala yakin ezkeo, **baneokek** trankil. Earki bizi nak ni etxen erazoa. Baño batzutan somatzen baitittot kejaka etxeoak, ni naizela medio; launtzeko ta ibiltzeko uain ez bainaiz gauze. Ta zaharra etxetik atea ezkeo, kastigu latza baita.*

Etxean zainduko nautela jakinez gero, **banengokek** trankil. Ederki bizi nauk ni etxean zaindua. Baina batzuetan sumatzen baititut kexaka etxeoak, ni naizela medio; laguntzeko eta ibiltzeko orain ez bainaiz gauza. Eta zaharra etxetik ateraz gero, zigor latza baita.

**Testuingurua:**

Ahizpa batek beste bati adierazten dio ama zahar-etxean izatearekin kezkatua dagoela.

**Adibidea:**

–Aizan, aizan. *Gue ama re eon litteken ba etxen. Hark laundu zeigun ba guri hazitzen.*

–Etzeon hoi ongi iñe amai ez launtzea. Gaizki iñe zeon. Etxen **baleoken** gue ama gaixoa. Ta kanpoan zeon.

–Igualeko trankilleo eone huke itxen. Da gustorago. Hi ez al hitzeke hala eonen?

–Aizan, aizan. Gure ama ere egon liteken ba etxean. Hark lagundu zigun ba guri hazten.

–Ez zegon hori ongi egina amari ez laguntzea. Gaizki egina zegon. Etxean **balegoken** gure ama gaixoa. Eta kanpoan zegon.

–Igualeko trankilago egonen luken etxean. Eta gusturago. Hi ez al hitzateke hala egonen?

**Testuingurua:**

Gizonezko batek maisu bati esaten dio urrutira bidaltzen dituztela herriko maisuak lanera.

**Adibidea:**

*Hi maisue haiz. Eta Leitzen maisu eon beharko hukeena, «akasakristoa» bialdu habea. Ta zakurren epurditik ekarri zetie Leitzea. Zeatik itten due hori? Aldrebeskeri haundie dok hori! Bakoitze bere herrin ongi bizi littekek. Eta hi re **baihengoke** here herrin maisu.*

Hi irakaslea haiz. Eta Leitzan irakasle egon beharko hukeena, urrutira bidali haute. Eta txakurraren ipurditik ekarri ditiztek Leitзара. Zergatik egiten dute hori? Aldrebeskeria handia duk hori! Bakoitza bere herrian ongi bizi litekek. Eta hi ere **bahengoke** heure herrian maisu.

**Testuingurua:**

Langile batek beste bati esaten dio greba konturik ez esateko, isilik egoteko, eta egitekotan, hark egiteko.

**Adibidea:**

–Aizak, **baiheoke** ixil-ixillik. Eta hik ez huke mintzatu beharrik, hi mintzaten ai haizen modun. Hi igual ez hitzeke hola ibilliko, baño zirikatzaillek ba baitittok. *Eta huelga in nahi beek, in tzak heorrek.*

–Aizak, **bahengoke** isil-isilik. Eta hik ez huke mintzatu beharrik, hi mintzaten ari haizen moduan. Hi igual ez hitzateke horrela ibiliko, baina zirikatzaileak ba baitittok. *Eta huelga egin nahi baduk, egin ezak herorrek.*

**Testuingurua:**

Joxek esaten dio lagun bati anaiari analisiak ongi atera zaizkiola, nahiz eta zurruteroa izan.

**Adibidea:**

**Baleo**kek kontentu anaie re, kolesterola ongi atea ezkeo medikutan, baño. Gaña horrek beste gauze at e bazeukak: txurrute izan ezkeo, konforme dok hori. Tte bee bururi kalte hortantxe itten tzeiok. Tokatzen etzakionak eaten tzetik eta.

**Balego**kek kontent anaia ere, kolesterola ongi ateraz gero medikutan baina. Gainera horrek beste gauza bat ere bazeukak. Txurruta izanez gero, konforme duk hori. Eta bere buruari kalte horretxetan egiten ziok. Tokatzen ez zaskionak edaten ditik eta.

**Testuingurua:**

Amona batek beste bati esaten dio pentsioa igo dietela eta pozik egon beharko luketela.

**Adibidea:**

–Gu re eon giñezken kontentu. Yornala goatu zeinmue ta.  
 –Ta goatu diuen tokin bajatu baligue, ze izanen tzen hoi?  
 –Hoi motxagoa izane huen. Baño ez baitititu gauzek momentun ongi pentsatzen. Da guk daukune hoi don, gauzek ongi pentsatzen ez dittulako.  
 –Betire, **bageuntezken** kontentu.

–Gu ere egon gintezken kontent. Jornala goratu ziguten eta.  
 –Eta goratu diguten tokian jaitsi baligute, zer izanen zen hori?  
 –Hori motxagoa izanen zuan. Baina ez baititugu gauzak momentuan ongi pentsatzen. Eta guk daukaguna hori dun, gauzak ongi pentsatzen ez ditugulako.  
 –Betiere, **bageundeken** kontent.

**Testuingurua:**

Emakume batek beste bati esaten dio agintariak asko kobratzen dutela, baina hala ere pobreei jornala igo dietela esaten aritzen direla, haiek zenbat kobratzen duten esan beharrean.

**Adibidea:**

–Haak ez tiñea esaten zenbat kobratzen duen beena. Bestena bai. Zenbat goatu duen da, yenderi zenbat patzen dioan da, horik esaten tzetñea.

–Baño berenik ez tiñea esaten. Guk hiruek baño gehio kobratzen diñea. Horren bajun ez gñezken eon behar.

–Horren paga bajoakin. De horik hala diela, **baleutezken** ixil-ixillik agintari horik.

–Denak faltsoak izate itton gaña.

–Haiek ez diten esaten zenbat kobratzen duten berena. Besteena bai. Zenbat goratu duten eta, jendeari zenbat pagatzen dioten eta, horiek esaten ditizten.

–Baina berenik ez diten esaten. Guk hirurok baino gehiago kobratzen diten.

–Horren baxuan ez gintezken egon behar. Horren paga baxuarekin. Eta horiek hala direla, **baleudeken** isil-isilik agintari horiek.

–Denak faltsuak izaten ditun gainera.

**Testuingurua:**

Lagun batek beste bati esaten dio pozik egon daitekeela familiako guziak irabazian direlako.

**Adibidea:**

Famillie dena bizkorra, denak lanen, denak irabazin, dde oso ongi zautea zuuk uain. Oso ongi hao hi uain, da millonak aorratzen ai zatea. Zertako kejatu behak? Hi re **baiheoke** kontentu horik denak hala diela.

Familia dena bizkorra, denak lanean, denak irabazian, eta oso ongi zaudete zuek orain. Oso ongi hago hi orain, eta milioiak aurrezten ari zarete. Zertarako kexatu behar duk? Hi ere **bahengoke** kontent horiek denak hala direla.

**Testuingurua:**

Lantokia Leitzan egin zutelako eskertu beharko lukete guziek Tomasek Fernandori esan dionez.

**Adibidea:**

*Hara, denak e **baleutezkek** ixil-ixillik eta kontentu gaña. Leitzen holako fabrike baten lantokie daukeelako baño, beti izaten baitie, 20etatik bat edo, okerra.*

Hara, denak e **baleudekek** isil-isilik eta kontent gainera. Leitzan horrelako fabrika batean lantokia daukatelako baina, beti izaten baitira, 20tatik bat edo, okerra.

**Testuingurua:**

Fabrikaren aurka jendea asaldatzen aritzen direnak ere isilik eta pozik egon beharko luketela dio Migelek. Eta baserritarrek ere eskertu behar dutela fabrika egin izana, haientzat ere mesedegarria baita.

**Adibidea:**

***Baleutezkek** horik e kontentu, baño ez tittok eotten, da gaña iten tzetie, beste guzik harrotu, te beste guzik izorratu. Ta beak nahi dittuenak in de... beste leku batea ta kitto. Aa, ta baserritarrak e **bageuntezkek** eskertuk fabrikakin, mesede baita. Gero herrin da haragie saltzeko ta.*

**Baleudekek** horiek ere kontent, baina ez dituk egoten, eta gainera egiten ditiztek, beste guziak harrotu, eta beste guziak izorratu. Eta berak nahi dituztenak egin eta igual beste leku batera eta kitto. Aa, eta baserritarrak ere **bageundekek** eskertuak fabrikarekin, mesede baita. Gero herrian eta haragia saltzeko eta.

## 2. eranskina

JOAN aditzaren ahalera sintetikoa erabiliz ahoz jasotako adibideak

a) Ahalera sintetikoa, orainaldia.

**Testuingurua:**

Neska batek beste bati esaten dio erosketak egitera goiz samar joan dela.

**Adibidea:**

–Mandatuta goiz samar etorri nan gaur baserritik. Eta alperrik neon hemen, da **baniken**, denda itxie baitao.

–Denda itxin sartzeik etzeon, lapurre ez bada.

–Baño yoaten banaiz, gero berriz etorri beharko diñet...

Hernaniko hizkerako ahoskera-fenomenoak aztertzeko, hiztunen ahozko jarduna izan dugu oinarri, zortzi hiztunena hain zuzen. Hasteko, hiztun-profilak zehaztu ditugu, eremu geografikoaren, adinaren eta generoaren arabera. Hala, ibarreko bina gazteren (mutil eta neska) eta bina adinekoren (gizon eta emakume) grabazioak erabili ditugu, eta beste hainbeste kalean. Ikerketaren denbora-mugarengatik, kaleko adinekoren grabazioak Ahotsak.eus webgunetik hartu ditugu. Beste guztiak (sei hiztun) guk elkarrizketatu eta grabatu ditugu.

Kaleko gizonaren ekoizpena bi pasarte hauetatik hartu dugu:

— <https://ahotsak.eus/hernani/pasarteak/her-038-012/>

— <https://ahotsak.eus/hernani/pasarteak/her-038-002/>

Hernaniko emakumearena, beste bi hauetatik:

— <https://ahotsak.eus/hernani/pasarteak/her-035-023/>

— <https://ahotsak.eus/hernani/pasarteak/her-035-003/>

Ondoren, grabazioak transkribatu eta ahoskera-aldaketak identifikatu ditugu, analisi fonetikorako tresna informatikorik erabili gabe (Praat kasu). Hiztunen ekoizpeneko antzekotasunei erreparatuta, adibideak taldekatu eta fenomenoak erauzi ditugu; horretarako fonologia sortzaileko formulak izan ditugu oinarri —Chomsky eta Halleren (1968) lan garrantzitsutik abiatuta gaur arteko eragina izan duen ikusmolde teorikoa, alegia—. Teoria horretan

asumitzen da azaleko egituraren sakonean beste egitura bat dagoela, eta horrela soinuek jaso ditzaketan aldaketak errazago uler ditzakegula. Esan liteke sakoneko egitura abstrakzio bat dela, aldaketarik (asimilaziorik, disimilaziorik, epentesirik, ezabaketarik, ahultzerik edo indartzerik) jaso ez duen soinu baten azpiko egitura edo forma. 1980ko hamarkadatik aurrera, fenomenoak islatzeko formulak eta moduak aldatuz joan dira, baina oraindik sakoneko zein azaleko formak daudela onartzen da. Guk ere horrexeri eutsiko diogu.

Azkenik, fenomenoak erabilera-helburuaren arabera sailkatu eta, besteak beste, fenomenoaren ekoizpena hiztun-profilen arabera kuantitatiboki aldatzen den labur aztertu dugu, lan honetatik beste ikerketaren bati bidea urratzeko asmoz, besterik ez.

## 2.1 Hiztun-profilak

Hiru ezaugarriren arabera hautatu ditugu hiztunak: eremu geografikoa, adina eta generoa.

### 2.1.1 Eremu geografikoa

Sarreran azaldu dugunez, Hernanin bi azpi-hizkera daude: kalekoa eta ibarrekoa. Azpi-hizkeren artean alde lexiko, fonologiko, morfologiko eta are prosodikoak dauden susmoa dugu, lan honetan aztertuko ez baditugu ere. Ikerketa osatuagoa izan dadin, bi eremuetako hiztunak aukeratu ditugu: Hernaniko kalean hazitakoak eta Urumealdekoak —Ereñotzukoak eta Pa-goagakoak, hain zuzen—.

### 2.1.2 Adina

Adinari dagokionez, bi multzo egin ditugu. Batean, 20 eta 35 urte arteko gazteak. 20 urte inguru bete arte, hiztunen hizkera nahikotxo aldatzen dela uste dugu, bai eta beste hizkeren eragina eta hiperzuzenketa bereziki nabar-

menak direla ere. Hortik aurrera, hizkera nahikoa egonkortuta dagoela iruditzen zaigu. Gazteei 35 urteko muga ezarri diegu, adin horretan hasi ohi direlako seme-alabak izaten, eta horrek ere —gurasotasunak eta horrekin datorren aldaketa soziolinguistikoak— hizkera aldatu lezakeelako. Bestean, 75 urtetik gorako pertsonak sartu ditugu, are eta adinekoagoak hobeto. Multzo horretan, eskolan euskararik jaso ez duten pertsonak bilatu ditugu, eta 75 urte adin egokia iruditu zaigu, ikastolen 1960ko loraldian jada gazte-txoak zirelako —2024an 75 urte zituztenek 10-11 urte zituzten 1960an—.

### 2.1.3 Generoa

Genero-rolak hizkeran eragina izan dezaketelakoan gaude, batez ere adineko hiztunek euskara erabilera-esparru ezberdinetan erabiliko dutelakoan. Chambersen ([1995] 2003) arabera, emakume batzuek —adinekoek gehienbat— aldaera estandarreko ezaugarriak hartzeko joera dute, etxetik kanpoko lanbideei esker lortu ezin duten prestigio soziala hizkera estandarraz jasotzeko asmoz. Gaur egungo gazteen egoera ezberdina da, besteak beste, ez dagoelako hainbesteko lan-segregaziorik. Hala ere, aldeak egon daitezkeenez, bi generoetako hiztun gazteak hartzea erabaki dugu.

Generoak hizkeran eduki lezakeen eragina kontuan hartzeko eta ikerketan parekidetasuna bultzatzeko —historikoki emakumeei eman ez zaien arreta emateko—, gizon- eta emakume-kopuru bera hautatu dugu.

## 2.2 Grabazioen metodoa

Hiztunen ohiko hizkera lortzeko, erregistro informala mantentzea funtsezkoa iruditu zaigu, bestela, hiztunek erregistroa aldatu eta, agian, haien hizkera estandarizatuko zutelakoan. Horregatik, hiztun gehienak gune publiko eta ohikoetan elkarriketatu genituen —parkeetan eta taberna bateko terrazan—; ibarreko adinekoak beren etxeetan elkarriketatu genituen.

Tokia tentuz aukeratzearekin batera, grabagailua ere halaxe aukeratu genuen, eta mugikor soil bat erabili genuen; mikrofono profesionalago bat erabiltzekotan, hiztunak urduritu eta erregistroa aldatu zezaketela pentsatuta. Gaur egungo mugikorren grabazio-kalitatea ona da, nahikoa hiztunen ekoizpena bereizteko. Kalitatea ziurtatzeko, guk 44,1 kHz-eko lagin-tasan grabatu dugu.

Bi hautu horiei esker, hiztunen ekoizpena oso arrunta izan zen; arrunta-goa adinekoen kasuan, gazteek, urduritasunak jota, herriko hizkera estandarizatzen zutelako noizean behin.

Teknika alde batera utzi eta hiztunen ekoizpenari lotzen bagatzaizkio, esanguratsua da gazteek askoz ere etorri txikiagoa dutela, edo elkarrizketarako joera; adinekoek, aldiz, denbora gehiago irauten dute gai baten inguruan hizketan, bakarrizketatik gertuago. Gazteen grabazioetan galde-erantzun zati gehiago daudenez, haien transkripzioak luzeagoak dira, elkarrizketan denbora gehiago behar delako ekoizpen-kopuru bera lortzeko. Hiztun bakoitzaren ekoizpen propiotik bi orrialde inguru betetzeraino transkribatu ditugu, hain zuzen, Urumealdeko emakumearen 8:20 minutu, Urumealdeko gizonaren 6:30, Urumealdeko mutilaren 7:03, Urumealdeko neskaaren 5:50, kaleko emakumearen 5:29, kaleko gizonaren 9:40, kaleko mutilaren 6:10 eta kaleko neskaaren 11:02.

### 2.3 Fenomenoak deskribatzeko metodoa

Fenomenoak sintetikoki deskribatzeko, fonologia sortzaileko formulak erabili ditugu<sup>2</sup>. Haietan, aldaketak balio bitarreko ezaugarri fonologikoez adierazten dira. Aldiz, + edo – balioa duen fonema-talde naturalik ez da goenetan, balio bakarreko ezaugarriak (monobalenteak) erabili ditugu.

---

<sup>2</sup> Fonologia sortzaileko formulen egituraz gehiago jakiteko, jo *The Basic Tenets of Generative Phonology* (Al-Hindawi eta Al-Aadili 2018) artikulura.

Jarraian formula bat txertatu dugu, adibiderako:

$$\emptyset \rightarrow \left[ \begin{array}{c} KOR \\ + \text{jarraitu} \\ - \text{aurreko} \end{array} \right] / \left[ \begin{array}{c} + \text{goiko} \\ - \text{atzeko} \end{array} \right] - [- \text{konts.}]$$

Azpimarratu beharra ikusten dugu formulotan ezaugarri-bikote fonologikoak erabili ditugula, ez deskribapen fonetikoak. Horrek esan nahi du, adibidez, + *hedatu* erabiliko dugula *lepokari* termino fonetikoa adierazteko, eta – *hedatu* apikari esateko.

Formula sortzailez gain, fenomeno bakoitzean adibide gutxi batzuk eman ditugu, hain zuzen *toki* berean prozesu bakarra aplikatzen dutenak, fenomeno errazago uler dadin. Izan ere, grabazioetan jasotako hitz mordo batean, fenomeno bat baino gehiago aplikatzen da *toki* bakar batean, eta horrek gertakari bakoitza argi ikustea eta ulertzea zailtzen du. Kasu batzuetan, ordea, hainbat fenomeno kateatzen dituzten adibideak gehitu ditugu, azaldu nahi den fenomeno xeheago ulertzeko. Horretarako taulak erabili ditugu, zeinetan zutabe bakoitzean eratorpen bakar bat jasotzen den.

Fenomenoen adibide gisa aurkeztutako ekoizpen-zatiak hiru zutabetan antolatu ditugu: lehenengoan, barra etzan artean, sakoneko forma jaso dugu. Bigarrenean, parentesi karratu artean, ekoiztiko forma adierazi dugu. Hirugarrenean, batzuetan bakarrik erabilitakoan, formaren adiera estandarra gehitu dugu, kakotx artean.

Hiztunen ekoizpena —hau da, adibideak— Nazioarteko Alfabeto Fonetikoa (NAF) erabiliz transkribatuta eman dugu. NAF ikur eta diakritikoak erabiliko ditugu ekoiztiko soinuak zehaztasunez adierazteko. Diptongo-etako bokal ez-silabikoak diakritikoz adierazi ditugu, ez erdibokal gisa. Bestalde, aurreko/atzeko erdiko bokal bakarra duten hizkuntzetan (euskara kasu), bokal horrek beheanzko joera du, benetako erdiko posizio bat hartzerakoa (Martínez-Celdrán *et al.* 2003). Posizio hori adierazteko dagokion NAF diakritikoa erabili dugu.

## 2.4 Fonologia-terminoen glosarioa

*Euskal Fonetika-Fonologiaren Ikasketarako Gaiak* (Jauregi eta Oñederra 2015) ikasliburuan jasotako euskarazko termino fonologikoak erabili ditugu lan honetako formula fonologikoetan. Termino gutxi batzuk Gussenhoven eta Jacobsek (2017) deskribatutakoak itzulita erabili ditugu, hain zuzen, balio bakarreko tasunak (beti positiboan), eta baita  $\pm$  *distributed* ere —ez dugulako Jauregi eta Oñederraren 2015eko lanean aurkitu—:

1. **taula.** Jauregi eta Oñederrak (2015) proposatutako terminoetz gain erabili ditugun terminoak, geuk sortuak

Ingeleseko terminoa	Geuk erabilitako euskarazko ordaina
$\pm$ distributed	$\pm$ hedatu
dorsal	dorsal (DOR)
labial	ezpainkari (EZP)
coronal	koroari (KOR)

Formulak arintzearren, ohiko euskal termino batzuen laburdurak erabili ditugu, hain zuzen, *sudurkari* beharrean *sudur.*, eta *kontsonantiko* beharrean *konts.*

## 2.5 Fenomenoak izendatzeko laburdurak

Fenomenoei izena emateko, bakoitzean gertatzen den prozesu fonologikoaren laburdura erabili dugu: AH, ahultzea; AS, asimilazioa; DI, disimilazioa; EP, epentesia; EZ, ezabaketa; eta IN, indartzea.

Bistan denez, prozesuaren euskarazko izenaren lehen bi hizkiak erabili ditugu laburdurretan. Prozesu bera duten fenomenoak ezberdintzeko, laburduraren ondoren zifra bat gehitu diogu bakoitzari. Fenomeno bakoitzari zein zifra jarri diogun erabat arbitrarioa da.

Antzekotasun handia duten fenomenoak ezberdintzeko —esaterako, hainbat kontsonante koroari sabaikaritzen dituzten asimilazioak—, edo jatorriz prozesu berbera duten bi fenomeno testuinguru oso antzekoetan gertatzen direnean —adibidez, bokal baten ostean edo bokal baten aurrean, alfabeto latinoko hizkiak gehitu ditugu zenbakitzezifren ostean: AS1a, AS1b, AS1c, EZ3a, EZ3b, EZ4a, EZ4b eta abar—.

Morfosintaxiarekin zerikusi nabarmena duten ahoskera-fenomenoak ezberdintzeko, izenaren hasieran MS laburdura jarri diegu. Horrela sortzen dira honelako izenak: MSAS2, MSEZ1, MSIN1 eta abar.

Azkenik, fenomeno batek behar lukeen soinua sortu ordez, testuinguruarengatik alofono bat ematen dutenean, kakotx bat gehitu diogu izenaren bukaeran, zertxobait ezberdina dela adierazteko: MSAS1 eta MSAS1'.

## 2.6 Fonemak eta alofonoak

Hernaniko hizkera euskara denez, ez ditugu euskara estandarreko fonemak eta alofonoak azalduko, jakintzat ematen ditugulako (Hualde eta Ortiz de Urbina 2003). Atal honetan Hernaniko hizkerak dituen soinuak, fonemak eta alofonoak azalduko ditugu, baita hiztunen joerak eta beste xehetasun batzuk ere.

Hernaniko hizkeran ez dago /h/ fonema. Edonola, hasperena gauza dezakete hiztunek, /x/ren ahultze fonetiko gisa. /x/ da estandarreko jotari esleitutako fonema, ez /j/. Azken hori —gehienetan /j/ dena, zuzenago izateko— soinu epentetikoa edo alofinoa izan daiteke.

Batuko zri esleitutako fonema ezberdina da adinekoen eta gazteen hizkeran. Gazteena lepokaria da —/s̺/, + hedatua— eta adinekoek, berriz, apikariagoa —/s̺/— egiteko joera dute. Berdintsu gertatzen da afrikatuetan: gazteena /t̺s̺/ da, eta helduek /t̺s̺/-rako joera dute. Edonola ere, adinekoek bi fonemak ezberdintzen dituztela iruditu zaigu, hau da, *z* eta *s* fonemak ezberdinak direla nahiz eta nahiko antzekoak izan. Sinplifikatzearen, formuletan gazteen *z* erabili dugu fonema komun gisa, baina adibideetan adinekoen aldaera apikariagoak ere gehitu ditugu.

Afrikatuei dagokienez, badirudi ez dela arrunta  $\widehat{tʃ}$  fonema gisa erabil-tzea, estandarreko fonema horren ordezt  $\widehat{tʃ}$  egiten delako Hernanin. Bali-teke  $\widehat{tʃ}$  fonema gisa ez edukitzea sabaikaritze afektibo lexikalizatua izatea, fonema-errepertorioaraino iritsitakoa.

Badago gazteen eta adinekoen artean ezberdina den beste joera bat, in-guruko hizkeretan eta gaztelanian ere gertatzen dena: duela hamarkada batzuk,  $/\Lambda/$  eta  $/j/$  fonema ezberdinak ziren oro har, eta aztertutako adineko hiztunentzat hala dirauela dirudi. Aldiz,  $/\Lambda/$  ez dago gazteen soinu- eta fonema-errepertorioan, eta adinekoek  $/\Lambda/$  egingo luketen egoeretan, gaz-teek  $/j/$  egiten dute —agian, adinekoen  $/\Lambda/$  gazteek berea duten  $/j/$  soinua dela interpretatzen dutelako—. Belaunaldien arteko alde hori AS1c feno-menoan (§ 3.1.2) ikusi daiteke, adibidez.

### 3. Ahoskera-fenomenoak

#### 3.1 Nagusiki fonologiari lotutako fenomenoak

Atal honetan gehienbat fonologiarekin zerikusia duten fenomenoak jaso ditugu, horietan hizkuntzalaritzako beste alor batzuen eragina ez baita hain nabarmena. Fenomenoak prozesuaren arabera multzokatu ditugu. Mul-tzoen zein barruko fenomenoaren ordenari dagokionez, ikerlanean adibide-kopuru handiena dutenetatik gutxien dutenera ordenatu ditugu, ez alfabe-tikoki.

##### 3.1.1 Ezabaketak

EZ1:  $/r/$ ,  $/\ddot{r}/$  eta  $/\gamma/$ -ren ezabaketa

+ ahots  
 $[^+ \text{jarraitu}] \rightarrow \emptyset / [\text{konts.}]_1 - [\text{konts.}]_2$   
 KOR  
 DOR

Hau da Hernaniko hizkerako fenomeno fonologikorik emankorrena, kontsonante jarraitu ahostun bat —hurbilkaria edo ttaka— galtzea bokal artean. Etengabe gertatzen da, eta kaleko zein ibarreko genero eta adin guztietako hitzunek egiten dute. Hona hemen adibide batzuk:

/i.ku.ʒi. ʃeṭ/	>	[i.ku.ʒi. eṭ]	
/a.te.ɾa. ʃi.ɾe.nak/	>	[a.te.a i.e.nak]	
/bi.ʃa.li/	>	[bi.a.li]	
/pa.ʒa.ʃi.ʒu.a/	>	[pa.ʒa.i.ʒu.a]	‘pasadizoa’
/bi.ʒi.mʊ.ʃu.a ʃa/	>	[bi.ʒi.mʊ.ʃu.a a] <sup>3</sup>	‘bizimodua da’
/o.rain.ɰik/	>	[o.aiɰ.ɰik]	
/o.ri.ʃe/	>	[o.i.ʃe] <sup>4</sup>	
/ge.ɾo.ʒtik/	>	[ge.ɾo.ʒtik]	‘geroztik’
/be.ɾa/	>	[be.a]	
/u.ɾa/	>	[u.a]	‘hura’
/e.ʒu.ral.ɰi/	>	[e.ual.ɰi]	
/e.ʒo.te/	>	[e.o.te]	
/ʒa.ʒar.ʃo.a/	>	[ʒa.ar.ʃo.a]	
/e.ʒa.ʒu.tu/	>	[e.ʒau.tu]	‘ezagutu’

Formulan ikusten denez, hurbilkariak diren kontsonante koroari (kor.) eta dortsalei (dor.) bakarrik eragiten die fenomenoak —[r], [ʃ] eta [ʒ] hurbilkariei<sup>5</sup>—, baina ez ezpainkarietara (ezp.). Horren erakusle da *hobe*, *labe*, *alaba*, *iloba*, *kobazulo* eta tankerako hitzetan ia ezabaketarik ez gertatzea<sup>6</sup>.

<sup>3</sup> Seguruena, hemen ez da /bi.ʒi.mʊ.ʃu.a/ hitzeko [ʃ]-a ezabatu, bestela, hiru bokal jarraian geratuko lirakeelako: /o.u.a/. Hizkuntza gehienetan CVCV silaba-egitura bilatzen da. Hauxe dio Hymanek (1975: 161-162) horren gainean: «Thus, rules of insertion or deletion of segments are natural to the extent that they produce more natural syllable structures».

<sup>4</sup> /r/ fonema ezabatu ondoren, /i/-a irristari bihurtu da hiatoa ekiditeko.

<sup>5</sup> [j] koronal hurbilkari ahostuna izanagatik ere, ez du fenomeno hau jasaten, ez baita fonema.

<sup>6</sup> [β] alofonoa, beste hurbilkari ahostunen aldean, ez da hain maiz ezabatzen. Gure datuetan, adibide hauek bakarrik topatu ditugu: /a.ma.βir.xip/ > [a.ma.ir.xip] eta /a.pɾo.βe.ʃa.tu/ > [a.pɾo.e.ʃa.tu].

Fenomenoa aplikatzerakoan joera bat dago:  $V_1$  eta  $V_2$  errokoak baldin badira, kalitate ezberdinekoak dira. Bestela, kasu bakan batzuk kenduta —lexikalizatuak gehienbat—, ez da ezabaketarik gertatzen. Adibideak azpian:

/ga.raɪ/ > \*/ga.aɪ/  
 /iŋ.gu.ru/ > \*/iŋ.gu.u/  
 /sa.ɣar/ > \*/sa.ar/<sup>7</sup>

Aldiz, fenomenoak bi hitz edo morfemaren artean gertatzen bada horietako bat kategoria funtzional batekoa denean, ezabaketa gertatzen da,  $V_1$  eta  $V_2$  kalitate berdinekoak izanda ere:

/ba.ð̥a.ki̯s.ki̯t/ > [ba.a.ki̯s.ki̯t]  
 /e̯.ɣ̥i.a ð̥a/ > [e̯.ɣ̥i.a a]  
 /ku.ri̯o̯.su.a ð̥a/ > [ku.ri̯o̯.su.a a]<sup>8</sup> ‘kuri osoa da’

## EZ2: kalitate bereko soinuaren ezabaketa

Kalitate bereko bi soinu segidan ahoskatzea ez da oso ekonomikoa, eta horri aurre egiteko, hiru irtenbide nagusi daude: bi soinuaren artean eten bat egitea; geminatzea (kontsonanteen kasuan) edo luzatzea (bokalenean); edo bi soinuetako bat ezabatzea.

Fenomeno multzo honetan hirugarren irtenbidea baliatzen da. Ez da erraza jakitea bi soinuetako zein ezabatzen den, baina hainbat adibide medio, lehena ezabatzen dela ondorioztatu dugu. Horren adibide garbiena EZ2c fenomenoaren analogiaz sortua dirudien forma hau da: /e̯r.ɖ̥e̯.ra̯s̯ ʒar.

<sup>7</sup> Grabazioetan eta kalean entzun daitekeenez, batzuetan /ʒa.ar.ð̥o̯.a/ esaten da /ʒa.ɣ̥ar.ð̥o̯.a/ ordez. Gure ondorioa hitz elkartuetan ezabaketa aplikatzen dela da.

<sup>8</sup> Hitzunegandik jaso ez badugu ere, jakin badakigu beste bokalekin ere berdin gertatzen dela; adibidez, /e̯.ka.ri ð̥i̯t/ > [e̯.ka.ri i̯t] kasuan.

$\widehat{t\check{s}e\grave{i}.cu\grave{t}}/ > [e\check{r}.d\check{e}.ra\ \grave{s}ar.\widehat{t\check{s}e\grave{i}.cu\grave{t}}]$ . Nahiz eta akats bat izan, fenomeno mul-tzoaren sakoneko logika agerian uzten duelakoan gaude.

**EZ2a:**  $V_1V_1 \rightarrow V_1$  ezabaketa

*agoiko*                      *agoiko*  
 $[\betaatzeko] \rightarrow \emptyset / \_ [\betaatzeko]$   
*γbeheko*                      *γbeheko*

Kalitate bereko bi bokal elkartzean bat ezabatzean datza. Bi modutan gertatu daiteke:

1. Bokalak hitz baten bukaeran eta hurrengoaren hasieran elkartuta:

$/o.\grave{s}o\ \grave{o}\grave{n}.d\grave{o}/ > [o.\grave{s}o\grave{n}.d\grave{o}]$   
 $/t\grave{a}\ a\grave{i}m.\beta\check{e}\check{s}.t\check{e}/ > [t\grave{a}i\grave{m}.\beta\check{e}\check{s}.t\check{e}]$   
 $/t\grave{a}\ a.\grave{t}\grave{a}l.d\check{e}.k\phi/ > [t\grave{a}.\grave{t}\grave{a}l.d\check{e}.k\phi]$                       ‘eta arratsaldeko’  
 $/i.\grave{t}\grave{i}\ i\check{t}\check{e}/ > [i.\grave{t}\grave{i}.i\check{t}\check{e}]$                       ‘itxi egiten’

2. Fenomeno kateatu forman, hau da, beste fenomenoren batengatik bokalak elkartuta. Adibidean, EZ1 aplikatu ondoren:

3. **taula.** EZ2a fenomenoaren adibide gehiago fenomeno-katean

Sakoneko forma	Adiera	EZ1	EZ2a
$/ba.t\check{e}.r\check{e}/$	‘bat ere’	$[ba.t\check{e}.e]$	$[ba.t\check{e}]$
$/x\check{e}\check{n}.d\check{e}.a\ \check{O}a.\check{y}\phi.la/$	‘jendea dagoela’	$[x\check{e}\check{n}.d\check{e}.a\ a.\check{y}\phi.la]$	$[x\check{e}\check{n}.d\check{e}.a.\check{y}\phi.la]$
$/e.r\check{e}.\beta\grave{a}i/$	‘ere bai’	$[e.e.\beta\grave{a}i]$	$[e.\beta\grave{a}i]$
$/n\check{e}.r\check{e}/$	‘nire’	$[n\check{e}.e]$	$[n\check{e}]$

Hernaniko hizkera sinkronikoki aztertzen badugu, kostata topatuko dugu kalitate bereko bi bokal elkarren ondoan dituen erro bat. Dirudienez, joera

oso egonkortua da halako errorik ez edukitzea, hiztun batzuen salbuespenak salbuespen<sup>9</sup>.

**EZ2b: /n/-ren ezabaketa**

$$\left[ \begin{array}{c} + \textit{sudur.} \\ \textit{KOR} \end{array} \right] \rightarrow \emptyset / - \left[ \begin{array}{c} + \textit{sudur.} \\ \textit{KOR} \end{array} \right]$$

Aldaera honetan, /n/ ezabatzen da:

/e.nun nai/	> [e.nu.nai]	‘ez nuen nahi’
/xun ni.tʃan/	> [xu.ni.tʃan]	‘joan nintzen’
/e.ʃan na.ɛt/	> [e.ʃa.na.ɛt]	‘esan nahi dut’

**EZ2c: /ʃ/-ren ezabaketa**

$$\left[ \begin{array}{c} + \textit{jarraitu} \\ \textit{KOR} \\ + \textit{hedatu} \end{array} \right] \rightarrow \emptyset / - \left[ \begin{array}{c} + \textit{jarraitu} \\ \textit{KOR} \\ + \textit{hedatu} \end{array} \right]$$

Fenomenoaren aldaera honetan, /ʃ/ ezabatzen da beste /ʃ/ baten aurrean dagoenean. Adibideei erreparatuta, pentsa liteke ez hitzarekin eta /ʃ/ fonemaz hasten diren aditz laguntzaileekin bakarrik gertatzen dela. Edonola ere, fenomeno nagusiaren beste aldaerek eta EZ2ren sarreran azaldutako adibideak erakusten dute, seguruena, kalitate bereko soinuaren ezabaketa bat dela hau ere, nahiz eta jasotako adibide hauetan kategoria morfologikoak errepikatu.

/eʃ ʃau.ðe/	> [e.ʃau.ðe]	
/eʃ ʃan/	> [e.ʃan]	‘ez zen’
/eʃ ʃe.ɔn/	> [e.ʃe.ɔn]	‘ez zegoen’
/eʃ ʃu.ten/	> [e.ʃu.ten]	

<sup>9</sup> Grabazioetan adibide bakar-bakarra topatu dugu, hiztun bakarrak behin bakarrik ekoitzia: /le.ɛn/.

**EZ3a: /ɛ/-ren ezabaketa (bokal baten ostean)**

$$\left[ \begin{array}{l} \text{- goiko} \\ \text{- atzeko} \end{array} \right] \rightarrow \emptyset / \text{[- konts.]}_-$$

Fenomeno honetan /ɛ/ bokala ezabatzen da aurretik beste bokal bat due-nean, ez badu nahaste handirik sortuko behintzat, MSEZ5 fenomenoan jasotako /ʃu.t̪ɛn/ > [ʃu.ɛn] adibideko azaleko forman kasu. Ohikoena ezabaketa bokal baten ondoren gertatzea da (EZ3a), baina bokal baten aurretik ere gerta daiteke (EZ3b). Adibidez, oso ohikoa da *ere* partikulako lehen silaba ezabatzea. Ikus ditzagun adibide batzuk:

/ɛʃ.ta.ɛ.rɛ/	>	[ɛʃ.ta.rɛ]	
/oi.ɛ.rɛ/	>	[oi.rɛ]	‘hori ere’

Jarraian, morfosintaxiarekin zerikusia duten zenbait adibide aztertuko ditugu. Hauetan morfema funtzionala den *-e-* ezabatzen da, hots, mugagabeko eta mugatu pluraleko *-e-*:

/guʃ.t̪i.ɛ.t̪an/	>	[guʃ.t̪i.t̪an]	
/ur.t̪ɛ.ɛ.t̪an/	>	[ur.t̪ɛ.t̪an]	
/ba.t̪ʃu.ɛ.kin/	>	[ba.t̪ʃu.kin]	
/ʃor.t̪ʃi.ɛ.t̪an/	>	[ʃor.t̪ʃi.t̪an]	
/be.ʃu.ɛ.t̪an/	>	[be.ʃu.t̪an]	‘besoetan’

Ildo beretik, *hiru* eta *lau* hitzei inesibo marka gehitzean zer gertatzen den aztertuko dugu. Bi hitzonen inesibo mugagabeko formak /i.ru.t̪an/ eta /lau.t̪an/ dira, estandarrean zein herriko hizkeran. Inesibo pluraleko formak, aldiz, ezberdinak dira herriko hizkeran. Bi hitz horiek historikoki berekin dakarten /r/-a ezabatzen da lehenengo (EZ1) eta, ondoren, /ɛ/-a (EZ3a). Ondorioz, inesibo pluralak eta mugagabeak forma berdina hartzen dute herrian:

## 4. taula. EZ3a fenomenoaren adibide gehiago fenomeno-katean

Sakoneko forma	EZ1	EZ3a
/i.ru.r̥ɛ.t̥an/	[i.ru.ɛ.t̥an]	[i.ru.t̥an]
/lau.r̥ɛ.t̥an/	[lau.ɛ.t̥an]	[lau.t̥an]

Uste dugu horren ondorio bat zera dela, Hernaniko gazteek, euskara baituan egitean ere, ez dituztela ezberdintzen mugagabea eta mugatu plurala, haien jatorriko hizkeran ez direlako ezberdintzen EZ3a ezabaketa aplikatutakoan.

## EZ3b: /ɛ/-ren ezabaketa (bokal baten aurrean)

$$[- \textit{goiko}] \rightarrow \emptyset / \_ [- \textit{konts.}]$$

$$[- \textit{atzeko}]$$

EZ3a fenomenoan bezalaxe, /ɛ/ ezabatzen da, baina oraingoan bokal baten aurrean. Hona hemen adibide gutxi batzuk, ez baita EZ3a bezain emankorra:

/ʃɛ.a/	> [ʃa]	‘zara’
/be̞i.õa/	> [bi.õa]	‘begira’
/i.ʃa.t̥ɛ.i.c̥ɛu/	> [i.ʃa.t̥ɛ.i.cu]	‘izaten ditugu’

## EZ4a: /a/-ren ezabaketa (bokal silabiko baten aurrean)

$$[+ \textit{atzeko}] \rightarrow \emptyset / \_ [- \textit{konts.}]$$

$$[+ \textit{beheko}]$$

Fenomeno hau CVCV silaba-egitura mantentzeko erabiltzen da (Hyman 1975: 161-162), /a/ beste bokal silabiko baten aurrean dagoenean —hiato batean—, /a/ ezabatu eta egitura silabiko *naturala* lortzeko.

/or.ɖu.βa.ta.ta.ɛr.ɖi.taɫ.ɖi.ɛn/ > [or.ɖu.βa.ta.ta.ɛr.ɖi.taɫ.ɖi.ɛn] ‘ordu bat eta erdiak aldean’  
 /ta.ɛ.βa.ɛ.ɛ/ > [ɛ.βa.ɛ.ɛ] ‘eta esaten dute’

Adibideetan ikusten den /a.e/ hiatoa ezabatzeko hiru konponbide dituzte hiztunek: EZ4 fenomenoak, EZ3ak (§ 3.1.1), eta IN1 (§ 3.1.5).

EZ4a fenomenoak, antza, salbuespen bat du: ezabatu beharreko /a/ hori morfema funtzional bat denean —erakuslea edo hitz funtzional baten bukaera—, ez da ezabatzen. Paradoxikoki, *eta* juntagailuko /a/ bai ezabatzen dute hiztun batzuek. Interesgarria litzateke, beraz, salbuespen hori zuzenago deskribatzea.

/ni.cu.la ɔ ɔ.la/ > \*[ni.cu.lɔ ɔ.la] ‘nituela edo horrela’  
 /a.ɛ.βa.ɛ.ɛ.βaɪ/ > \*[a.ɛ.βa.ɛ.ɛ.βaɪ] ‘ateatzea ere bai’

Dena dela, *-a* itsatsia duten hitzek alboan beste erakusle bat dutenean, hiztun batzuek fenomenoak aplikatu eta /a/ ezabatzen dute:

**5. taula.** EZ4a fenomenoaren adibide gehiago fenomeno-katean

Sakoneko forma	EZ4b	EP1
/or.ɖu.ɡi.fɛ.rɛn.tɕi.a ɔ.rɛ.kin/	[or.ɖu.ɡi.fɛ.rɛn.tɕi ɔ.rɛ.kin]	[or.ɖu.ɡi.fɛ.rɛn.tɕi jɔ.rɛ.kin]
/ʎaʊ.βa ɔɪ/	[ʎaʊβ ɔɪ]	—

**EZ4b:** /a/-ren ezabaketa (bokal silabiko baten ondoren)

[<sup>+</sup> *atzeko*]  
 [<sup>+</sup> *beheko*] → Ø / [- *konts.*]<sub>-</sub>

EZ4 fenomenoaren aldaera honetan, bigarren bokala (/a/) ezabatuz haus-ten dira hiatoak:

/b̥e.ar/	> [b̥ər]	‘behar’
/u̥s̥.t̥e̥.i.ḁt̥/	> [u̥s̥.t̥e̥.ɪ̥]	‘uste diat’
/e̥.ʂḁ.t̥e̥.i.ḁt̥/	> [e̥.ʂḁ.t̥e̥.ɪ̥]	‘esaten diat’

**EZ5a: /i̥/-ren ezabaketa (monoptongatzea)**

$$\left[ \begin{array}{l} + \textit{goiko} \\ - \textit{atzeko} \end{array} \right] \rightarrow \emptyset / [- \textit{konts.}]_-$$

Izenburuak dioen moduan, fenomeno hau monoptongatze bat da funtsean, diptongo bateko bokal ez-silabikoa edo irristaria —azpi-fenomeno honetan /i̥/— ezabatzea. Aurreko fenomenoetan bezalaxe, CVCV egitura-rako joera berresten du horrek.

/ʂe̥i.nek/	> [ʂe̥.nek]	‘zeinek’
/o̥.ḁn/	> [o̥.an]	‘orain’
/i̥.e̥.ʂḁ.t̥e̥.ʂi̥.ḁn/	> [i̥.e̥.ʂḁ.t̥e̥.ʂi̥.ḁn]	‘egiten izaten ziren’

**EZ5b: /u̥/-ren ezabaketa (monoptongatzea)**

$$\left[ \begin{array}{l} + \textit{goiko} \\ + \textit{atzeko} \end{array} \right] \rightarrow \emptyset / [- \textit{konts.}]_-$$

Badirudi /u̥/ bokal irristaria ezabatzeko prozesua egonkortuago dagoela, salbuespen lexikalizatuak salbuespen (esaterako, /lḁu̥.r̥.ɸ̥e̥i̥/ da zuzena eta ez /lar̥.ɸ̥e̥n/), oso kasu bakanetan entzuten direlako ezabaketarik gabeko formak. Gure susmoa da, entzutekotan, euskara estandarraren eraginez sortuak direla, gazteen ahotan gehiago entzuten direlako. Ziurrenik, diptongoetako /u̥/ bokal irristaria galdu egin zen Hernaniko sakoneko formatatik, hiztun helduen artean ia ez baita entzuten.

/lḁu̥.r̥.ɸ̥e̥i̥/	> [lḁ.r̥.ɸ̥e̥i̥]	
/ʂḁu̥.kḁ.t̥e̥n/	> [ʂḁ.kḁ.t̥e̥n]	‘zeukaten’

/ʃe.ne.ka.la/ > [ʃe.ne.ka.la]  
 /ba.ʎe.ɲ.ɟen/ > [ba.ʎe.ɲ.ɟen]  
 /lau.rɛ.un/ > [la.rɛ.un]  
 /nau.ʃ.kan/ > [na.ʃ.kan] ‘neuzkan’

Monoptongatzea gauzatzeko beste modu bat ere aurkitu dugu, ez dena ezabaketa, /au/ silaba /o/ bihurtzea baino. Azken bi adibideetan, EZ3a aplikatutakoan, irristaria silabaz aldatu da. Fenomeno hau sakonago aztertu ez dugun arren, adibideak ekarri ditugu:

**6. taula.** Monoptongatzeko beste fenomeno baten adibideak fenomeno-katean

Sakoneko forma	Adiera	EZ3a	EZ5b
/a.ɲ.ɟi/	‘handi’	—	[o.ɲ.ɟi]
/a.ɟ.kin/	‘hauekin’	*[a.ɟ.kin]	[o.kin]
/a.ɟek/	‘hauek’	*[a.ɟk]	[o.k]

3.1.2 *Asimilazioak*

**AS1: asimilazioak**

AS1 fenomeno-sorta honetan, kontsonante koroari batzuek /i/ baten ostean jasaten duten sabaikaritzeak jaso ditugu. Izan ere, /i/ bokala itxia eta aurrekoa da, eta mihiaren bizkarra sabai gogorraren azpian kokatzen da; horregatik, /i/ bokalari «bokal sabaikaria» ere deitzen zaio. Prozesu fonologiko hutsak bilduko ditugu, ez semantikarekin lotutako sabaikaritze afektiboak.

**AS1a: /t/-ren sabaikaritzea (asimilazioa)**

*KOR*

$$\begin{matrix} [- \text{jarraitu}] \\ [+ \text{hedatu}] \end{matrix} \rightarrow [- \text{aurreko}] / \begin{matrix} [+ \text{goiko}] \\ [- \text{atzeko}] \end{matrix} - [- \text{konts.}]$$
 - ahots

/t̪/ —kontsonante koroari, herskari, lepokari eta ahostuna— /i/ bokalaren eta beste bokal baten artean sabaikaritu eta [c] bihurtzen da.

/p̪.li.ɬa/	> [p̪.li.ca]	
/de̪.ɬ.ku.β̪ri.t̪u/	> [de̪.ɬ.ku.β̪ri.cu]	
/ni.t̪un/	> [ni.cun]	‘nituen’
/i.te̪.a/	> [i.ce̪.a]	‘egiten da’
/ai.te̪i/	> [ai.ce̪i]	‘aitari’
/a.ri.t̪u.ɬa/	> [a.ri.cu.ɬa]	
/i.te̪i.t̪u.ɛ/	> [i.ce̪i.cu.ɛ]	‘egiten dituzte’

#### AS1b: /n/-ren sabaikaritzea (asimilazioa)

$$[+ \text{ KOR} \text{ } \begin{matrix} \text{KOR} \\ + \text{ sudur} \end{matrix}] \rightarrow [- \text{ aurreko}] / \begin{matrix} [+ \text{ goiko}] \\ [- \text{ atzeko}] \end{matrix} - [- \text{ konts.}]$$

/n/ sabaikaritu egiten da aurretik duen /i/ bokalarekin asimilatuta. Gainera, derrigorrezkoa da /n/aren ondoren bokal bat egotea, izan hitzean bertan edo hurrengo hitzean.:

*/ʃi.nan/	> [ʃi.nan]	‘zinen’
/a.ma.ir.xin ɔ̪i/	> [a.ma.ir.xin ɔ̪i]	‘ama birjin’
*/a.ki.n̪en/	> [a.ki.n̪en]	‘hekien’
/ur.te̪.kin e̪.ɬ.k̪on.du/	> [ur.te̪.kin e̪.ɬ.k̪on.du]	‘urterekin ezkondu’
/e̪.ɬin ai.ɬe̪.la/	> [e̪.ɬin ai.ɬe̪.la]	‘ezin haizela’

#### AS1c: /l/-ren sabaikaritzea (asimilazioa)

$$[+ \text{ albokari}] \rightarrow [- \text{ albokari}] / \begin{matrix} [+ \text{ goikoa}] \\ [- \text{ atzeko}] \end{matrix} - [- \text{ konts.}]$$

Azpi-fenomeno honetan /l/ kontsonantea sabaikaritu eta [ʎ] bihurtzen da, aurrekoen testuinguru berean. § 2.6 atalean azaldu dugu gazteek, [ʎ]-n sabaikaritu ordez, [j̥]-n egiten dutela. Hitzunen soinu-errepertorioaren ara-

berakoa da hori. Adibideotan [ʎ] adieraziko dugu, baina batzuetan [j] egiten dute hiztunek. Praat edo antzeko programaren batekin aztertzea komeni da:

/i.β̞i.li/	>	[i.β̞i.ʎi]	
/bi.la/	>	[bi.ʎa]	
/laŋ.gi.li.a/	>	[laŋ.gi.ʎi.a]	‘langilea’
/bi.lɔ.β̞a/	>	[bi.ʎɔ.β̞a]	

#### AS1d: /s̺/-ren sabaikaritzea (asimilazioa)

$$\begin{array}{c} \text{KOR} \\ [+ \text{jarraitu}] \rightarrow [- \text{aurreko}] / [+ \text{goiko}] - \\ - \text{hedatu} \\ - \text{atzeko} \end{array}$$

Aurreko azpi-fenomenoen moduan, /s̺/ sabaikaritu eta /f/ bihurtzen da aurretik /i/ bat duenean. Adibideetan aurkeztuko ditugun forma asko lexicizatuta daude dagoeneko:

/bi.ʂi.ʎu/	>	[bi.ʂi.ʎu]	
/laj̞s̺.t̞ɛr/	>	[laj̞f.t̞ɛr]	‘laster’
/i.ʂi.lik/	>	[i.ʂi.lik]	
/i.r̞iʂ̺.t̞ɛ/	>	[i.r̞if.t̞ɛ]	‘iristen’

#### AS2: [β̞]-ren ahostuntzea (asimilazioa)

$$\begin{array}{c} \text{EZP} \\ [+ \text{jarraitu}] \rightarrow [- \text{jarraitu}] / [- \text{ahots}] - \\ + \text{ahots} \\ - \text{ahots} \end{array}$$

Fenomeno honetan, [β̞] —/b/ fonemaren alofono hurbilkaria— herskari ahoskabe bihurtzen da, hots, [p], aurretik duen kontsonante ahoskabe batekin asimilatuta.



AS4b: /ɛ/ → [a] joera (aurreko /a/ batekin asimilatuta)

$$\left[ \begin{array}{l} - \textit{goiko} \\ \mathbf{v} \textit{atzeko} \end{array} \right] \rightarrow \left[ \begin{array}{l} + \textit{atzeko} \\ + \textit{beheko} \end{array} \right] / \left[ \begin{array}{l} + \textit{atzeko} \\ + \textit{beheko} \end{array} \right] [+ \textit{konts.}]$$

Aurreko azpi-fenomenoaren bidetik, /ɛ/ [a]-ra asimilatzen da, oraingoan /a/ aurretik duenean, tartean kontsonante bat edukita.

/ba.ʂɛ.ri/	>	[ba.ʂa.ri]	
/ba.ʂ.ɛ.ɾɛ.a/	>	[ba.ʂ.ɾa.ɾɛ.a]	‘bazterrera’
/ba.ʂɛ.kin/	>	[ba.ʂa.kin]	‘bazekien’

### 3.1.3 *Disimilazioak*

DI1: /ɛ/ → [i] disimilazioa

$$\left[ \begin{array}{l} - \textit{goiko} \\ - \textit{atzeko} \end{array} \right] \rightarrow [+ \textit{goiko}] / - [+ \textit{atzeko}]$$

Fenomeno oso emankor honetan, /ɛ/ bokala [i] bihurtzen da ondoren atzeko bokal baten duenean.

/kɔ.ɾ̃ɛ u.a/	>	[kɔ.ɾ̃i u.a]	‘auto hurra’
/pa.ʂɛ.a.tʂɛn/	>	[pa.ʂi.a.tʂɛn]	
/bi.ɔ̃ɛ.an/	>	[bi.ɔ̃i.an]	
/al.dɛ.an/	>	[al.di.an]	

Fenomenoak salbuespen bat du. EZ1 ezabaketaren ondorioz (§ 3.1.1), kasu-morfemaren batean /e.a/ silabak geratu baldin badira, ez da DI1 disimilazioa aplikatzen. Uste dugu entzulearen mesedetan egiten dela hau, silaba horien morfologia errazago ezberdin dadin:

/ba <sub>g</sub> .ka <sub>l</sub> .t <sub>ʃ</sub> e.a xun/	> */ba <sub>g</sub> .ka <sub>l</sub> .t <sub>ʃ</sub> i.a xun/	‘bazkaltzera joan’
/a.ʒi ʒi.a.nə.a.ko/	> a.ʒi */ʒi.a.ni.a.ko/	‘hasi zirenerako’
/ka.lə.a x <sub>u</sub> a.tə.ko/	> */ka.li.a x <sub>u</sub> a.tə.ko/	‘kalera joateko’
/i.t <sub>ʃ</sub> a.lə.tik i.t <sub>ʃ</sub> a.lə.a/	> i.t <sub>ʃ</sub> a.lə.tik */i.t <sub>ʃ</sub> a.li.a/	‘itzaletik itzalera’

Aldiz, /e.a/ silabak kasu absolutiboan baldin badaude, DI1 fenomenoa aplika daiteke, nahiz eta ez den derrigorrezkoa ezohikoa:

/mo <sub>ʃ</sub> .ko.re.ʔan e <sub>ʃ</sub> i.βil.t <sub>ʃ</sub> e.a/	> [...] /i.βil.t <sub>ʃ</sub> i.a/	
/o.βi.a ʔe <sub>u</sub> o.ni ʔe.na e <sub>ʃ</sub> .pli.ka.t <sub>ʃ</sub> e.a/	> [...] /e <sub>ʃ</sub> .pli.ka.t <sub>ʃ</sub> i.a/	‘hobea dugu honi dena esplikatzea’
/t <sub>ʃ</sub> in.t <sub>ʃ</sub> o i.ʒa.tə.a/	> [...] /i.ʒa.ti.a/	‘txintxoa izatea’

DI2: /o/ → [u] disimilazioa

**[+ atzeko]** → **[+ goiko]** / **[- konts.]**  
**[- beheko]**

DI1 disimilazioren oso antzekoa da disimilazio hau, emankortasunean ere bai. Honetan, /o/ [u] bihurtzen da ondoren beste bokal bat duenean.

/t <sub>ʃ</sub> on.t <sub>ʃ</sub> a.na/	> [t <sub>ʃ</sub> on.t <sub>ʃ</sub> u.a.na]	‘tontoa izatea’
/ti.p <sub>o</sub> o <sub>r</sub> .t <sub>a</sub> /	> [ti.pu o <sub>r</sub> .t <sub>a</sub> ]	‘tipo horretara’
/x <sub>o</sub> .an/	> [xu.an]	‘joan’
/al.d <sub>r</sub> e.βe.ʒa.ʔu.a/	> [al.d <sub>r</sub> e.βe.ʒa.ʔu.a]	

DI3a: /a/ → [e] joera (ondorengo /a/ batekin disimilatuta)

**[+ atzeko]** → **[- goiko]** / **-(+ konts.)** **[+ atzeko]**  
**[+ beheko]** **[- atzeko]**

Bi /a/ elkarrengandik gertu agertzean, lehena [ɛ]-ra disimilatzen da, tartean kontsonante bat izan edo ez. Adibide gutxi batzuk jaso ditugu, lexikalizatu gisa interpreta litezkeenak:

/ɛr.ɖa.raʃ/ > [ɛr.ɖɛ.raʃ]  
 /ɛuʒ.ka.raʃ/ > [ɛuʒ.kɛ.raʃ]

Aldiz, badugu lexikalizatuta ez dagoen adibide bat fenomeno kateatu moduan. Hitzunegandik jasotako forma honetaz beste, /i.ka.ri/ forma ere entzuten da, sakoneko formaren gainean EZ1 eta EZ2 birritan aplikatuta sortua.

7. **taula.** DI3a fenomenoaren adibide gehiago fenomeno-katean

Sakoneko forma	DI3a	EZ1	EZ2
/i.ka.ra.ʎa.ri/	[i.kɛ.ra.ʎa.ri]	[i.kɛ.a.a.ri]	[i.kɛ.a.ri]

DI3b: /a/→[ɛ] joera (aurreko /a/ batekin disimilatuta)

$\left[ \begin{smallmatrix} + & \textit{atzeko} \\ + & \textit{beheko} \end{smallmatrix} \right] \rightarrow \left[ \begin{smallmatrix} - & \textit{goiko} \\ - & \textit{atzeko} \end{smallmatrix} \right] / \left[ \begin{smallmatrix} + & \textit{atzeko} \\ + & \textit{beheko} \end{smallmatrix} \right] (+ \textit{konts.})_-$

Aurreko azpi-fenomenoaren prozesu bera gertatzen da hemen, baina /a/ aurrean dagoenean, kontsonanteren bat tarteko egon daitekeela. Bi adibide besterik ez ditugu jaso:

/pa.ʒa ni.tun/ > [pa.ʒɛ ni.cun] 'pasa nituen'  
 /eʒ.pa.na/ > [eʒ.pa.ɲɛ]<sup>10</sup> 'Españia'

DI4: /ɛ/→[a] joera (aurreko /ɛ/ edo /i/ batekin disimilatuta)

$\left[ \begin{smallmatrix} - & \textit{goiko} \\ - & \textit{atzeko} \end{smallmatrix} \right] \rightarrow \left[ \begin{smallmatrix} + & \textit{atzeko} \\ + & \textit{beheko} \end{smallmatrix} \right] / \left[ - \textit{atzeko} \right] (+ \textit{konts.})_-$

<sup>10</sup> [ɲ]-aren ordez [j] egin izana fonetikoki ulertu behar da, seguru aski akats gisa.

Aurretik /e/ edo /i/ bat daukanean, /e/ disimilatu eta [a] bihurtzen da. Hona hemen adibide batzuk:

/b̥.ʃ̥.la/	> [b̥.ʃ̥.a.la]	‘bezala’
/e.ʏ̥.ɹ̥.ɟ̥.in/	> [e.ʏ̥.a.r.ɟ̥.in]	‘eguerdian’
/ɟ̥.u.ɛ̥.n̥.ɛ̥j/	> [ɟ̥.u.ɛ̥.n̥aj]	‘dutenei’
/pin.tʃ̥.kin/	> [pin.tʃ̥.a.kin]	‘pintzekin’
/u.mi.ɛ̥.n̥.tʃ̥.a.ko/	> [u.mi.a.n̥.tʃ̥.a.ko]	‘umeentzako’

Adibide gehiago topatzeko fenomeno kateatuetara jo behar dugu:

### 8. taula. DI4 fenomenoaren adibide gehiago fenomeno-katean

Sakoneko forma	DI4	EZ1
/e.r̥.e.n̥.ɹ̥.ɟ̥.un/	[e.ra.n̥.ɹ̥.ɟ̥.un]	[e.a.n̥.un]
/e.ʔ̥.r̥.ki/	*[e.ʔ̥.ar.ki]	[e.ar.ki] <sup>11</sup>

*Iturria:* geure ikerketa.

### 3.1.4 Ahultzeak

#### AH1: /r/→[r] ahultzea

- *jarraitu*  
 [ KOR ] → [+ *hedatu*] / [- *konts.*]  
 - *hedatu*

Bokal baten osteko /r/-a ahuldu eta [r] bihurtzean datza fenomeno hau. Hedatutasuna da aldatzen den ezaugarria, apikari izatetik lepokari izatera igarotzen baita. Gainera, /r/ ekoizteko, hobian gutxienez bi kolpe azkar egi-ten dira, hersketa laburrak, alegia. /r/, aldiz, hersketa txiki bat edo are igurz-

<sup>11</sup> Nahiz eta ez dugun grabazioetan jaso, disimilazio hau *eder* hitzaren erroan bertan gertatzen da besteak beste, eta jada /e.ar/ da sakoneko forma, hiztun askorentzat lexikalizatua.

te azkar bat da, oso iraupen laburrekoa. Horregatik guztiagatik, ahultze gisa ulertzen dugu prozesu hori.

/ʒu.ru.mu.ru.a.kin/	> [ʒu.ru.mu.ru.a.kin]	‘zurrumurruarekin’
/ʒe.ri/	> [ʒe.ri]	‘zeri’
/bi.ra.ɔ.ɲak/	> [bi.ra.ɔ.ɲak]	‘birraitonak’

Bigarren adibidea sinkronikoki aztertuz gero, konturatuko gara «zer» hitz gramatikaren sakoneko forma /ʒer/ dela Hernaniko hizkeran, ez /ʒer/, hitz eratorrietan beti agertzen baita /r/: /ʒe.rɛk/, /ʒe.rɛ.kin/, /ʒe.ri/, etab. Gure analisiaren arabera, coda silabikoan /r/ [r] bihurtzeko euskal joeraren ondorio lexikalizatua da hori.

**AH2: /ʒ/ → [r] errotazismoa (ahultzea)**

+ *jarraitu*  
 + *KOR*  
 [ + *hedatu* ] → [- *albokari*] / [- *konts.*]  
 + *ahots*

Errotazismoa da fenomeno honen funtsa, /ʒ/ ahuldu eta [r] bihurtzea. Bi kontsonanteak hurbilkariak izanda, argitu beharra ikusten dugu /r/ askoz ere ahulagoa dela laburragoa delako. [r] – *hedatua* bada ere, ez dugu fenomenoan adierazi, euskal errepertorio fonologikoan ez dagoelako – *albokari* + *hedaturik*; hau da, – *albokari* dela esatea nahikoa da kontsonantea deskribatzeko.

Fenomeno-kate batean jaso dugu adibide bakarra:

**9. taula.** AH2 fenomenoaren adibide gehiago fenomeno-katean

Sakoneko forma	EZ5b	AH2
/ʒe.ɲ.ðɛn/	*[ʒe.ðɛn]	[ʒe.rɛn]

## AH3: afrikatuak frikari bihurtzea (ahultzea)

KOR  
 [ -jarraitu ] → [+jarraitu]  
 + laxaketaluzakorra

Fenomeno honetan, /t͡s/ eta /t͡ʃ/ afrikatuek herskaritasuna galtzen dute —kontsonantearen zati den /t/ galtzen da<sup>12</sup>— eta beren erlatibo frikatu bihurtzen dira: [ʃ]<sup>13</sup> eta [s]. Fenomenoak ez du testuinguru zehatzik aurretik hainbat soinu eduki ditzakeelako, besteak beste, /r/, /n/, bokal bat eta, agian, /l/ ere bai.

/si.t͡sai.t͡ʃen/	> [si.ʃai.t͡ʃen]	‘zitzaidan’
/p̄en.t͡sa.tu/	> [p̄en.ʃa.tu]	
/ar.ɖa.t͡sa/	> [ar.ɖa.ʃa]	
/gu.ru.t͡sa.t͡ʃe/	> [gu.ru.ʃa.t͡ʃe]	‘gurutzatzen’

## AH4a: herskari ahoskabeen ahostuntzea (ahultzea)

[-jarraitu] → [+jarraitu] / [+ahots]\_  
 [-ahots]

Datozen bi azpi-fenomenoak (AH4a eta AH4b) asimilazioak dira berez, baina emaitza ahultzea da. Horregatik sartu ditugu atal honetan. Fenomeno honetan, /p/ eta /t/ herskari ahostun koroariak eta /k/ herskari dortsala, aurretik bokal bat dutenean, hurbilkari ahoskabe bilakatzen dira, hots, [β], [ŋ] eta [ɣ].

/al.ɖa.pa/	> [al.ɖa.βa]	
/ḡo.r̄o.t͡ʃa.t͡ʃe.ɣi.t͡ʃa.rak/	> [ḡo.r̄o.t͡ʃa.ŋe.ɣi.t͡ʃa.rak]	‘gorrotxategitarrak’
/t͡ʃin.t͡ʃo.t͡ʃ.ku.a/	> [t͡ʃin.t͡ʃo.t͡ʃ.gu.a] <sup>14</sup>	‘txintxokoa’

<sup>12</sup> Kontsonantearen zati bat bakarrik galtzen denez, ez da ezabaketa, ahultzea baizik.

<sup>13</sup> /ʃ/ deskribatzeko ez dugu adieraziko +jarraitu KOR +karrankaria denik, euskal fonemetan ez baitago /θ/, +jarraitu KOR -karrankaria. Bistan denez, formuletan ekonomiari eman diogu lehentasuna.

<sup>14</sup> Adibide honetan, bigarren silaba bukaerako /t͡ʃ/ ekoizpen-akatsa da, totalka moduko bat; argi nabaritzen da grabazioa entzutean. Silaba ahoskabe akastu horrekin asimilatuta, adibide honetan /ɣ/ ordeztu /g/ egin zuen hiztunak, baina fonetiko ulertu behar da.

**AH4b: jarraitu ahoskabeen ahostuntzea (ahultzea)**

$$\begin{array}{c}
 + \textit{jarraitu} \\
 [ - \textit{ahots} ] \rightarrow [+ \textit{ahots}] / [- \textit{konts.}]_ \\
 \textit{DOR}
 \end{array}$$

AH4a fenomenoaren aldaera honetan, /x/ —jarraitu ahoskabe dortsala— ahostundu egiten da bokal baten ostean, eta [ʏ] bihurtu. Pentsa liteke halako kontsonante dortsaletan ez ezik, beste jarraitu ahoskabe bazuetan ere gerta litekeela fenomeno, baina euskal errepertorioan /x/ eta [ʏ] dira ahostasuna trukatzten duten jarraitu bakarrak. Gaizki-ulertuak ekiditeko, zehaztasunez adierazi nahi izan dugu fenomeno. Hona hemen jaso dugun adibide bakarra:

$$/m\text{̄}e\text{̄}n.\text{̄}d\text{̄}i.a \text{̄}x\text{̄}uan/ \quad > \quad [m\text{̄}e\text{̄}n.\text{̄}d\text{̄}i.a \text{̄}y\text{̄}uan] \quad \text{‘mendira joan’}$$

3.1.5 *Indartzeak*

**IN1: /i/-ren indartzea**

$$\begin{array}{c}
 [+ \textit{goiko}] \\
 [- \textit{atzeko}]
 \end{array}
 \rightarrow
 \left[
 \begin{array}{c}
 \textit{KOR} \\
 + \textit{jarraitu} \\
 - \textit{aurreko}
 \end{array}
 \right]
 /
 [ \textit{konts.} ]_
 [ - \textit{konts.} ]_$$

Indartze-fenomeno hau nahiko hedatuta dago eta herriko hizkeren ezauzgarri bereizgarri nabarmenetako bat da. Fenomeno honetan /i/ bokala —silabikoa edo irristaria— [j] bihurtzen da bokal artean. Ez da EP1 fenomenoarekin (§ 3.1.6) nahastu behar.

$$\begin{array}{lll}
 /b\text{̄}e\text{̄}i.ak/ & > & [b\text{̄}e\text{̄}.j\text{̄}ak] & \text{‘behiak’} \\
 /g\text{̄}e\text{̄}i.ø/ & > & [g\text{̄}e\text{̄}.j\text{̄}ø]^{15} & \text{‘gehiago’}
 \end{array}$$

<sup>15</sup> Adibide honetan, -ago atzizkia -o bihurtu da, hala suertatzen baita gehienetan fenomenoak kateatzearen ondorioz.

/e.ʂai.ɔ/ > [e.tʂa.jɔ]<sup>16</sup> ‘ez zaio’  
 /la.ʂai.a.ʎɔ/ > [la.ʂa.ja.ʎɔ]

Adibide gehiago ikusteko, zeinetan /i/ silabikoa den, fenomeno kateatuetara jo behar dugu:

#### 10. taula. IN1 fenomenoaren adibide gehiago fenomeno-katean

Sakoneko forma	Adiera	EZ1	IN1
/be.l.ɖu.ra ʃi.ɛt/	‘beldurra diet’	[be.l.ɖu.ra i.ɛt]	[be.l.ɖu.ra.jɛt]
/e.ɔn.ɖu ʃi.a/	‘egon dira’	[e.ɔn.ɖu i.a]	[e.ɔn.ɖu.ja]
/auɳ.ɖi.a ʃi.ɛ.tɛ.la/	‘handia diedala’	[auɳ.ɖi.a i.ɛ.tɛ.la]	[auɳ.ɖi.a.jɛ.tɛ.la]

*Iturria:* geure ikerketa.

### 3.1.6 Epentesiak

EP1: [j] sartzea (epentesia)

$$\emptyset \rightarrow \left[ \begin{array}{c} KOR \\ +jarraitu \\ -aurreko \end{array} \right] / \left[ \begin{array}{c} +goiko \\ -atzeko \end{array} \right] - [-konts.]$$

Fenomeno hau, /i/ baten eta beste bokal baten artean [j] sartzea, ez da IN1 fenomenoarekin (§ 3.1.5) nahastu behar, fenomeno ezberdinak baitira prozesu fonologikoei dagokionez: IN1ean jada badagoen soinu bat aldatzen da, eta honetan, inondik inora ere ez dagoen bat sartzen da jada badauden beste bi soinu bereizteko.

<sup>16</sup> Bigarren silabako hasieran MSIN1 fenomeno (3.2.3) aplikatu da, baina ez dio mintzagai dugun fenomenoari eragiten.

Hortaz, hona hemen fenomeno honen adibide gutxi batzuk:

/bi.ɛk/	>	[bi.jɛk]	
/di.ɔ.ʂu/	>	[di.jɔ.ʂu]	
/ɛ.ʃi.a/	>	[ɛ.ʃi.ja]	
/di.fɛ.reɲ.tʂi.ɔ.rɛ.kin/	>	[di.fɛ.reɲ.tʂi.jɔ.rɛ.kin]	‘diferentzia horrekin’

Disimilazio hau bi helbururekin erabiltzen delako susmoa dugu. Alde batetik, entzuleak silabak eta haien banaketa hobeto uler ditzan, CVCV silaba-egitura errespetatuz. Bestetik, gaztelaniaren arau fonologikoetatik bereizteko ere erabiltzen dela pentsa liteke. Azken joera horren adibideak dira azpiko bi hauek:

/ko.lɛ.xi.ɔ/	>	[ko.lɛ.xi.jɔ]	‘kolegio’
/a.lɛ.ma.ni.a.tʂik/	>	[a.lɛ.ma.ni.ja.tʂik]	‘Alemaniatik’

Ahoskera-fenomenoen helburuez gehiago irakurtzeko, jo ondorioetara (§ 4).

### 3.2 Morfosintaxiarekin lotutako ahoskera-fenomenoak

Atal honetan azalduko ditugun fenomeno guztiak morfosintaktikoki baldintzatuak dira, hau da, hitz gramatikal edo morfema jakin batzuekin baterik ez dira gertatzen. Bestelakoan, nomenklatura eta metodologia berbera erabili dugu fenomenook deskribatzeko.

#### 3.2.1 Morfosintaxiarekin lotutako ezabaketak

**MSEZ1:** aspektu burutugabeko /n/-aren ezabaketa

$$[ \begin{smallmatrix} +\text{sudur} \\ \text{KOR} \end{smallmatrix} ] \rightarrow \emptyset / \#$$

Morfosintaxiarekin zerikusia duen fenomeno oso emankor hau aditzaren aspektu burutugabeen —hau da, *-t(z)en* atzizkian— aplikatzen da ondoren aditz laguntzaile bat edo partikula modal bat duenean —*ote* zalantzazkoa, *omen* ebidentziala, *al* galderazkoa edo *baldin* baldintzazkoa—. Hona hemen adibide batzuk:

/a.ni.ma.ṭṣeŋ ɣe.a/	> [a.ni.ma.ṭṣe ʏe.a]	‘animatzen gara’
/e.ṣa.ṭeŋ ni.ṣu.na/	> [e.ṣa.ṭe ni.ṣu.na]	‘esaten nizuna’
/xuṇ.ṭa.ṭṣeŋ ʃe.a/	> [xuṇ.ṭa.ṭṣeŋ ʃe.a]	‘juntatzen zara’
/i.kuṣ.ṭeŋ ʔe.ṭe.na/	> [i.kuṣ.ṭe ʔe.ṭe.na]	‘ikusten dudana’

Adibideetan ikusten denez, atzizkiaren bukaerako sudurkari koroariak ezabatzen dira, beti ere ondoren aditz laguntzaile bat edo aipatutako partikula modalak dituenean. Bestela, ondoren aditz laguntzailerik edo aipatutako partikularik ez dagoenean —perpaua bukaeran dagoenean edo beste partikularen bat duenean—, ez da ezabaketarik gertatzen:

11. **taula.** MSEZ1 fenomenoaren argitzeko asmatutako elkarriketa-adibideak, forma akastuna adierazita

Esaldi bukaeran	Aditz laguntzailea duela ondoan
—Zertan ai ziñan ba?	—Nei etzait bate gustatzen. / *gustatze.
—Kozinatzen. / *Kozinatze.	—Ba nei gustatze zait.

Hiztunetako batek, kaleko adineko gizonak hain zuzen, ekoizitako esaldi batean ere alde hori ederki ikusi daiteke: /ni peŋ.ṭsa.ṭṣe nun a.ɔ.ra.ṭṣeŋ aṭ nin.ṭsa.la/ ‘nik pentsatzen nuen *ahorratzen*<sup>17</sup> ari nintzela’.

MSEZ2: /a/ determinatzailearen ezabaketa

$$\left[ \begin{array}{l} + \textit{atzeko} \\ + \textit{beheko} \end{array} \right] \rightarrow \emptyset / \left[ \begin{array}{l} \pm \textit{goiko} \\ \pm \textit{atzeko} \\ (- \textit{beheko}) \end{array} \right] - [+ \textit{konts.}]$$

<sup>17</sup> *aurrezten* esan nahi du, gaztelaniatik hartua.

Nahiko ohikoa den fenomeno honetan, morfema determinatzailea (erakuslea) den /a/ ezabatzen da aurretik /a/ ez den beste edozein bokal<sup>18</sup> duenean eta ondoren kontsonante bat. Ikusi adibideak:

/a.kɛ.la.rɛ.an/	>	[a.kɛ.la.rɛn]	
/ɛ.rɔ.mɛ.ri.a βat/	>	[ɛ.rɔ.mɛ.ri βat]	
/gɔi.kal.ɔɛ.an/	>	[gɔi.kal.ɔɛn]	
/ɛ.ri.an/	>	[ɛ.rin]	‘herrian’
/ɔ.gɛi.ɬa βi.an/	>	[ɔ.gɛi.ɬa βin]	‘hogeita bian’
/iŋ.gu.ru.an/	>	[iŋ.gu.run]	
/gɛr.tu.kɔ.a.ʏɔ.a/	>	[gɛr.tu.kɔ.ʏɔ.a]	
/na.fa.rɔ.an/	>	[na.fa.rɔn]	‘Nafarroan’
/ʃɛ.krɛ.ɬu.ak/	>	[ʃɛ.krɛ.ɬuk]	

### MSEZ3: bat hitzeko [β.]-ren ezabaketa (bi /a/-ren artean)

$$\begin{array}{c} \text{EZP} \\ [+ \text{jarraitu}] \rightarrow \emptyset / \left[ \begin{array}{l} + \text{atzeko} \\ + \text{beheko} \end{array} \right] - \left[ \begin{array}{l} + \text{atzeko} \\ + \text{beheko} \end{array} \right] \\ + \text{ahots} \end{array}$$

Hemen, *bat* determinatzaileko [β.] ezabatzen da bi /a/-ren artean dagoenean.

/preʃ.pɛk.ɬi.βa βa.ɬɛ.kin/	>	[preʃ.pɛk.ɬi.βa.a.ɬɛ.kin]	‘perspektiba batekin’
/ʃu.lɔ βa.ɬɛ.ɬi i.u:/	>	[ʃu.lɔ.a.ɬɛ.ɬi i.u:] <sup>19</sup>	‘zulo batetik <i>uuu</i> (onomatopeia)’
/pɛr.ʃɔ.na βaɬ/	>	[pɛr.ʃɔ.na.aɬ]	‘pertsone bat’

<sup>18</sup> Aurretik /a/ ez den edozein bokal izan behar duela diogu *alaba* hitza bezalako hitzetan ez delako -a- determinatzailekerik gehitzen, euskara batuan bezalaxe. Alabaina, jakin badakigu beste hizkera batzuetan *az* bukatzen diren hitzei -a- determinatzailea gehitu eta aurreko *a* hori disimilatzen dela. Esaterako, mendebaldeko zenbait euskalkitan /a.la.βa.a/ > [a.la.βɛ.a] egiten dute.

<sup>19</sup> Adibide honen bukaeran MSEZ4’ fenomenoak aplikatu da, baina ez dio mintzagai dugunari eragiten.

**MSEZ4: /k/-ren ezabaketa (morfema gramatikalen bukaeran, kontsonante aurrean)**

*DOR*  
[- *jarraitu*] → Ø / \_# [+*konts.*]  
- *ahots*

Hainbat morfema gramatikalen bukaerako /k/ ezabatzen da hurrengo hitza kontsonantez hasten bada, hain zuzen, *-tik* atzizkiaren, absolutibo pluralaren eta ergatiboaren bukaerakoak —azken bi kasuetan, ezabaketaren ondorioz ø morfema geratzen da—.

/goi.t̪ik be.ɾa/	> [goi.t̪i be.ɾa]	‘goitik behera’
/or.du.βi.ta.t̪ik sei.ta/	> [or.du.βi.ta.t̪i sei.ta]	‘ordu bietatik seietara’
/guʂ.t̪ik bo.ta.t̪ʂe.a/	> [guʂ.t̪i bo.ta.t̪ʂe.a]	‘guztiak botatzera’
/ur.t̪i.ak da.ma.kiʂ.ki.ɣu/	> [ur.t̪i.a ða.ma.kiʂ.ki.ɣu]	‘urteak daramakizkigu’
/biʂ.kai.ta.rak di.a/	> [biʂ.kai.ta.ra ði.a]	‘bizkaitarrak dira’
/ʂe.la.ɟak si.an/	> [ʂe.la.ɟa si.an]	‘zelaiak ziren’
/oik bi.ɟak/	> [oi βi.ɟak]	‘horiek biak’
/u.mi.ak ci.ki.ɟak di.ɛ.ni.an/	> [u.mi.a ci.ki.ɟa i.ɛ.ni.an] <sup>20</sup>	‘umeak ttikiak direnean’
/ik ba al a.ki.nen/	> [i βa al a.ki.nen]	‘hik ba al hekien’
/guk ge.nun/	> [gu ge.nun]	‘guk genuen’

**MSEZ4': /k/-ren ezabaketa (morfema gramatikalen bukaeran, bokal aurrean)**

*DOR*  
[- *jarraitu*] → Ø / \_# [-*konts.*]  
- *ahots*

Aldaera honetan testuingurua baino ez da aldatzen, honakoan bokal baten aurrean gertatzen baita. Ez da inondik inora hain emankorra, seguruena CVCV egituraren kontrakoa delako.

<sup>20</sup> Azken hitzaren hasieran EZ1 aplikatu da uneko fenomenoaren ostean.

/ʒu.lə a.t̪e.t̪i i.u:/	> [ʒu.lə a.t̪e.t̪i i.u:]	‘zulo batetik <i>iuu</i> (onomatopeia)’
/b̪er.ʒo.la.jak a̪i.cu/	> [b̪er.ʒo.la.ja a̪i.cu]	‘bertsolariak aditu’
/biʒ.kai.t̪a.rak e.t̪o.r.t̪ʂe.i.a/	> [biʒ.kai.t̪a.ra e.t̪o.r.t̪ʂe.i.a]	‘bizkaitarrak etortzen dira’
/x̪eɲ.ɗi.ak a.pɾo.β̪e.t̪ja.t̪u/	> [x̪eɲ.ɗi.a a.pɾo.β̪e.t̪ja.t̪u]	‘jendeak aprobetxatu’
/ɲik uʒ.t̪e/	> [ɲi uʒ.t̪e]	
/ɲik e.ʒau.t̪ʂe/	> [ɲi e.ʒau.t̪ʂe]	‘nik ezagutzen’
/ɲik i.ku.ʒi/	> [ɲi i.ku.ʒi]	

**MSEZ5: /t̪/-ren ezabaketa (aditzeko morfema flexiboetan)**

<i>KOR</i>	
[ - <i>jarraitu</i>	] → ∅
[ + <i>hedatu</i>	
- <i>laxaketaluzakorra</i>	

Modu indikatiboko NOR-NORK aditz laguntzaileko ergatiboko 3. pertsona pluraleko marka, /t̪/, ezabatu egiten da, /u/ eta /e/ artean dagoenean. Salbuespenak dira NOR *ni* edo *hi* duten aditz laguntzaileak.

/ʒu.t̪eɲ/	> [ʒu.eɲ] <sup>21</sup>	
/ɗu.t̪e.nai/	> [ɗu.e.nai]	‘dutenei’
/ɗu.t̪e/	> [ɗu.e]	
/xar.t̪ʂe.u.t̪e.na/	> [xar.t̪ʂe.u.e.na] <sup>22</sup>	‘jartzen dutena’
/eɸ.ki.ko.u.t̪e/	> [eɸ.ki.ko.u.e]	‘edukiko dute’

Ikusi daitekeenez, /t̪/ ezabatuta ere /e/ bokalak argi uzten du ergatibo plurala hirugarren pertsona pluralekoa dela. Absolutiboa plurala denean (objektu plurala), euskara estandarrean *z* bat gehitzen zaio *t* morfemari. Dena dela, gehikuntza berria da eta Hernaniko hizkeran ez dirudi sakoneko forman dagoenik. Horregatik, pluralean *z*-rik ere ez agertzea espero izatekoa da:

<sup>21</sup> Hernanin, estandarreko *zuen* /ʒun/ da beti; beraz, ez da nahasgarria.

<sup>22</sup> Azken bi adibideotan, EZ1 fenomenoak aplikatu da aditz laguntzaileko /ɗ/ ezabatzeke.





asimilazio bera gerta litekeela ondoriozta daiteke, nahiz eta elkarrizketetan ez dugun halako adibiderik topatu. Hona hemen adibide batzuk:

/ʒuɲ ɬa/	> [ʒuɲ ɬa]	‘zuen eta’
/na.ɔɲ ɬa/	> [na.ɔɲ ɬa]	‘nengoen eta’
/ni.ʝo.ɬɛɲ ɬa/	> [ni.ʝo.ɬɛɲ ɬa]	‘nien eta’
/ɛ.ʒaɲ ɬa/	> [ɛ.ʒaɲ ɬa]	‘esan eta’

### MSAS1': /t̪/-ren asimilazioa (bokal baten ostean)

$$\begin{array}{c} \text{KOR} \\ [- \text{jarraitu}] \\ [- \text{ahots}] \\ + \text{hedatu} \end{array} \rightarrow \begin{array}{c} [+ \text{jarraitu}] \\ [+ \text{ahots}] \end{array} / [\text{konts.}] -$$

Fenomenoaren aldaera honetan, *ta* partikulako /t̪/-k aurretik bokal bat duenean, /t̪/-a ahostun hurbilkari bihurtzen da —[ð̪]— bokal artean gertatzen delako. Adibide batzuk:

/i.ɬɛ.a ɬa/	> [i.ɬɛ.a ð̪a]	‘egitea eta’
/i.ku.ʒi.ɬa ɬa/	> [i.ku.ʒi.ɬa ð̪a]	‘ikusita eta’

### MSAS2: /d̪/-ren ahoskabetzea (asimilazioa)

$$\begin{array}{c} \text{KOR} \\ [+ \text{jarraitu}] \\ [+ \text{hedatu}] \\ + \text{ahots} \end{array} \rightarrow \begin{array}{c} [+ \text{ahots}] \\ [- \text{jarraitu}] \end{array} / \left[ \begin{array}{c} - \text{ahots} \\ \text{KOR} \\ + \text{jarraitu} \\ + \text{karrankari} \\ + \text{hedatu} \end{array} \right] -$$

MSAS1 fenomenoan ez bezala, fenomeno honetan aditz laguntzaile baten hasierako [ð̪]-a ahoskabe bihurtzen da —[t̪]— *ez* partikulako /s̪/-ren ondoren.

/e̞.ʝa.ka.ʃu/	> [e̞.ʝa.ka.ʃu]	‘ez daukazu’
/e̞.ʝa/	> [e̞.ʝa]	‘ez da’
/e̞.ʝu/	> [e̞.ʝu]	‘ez du’
/e̞.ʝen/	> [e̞.ʝen]	‘ez dun’

Iraupenari dagokionez, bi grabazioetan lehenik berriemaileak soilik hitz egiten zuen zatiak identifikatu dira. Hizkera zainduko grabazioan kontuan hartutako corpusak 1:53.12ko iraupena du; hizkera arduragabeak, aldiz, 2:12.47koa. Hasiera batean, bi grabazioen iraupena berdina izatea pentsatu zen, bi minutu ingurukoa. Baina bokalak kontatzen hastean, kopuru aldetik bazen desberdintasunik, eta, beraz, bokal-kopurua berdindu nahian, hizkera zainduko grabazioko corpusa pixka bat laburragoa izatea, eta arduragabekoa zertxobait luzeagoa izatea erabaki zen. Jarraian, berriemaileak hizkera-maila bakoitzean ekoizitako bokaletatik azterketarako hautatutako bokal-kopurua adierazten duen taula emango da.

### 1. taula. Hizkera-maila bakoitzetik azterketarako hartutako bokal-kopurua

	a	e	i	o	u	Guztizkoa
<b>Hizkera zaindua</b>	154	124	65	76	47	<b>466</b>
<b>Hizkera arduragabea</b>	164	104	73	72	32	<b>445</b>

<sup>5</sup> Datu tekniko horiek guztiak Joseba Arzallus irratiko teknikariari esker eskuratu dira.


## 5. Analisi akustikoa

### 5.1 Analisi akustikoaren nondik norakoak

Behin erabiliko den corpusa eskura eta ondo definituta izanda, bokalen azterketa akustikoa burutu da, eta, horretarako, batez ere Praat programa erabili da. Lehenengo pausoa berriemaileak zein zatitan hitz egiten duen identifikatzea izan da<sup>6</sup>, eta zati horiek hiru segundoko zatietan edo laburra-goetan banatzea, kronologikoki zenbatuta. Garrantzitsua da hain zati laburrak hautatzea espektrogramak hobeto irudikatzen direlako, eta, beraz, errazago lan egiteko aukera ematen duelako. Zati horiek prest izanda, hurrengo pausoa espektrogrametan bokal bakoitza identifikatzea izan da. Horretarako, audio-zati bakoitzerako Textgrid bat sortu da; bertan, ekoiztako hitzak lerro batean adierazi dira, eta bokalak beste batean, bokal bakoitzaren hasiera eta amaiera mugatuz.

Jarraian, hizkera zainduko grabazioko hotsen segmentazioaren adibide bat aurkeztuko da:

#### 4. irudia. Hotsen eta bokalen segmentazioa Praat programan



<sup>6</sup> Bi grabazioekin prozedura berdina jarraitu da.

Irudi horri erreparatuz gero, ikus daiteke ikerketa honetan ez direla ekoitzitako bokal guztiak kontuan hartu. Hain zuzen ere, hauek dira ikerketatik kanpo utzitako bokalak:

- Bokal sudurkariak
- Diptongoak
- Garbi bereizten ez diren hiatoak edo elkarren ondoan ageri diren bokalak
- Bokal luzeak

Erabaki hori ondorengo irizpideak erabilia hartu da. Batetik, bokal sudurkariak, kontsonante sudurkariaren aurretik nahiz atzetik ageri direnak, ikerketatik at utzi dira, sudurkaritasunak formanteen balioetan eragiten duelako. Bestetik, diptongoak ere ez dira aztertu, bokalez bestelako nolokotasuna dute eta. Era berean, garbi bereizten ez diren hiatoak edo elkarren ondoan ageri diren bokalak ere kanpoan geratu dira. Izan ere, bokal horien arteko muga identifikatzea zaila izan da, batez ere hizkera arduragabeko grabazioan ekoitzitakoena; hizkera zainduan gehiago artikulatzen duenez, muga erabakitzea errazagoa izan da. Azkenik, bokal luzeak ere aztertu gabe geratu dira, diskurtsoa antolatzeke edo ideien arteko loturak egiteko denbora hartzean ekoitzitakoak; batik bat, ahozkotasunean hain ohikoa den *eeee*<sup>7</sup>.

Ondorengo eginkizuna mugatutako bokal horien formante balioak lortzea izan da. Horretarako, banan-banan eskuz kalkulatu beharrean, Krajewska eta Jauregik idatzitako *Fonetika akustikoa: Praat erabiltzeko eskuliburuan* partekatzen duten script bat erabili da (Krajewska eta Jauregi 2021: 54), zeinak aurrez mugatutako bokal guztien  $F_1$  eta  $F_2$  balioak (eta

---

<sup>7</sup> Zenbait ikerketatan bokal guztiak hartzen dira kontuan azterketa akustikoa egiterakoan. Aizpuruak (2017), adibidez, sudurkariak ere aztertu zituen. Baina ikerketa honetan, irizpide horiek hartzea erabaki da aztertutako bokalak elkarren artean ahalik eta nolokotasun antzekoena izateko, eta elkarren arteko bereizketarik ez izateko.

bokal horien iraupena) Exceleko taula batera ekartzen dituen<sup>8</sup>; kasu honetan, bi taula egin dira, hizkera-maila bakoitzeko bat.

Lortutako balioak eta datuak hobeto ikusarazteko, hainbat grafiko eta taula egin dira. Batetik, batez besteko balioak biltzen dituen taula nahiz diagramak sortzeko, aipatu berri den eskuliburuan luzatzen den Exceleko txantilo bat erabili da (*ibidem*: 59). Bestetik, datu gehiago erakusteko baliagarriak diren diagrama gehiago lortzeko helburuarekin (bokalen balio guztiak eta horien multzokatzeak ageri dituztenak), R programa ere erabili da Dorota Krajewska irakasleak utzitako kodeari esker<sup>9</sup>. Hainbat parametro aldatu ostean, emaitzak lortzeko grafikoak sortu dira<sup>10</sup>, eta horiek ere hurrengo atalean erakutsi eta aztertuko dira.

## 5.2 Datuak eta emaitzak

Atal honetan, eskuratutako datuak aurkeztu eta interpretatuko dira. Bidualagoak eta ulergarriagoak izateko, datu eta emaitzak taula eta grafikoetan jasotzea erabaki da, elkarren ondoan ezarririk (lehenik hizkera-maila zaindua eta, ondoren, hizkera-maila arduragabea), bi hizkera-mailen arteko aldea eta konparazioa hobeto ikus eta uler dadin. Era berean, aurrekarien atalean aipatutako ikerketetako emaitzekin alderatuko dira ikerketa honetan lortutakoak.

Grafikoak aurkeztu aurretik, taula hauetan hizkera-maila bakoitzean ekoizitako bokalen  $F_1$  eta  $F_2$  balioen datu orokorrak bildu dira:

<sup>8</sup> Formanteen balioak lortzeko hainbat modu eta metodo daude, ohikoena bokal bakoitzaren iraupenaren arabera erdiko puntuaren balioak hartzea da, eta hori da ikerketa honetan erabilitakoa. Halere, Houzar eta Skarnitzlek (2023) erdiko puntuko balioak erabiltzeaz gain, beste bi metodo ere erabili zituzten hizketa zaindu eta arduragabeen ekoizitako bokalen azterketa akustikoa egiterakoan: bokal bakoitzaren bigarren herenaren batez besteko balioak erabiltzearena eta bokalen iraupenaren % 20 eta % 80 bitarteko balioak erabiltzearena (hasierako eta amaierako % 20ak alde batera utziz) alboko segmentuen eragina ahalik eta txikiena izateko. Metodo batekin zein bestearekin eskuratutako emaitzek aldakortasun nabarmena erakusten dute (Houzar eta Skarnitzl 2023: 90).

<sup>9</sup> Krajewska irakasleari eskerrak eman nahiko nizkioke ikerketa hau aurrera eramateko zein behar bezalako grafiko eta irudiak eskuratzeko ezinbestekoa izan den kodea inongo eragozpenik gabe uzteagatik.

<sup>10</sup> Datuen Zientzia ikasten ari den Haritz Irastorza Arzak lagundu dit grafikoak eskuratzen.

**2. taula.** Hizkera-maila zainduan ekoiztako bokalen F1 eta F2ren batez besteko balioak eta balio maximoak eta minimoak

HIZKERA ZAINDUA	Batez bestekoa		Balio minimoa		Balio maximoa	
	F2	F1	F2	F1	F2	F1
a	1714,99	814,31	956	528	2369	1003
e	2074,43	544,20	847	340	2630	779
i	2459,91	390,08	1210	288	2899	504
o	1115,97	525,11	820	379	1545	683
u	1096,38	417,62	686	344	2083	686

**3. taula.** Hizkera-maila arduragabeen ekoiztako bokalen F1 eta F2ren batez besteko balioak eta balio maximoak eta minimoak


HIZKERA ARDURAGABEA	Batez bestekoa		Balio minimoa		Balio maximoa	
	F2	F1	F2	F1	F2	F1
a	1685,05	748,10	775	455	2487	945
e	2129,59	545,37	856	430	2678	716
i	2413,42	423,78	1012	300	3035	737
o	1134,33	548,18	779	349	2064	837
u	1205,84	437,78	712	320	2340	712

Bi hizkera-mailetan ekoiztako bokalen bi formanteen batez besteko balioei dagokienez, ez da alde handirik hizkera-mailen artean, balio batzuk gorabehera. Balio minimoei erreparatuz, aldiz, bi formanteen kasuan, hizkera arduragabeen (3. taula) ekoiztako balioak baxuagoak dira hizkera zainduan (2. taula) ekoiztakoekin alderatuta. Batez ere, F<sub>2</sub>ren kasua nabarmendu beharko litzateke: /a/ eta /i/ bokalen F<sub>2</sub>ren balioak askoz altuagoak baitira hizkera zainduan. Bestalde, balio maximoetan desberdintasun nabarmenagoak atzeman daitezke: bi formanteen kasuan /i/, /o/ eta /u/-ren balio maximoak hizkera arduragabeen askoz altuagoak dira hizkera zainduan baino, nahiz eta F<sub>2</sub>ko balio maximoen arteko tartea izan ohargarriki handiena. Adibidez, hizkera arduragabeko /o/ bokalaren F<sub>2</sub>ko balio maximoa hizkera zaindukoarena baino 500 bat Hz gehiagokoa da.


Bokal guztiak ageri diren grafikoak kontuan hartuta (5. eta 6. irudiak), bietan bokalen kokapena nahiko zabala dela esan daiteke, baita V formako itxura dutela ere, esperotako triangelu itxura, alegia. Hizkera zainduan, oro har, bokal desberdinen gauzatze-eremuak ongi bereizten dira; izan ere, bokal bakoitzaren koloreak ondo bereizita ageri dira. Hizkera arduragabeen, aldiz, nahiz eta bokalen balioek osatutako irudiak triangelu itxurari eutsi,

koloreak gehiago nahasten dira (hala nola puntu urdinak puntu hori nahiz gorriekin); beraz, bokalen gauzatze eremu horiek ez dira hain ongi bereizten. Ondorioz, bokalen balioak gehiago nahasten dira eta gertuago nahiz urrutiago dituzten bokalekin gainjarri.

**5. irudia.** Hizkera zainduan ekoitzitako bokal guztien balioak biltzen dituen grafikoa




**6. irudia.** Hizkera arduragabeen ekoitzitako bokal guztien balioak biltzen dituen grafikoa




Ondoko irudietan, arestian deskribatutako grafikoetako (5. eta 6. irudiak) datu berdinak (ekoiztako bokalen balio guztiak) ageri dira, baina beste era batera emanak: balio horiek osatutako multzokatzeen bidez<sup>11</sup>. Izan ere, multzo horiek bokalen arteko balioen gainjartzeak ikusteko lagungarriagoak dira. Azpimarratzekoa da hizkera zainduko multzoak (7. irudia), gainjartzeren bat egon arren, elkarrengandik bereziago agertzen direla eta balio muturrekoagoak dituztela. Hizkera arduragabeko multzoek (8. irudia) biltzen dituzten balioek, aldiz, aldakortasun handiagoa dute, eta, beraz, askoz gainjartze handiagoa erakusten dute, multzoak elkarrengandik gertuago egonik, pilatuago edo. Esaterako, hizkera arduragabeko /e/, /i/ eta /u/ bokalen multzoak eremu txiki batean elkartu egiten dira, eta hiru bokalen multzoak gainjartzen dira; ez da halakorik hizkera zainduko diagraman.

**7. irudia.** Hizkera zainduan ekoiztako bokal guztien balioak multzotan biltzen dituen grafikoa



<sup>11</sup> Multzoek balio guztien % 90 biltzen dute. Balio guztiak islatu nahi zirenez, multzoen barnean zein kanpoan dauden puntutxoak agerian uztea erabaki da.


8. irudia. Hizkera arduragabeen ekoiztako bokal guztien balioak multzotan biltzen dituen grafikoa




Amaitzeko, bi hizkera-mailetan ekoiztako bokalen balioen batezbestekoek osatutako triangeluak sortu dira<sup>12</sup>. Biek triangelu itxura izanagatik, hizkera zainduko balioak (9. irudia) muturrekoagoak dira, hala nola /i/ oso aurrean ahoskatzen da (grafikoan ezkererago ageri da,  $F_2$ ren balio altuagoa duelarik), eta /a/ oso irekita (grafikoan beheago ageri da). Dena den, bokal bakoitzak esperotako balioak ditu gutxi gorabehera, besteak beste, erdiko bokalek (/e/ eta /o/)  $F_1$ en balio antzekoak ageri dituzte. Hizkera arduragabeen (10. irudia), berriz, /u/ oso aurrean ahoskatzen dela erakusten du grafikoak, /o/ baino aurrerago hain zuzen ere (grafikoan ezkererago ageri delako). Hori ez da espero izatekoa bokalen ohiko diagrama edo triangeluetan, /u/ izaten baita atzean ahoskatzen, eta, hortaz, grafikoan eskuinen irudikatzen den bokala. Gainerako bokalek ohiko balioak erakusten dituzte, eta hemen ere nabarmentzekoa da erdiko bokalek mihiaren irekierari dagokionez ( $F_1$ ) antzeko balioak dituztela.

<sup>12</sup> Triangeluak ageri diren grafikoetako ardatz horizontalak  $F_2$ ren balioak ageri ditu.

**9. irudia.** Hizkera zainduan ekoiztako bokalen batez besteko balioek osatzen duten diagrama




**10. irudia.** Hizkera arduragabeen ekoiztako bokalen batez besteko balioek osatzen duten diagrama



Azkenik, bi bokal-triangelu horien desberdintasuna hobeto ikusteko, bi triangeluak (9. eta 10. irudietan azaldutakoak) elkarren gainean jarrita ageri diren grafiko bat gehitu da, aurretik ikusitakoa berresten duena. Hizkera zainduan ekoiztako bokalek eremu zabalagoa hartzen dute, triangelu handiagoa osatuz, muturrekoagoak diren balioak biltzen dituelarik. Hizkera arduragabeen ekoiztakoak, aldiz, eremu murriztago batean kokatzen dira oro har, triangelu txikiagoa osatuz, eta elkarrengandik gertuago daude. Hau da, kasu honetan, bost bokalen arteko desberdintasunak ez dira hain muturrekoak.

### 11. irudia. Hizkera-maila zaindu nahiz arduragabeen ekoiztako bokal-triangeluak elkarren gainean jarrita



### 5.3 Ondorioak

Hasteko, esan daiteke, nahiz eta bi hizkera-mailetan ekoiztako bokal desberdin bakoitzaren batez besteko balioen artean desberdintasunak izan, balioak elkarrengandik nahiko gertu daudela, eta ez dela alde nabarmenik. Dena den, bokalen balio guztiak aintzat hartuz gero, hizkera arduragabeko datuek aldakortasun handiagoa erakusten dute, balio desberdinagoak erakutsiz. Izan ere, bildutako balio minimo eta maximo baxu eta altuenak dituzte, salbuespenak salbuespen, eta hortaz, hizkera zainduko bokalen balioak elkarren artean antzekoagoak direla ondoriozta daiteke, ekoiztako bokal bakoitzaren tasunak ere antzekoagoak direlarik.

Aldakortasun hori bokal guztien balioak ageri dituzten grafikoetan (5., 6., 7. eta 8. irudiak) garbi ikus daiteke. Hizkera arduragabeen osatutako eremua triangelu itxurakoa izanagatik, bokal bakoitzaren gauzatze-eremua ez da hain garbia, bokalen balioak askoz gehiago nahasten baitira elkarren artean, eta, beraz, askoz gainjartze gehiago daude. Hizkera zainduan (7. irudia), aldiz, oro har, ekoiztako bokalen gauzatze-eremuak ongi bereizita ageri dira, baina egia da ez zirela hainbeste gainjartze espero. Esaterako, /o/ eta /u/ bokalen balioak aski gainjarrita ageri dira, eta, neurri batean, baita /i/ eta /e/ bokalenak ere. Beraz, esan daiteke hipotesia betetzen dela,

izan ere, hizkera arduragabeen ekoizitako bokalen balioak elkarrengandik gertuago daude; hizkera zainduko bokalenak, berriz, elkarrengandik urrunago. Dena den, alde nabarmenagoa espero zen bi hizkera-mailen arteko balioen artean, batez ere gainjartzei dagokienez: hizkera zainduan ez zen ia gainjartzerik espero, edo izatekotan, oso gutxi eta txikiak.

Azkenik, bi hizkera-mailetan ekoizitako bokalen batez besteko balioekin osatutako triangelui erreparatuz (9., 10. eta 11. irudiak), joera garbi bat atzeman daiteke beste behin: espero genuen bezala, hizkera zainduan ekoizitako bokalek eremu zabalagoa hartzen dute hizkera arduragabeen ekoizitakoekin baino, horien batez besteko balioak ez direlako hain muturrekoak. Hortaz, hizkera zainduan triangelu handiago bat dugu, eta arduragabeen txikiagoa.

#### 5.4 Alderaketa

Atal honetan, aurretik aipatutako zenbait ikerketa aipatuko dira berriro, ikerketa honetan lortutako emaitzak horietakoekin konparatzearren. Hasieran esan bezala, gutxi dira oraino hizkera arduragabea eta zainduan ekoizitako bokalak erkatu dituzten ikerketak euskal fonetika eta fonologiaren alorrean. Haatik, euskarazko bokalen azterketa akustikoak behin baino gehiagotan egin dira, eta horiek izango dira atal honen habe.

Goizuetako hizkeraren azterketa da aipatuko den lehena (Hualde, Lujanbio eta Zubiri 2010). Bertan Goizuetako bi gizonen ekoizitako bokalen batez besteko balioek sortutako bokalen triangela osatu zuten. Kasu horretan, berriemaileek *Ipar haizea eta eguzkia* ipuina irakurri zuten euren hizkeran (Goizuetakoan), eta bertatik ateratako datuak aztertu ziren. Ikerketa honetako datuekin konparatuz, datu hau nabarmentzekoa da: Goizuetako berriemaileek aurreen ahoskatzen diren bokalak (/a/, /e/ eta /i/) ikerketa honetako berriemaileak, bi hizkera-mailetan, baino askoz atzerago ahoskatzen dituzte (ikerketa honetako berriemaileak baino 500 bat Hz gutxiago  $F_{2n}$ ). Era berean, /i/ irekiago (mihia beherago kokatuta) ahoskatua da.

Hurrengo ikerketa Markinako euskararen gainekoa da (Bedialauneta eta Hualde 2023). Besteak beste, bertako hizkeran ekoizitako bokal-triangela

aztertzen du. Kasu horretan ere, bertako hizkeran aurreko ahapaldian aipatu berri den ikerketan erabilitako testu bera irakurri izanari zor zaizkio lortutako emaitzak, baina berriemaile bakar baten datuak dira, hogeitau urte inguru dituen emakume batenak<sup>13</sup>. Formanteen balioak neurtzean erabilitako metodologia lan honetan erabilitako berdina da eta lortutako bokalen balioak ere ikerketa honetako gehiago hurbiltzen zaizkie, hizkera zaindukoei batez ere. Izan ere, lortutako emaitzak antzekoak dira, nahiz eta Markinako triangeluan ia gainjartzerik ez egon eta multzoak askoz txikiagoak izan (bokal bakoitzerako hogeitau gauzateren lagina hartzen dute).

Zaldibiako bokalen azterketa akustikoari helduko zaio jarraian (Etxeberria 1990a). Arestian aipatu bezala, hamar gizezko fitxetatik irakurri beharreko esaldietatik lortutako balioak dira ikerketa horretakoak. Berriemaile guztien batez besteko datuei erreparatuz gero (Etxeberria 1990a: 243), oro har, formanteek ikerketa honetakoak baino balio baxuagoak erakusten dituzte (200-300 Hz-eko aldea bi formanteetan)<sup>14</sup>. Bestetik, multzoak askoz banatuago eta bereziago daude, eta ez dago inolako gainjartzerik (*ibidem*: 244). Aipatzekoa da, hizkerari dagokionez, ikerketa honetara gehien hurbiltzen dena dela Etxeberriaren lanekoa, geografikoki oso gertu dauden herriak direlako Itsasondo eta Zaldibia, berriemaile guztiak goieritarrak izanik.

Azkenik, Ainhoa Aizpuruaren (2017) laneko datuekin alderatuko dira ikerketa honetakoak. Kasu honetan, bi berriemaileak emakumeak dira eta erkatzen diren bi hizkerak (hizketa laua eta bertsoa) hizkera zainduari dagozkio, maila desberdinetan izanagatik ere. Alde hori azpimarratu beharrekoa da, izan ere, hitz lauz ekoiztako bokalen triangeluek, bi berriemaileen kasuan, eremu murrizagoa osatzen dute, hau da, bertsotan are muturrekoagoak diren balioak biltzen dira. Dena den, balioei erreparatuz gero, bi triangelu horiek ikerketa honetan lortutako biek antzekotasun handia dutela esan daiteke; bertsotako balioak hizkera zainduarekin eta hizketa laua hizkera arduragabearekin konpara daitezke kasu askotan, nahiz eta aldake-

<sup>13</sup> Emakume hori ikerketa horren autoreetako bat da, eta hori kontuan hartu beharko litzateke emaitzak aztertzerakoan.

<sup>14</sup> Seigarren atalean azalduko den moduan, oro har, emakumeek gizezkoek baino formante balio altuagoak izan ohi dituzte; ondorioz, horrek bi ikerketen arteko desberdintasuna azal lezake.

tak izan. Goiko bokalek eta erdiko bokal irekiak, oro har, antzeko balioak dituzte. Erdiko bokaletan aldaketa gehiago ageri dira: Lujanbioren kasuan, bertsotan batez ere, askoz beherago ekoitziak dira, eta baita atzerago ere (/e/). Alberdiren kasuan, berriz, /o/ oso itxia da, ia ikerketa honetako /u/-ren parekoak izanik haren balioak.

## 6. Ondorio orokorrak eta aurrera begirakoak

Lan honen helburu nagusia euskararen ahoskeraren aldakortasuna aztertzea izan da, eta, horretarako, bi hizkera-maila desberdinetan (zainduan eta arduragabeen) ekoitzitako bokalen azterketa akustikoa burutu da; izan ere, euskararen alorrean bokalen azterketa akustiko dezente egonagatik, hizkera-mailak kontuan hartzen dituztenak gutxi dira, eta are gutxiago hizkera arduragabearen gainean egindakoak.

2.4 atalean azaldu den moduan, hipotesi gisa, balio desberdinak erakusten zituzten bi triangelu lortzea espero zen. Batetik, hizkera zaindurako, balio muturrekoagoak izango zituena eta, beraz, handiagoa izango zena. Izan ere, hizkera-maila horretan, bereziki ahoskerari erreparatzen zaionez, bokalak gehiago artikulatu eta bokalen tasunak indartzea da gertagarriena. Bestetik, hizkera arduragaberako, bokalen arteko aldakortasun handiagoa erakutsi eta balioak pilatuago ageriko zituen triangelu bat espero zen. Ahoskerari ez zaionez hainbeste erreparatzen, segmentuak (gure kasuan, bokalak) ahoskatzeko modu errazena aukeratzen baita, artikulazioen arteko distantzia artikulatorioa laburtu eta, beraz, bokalen tasunak ahulduz, elkarrengana gehiago hurbiltzen dira. Emaitzak bildu eta interpretatu ostean, hipotesia bete dela esan daiteke.

Gainerako euskarazko ikerketak aztertu eta ikerketa honekin konparatu ondoren, zenbait ondorio ateratzeko beta izan da. Hasteko, jakina da ikerketa honetako berriemailea hizkera zainduan hitz egitera ohituta dagoela, erregistro hori bere egunerokoaren parte izanik, hainbeste non ikerketa honetako hizkera arduragabea nahikoa hurbiltzen den Aizpuruak (2017) landutako hizketa lauho balioetara. Horregatik, pentsa daiteke, berriemaileak ahoskerarekiko kezka berezia duela, gainerako hitzun gehienek ez bezala,

eta nahiz eta ahoskerari horrenbeste erreparatu behar ez zaion hizkeran jardun, berak nahigabe bada ere, erreparatzen diola. Horrek azaldu lezake, esaterako, triangelu batetik besterako tartea hainbestekoa ez izatea.

Bestalde, aurreko atalean (5.4 atala) ikusi berri da euskaraz egindako bokalen azterketa akustikoek antzeko itxura izanagatik (V edo triangelu forma), horietako oro desberdina dela. Nahiz eta balio antzekoen inguruan ibili, aldakortasun nabarmena adierazten dute, eta hori batez ere berriemailearen profilaren eta generoaren arabera nahiz ikerketa aurrera eramateko erabilitako metodologiaren arabera izan daiteke.

Berriemailearen profila erabakigarria da, besteak beste, aurreko ahalpandian esandakoagatik. Kasu honetan, berriemaileak hizkera zaindua asko erabiltzeak nahiz ahoskerarekiko ardura izateak lortutako emaitzetan eragina izan du ziurrenik. Generoari dagokionez, aldiz, Praaten gidaliburuan (Boersma 2022) honakoa azaltzen da: «An average adult female speaker has a vocal tract length that requires an average ceiling of 5500 Hz (which is Praat's standard value), an average adult male speaker has a vocal tract length that requires an average ceiling of 5000 Hz». Beraz, hori ulertuta, espero izatekoa da gizonaen balioak baxuagoak izatea emakumeenak baino. Halaber, erabilitako metodologiak zenbateraino eragin dezakeen erakutsi dute Houzar eta Skarnitzlek (2023: 93):

To conclude, this study has shown that caution should be taken when comparing results of different studies which analyze vowel formants: different extraction methods may provide rather diverging results, and interpretation may thus be less straightforward than it appears.

Horrez gain, ikerketa hau baliagarria izan da hiztunek fonologikoki, eta ez fonetikoki, jokatzeko dutela jabetzeko. Hizkera arduragabeko datuek (6. irudia) erakusten dute hori garbien, izan ere, hainbat bokal euren eremutik oso urrun ageri dira. Hala nola, /e/ gisa identifikatutako zenbait bokalek /u/ren zenbait gauzatzen balio berdina dituzte; baina halere, /e/ izango balira bezala identifikatu eta hautematen dira. Halaber, gertakizun hori bokal desberdinekin gertatzen da hizkera arduragabeen. Hau da, ohikoa da, bokal batek beste bokal baten gauzatzen balio fonetiko berdina izanagatik, fonologikoki identifikatu eta ohartzea, eta, beraz, bokalen balioak gainjarrita agertzea.

Era berean, marko teorikoan (2. atala), *fortitio* eta *lenitio* banaketa landu da, garbi azalduz *fortitio*ak hizkera zainduari dagozkiola, eta *lenitio*ak, berriz, arduragabeari. Ikerketa honekin baieztapen hori beste behin berretsi da. Hizkera zainduan, ahoskerari erreparatzen zaion neurrian, bokalak bereizteko ahalegin handiagoa egiten da. Segmentuak (bokalak) gehiago artikulatzen dira, elkarren arteko distantzia areagotuz, eta, beraz, bokalen tasunak indartuz. Horregatik, bokalen balioak desberdinagoak dira elkarren artean eta ez dira horrenbeste gainjartzen. Hizkera arduragabeen, aldiz, ahoskerari hainbeste erreparatzen ez zaionez, artikulazioak erlaxatuago daude, eta ondorioz, elkarrengandik gertuago. Beraz, ahoskatzeko erraztasuna lehenesten denez, bokalak artikulatzean bokalen tasunak ahuldu egiten dira eta *lenitio*ak gertatu. Hortaz, erregistro zainduan *fortitio*ak nagusituko dira eta erregistro arduragabeen *lenitio*ak. Alta, lehen esan bezala, ikerketa honetako berriemaileak kezka berezi bat azaltzen du ahoskerarekiko; beraz, desberdintasuna ez da hainbestekoa izan.

Ikerketa hau euskal fonetika eta fonologiaren alorrean hondar-ale txiki bat besterik ez da, izan ere, hizkera-mailen aldakortasunaren gainean oraindik asko dago aztertzeko. Hasteko, lan honetan bokalak bakarrik erabili dira neurgai gisa, baina ez lirateke bakarrak izan beharko hizkera-mailen arteko aldakortasuna erabat ulertu nahi bada. Horregatik, egokiena fonema guztiak (edo gehienak behintzat) aztertzea litzateke. Era berean, analisi-metodologia bakarra erabili da, baina interesgarria izango litzateke era askotakoak erabili eta lortutako emaitzak zertan diren ikertzea.

Berriemailearen nolakotasunari dagokionez, garbi erakutsi da ikerketak berriemailearen baitakoak direla. Beraz, berriemaile gehiago aztertzea beharrezkoa izango da aldakortasun horren nondik norakoak hobeto ulertu eta ondorio osatu eta orokorragoak ateratzeko, hala nola genero, adin, hizkuntza ohitura, hizkera, ikasketa, etab. desberdinak dituztenak. Bestalde, ikerketa honetan muturrekoenak izan daitezkeen bi hizkerak erkatu dira, baina tartean hizkera-maila gehiago ere badirela ikusi da, Laboven sailkapenean (1996 [2006]) edo Joosenean (1967). Horregatik, batetik bestera zenbaterainoko eta nolako aldakortasuna dagoen ulertzeko, hizkera-maila gehiago ikertzea ere baliagarria izango litzateke.

## Bibliografia

AIZPURUA, Ainhoa (2017). «Bokal triangeluaren erpinak: bi bertsolari aztergai hitz lauz eta bertsotan», in Alegria, A. Latatu, M. J. Omaetxebarria eta P. Salaberria (arg.), *II. Ikergazte. Nazioarteko ikerketa euskaraz (1. liburukia)*. UEU. <https://doi.org/10.26876/ikergazte.ii.01.14>

APEZETXEA, Ane (2024). *Goizuetako bokal azentudun eta azentugabeen aldakortasuna*. Gradu amaierako lan argitaragabea, Euskal Herriko Unibertsitatea.

ARBULU, Begoña (1998). «Contribución al sistema vocálico del español como lengua extranjera: el caso de una hablante nativa de georgiano». *ASELE. Actas IX*. Centro Virtual Cervantes. <https://dialnet.unirioja.es/descarga/articulo/891503.pdf> (2025eko irailaren 18an kontsultatua).

BEDIALAUNETA, Izaro eta HUALDE, José Ignacio (2023). «Markina Basque», *Journal of the International Phonetic Association* 53 (1): 1095-1121. <https://doi.org/10.1017/S0025100322000032> (2025eko irailaren 18an kontsultatua).

BOERSMA, Paul eta WEENINK, David (2021). *Praat: Doing Phonetics by Computer* (6.1.51 bertsioa) [ordenagailu-programa]. University of Amsterdam. <https://praat.org/> (2026ko otsailaren 20an kontsultatua).

BOERSMA, Paul eta WEENINK, David (2022). «Sound: To Formant (burg)...», *Praat manual*. University of Amsterdam. [https://www.fon.hum.uva.nl/praat/manual/Sound\\_\\_To\\_Formant\\_\\_burg\\_\\_\\_\\_.html](https://www.fon.hum.uva.nl/praat/manual/Sound__To_Formant__burg____.html) (2025eko irailaren 18an kontsultatua).

DONEGAN, Patricia Jane eta STAMPE, David (1979). «The study of Natural Phonology», in D.A. Dinnsen (arg.), *Current approaches to Phonological Theory*. Indiana University Press. [https://www.researchgate.net/publication/208033185\\_The\\_study\\_of\\_Natural\\_Phonology](https://www.researchgate.net/publication/208033185_The_study_of_Natural_Phonology) (2025eko irailaren 18an kontsultatua).

DONEGAN, Patricia Jane eta STAMPE, David (2009). «Hypotheses on Natural Phonology», *Poznan Studies in Contemporary Linguistics* 45 (1): 1-31. <https://doi.org/10.2478/v10010-009-0002-x> (2025eko irailaren 18an kontsultatua).

ECKERT, Penelope eta LABOV, William (2017). «Phonetics, phonology and social meaning», *Journal of Sociolinguistics* 21 (4): 467-496. <https://doi.org/10.1111/josl.12244> (2025eko irailaren 18an kontsultatua).

EITB. (2025). «Hotzaren eragina abereetan eta Geneva belaunaldia». *Landaberri*, Euskadi Irratia, 2025eko urtarrilaren 18a. Audioa. <https://guau.eus/m/euskadi-irratia-landaberri-20250118-0905> (2026ko otsailaren 20an kontsultatua).

ETXEBERRIA, Pilar (1990a). *Zaldibiako bokalen azterketa akustikoa*. Deustuko Unibertsitatea-Mundaiz.

ETXEBERRIA, Pilar (1990b). «Zaldibiako bokalen lehen bi formakinen araberako azentuaren azterketa akustikoa», in E. Perez eta P. Urkizu (arg.), *Patxi Altumari omenaldia*. Deustuko Unibertsitatea-Mundaiz: 85-115.

HALLIDAY, Michael eta KIRKWOOD, Alexander (1985). «Part A», in M.A.K. Halliday eta R. Hasan (arg.), *Language, context, and text: Aspects of language in a social-semiotic perspective*. Oxford University Press, Deakin University Press.

HARMEGNIES, Bernard eta POCH-OLIVÉ, Dolors (1992). «A study of style-induced vowel variability: Laboratory versus spontaneous speech in Spanish», *Speech Communication* 11: 429-437. [https://doi.org/10.1016/0167-6393\(92\)90048-c](https://doi.org/10.1016/0167-6393(92)90048-c) (2025eko irailaren 18an kontsultatua).

HOUZAR, Alžběta eta SKARNITZL, Radek (2022). «Intra- and inter-speaker variability of vowel space using three different formant extraction methods», *AUC Philologica* 1: 83-95. <https://doi.org/10.14712/24646830.2022.30> (2025eko irailaren 18an kontsultatua).

HUALDE, José Ignacio, LUJANBIO, Oihana eta ZUBIRI, Juan Joxe (2010). «Goizueta Basque», *Journal of the International Phonetic Association* 40 (1): 113-127. <https://doi.org/10.1017/S0025100309990260> (2025eko irailaren 18an kontsultatua).

HURCH, Bernhard (1993/2006). «Natural Phonology», in *Encyclopedia of Language and Linguistics*. Elsevier.

JOOS, Martin (1961 [1967]). *The five clocks*. Harcourt, Brace & World. <https://archive.org/details/fiveclockslingui0000mart/mode/1up> (2025eko irailaren 18an kontsultatua).

KRAJEWSKA, Dorota eta JAUREGI, Oroitz (2021). *Fonetika akustikoa: Praat erabiltzeko eskuliburua*. Euskal Herriko Unibertsitatea. <https://ikasmaterialak.ehu.eus/hizkuntza-ikasketak/fonetika-akustikoa> (2025eko irailaren 18an kontsultatua).

LABOV, William (1996 [2006]). *The social stratification of English in New York City*. Cambridge University Press. <https://doi.org/10.1017/cbo9780511618208> (2025eko irailaren 18an kontsultatua).

LADEFOGED, Peter (2001). *Vowels and consonants*. Blackwell Publishing.

LASS, Roger (1984). *Phonology: an introduction to basic concepts*. Cambridge University Press.

OÑEDERRA, Miren Lourdes (1994). «Ahoskera araupetzeaz II», *Euskera* 39 (2): 1589-1605. <https://www.euskaltzaindia.eus/dok/euskera/50054.pdf> (2025eko irailaren 18an kontsultatua).

OÑEDERRA, Miren Lourdes (2004). *Fonetika eta Fonologia hitzez hitz*. Euskal Herriko Unibertsitatea. [https://addi.ehu.es/bitstream/handle/10810/49765/On%cc%83ederra%2c%20ML\\_Fonetika.pdf?sequence=1&isAllowed=y](https://addi.ehu.es/bitstream/handle/10810/49765/On%cc%83ederra%2c%20ML_Fonetika.pdf?sequence=1&isAllowed=y) (2025eko irailaren 18an kontsultatua).

OÑEDERRA, Miren Lourdes, ELORDUI, Agurtzane, EPELDE, Irantzu, ETXEBERRIA, Pilartxo, JAUREGI, Oroitz eta SALABERRIA, Jasone (2015). «Euskaltzaindiaren Ahoskera batzordearen txostena (Ahoskerak axola du)», *Euskera* 60 (2): 499-531. <https://doi.org/10.59866/eia.v60i2.130> (2025eko irailaren 18an kontsultatua).

ZUAZO, Koldo (2014). *Euskalkiak*. Elkar.

# Igeldoko euskararen bilakaera fonologikoa Gipuzkoako kostaldean

La evolución fonológica del euskera de Igeldo en la  
costa gipuzcoana

L'évolution phonologique du basque d'Igeldo sur la  
côte guipuscaine

The phonological evolution of the Basque language in  
Igeldo on the coast of Gipuzkoa

YUGUEROS EGUNEZ, Igor  
Euskal Herriko Unibertsitatea, EHU  
Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketen Saila  
igoryueg@gmail.com

DOI: <https://doi.org/10.59866/eia.v2026i71.337>

1. Sarrera
  2. Oinarri teorikoa
  3. Metodologia
    - 3.1 Corpusa
      - 3.1.1 1990eko grabazioa
      - 3.1.2 2025eko grabazioa
    - 3.2 Berriemaileak
  4. Hizkeraren deskribapena
  5. Anlisi fonologikoa
    - 5.1 Bilakabide paradigmaticoak
      - 5.1.1 Kontsonanteak
        - 5.1.1.1 Txistukariak
        - 5.1.1.2 Albokari palatala
        - 5.1.1.3 Igurzkari belarra
        - 5.1.1.4 Igurzkari hortzarteko ahoskabea
      - 5.1.2 Bokalak
    - 5.2 Bilakabide sintagmatikoak
      - 5.2.1 Bokal-bilkuretako disimilazioak
        - 5.2.1.1  $e \rightarrow i / \_a$
        - 5.2.1.2  $o \rightarrow u / \_a$
      - 5.2.2 Bokalarteko kontsonantearen galera
        - 5.2.2.1 Hurbilkariaren galera
        - 5.2.2.2 *Ttakaren galera*
      - 5.2.3 [i]-ren osteko palatalizazioa
        - 5.2.3.1 Sudurkaria sabaikaritzea
        - 5.2.3.2 Txistukari igurzkaria sabaikaritzea
        - 5.2.3.3 Herskari horzkaria sabaikaritzea
      - 5.2.4 Kontsonante epentetikoak
      - 5.2.5 Igurzkari lepokariaren galera sudurkariaren aurretik
      - 5.2.6 Herskariaren ahoskabetzea txistukariaren ondoren
      - 5.2.7 Diptongoko irristariaren kontsonante bihurtzea
  6. Ondorioak
- Bibliografia

## 1. Sarrera

Euskara, bizirik dagoen hizkuntza izaki, aldatu egin da historian zehar, eta gaur egun ere, etengabeko aldaketak bizi ditu. Edozein hizkuntza, baldin eta erabiltzen bada, eta, beraz, bizirik baldin badago, aldatu egiten da, bai hiztegiari dagokionez, bai gramatikari dagokionez, baita ahoskerari dagokionez ere. Aldaketa hori naturala eta saihetsezina da, eta ez luke larritzeko eta kondentatzeko arrazoi izan behar (Trask, 1994: 2). Euskara, esan bezala, ez da salbuespena, eta euskararen historian gertatu den moduan, azken hamarkadetan ere aldaketak izango zituela pentsatzekoa da. Hori guztia aintzat harturik, lan honek herri jakin bateko (hots, Igeldoko) euskarak azken 60-70 urte inguruan aldakortasun fonologikorik izan ote duen ikustea du xede. Beste modu batera esanda, une kronologiko desberdinetan dauden hizkuntza-egoerak aztertu dira ikuspuntu fonologiko batetik, aldaketarik gertatu ote den ikusteko. Azterketa hori *Igeldoko euskararen bilakera fonologikoaren azterketa* izeneko Gradu Amaierako Lanaren baitan egiten zen, eta, beraz, lan hau horretan oinarrituta dago. Horrenbestez, hizkuntzek erakusten dituzten aldaera-motak askotarikoak badira ere (diatopikoa, diastratikoa...), herri jakin bateko (Igeldoko) bi aldaera sinkroniko ezberdinen azterketa fonologikoa eta alderaketa izango da, funtsean, irakurleak lan honetan aurkituko duena. Igeldo Gipuzkoako kostaldean dagoen herria da, administratiboki Donostiako auzoa.

Euskal Herriak azken hamarkadetan izan dituen aldaketak behatzea eta aldakortasunaren gainean hausnarketa egitea beharrezkoa da hizkuntza-aldaketak nondik etor daitezkeen ulertzen saiatzeko. Izan ere, lan hau aldakortasunik badagoen ikusten saiatuko da, eta, beraz, kontuan hartu behar harko da aldakortasuna eragin dezaketen faktoreak daudela. Are gehiago, kontuan hartuz gero aztertu den gaur egungo berriemailea euskaraz eskolatuturikoa dela, herritik kanpoko harreman-sareak dituela eta bere bizitzan gaztelaniarekin ere harremana izan duela.

Zuazok (2014: 75) azaltzen digun moduan, xx. mendeko bigarren erdialdean aldaketa sakonak gertatu ziren Europako Mendebaldean, Euskal Herrian barne, bereziki komunikabideen eta hedabideen iraultzaren

ondorioz. Mugikortasuna handitu egin da, eta lehen ez bezala, gaur egungo bizimoduak jendea etengabe mugitzea eskatzen du, lan, ikasketa edo beste-lako arrazoiengatik. Garai batean pertsonak harreman-sareak bere herrian soilik eraiki ohi zituzten, eta tarteka elkartzen ziren (elizan, erromerietan, ferietan edota merkatuetan, adibidez). Orain, aldiz, jendea sarriago elkartu ohi da, talde handiagoetan, eta herrian bertan eraikitakoak ez diren harreman-sareak ere izan ohi dira.

Gainera, herritik irten gabe hizkera ezberdinak entzun ohi ditugu hedabideei esker: irriatiaren, telebistaren eta Interneten bidez, hizkuntza-erregistroak eta euskalkiak zabaldu egin dira. Horrez gain, euskararen kasuan, kontuan hartu beharrekoa da estandarizazio-prozesuari esker hizkuntza-eredu bateratu bat lortu zela, eta horrek euskarak esparru berriak bereganatzea ekarri duela (irakaskuntza, Administrazioa eta literatura idatzia, besteak beste). Aldaketa horien guztien ondorioz, euskalkien arteko desberdintasunak txikitu egin direla eta euskalkiak elkarri hurbildu zaizkiola diosku Zuazok (2014: 74-78).

Bestalde, erdarek duten presentzia eta eragina ere nabarmendu beharrekoa da. Hedabideek eta mugikortasun erraztasunek zein pertsonen arteko harreman-sareak zabaltzeak euskara batua indartzen lagundu duten moduan, zenbait kasutan gaztelaniak zein frantsesak gure bizitzetan presentzia handiagoa izatea ere ahalbidetu dute, eta, nola ez, beste hizkuntzek duten presentziak (hots, bizi dugun egoera diglosikoak) gure hizkuntza propioan ere eragina duela pentsatzekoa da.

Beraz, hizkuntza batean aldaketak eragiten dituzten faktoreak askotarikoak dira, eta kanpo-faktoreak gorabehera ere hizkuntzak aldatu egiten dira. Horregatik, euskara gaur egun ikuspuntu fonologiko batetik nola aldatzen ari den ikustea ikergai interesgarria da euskal hizkuntzalaritzarako.

Hori azalduta, lan hau nondik sortu den azalduko dut. Lan honen abiapuntua 1989.-1992. urteetan EHUKo Letren Fakultateko Fonetika Laborategian gauzatu zen Hegoaldeko Proiektua da. Proiektu hartan Gipuzkoa, Bizkai, Araba eta Nafarroako hainbat grabaketa bildu ziren (Izagirre,

2023: 18). Egin zen lan hari esker, 1990. urtean grabatutako Igeldoko bi hiztun helduren euskara gaur egungo gazte batenarekin alderatuko da.

Lan honetan, lehenik eta behin, oinarri teoriko bat jaso da, azterketa egiterakoan erabiliko diren lanabes batzuk eta ulertu beharreko kontzeptu batzuk ezagutzea beharrezkoa baita. Horren ostean, erabilitako metodologia zehaztuko da, eta bertan corpusaren gaineko informazioa (hots, bi grabazioen inguruko datu orokor eta teknikoak) zein berriemaileen gaineko informazioa ere ageriko dira. Ondoren, Igeldoko hizkeraren gainean arituko gara, besteak beste, bere ezaugarriez eta datu soziolinguistikoez. Jarraian, grabazioen analisisa egingo da, bien sistema fonologikoari erreparatuz ea desberdintasunik badagoen zehazten saiatzeko. Lehenik, bilakabide paradigmaticoetan desberdintasunik badagoen behatuko da, eta horren ostean, sintagmatikoetara joko da. Azkenik, hainbat ondorio aterako dira.

## 2. Oinarri teorikoa

Lan hau bi grabazioren azterketa eta alderaketa fonetiko-fonologikoa da, eta, hortaz, beharrezkoa da fonetika eta fonologiari buruzko oinarritzko kontzeptuak ezagutzea, horrek baliabideak emango baitizkigu gero egingo den analisirako.

Lehenik eta behin, Igeldoko euskararen sistema fonologikoa nola aldatu den ikusi nahi bada, sistema fonologikoa zer den ulertu behar da. Fonetika Naturalaren<sup>1</sup> arabera, gertakari fonologikoen azalpena bilatzea da fonologiaren egitekorik garrantzitsuena, eta horretarako esplikazio iturri nagusi gisa fonetika proposatzen da. Ildo teoriko horrek iradokitzen duenez, sistema mental bat dago hiztunon ekoizpen- eta oiharmen-gaitasunak kontrolatzen dituen, eta hori hizkuntza desberdinek dituzten bilakabideak egiteko aukerak frogatzen dute. Horregatik, sistema fonologikoa aukera fonetikoaren aurrean egiten diren hautaketen sistema gisa definitzen

---

<sup>1</sup> Fonetika Naturala David Stampek 1960ko hamarkadaren erdi aldera sortutako fonologiaren teoria bat da. Informazio gehiagorako, ikus Oñederra (2023).

da, eta hizkuntza bakoitzaren sistema fonologikoa nola egituratzen den ulertzeko aukera ematen du. Hizketa hiztunaren erosotasunaren eta seinale fonikoaren argitasunaren arteko tentsioan gauzatzen da, eta bi ertz funtzional horietatik azal daitezke bilakabide fonologikoak (Stampe apud Oñederra 2023: 740-743).

Hortaz, oharmena argia izatea eta ahoskatzean ebakera eroso izatea dira bilakabideen bi oinarri nagusiak. Hots-txandaketa guztiak, ordea, ez dira bi arrazoi horien artean gertatzen, kasu batzuetan erregela (morfonologikoa) izan baitaitezke. Nolanahi ere, lan honetan ez da erregelak edo bilakabideak diren eztabaidatuko, kasu bakoitzak azterketa sakona behar baitu, eta lan honen helburua ez da hori zehaztea. Horregatik, guztiak bilakabideak bailiran jokatuko da.

Bilakabide fonologikoak lan honetan egingo den azterketarako funtsezkoak dira. Honela definitzen ditu Oñederrak (2004: 50):

Bilakabide edo prozesu fonologikoa hots edo hots andana baten lekuan beste hots edo hots andana bat ipintzen duen ORDEZKATZEA da.  $A \rightarrow B$  irudikatzean, A eta B hots edo hots andanak izanik, bilakabidea gezia bera dela esan genezake: A B egiteko bidea, A B bilakatzeko bidea. Ezin egokiago da, beraz, bilakabide terminoa [...]. Esan daiteke B-k A ordezkatzeko duela, zerbaitetan B A baino hobea delako. Hobe izate horren baldintzak fonetikoak diren bezainbatean, esan dezakegu ordezkatzeko hori bilakabide fonologikoa dela.

Oñederrak (2004: 50) dioen moduan, hobe izatea dute arrazoi edo helburu bilakabideek, eta hobe izateko arrazoi horiek fonetikoak izan behar dute. Bilakabideak askotarikoak izan daitezke. Hasteko, bi mailatan gerta daitezke, maila paradigmaticoan edo maila sintagmaticoan, eta, horren araberak, bilakabide *paradigmatiko* edo *sintagmatiko* deritze.

Paradigma hizkuntza bateko hiztunek buruan duten nolakotasun fonikoaren ezagutza da. Beraz, bilakabide paradigmaticoak hizkuntzaren unitateak zeintzuk diren zehazten duten aukeraketak dira. Bestela esanda, hiztunek gogoan dituzten hots-unitateen «irudi mentalek» osatzen dute paradigma; hau da, hiztunok buruan ditugun hots-unitateek. Konbinazio

foniko bat hobesten da, eta konbinazio hori gaindituz gero, hiztunak hizkuntza horretan unitate gehiago izango ditu.

Horregatik, hizkuntza bakoitzaren aukeraketen edota hobespenean araberak, hizkuntza bakoitzak fonema-inbentario desberdina du, bilakabide paradigmatico desberdinak gainditu dituelako. Zenbat eta bilakabide gehiago gainditu, orduan eta zabalagoa izango da hiztunaren inbentarioa (Oñederra 2004: 126).

Adibide gisa eman genezake bokalen ahokaritasuna Hegoaldeko euskararen. Euskaraz, Hegoaldean bederen, soilik bokal ahokariak ditugu gure fonema-inbentarioan, eta hori da, hain zuzen, fonemen hobespen-prozesuan euskarak sudurkariak egiteko «zailtasuna» gainditu ez duelako. Izan ere, ahokariak dira errazenak, bai artikulazioaren aldetik, bai ohar-menaren aldetik, eta eurak dira hobesten direnak. Horregatik, oinarritzko bilakabide paradigmatico gehiago gordetzeagatik, hain zuzen, beste hizkuntza batzuetan baino bokal gutxiago ditugu euskaraz, sudurkaritasunari dagokionez.

Sintagmak, berriz, hotsak hizketan bata bestearen atzetik kateatzeari egiten dio erreferentzia. Horrek esan nahi du bilakabide sintagmatikoak hotsak hizketan kateatzen direnean arrazoi fonetikoengatik gertatzen diren ordezkatzek direla (Oñederra 2004: 28). Esaterako, herskariak bokalarteko testuinguru batean daudenean jarraitutasunagatik jasaten duten hurbilkaritzea [ $d \rightarrow \delta / B\_B$ ] bilakabide sintagmatiko bat da hotsen kateatzearen ondorioz egina delako, eta, kasu honetan, ebakera erraztea du helburu. Adibide honetan bilakabidearen emaitza ez da fonemikoa, euskal hiztunek ez dutelako fonema igurzkari horzkari hori ([ $\delta$ ]) beraien paradigmaman.

Egindako sailkapen bikoitz horrez gain, Doneganek eta Stampek (1979: 142) hiru bilakabide-mota nagusi bereizten dituzte: bilakabide prosodikoak (lan honetan aztertu ez direnak), fortitioak eta lenitioak.

*Fortitioak* (edo indartzeak) tasun-konbinazio hobe bat bilatzen duten bilakabideak dira, ohar-menaren aldetik hots-unitate hobe lortzen duena eta hots-bilkuran kontrastea nabarmenagoa izan ohi dena. Ingurunerik

gabekoak izan daitezkeen arren, oro har ingurune fuerteetan gertatu ohi dira, eta oharmena garrantzitsua den testuinguruetan dira ohikoak batez ere (hots, testuinguru adierazkor, arretatsu, geldo eta formaletan). Fortitio mota batzuk disimilazioak, diptongazioak, silabifikazioak edota epentesiak dira (Donegan eta Stampe 1979: 142).

*Lenitioek* (edo ahultzeek), berriz, tasun-konbinazio ahulagoa dute emaitza, «ordezkatzearen poderioz TASUN konbinazio ahulagoa, ebakierrazagoa» (Oñederra 2004: 54). *Lenitioak* inguruneak eragindakoak izan ohi dira, eta fortitioen kontrara, gune ahuletan gertatu ohi dira, bai eta argitasunik eskatzen ez duten testuinguruetan ere (hots, testuinguru arretagabe, informal eta intimoetan). *Lenitio* mota batzuk ondorengoak dira: asimilazioak, monoptongazioak, disilabifikazioak, murrizketak edota ezabaketak (Donegan eta Stampe 1979: 142).

Bilakabide paradigmaticoak fortitioak izan ohi dira, gure paradigmaman fonemak gehitzearen helburua oharmena baita azken batean; bilakabide sintagmatikoak, berriz, fortitioak zein lenitioak izan daitezke, hotsak bata bestearen ondoan kateatzean sor daitezkeen oharmenezko zein artikulaziorako arrazoiengatik.

Lan honetan, grabazioak aztertzerako orduan, bilakabide sintagmatikoei eta paradigmaticoei erreparatu zaie, eta, beraz, azalduko da azterketa fonologikoaren oinarri. Hain zuzen, horietan jarri da arreta garai desberdinetako bi grabazioen artean dauden aldeak ikusteko. Bilakabide sintagmatiko zein paradigmaticoak batean zein bestean nolakoak diren eta nola aldatzen diren aztertu da. Espero zitezkeen bilakabide paradigmaticoak askorik ez aldatzea, hizkuntza bateko fonema-inbentarioa denboran zehar ez delako hainbeste aldatzen, eta are gutxiago hain denbora laburrean. Hala ere, albokari palatalari eta txistukariei dagokienez, aldaketatxo batzuk egon direla ikusi da azterketan.

Bilakabide sintagmatikoen kasuan, aldaketak egon zitezkeela pentsatzea da. Izan ere, aurretik aipaturiko gizarte-aldaketek (euskara batuaren hedapenak eta harreman-sare zabalagoak sortzeak, esaterako) sintagma mailako bilakabideetan eragin izana posible da. Euskararen gainerako al-

daerekin harreman handiagoa dagoenez eta eskolatzean eredu jakin bat ikasten denez, bilakabide sintagmatikoak alda zitezkeen.

### 3. Metodologia

Lan honetan, hizkuntza-aldaira baten bilakaera fonologikoa aztertzeko, metodologia kualitatiboa erabili da. Helburua Igeldoko euskara aldatzen ari ote den aztertzea izan da, eta horretarako garai ezberdinetako bi ahozko grabazio alderatu dira. Grabazioak hautatu edota prestatu egin dira: lehena, 1990ean jaso, Hegoaldeko Proiektuaren baitan, eta bigarrena, 2025ean lan honetarako egina. Bi grabazioetako berriemaileak igeldotarrak dira, eta euren artean 60-70 urte inguruko aldea dagoela estimatu da; horrek belaunaldien arteko konparaketa ahalbidetu du.

Bi belaunaldietako hiztunen grabazioak eskuratutakoan, grabazio bakoitzaren zati bat fonetikoki transkribatu da. Transkripzio horiei esker, grabazioen azterketa fonologikoa egin da bi ikuspuntutatik: alde batetik, bilakabide paradigmaticoetan jarriz arreta, eta, bestetik, bilakabide sintagmatikoei erreparatuz.

Analisia burutzeko oharmenaren bidezko entzuketa egin da, eta grabazio bateko zein besteko berriemaileen ekoizpenak aztertutakoan, alderatu egin dira, ezaugarri ezaugarri, ondorio batzuetara iristen saiatzeko.

#### 3.1 **Corpusa**

##### 3.1.1 *1990eko grabazioa*

Lehenik eta behin, aipatu beharra dago azertu den grabazioaren proiektua 1989-1992 urteen artean burutu zela, eta aztertuko den grabazioa, zehazki, 1990eko uztailaren 4an (Izagirre 2023: 19). Erabilitako materialari dagokionez, Izagirrenen (2023: 14) lanetik ondoriozta daiteke UHER 4000 REPORT MONITOR grabagailua erabili zutela; bobinetan grabatu zen, eta duela gutxi egin zen bobina horien digitalizazioa. Berriemaileen adin zeha-

tza ez dakigun arren, grabazioan kontaktzen dituzten zenbait erreferentzia-rengatik 50-60 urte inguru izango zituztela pentsa daiteke. Hortaz, gutxi gorabehera 1930-1940 aldera jaiotakoak direla ondoriozta daiteke. Horregatik, bi grabazioetako berriemaileen jaiotza-urteen artean 60-70 urte inguruko aldea dagoela dirudi. Grabazio honen iraupena 12 minutu eta 27 segundokoa da.

### 3.1.2 2025eko grabazioa

Grabazio hau ez zegoen Fonetika Laborategiko biltegian; lan honetarako hogeita hiru urteko gazte igeldotar bati berariaz egindako elkarrizketa erabili da lagin moduan. Grabazioa Letren Fakultateko Fonetika Laborategiko kabina intsonorizatuan egin zen; izan ere, nahiz lan honetan azterketa akustikorik ez egin, grabazioaren kalitate ona bermatzea garrantzitsua da analisirako.

Hori horrela, grabazioa 2025eko martxoaren 31n egin zen aipaturiko lekuan, TASCAM LINEAR PCM RECORDER DR-05 mikrofonodun grabagailuarekin. Grabazioak 8 minutu eta 38 segundo irauten du.

## 3.2 Berriemaileak

Hizkuntza baten hiztun-komunitate batean askotariko hiztun-profilak daude. Ondorio oso sendoak emango lizkigukeen ikerketa zehatz eta ideal baterako, batetik, ahalik eta hiztun gehien aztertu beharko lirateke, eta, bestetik, profil desberdinetakoak: genero guztietakoak, maila sozioekonomiko askotarikoak, bizileku desberdinetakoak... Lanaren ezaugarriak eta tamaina kontuan hartuta, ordea, lagina belaunaldi bakoitzeko berriemaile batera edo bira mugatu da.

1990eko proiektuko grabazioan, elkarrizketatzaileez gain, bi berriemailek hartzen dute hitza. Bi berriemaileak ahizpak dira, eta 50-60 urte ingurukoak direla estimatzen da, hots, 1930-1940 inguruan jaiotakoak. Solasaldia naturala da, ezagunen artean gertatzen baita, eta haientzat arruntak eta

ohikoak diren kontuez mintzo dira: gaztetako kontuak, Igeldoko eguneroko bizitza edota seme-alabak, besteak beste. Horregatik, berriemaileek eguneroko hizkera erabiltzen dute.

2025eko grabazioaren kasuan, berriz, elkarrizketatzaile bat eta berriemaile bat ditugu; berriemaile hori ere emakumezkoa da, eta 23 urte ditu. Gazte horrek Donostian egin ohi du bizitza gehiena, nahiz eta igeldotarra izan. Ikasi ere Donostian ikasi zuen institutuan, eta Gasteizen bizi da orain, bertan ikasten baitu. Horregatik, eskolatzeak eta bere herritik kanpo eraikitako harremanek hizkeran eragina izan dezaketela pentsatzekoa da. Bestalde, Letren Fakultateko laborategiko kabinan egindako elkarrizketan, berriemaileak arintasunez hitz egin zuen; oro har, bere bizitzaren (ikasketak...), Igeldoren eta euskararen egoeraren gainean aritu zen.

#### 4. Hizkeraren deskribapena

Egin nahi dugun lana aurrera eramateko Igeldoko hizkera geolinguistikoki kokatzea beharrezkoa da. Igeldo Gipuzkoa iparraldeko herria da, itsasertzean kokatua dagoena, eta administratiboki Donostiaren auzo bat izan arren, herri-egitura propioa duena. Mendigunean dago, kostaldeko landa-eremuan. Oriorekin muga egiten du mendebaldean, eta Usurbilekin hegoaldean.

Hizkuntzak hizkeretan sailkatu ohi ditugu, ezaugarri edo aldaera multzo batek hartzen duen eremu geolinguistikoa kontuan hartuta. Euskararen ere horrelaxe gertatzen da, dialektoetan banatzen da, eta, gainera, euskararen dialekto bakoitzaren barruan azpi-dialekto deritzenak ere bereizten dira.

Euskararen baitan euskalkiak izan baditugu, eta horien barruan, berriz, «azpi-euskalkiak» sailkatu izan dira. Gipuzkera euskalkia izanik azkar asko antzeman dezakegu mutrikuar baten hizkera, azpeitiar batena edo beasaindar batena euskalki berekoak izanik ere,

ezberdinak direla eta beraz, azpi-euskalki ezberdinak osatzen dituztela (Iturain eta Loidi 1995: 20).

Zuazok (2014: 87) egiten duen euskalkien sailkapenaren arabera, hiru hizkera edo azpieuskalki nagusi bereizten dira erdialdeko euskalkiaren barruan: *sartaldekoa*, *erdigunekoa* eta *sortaldekoa*.

### 1. irudia. Erdialdeko azpieuskalkiaren mapa (Zuazo 2014: 89)



Igeldo erdigunean kokatzen da, eta, beraz, erdialdeko euskalkiaren ezaugarriak eta bereziki erdiguneko azpieuskalkiarenak espero dira. Halaber, erdialdeko euskalkian egiten duen banaketa hirukoitz horrez gain, Zuazok (2014: 103-105) erdialdeko euskara bitan banatzen duten ezaugarriak ere badirela esaten du, iparraldea eta hegoaldea bereiziz:

## 2. irudia. Erdialdeko euskalkiaren banaketa (Zuazo 2014: 105)



Banaketa horretan, Igeldo iparraldean daukagu, eta, beraz, iparraldeko ezaugarri horiek edukitzea espero dugu. Gainera, nabarmendu behar da Zuazoren (2014: 103-105) arabera bi eremu horiek bereizten dituzten ezaugarriak fonologikoak direla nagusiki. Esate baterako, bokal-bilkuretan gertatzen diren disimilazioak<sup>2</sup> (beraz, fortitioak), *-au-* > *-a-* monoptongazioa (lenitioa), txistukari apikariaren eta lepokariaren berdintzea (lenitioa) edota kontsonante sabaikari eta biezpainkariaren epentesia (*ibidem*: 103-104).


Beraz, Igeldoko euskara non kokatzen den badakigu, eta hizkeraren ezaugarri fonologiko guztiak banan-banan atal honetan azaldu ez arren, berri-

<sup>2</sup> /e + a, e, o/ elkartzen direnean, e > i disimilatzea edota /o + a, e, o/ elkartzen direnean, o > u disimilatzea. Adibidez: *luzea* > *luzia*, *beroa* > *berua*.

emailek egindako bilakabideen atalean ikusi ahalko ditugu hizkera horretako ezaugarri gehiago.

Honekin batera, komenigarria da Igeldoko egoera soziolinguistikoa zein den ezagutzera. Soziolinguistika Klusterrak 2021. urtean eginiko *Hizkuntzen erabileraren kale neurketaren* arabera, Donostiako kaleetako euskararen erabilera % 15 ingurukoa zen oro har. Euskal Herriko gainerako hiriekin alderatuz gero, guztietan euskaldunena dela dioskute datuek. Nolanahi ere, erabileraren datu hori asko aldatzen da auzoz auzoko datuei erreparatzen badiegu:

### 3. irudia. Hizkuntzen erabilera Donostian, auzoen arabera



*Iturria:* Soziolinguistika Klusterra, 2021.

Datuok erakusten duten moduan, Igeldoko kale-erabilera % 74,9koa izan zen 2021. urtean, Donostiako auzoen artean handiena alde handiz. Beraz, auzo edo herri oso euskaldun baten aurrean gaude.

Nolanahi ere, eta aurretik aipatu moduan, gaur egungo harreman-sareak nahiko konplexuak dira, eta ez dira mugatzen herrira bakarrik; 2025eko grabazioko elkarrizketatuak esaten du berak bizitza gehiena Donostiako ka-

leetan egiten duela, eta noski, jada ez legoke Igeldoko datu soziolinguistikoak dituen gune batean.

Beraz, aipaturiko guztia aintzat hartu behar da, eta onartu egungo Igeldok Donostiara asko jotzen duenez, beste gauza askoren artean horrek hizkuntzaren nolakotasunean ere eragina duela. Ondo baino hobeto azaltzen digu hori Caminok (2000: 58):

Ohiko Euskal Dialektologiako lanetan tokian tokiko hizkera ongi eta leial ordezkatzan duten lekuko edo berriemaile fidagarriak aurkitzea izaten da lehen helburua [...]. Donostian frankotan badirudi helburu hori ezin erdietsizkoa dela eta kosta egiten zaio ikertzaileari hiria den bezalakoa dela onartzea: jabetu beharko luke ez dela endogamia maila handiagoa duen herrixka urrun bateko hizkera aztertzen ari.

Lan honetarako kontuan hartu behar izan da igeldotarren bizimodua askotarikoa dela, eta hizkuntzan eragina izan dezaketean eragileak ugari direla.

## 5. Analisi fonologikoa

Aurretik aipatu moduan, grabazioetan bilakabide fonologikoak aztertu dira. Lehenik, bilakabide paradigmaticoetan jarri da arreta, eta, ondoren, bilakabide sintagmatikoei erreparatu zaie.

### 5.1 Bilakabide paradigmaticoak

#### 5.1.1 *Kontsonanteak*

Paradigma hitzunen hotsen biltegi dela ulertuz gero, bi grabazioetako hitzunen sistema fonologikoa ezagutzeko beharrezkoa da euren paradigma zein fonemek osatzen duten definitzea. Horretarako, transkripzio fonetikoari so egin zaio. Alabaina, transkripzio fonetikoan ageri diren hots guztiak ez dira grabazioetako hitzunen paradigmaren parte. Izan ere, hots bat ekoitzi izanak ez du esan nahi hitzunik hots hori bere paradigmaren duenik; askotan, inguruneak eraginda, paradigmaren dagoen fonema bat beste

modu batera artikulatzen da, nahiz hitzuna ez ohartu. Gure grabazioetara etorriarik, horren adibide ditugu zenbait hurbilkari ( $[\beta, \delta, \gamma]$ ) edota sudurkari belarra ( $[ŋ]$ ). Adibide horiek, izatez, 4.2.2 atalean ikusiko ditugun bilakabide sintagmatikoen emaitza dira, baina ez dira fonemikoak (bilakabidearen emaitza ez delako fonema hitzunarentzat).

Horregatik, beharrezkoa da zehaztea hitzunik ekoizten dituen hotsen taula eta hitzunen paradigmatiko fonemen taula ez direla gauza bera. Ondorengo taulak bi grabazioetako berriemaileen paradigma biltzen du. Eskuinean ageri diren fonemak ahostunak dira, eta ezkerrean ageri direnak, berriez, ahoskabeak:

1. taula. Bi grabazioetako berriemaileen kontsonanteen taula paradigmatikoa

	Biezpainkariak	Ezpain-horzkariak	Horzkariak	Hobikariak	Hobiostekoak	Sabaikariak	Belarrak
Leherkariak	p      b			t      d			k      g
Sudurkariak		m			n		ɲ
Dardarkariak					r		
Ttak (Tap/Flap)					ɾ		
Igurzkariak		f		ɬ ɬ̥	ʃ		ʃ      x
Igurzkari afrikatuak				(t͡ɬ) (t͡ɬ̥)	(t͡ʃ)		
Hurbilkariak							
Hurbilkari albokariak					l		(λ) <sup>3</sup>

Lehenik eta behin, argi gera bedi taulan ageri diren fonemak bi grabazioetatik bildutakoak direla; izan ere, erreparatu eta ikusi ahal izan denagatik,

<sup>3</sup> Parentesiak bi grabazioetako berriemaileen paradigmen artean aldea dagoela adierazten du.

bilakabide paradigmatikoei dagokienez alde txikia dago, bi grabazioetako berriemaileek fonema antzekoak baitituzte<sup>4</sup>. Nolanahi ere, badago aldaketaren bat edo beste, eta komeni da zenbait zehaztapen egitea.

#### 5.1.1.1 TXISTUKARIAK

Txistukariak arreta berezia merezi dute. Izan ere, bi grabazioetako berriemaileek apikaria zein lepokaria egiten badituzte ere, kasu askotan nahasmendua dago.

1990eko grabazioaren kasuan, lepokariaren eta apikariaren arteko bereizketa ez da garbia kasu askotan. Izan ere, askotan lepokariaren lekuan apikaria egiten da, berdindu egiten da. Halaber, sarri bataren eta bestearen arteko soinu bat ekoizten dutela dirudi, ez dena ez guztiz lepokaria ez guztiz apikaria<sup>5</sup>. Nahasmendu horren adibide ditugu, esaterako: [erðeraʃ] ‘erdaraz’, [eʃ] ‘ez’, [gʷaʃemaʃu] ‘goazemazu’.

Beste kasu batzuetan, berez afrikatu apikaria duen hitza afrikatu lepokariarekin ahoskatzen dute, eta hemen beste era bateko nahasmendua dugu. Hona hemen grabazioko pare bat adibide: [atʃalðe] ‘arratsalde’, [ðeʃkãntʃatʃea] ‘deskantsatzera’.

2025eko grabazioaren kasuan, txistukari lepokariaren eta apikariaren arteko nahasmendu hori badago, baina ez 1990eko grabazioan bezainbeste eta ez modu berean. Oharmenaren aldetik ondo bereizten da elkarriketatuak noiz egiten duen lepokaria eta noiz apikaria, eta alde horretatik, 1990eko grabazioan ez bezala, 2025ekoan bereizketa garbia da; ez dago proposatzerik lepokariaren eta apikariaren artean legokeen hots bat egiten duenik, eta beraz, berdintzea ere ez da gertatzen. Grabazio honetan ikusi dena, esan bezala, nahasmendua da, berez lepokaria duten zenbait hitz apikaria-

<sup>4</sup> Ez dira guztiz berdinak, 4.1.1.1 eta 4.1.1.2 ataletan ikus daitekeenagatik.

<sup>5</sup> Lan hau oharmenaren aldetik egin da, eta ez dira erabili espektrogramak edota bestelako baliabideak hots bat edo beste den zehazteko. Orobat, lanketa zehatz bat beharko genuke benetan kasu bakoitzean lepokaria edo apikaria egiten duen ikusteko, bai eta tartekoa den hori zer den zehazteko ere.

rekin ahoskatzen baitira: [βaʃkariak] ‘bazkariak’, [aureskũntʃatik] ‘haur hezkuntzatik’, [alde\_sareã] ‘alde zaharrean’, [eʃ bakaʃu] ‘ez badaukazu’.

Bestalde, aipatu den 1990eko grabazioko afrikatu apikaria lepokaritzeko joerari dagokionez, 2025ekoaren kasuan ez dago horrelakorik.

Zuazok (2014: 104) esaten du apikariaren eta lepokariaren arteko berdintzea erdialdeko euskararen iparraldeko aldaeraren ezaugarrietako bat dela, Gipuzkoako iparralde gehienez gertatu omen baita. Caminok (2000: 69) aspaldi honetan donostiar kaletarrek txistukari igurzkiaren bereizketa ez dutela egiten esaten badigu ere, Zuazok (2014: 104) egungo gazteek bereizketa egiteko joera handiagoa dutela ohartarazten digu.

Hortaz, eta laburbiltze aldera, aztertu diren hiru berriemaileek euskarazko sei txistukariak dituzte paradigman, guztiak ekoizten baitituzte, baina haien erabileran (igurzki lepokariaren eta apikariaren artean) nahasmendua dago sarri. Bi grabazioetan dago lepokariaren eta apikariaren berdintzea edo nahasmendua, baina modu desberdinean: 1990ekoan, esan bezala, lepokariak apikaritzeko joera handia dago, bi hotsak askotan ez dira ondo bereizten, eta ildo horretatik, askotan tarteko zerbait egiten dela uste da. 2025eko grabazioko elkarrizketatuaren kasuan, berriz, ez du ekoizten igurzki lepokaria eta apikariaren artean legokeenik, argi baitago noiz egiten duen bata eta noiz bestea, baina gero hitz askotan nahastu egiten ditu.

### 5.1.1.2 ALBOKARI PALATALA

Albokari palatalari erreparatuz gero, esan behar da 1990eko grabaziokoek paradigman fonema hori badaukatela dirudiela; hona hemen adibide batzuk: [saʎa] ‘zaila’, [laũntʃaʎia] ‘laguntzailea’, [eʃteʎã] ‘Estellan’, [iʎoβa] ‘iloba’. Kasu horietan albokari palatala egiten dutela ongi entzuten da; beste bi kasutan, ordea, ez dago hain argi zein hots den, eta igurzki sabaikariarekin jarri den arren transkripzioan, zalantzarria da: [mutij] ‘mutil’, [daβij] ‘dabil’. Zalantza hori hitz eta esaldi amaieran egotearekin lotuta dago,

amaierako posizioan egoteak ongi ez entzutea eta ongi ez hautematea baitakartza.

Albokari palatala ageri den kasu ia guztiak [i] bokalaren ondotik direnez, 4.2.3 atalean joan beharko lukeen bilakabide sintagmatiko bat dela ere pentsa liteke ([i]-ren osteko palatalizazioa). Alabaina, testuinguru hori ez duen adibide bat dago 1990eko corpusean: [eʃteˈlãn] ‘Estellan’. Beraz, berriemaileek albokari palatala beraien paradigmaren daukatela ondoriozta daitezke. Izan ere, bilakabide sintagmatiko baten ondorio den hotsa soilik izan balitz, posible zatekeen hots hori hiztunak bere paradigmaren ez izatea; alabaina, testuinguru horretaz landa ere agertzeak erakusten digu albokari palatala beraien paradigmaren parte dela.

2025eko grabazioko berriemaileak, berriz, albokari palatala ez du kasu bakar batean ere ekoitzi, eta hortaz, badirudi fonema hau ez dela bere fonema-inbentarioaren parte.

Gauzak horrela, paradigmaren beste desberdintasun bat dagoela ikus daitezke: 1990. urteko grabazioko hiztunak albokari palatala beraien paradigmaren dute, eta 2025eko grabazioko hiztunak, berriz, ez.

### 5.1.1.3 IGURZKARI BELARRA

Nabarmendu beharrekoa da [x] igurzkarri belarra ere; izan ere, erdialdeko euskalkiaren ezaugarri da *jz* hasten diren hitzak fonema horrekin ahoskatzea (Zuazo 2004: 79), eta gure bi laginetan ezaugarri hori guztiz betetzen da: 1990eko grabazioko [xotʃeako] ‘jotzerako’, [xũn] ‘joan’ esaterako, edota 2025eko grabazioko [xute\_naiʃ] ‘joaten naiz’, [xẽnde] ‘jende’, [xeiʃterakoñ] ‘jaisterakoan’, [xaijo] ‘jaio’. Bi grabazioetako berriemaileek sistematikoki betetzen duten ezaugarria da.

### 5.1.1.4 IGURZKARI HORTZARTEKO AHOSKABEA

Badakigu igurzkarri hortzarteko ahoskabea ([θ]) ez duela euskarak berez jatorrizko, baina euskaldun elebakarrik dagoeneko ia ez dagoenez (edo bal-

din badaude, oso urriak direnez) eta egoera diglosikoan bizi garenez, igurzari hortzarteko ahoskabea gure fonema inbentarioaren parte bilakatu da (Hegoaldean, bederen). Gure corpusari erreparaturik, 2025eko grabazioko berriemaileak ez du fonema hori ekoizten, baina horrek ez du esan nahi fonema hori bere paradigmán ez dagoenik, ez baitu hots hori duen hitzik ekoitzi. 1990eko grabazioko berriemaileei dagokienez, nahiz euskarazko jardunean ez duten egiten, gaztelaniazko esaldi bat sartzen dutenean haietako batek ekoizten du: [erðeraş eşateãm beşela muşoş ofiθioş pobre seşyuro]. Alabaina, ezin dezakegu zehaztu beraien euskarazko paradigmán fonema hori badagoen edo ez, gaztelaniazko esaldi batean ekoizteak ez baitu euskaraz badagoela frogatzen. Horregatik, berriemaileen taula paradigmátiko kontsonántikoan (1. taula) ez da fonema hori ageri.

Ikusi da 1990eko berriemaileek gaztelaniaz ekoizten zutela, baina corpus-ean ezin izan da ikusi ea euskaraz egiten ote zuten, ez eta 2025ekoak egiten ote duen ere. Horregatik, ezin daiteke ondorio sendoetara iritsi.

### 5.1.2 Bokalak

Bokalen kasuan ez dago alderik bi grabazioen artean; bai 1990eko bi berriemaileek, bai 2025ekoak euskaraz ohikoak eta orokorrak diren bost bokalak ekoitzi baitituzte, eta hortaz, beraien fonema-inbentarioan ere horietan izango baitituzte:

**2. taula.** Bi grabazioetako berriemaileen bokalen taula paradigmátikoa

	Aitzinekoa	Erdikoa	Atzekoa
Itxia	i		u
Erdi-irekia	e		o
Irekia		a	

## 5.2 Bilakabide sintagmatikoak

Bi grabazioetako berriemaileek egiten dituzten bilakabide sintagmatikoak ugariak eta askotarikoak dira. Atal honetan, garrantzitsuenen edo esanguratsuenen azterketa egingo da, eta bi grabazioen arteko desberdintasunetan jarriko da batik bat arreta.

Hala ere, hemen aztertuko direnak baino gehiago dira egiazki elkarrizketatuek modu naturalean eta oharkabean egiten dituzten bilakabide sintagmatikoak. Horien artean daude, esaterako, herskarien hurbilkaritza testuinguru jarraituetan<sup>6</sup>, bokalen sudurkaritzea ondoko hots sudurkari baten eraginez<sup>7</sup>, edota sudurkariaren tasun artikulatorioaren asimilazioa herskari batek jarraitzen duenean<sup>8</sup>. Bi grabazioetako elkarrizketatuek egiten dituzte aipaturiko bilakabideak. Jarraian, oharmenaren aldetik eta herriko hizkeraren ezaugarrien aldetik esanguratsuak diren bilakabideei erreparatuko zaie.

### 5.2.1 Bokal-bilkuretako disimilazioak

#### 5.2.1.1 $e \rightarrow i / \_a$

Erdialdeko hizkera bitan (ipar eta hego) banatzen duten ezaugarrien artean bokal-bilkurak daudenean gertatzen diren bilakabideak daude. Horietan lehena [ $e \rightarrow i / \_a$ ] dugu. Bokala itxi egiten da, eta beraz, [a] bokalarekiko urrundu tasun horretan. Disimilazio baten aurrean geundeke, fortitio baten aurrean.

1990eko grabazioan bilakabide hori oso sarri egiten dute berriemaileek; areago, ia egokiera suertatzen den kasu gehienetan egiten dute. Hona he-

<sup>6</sup> Bilakabidea honakoa da: [b, d, g → β, δ, γ / B\_B, r\_, l\_]. Hona hemen bi grabazioetako adibide batzuk: [iβaetān] ‘Ibaetan’, [elδua] ‘heldua’, [orδūn] ‘orduan’.

<sup>7</sup> Bilakabidea honakoa da: [B → B̃ / \_N]. Hona hemen bi grabazioetako zenbait adibide: [iβ̃kitān] ‘txikitan’, [oā̃n] ‘orain’, [ẽɲ̃] ‘egin’, [kām̃pora] ‘kanpora’.

<sup>8</sup> Bilakabidea honakoa da: [n → ŋ, m / \_k, g, b, p]. Hona hemen bi grabazioetako adibide batzuk: [kām̃pora] ‘kanpora’, [d̃ēm̃boj̃k] ‘denborarik’, [ẽō̃ŋgoja] ‘egongo dira’, [ĩŋgurokoak] ‘ingurukoak’.

men adibide batzuk: [neriake] ‘nireak ere’, [biãñ] ‘behean’, [ordia] ‘ordea’, [pasiatu] ‘paseatu’, [libertaðia] ‘libertatea’.

Ez da guztiz emankorra, [ea] egiten duten adibide batzuk ere badira eta: [lanea] ‘lanera’, [atea] ‘atera’, [ðeşkãntşatşea] ‘deskantsatzera’, [etŷea] ‘etxera’. Nolanahi ere, oso sarri egiten duten bilakabidea da, eta kasu batzuetan izan ezik, grabazio osoan zehar egiten dutena. Gainera, egiten ez den adibide gehienak [r → Ø / B\_B] bilakabidearen (4.2.2.2 atala) emaitza dira, eta, beraz, horren ondorioz izan daiteke.

2025eko grabazioan, berriz, bilakabide honen arrastorik ez dago. [e → i / \_a] ez da gertatzen kasu bakar batean ere, eta ez egokierarik ez dagoelako. Izan ere, ondorengoak eta gehiago esaten ditu hiztunak: [xẽndea] ‘jendea’, [kãmpokalðeãm] ‘kanpoaldean’, [kotŷea] ‘kotxea’, [klaşea] ‘klasea’, [bateãñ] ‘batean’, [itea] ‘egitea’.

Hortaz, 1990eko grabazioan guztiz indarturik ageri zaigun bilakabidea batere indarrrik gabe ageri zaigu 2025ekoan.

### 5.2.1.2 o → u / \_a

Gauza bertsua gertatzen da [oa] bokal bilkurarekin ere: [o → u / \_a] bilakabidea egiten da. Beraz, bilakabide hori ere disimilazio bat da (fortitioa), bokala itxi egiten baita, [a] bokalarekiko urrunduz. Bokal-bilkura horretan gertatzen den bilakabidea ere (Zuazo, 2014: 103) erdialdeko euskarako iparraldeko aldaeraren ezaugarri da.

1990eko grabazioan bilakabide horren zenbait adibide topa daitezke: [şeaŷa] ‘zeragoa’, [pianua] ‘pianoa’, [maketuak] ‘maketoak’, [oyeŷkua] ‘ho-geikoa’. Egokiera gertatzen den kasu gehienetan egiten da disimilazioa 1990eko grabazioan, eta beraz, bokal-bilkuretako bilakabidea nahiko emankorra da; hala ere, ez da guztiz-gutztiz emankorra, kontrako adibideak ere badirelako: [perjoðişmoa] ‘periodismoa’, [beştelakoa] ‘bestelakoa’, [ŷuarðakoa] ‘guardakoa’.

2025eko grabazioan, aldiz, kasu bakar batean egiten du berriemaileak disimilazioa: [õnduãñ] ‘ondoan’. Ordea, bilakabidea egiten ez duen egokie-

ra gehiago badira: [ĩngurukoak] ‘ingurukoak’, [familiakoa] ‘famiakoa’, [teorikoa] ‘teorikoa’, [bat̪ĩjeryoa] ‘Batxilergoa’.

Beraz, 1990ekoan bilakabidea sarri gertatzen da, eta 2025ekoan, berriaz, behin bakarrik; horregatik, bilakabideak indarra galdu duela esan daiteke.

## 5.2.2 Bokalarteko kontsonantearen galera

### 5.2.2.1 HURBILKARIAREN GALERA

Hurbilkariaren galera ([β, ð, γ → ∅ / B\_B]) bilakabide oso ohikoa da euskaraz, eta ez eskusiboki eremu geografiko batean. 1990eko grabazioan bilakabide horrek indar handia dauka. Berriemaileek ez dute egokiera guztietan egiten, baina bai askotan. Hona hemen adibide batzuk: [it̪ʂeĩt̪ẽn] ‘hitz egiten’, [ereʃo] ‘errezago’, [seĩt̪ũn] ‘segituan’, [β̪uelta\_at] ‘buelta bat’, [daij] ‘dabil’. Esan bezala, ez dute egokiera guztietan egiten berriemaileek, eta berriemaile berak hitz berbera hurbilkariarekin zein hurbilkaririk gabe ekoizten duela ikusi da: [oeĩtaĩru ta β̪eĩstea oyeĩkua]. Azken batean, bilakabide hori lenitio bat da, eta hitzun batek bilakabide sintagmatiko bat egiteak ez du esan nahi beti egingo duenik; askotan faktore ugari egoten dira bilakabide horiek gertatzea edo ez gertatzea eragiten dutenak: hitzunak lasaitasunez hitz egiten ari denean gauza lezake, eta argitasuna behar dela nabaritzen duenean, berriaz, ez, esate baterako.

Gainera, kontsonante guztien kasuan bilakabidea ez da maiztasun berearekin gertatzen. Adibideetan ikusi ahal izan denez, igurzkari belarra ([ɣ]) da gehien galtzen dena, maiztasun gutxiagoz gertatzen da igurzkari biezpainsariaren ([β]) galera, eta igurzkari hobikaria ([ð]) galtzen den adibiderik, berriaz, ez dago.

2025eko grabazioko berriemailearen kasuan ere, bilakabidea gertatzen da zenbait kasutan, eta beste zenbait kasutan ez. Hona hemen bilakabidea egiten duen adibide batzuk: [itea] ‘egiten da’, [laũnak] ‘lagunak’, [dao] ‘dago’, [eo] ‘edo’. Nolanahi ere, kasu honetan ere egokiera egon arren, ez da askotan egiten: [eðo] ‘edo’, [yejajo] ‘gehiago’, [eĩn] ‘egin’, [laĩunek] ‘lagu-

nek'. Lan honetan kuantifikazio lanik egin ez den arren, eta azterketa zehatz baterako idealena hori izango litzatekeen arren, 2025eko grabazioan gehiago dira hurbilkaria mantentzen duten kasuak galtzen dutenak baino.

Beraz, esan daitekeena da bi grabazioetan ageri den bilakabidea dugula igurzkariaren galera, 1990eko grabazioan indar handiarekin (nahiz eta ez sistematikoki, eta ez maiztasun berdinez kontsonante guztiekin), eta 2025ekoan, berriz, indar gutxiagorekin.

### 5.2.2.2 TTAKAREN GALERA

Bilakabide hau ere oso ohikoa da euskararen. 1990. urteko grabazioan ikusi da [r → Ø / B\_B] indartsu dagoen bilakabidea dela. Hona hemen adibide batzuk: [oaĩn] 'orain', [aĩ ðia] 'ari dira', [atea] 'atera', [et̃fea] 'etxera', [yeo] 'gero'. Ehuneko ehunetan sistematikoki egiten ez den bilakabide bat izan arren, egon badira [şera] 'zera', [maĩterēn] 'Maiteren' edota [nere] 'nire' gisako adibide batzuk. Oso indar handia du 1990eko grabazioko berriemaileen jardunean, egokiera suertatzen den kasu gehienetan galtzen baita hotsa.

2025eko grabazioko berriemailearen kasuan ere bilakabidea ageri da kasu batzuetan: [oĩ] 'hori', [oaĩn] 'orain', [aĩ] 'ari'. Alabaina, egokiera suertatzen den kasu gehienetan ez da ezabatzen: [ðirurik] 'dirurik', [ori] 'hori', [yero] 'gero', [iyelðora] 'Igeldora', [ðenatarik] 'denatarik'.

Beraz, 1990eko grabazioan nahikoa indartsu ikusten den bilakabidea da ttakaren galera, eta, ikusi denez, 2025eko berriemailearen jardunean, egon arren, ez du hainbesteko indarrik.

Esanguratsua da 1990eko grabazioan zein 2025ekoan sarri ageri den gero hitza nola ahoskatzen duten batean zein bestean; 1990ekoan, beti ttaka galduta egiten da, eta 2025ekoan, berriz, beti ttakarekin. Bestalde, esanguratsua da 2025eko grabazioko berriemaileak deklinatuta dauden hitzetan ezabaketarik egiten ez duela ere: [erira] 'herrira', [artşera] 'hartzera', [iyelðora] 'Igeldora', [donoştira] 'Donostiara', [ernanira] 'Hernanira'. 1990ekoak, berriz, bai: [ðeşkãntşatşea] 'deskantsatzera', [et̃fea] 'etxera'. Ba-

liteke 2025eko berriemaileak hitz batzuetan bilakabidea egitea horrela entzun eta ikasi duelako. Alabaina, ez duenez hitz batzuk deklinatzerakoan eta beste kasu batzuetan egiten, bilakabide hori 2025eko hitzunaren kasuan ez dagoela batera indartsu esan daiteke.

### 5.2.3 [i]-ren osteko palatalizazioa

Aitzineko bokal itxiaren ondotiko fonemaren palatalizazioa fenomeno oso ohikoa da euskarari, eta ez da kontsonante bakar batera mugatzen bilakabidea; izan ere, sudurkaria, txistukari igurzkaria, albokaria zein herskari horzkari ahoskabea dira palatalizatzen direnak. Hurrengo azpiataletan banan-banan ikusiko da bakoitzaren presentzia grabazio bakoitzean zenbaterainokoa den.

#### 5.2.3.1 SUDURKARIA SABAIAKARITZEA

[n → ɲ / i \_] bilakabidea 1990eko grabazioan oso sarri egiten da. Jarraian adibide batzuk: [et̪ʂak̪ɲ] ‘ez zekien’, [oãɲ] ‘orain’, [eɲ] ‘egin’, [kamijɲ] ‘kamino’.

Alabaina, kasu asko eta askotan palatalizatzen badute ere, adibide batzuetan ez dute hala egiten: [it̪ʂeɲ] ‘hitz egin’, [eɲ] ‘ezin’, [eɲ du in] ‘ezin du egin’. Hortaz, corpusetik ondoriozta daitekeenez, bilakabidea indartsu dago 1990eko berriemaileen sistema fonologikoan, eta nahiz beti ez duten egiten, askotan egiten dute, hots-txandakatzea hitzaren erdian egon zein bukaeran egon.

2025eko grabazioan, berriz, bilakabidea egiten duen ondorengo adibi-deak bildu dira: [gɲɲɲ] ‘ginen’, [mɲɲutu] ‘minutu’, [erayɲna] ‘eragina’, [βɲɲo] ‘baina’. Ordea, kontuan hartzekoa da, 1990ekoen kontrara, hitz amaieran behin ere ez dela gertatzen sabaikaritzea: [oãɲ] ‘orain’, [karerak̪ɲ] ‘karrerarekin’, [eyɲ] ‘egin’, [ðonoɲt̪ɲ] ‘Donostian’.

Beraz, bi grabazioetako datuak alderatuta, 1990eko grabazioan sarriago egiten da eta berdin du hitz artean izan zein bukaeran izan. 2025ekoan,

berriz, ez du hain maiz egiten, hitz jakin batzuetan bakarrik, eta hitz-amaieran egokitzean, ez du egiten.

### 5.2.3.2 TXISTUKARI IGURZKARIA SABAIAKARITZEA

Palatalizazioekin jarraituz, bigarrena [ʃ → ʃ / i \_] genuke. Izan ere, jatorriz lepokaria duten zenbait hitzetan sabaikaria ahoskatzeko joera dago. Ezau-garri hori 1990eko grabazioko berriemaileen jardunean ikus daiteke: [gaʃkijena] ‘gaizkiena’, [eakuʃtejʃkiot] ‘erakusten dizkiot’, [goiʃiã] ‘goizean’. Ez da emankorra, [aĩʃpa] ‘ahizpa’ gisako adibideak ere badaude eta, baina nolana ere, bilakabidea ageri da zenbaitetan. Noiz egiten duen eta noiz ez zehaztea zaila da, eta ikerketa fonetiko-fonologiko batetik harago legoke agian.

2025eko grabazioaren kasuan, corpusean ez da adibiderik ageri. Beraz, badirudi 2025eko berriemaileak ez duela bilakabide hori.

### 5.2.3.3 HERSKARI HORZKARIA SABAIAKARITZEA

Gipuzkoan /i/-ren ostean /t/ kontsonantearen bustidura automatikoa guztiz arrunta izan arren ([t → c / i \_]), Caminok (2000: 68) ohartarazten du bustidura ez dela ageri ez Donostian, ez Altzan, ez Añorgan. Gainera, gehitzen du (*ibidem*: 68) Donostiara zihoazen baserritarrek, trolebusera igo orduko, beren mintzoko -ñ-ak eta -ll-ak mantentzen zituztela, baina -tt- -it- despalatalizatu ohi zutela. Beraz, ez da bustidura hori espero, eta grabazioetara jota, ez dago bustidurarik ez grabazio batean ez bestean. Gainera, fosilduta ere ez da inon ageri; izan ere, posible izan zitekeen bilakabi-deak indarrean biziraun ez arren [aca] ‘aita’, [kico] ‘kito’ edo gisako hitzetan agertzea, baina [aĩtak] ‘aitak’ ageri da 1990eko grabazioan birritan, eta baita [kito] ‘kito’ ere. Beraz, ez 1990eko grabazioan ez 2025ekoan ez dago bilakabide horren arrastorik.

#### 5.2.4 Kontsonante epentetikoak

Kontsonante epentetikoak erdialdeko hizkeraren iparraldeko aldaeraren ezaugarri dira. Lehenik, igurzkari sabaikariaren epentesiari erreparatuko diogu: [i → ij / \_ a, e, o].

1990eko grabazioko berriemaileen kasuan bilakabide hori zenbait kasutan ageri da: [bɨjar] ‘bihar’, [eʃtuðijo] ‘estudio’, [obserβaʃijuãne] ‘obserbazioan ere’, [gaʃkijena] ‘gaizkiena’. Alabaina, beste kasu askotan ez da epentesia egiten: [neriake] ‘nireak ere’, [βeʃtiak] ‘besteak’, [biãn] ‘behean, [biar] ‘behar’, [ɣaβiãn] ‘gauean’.

Kasu batzuetan egiten duenez eta beste kasu batzuetan ez, ez da guztiz emankorra. Esanguratsua da hots-txandakatze hori duten kasu asko [e → i / \_ a] bilakabidearen (ikus 4.2.1.1 atala) ondorio direla, eta kasu horietan ez dela honako beste bilakabide hau [i → ij / \_ a, e, o] egin atzetik (hots, ez dela *feedinga*<sup>9</sup> gertatu).

2025eko grabazioan, berriz, bilakabidea soilik behin ageri da: [yutʃijo] ‘gutxiago’, nahiz bilakabidea egin zitekeen egokiera gehiago badauden: [eɣia] ‘egia’, [familia] ‘familia’, [eriãn] ‘herrian’, [biʃia] ‘bizitza’. Bilakabidea behin bakarrik ageri denez, ahulduta dago.

Hortaz, ikusi da 1990eko berriemaileek epentesia sarri egiten zutela, baina ez guztiz sistematikoki, eta 2025ekoak, berriz, behin bakarrik egiten duela. Beraz, grabazio batetik bestera bilakabide hori ahuldu egin dela ondoriozta daiteke.

Bestalde, kontsonante epentetikoez ari garelarik, [β] epentetikoari erreparatzea ere komenigarria da, hizkera honen ezaugarri baita tradizioz. Caminoren (2000: 67) arabera, indargabeturik dagoen ezaugarria da, baina

<sup>9</sup> *Feeding* edo bazkatze esaten zaio ordezkatzeko baten emaitzak beste ordezkatzeko bat pairatzen duen fenomenoari (Oñederra, 2004: 57). Kasu honetan ondorengoa esan nahi da: 4.2.1.1eko bilakabideek emaitza gisa [ia] eman dute, eta hots-txandakatze horretan [i → ij / \_ a, e, o] gerta zitekeen, *feedinga*, baina ikusi denagatik, ez da hala gertatu.

Donostiako ezaugarria da, eta nabarmen ageri da Antiguon, Igeldon edo Añorgan, bederen.

Aztergai ditugun grabazioetan ikus daitekeenagatik, berriemaileek ez daukate bilakabide hori euren sistema fonologikoan. Izan ere, ez dago bilakabide horren arrastorik ez grabazio batean ez bestean. Hortaz, Caminok (2000: 67) bertako ezaugarria dela esan arren, 1990eko grabaziokoek galdua zuten, eta gaur egungoak ere ez du egiten. Horri dagokionez, ez dago desberdintasunik grabazio batetik bestera.

### 5.2.5 *Igurzkari lepokariaren galera sudurkariaren aurretik*

Euskaraz igurzkari lepokariak sudurkari baten aurretik agertzea ez da oso ohikoa, ez baitago hots-segida hori duen hitz askorik ('esne' edota 'asmo' dira adibide bakarrenetakoak). Horregatik, pentsatzekoa da euskaran mendeetan indarrean egondako bilakabidea dela igurzkari lepokaria sudurkariaren aurretik egon den kasuetan ezabatzea: [ʃ → Ø / \_n]. Hots, ordena hori gertatzen da ez partikula eta *nz* hasten den aditz bat elkartzen direnean.

Corpusean apur bat arakatuta, antzematen da 1990eko berriemaileek ezabaketa egiten dutela: [enitʃãn] 'ez nintzen', [enixoa] 'ez noa', [enũn] 'ez nuen'. 2025eko grabazioan, berriz, ez dago apenas egokierarik, baina bat badago, eta horretan ez du ezabaketarik egiten: [eʃ naiʃ]. Eskuratutako laginarekin ezinezkoa da ondorio sendoetara iristea. Argi dagoena da, nolahi ere, garai bateko euskaran hots-segida hori ahoskatzeko zailtasunak egon zitezkeen arren, gaur egungo euskal hiztunak ez duela bi hots horiek jarraian ahoskatzeko zailtasunik.

### 5.2.6 *Herskariaren ahoskabetzea txistukariaren ondoren*

Oro har, euskaraz, txistukariaren ondorengo herskariak ahoskabeak izan ohi dira, ez dago hitz askorik txistukari baten ondotik herskari ahostun bat duenik. Adibide ditugu, esaterako, 'asto' edota 'heste', baina ez dago \**asgo* gisako hots-hurrenkera duten hitzik, edo daudenak aski berriak dira:

‘desgaitu’, ‘desgogo’... Horregatik, euskaldunek hots-segida hori ahoskatze-ko zailtasuna izan dutela pentsatzekoa da, eta herskari ahostun bat txistukari baten ondotik egokitzean ahoskabetu egin izan dela ere bai: [d, b, g → t, p, k / s\_]. Hori ez partikula eta aditz laguntzaile bat hurrenez hurren egokitzten direnean gertatu ohi da.

Aztertutako corpusean, 1990eko transkripzioan ondorengoak topatu ahal izan dira: [eʃtakea] ‘ez daukate’, [eʃtaukat] ‘ez daukat’, [eʃtao] ‘ez dago’. Alabaina, ikusi ahal izan da beste kasu batzuetan ahostuntzen zuen berriemaile berberak ez duela ahostuntzen kasuren batean: [eʃ gɨñ̃]. Hortaz, 1990eko grabazioko berriemaileek martxan duten bilakabidea da, baina ez sistematikoki egiten dutena.

2025eko grabazioari dagokionez, bilakabidea gerta zitekeen bost egokiera daude. Horietako bitan bilakabidea gertatzen da: [eʃtao] ‘ez dago’, [eʃtakatelako] ‘ez daukatelako’. Beste hiru kasutan, berriz, ez da ahostuntzen: [eʃ\_dakit] ‘ez dakit’, [eʃ\_da] ‘ez da’, [eʃ bakaʃu] ‘ez badaukazu’.

Hortaz, bilakabide hori bai 1990eko grabazioko berriemaileek bai 2025ekoak egiten dute, baina ez beti. Corpuseko adibideek erakusten dutenagatik, 1990ekoek bilakabide hori maizago egiten zuten 2025ekoak baino, eta 2025eko grabazioko berriemaileak bilakabidea nahiko ahuldua duela dirudi.

### 5.2.7 Diptongoko irristariaren kontsonante bihurtzea

1990eko grabazioan hauteman daiteke zenbaitetan diptongoaren irristaria kontsonante bihurtzen dela. Bi kasu ikusi ahal izan dira; alde batetik, [aɥ] diptongoaren kasuan gertatzen dena: [gaβeko] ‘gaueko’, [gaβiñ̃] ‘gauean’. Bestetik, [ei] diptongoa dagoenean, askotan bihurtu da igurzkarri sabaikari ([j]), betiere bokal batek jarraitzen dionean; hona hemen adibide batzuk: [yejo] ‘gehiago’, [βalkoʃiñ̃] ‘balkoian’, [oʃiñ̃] ‘ohean’. 2025eko grabazioan ez dago bilakabide horien adibiderik.

Nolanahi ere, ziurrenik bilakabide bat baino gehiago daude tarteko, eta zaila da ondorio garbietara iristea. Esan daitekeen bakarra da 1990eko adibideak soilik ditugula, 2025ekoaren kasuan ez dagoelako adibiderik.

## 6. Ondorioak

Lan honetan, Igeldoko euskararen bilakaera fonologikoa aztertu da, 1990eko eta 2025eko bi grabazioen bitartez. Azterketaren helburua izan da hizkuntza-aldaketa fonologikorik gertatu ote den ikustea eta neurtzea, eta aldaketa horiek bilakabide fonologikoen markoan nola kokatzen diren aztertzea.

Lehenik eta behin, bilakabide paradigmaticoen alorrean aldaketa handirik ez dela egon ondoriozta daiteke. Bi grabazioetako berriemaileek, oro har, fonema-inbentario bertsua dute, eta paradigmak berdintsu jarraitzen duela hauteman daiteke. Hitzunen sistema fonologikoaren oinarriak egonkorak direla erakusten du horrek. Aldaketa batzuk, ordea, ikusi ahal izan dira: txistukarietan aldakortasuna dago, nahiz bi grabazioetako berriemaileek txistukari guztiak izan, lepokariaren eta apikariaren berdintzea sarriago gertatzen baita grabazio zaharrean. Egungo gazteak bien arteko bereizkuntza nabarmenago egiten du. Beste aldetik, albokari palatala nabarmen dute paradigmaman 1990eko berriemaileek, eta 2025ekoak, berriz, ez du fonema hau.

Bigarrenik, bilakabide sintagmatikoetan joera aldakor batzuk agertu dira. 1990eko grabazioan, esaterako, [ $e \rightarrow i / \_a$ ] eta [ $o \rightarrow u / \_a$ ] disimilazioak ohikoak dira, erdialdeko euskalkiaren iparraldeko aldaeraren ezaugarri direnak. 2025ekoak, berriz, ez ditu bilakabide horiek egiten.

Era berean, kontsonante jakin batzuen galera (hots, hurbilkariarena eta ttakarena) 1990eko grabazioan maiz gertatzen da, baina 2025ekoan neurri txikiagoan, edo batzuetan ez dira gertatzen. Horrek iradoki diezaguke bilakabide lenitibo horiek galduz doazela apurka-apurka, edo behintzat indarra galtzen ari direla belaunaldi berrien jardunean.

Palatalizazioaren kasuan ere, 1990eko grabazioan ugaritan ageri dira su-durkari sabaikaria eta txistukari igurzari sabaikaria, eta 2025eko berriemailearen jardunean, berriz, nabarmen gutxiago. Horrekin uler daiteke euskaldunak apurka-apurka hots-konbinazio batzuk modu desberdinean ekoizten ari direla.

Igurzkari sabaikariaren epentesia ere oso desberdin agertu da bi grabazioetan. 1990eko grabazioa berriemaileen jardunean bilakabide hori in-

dartsu zegoen, eta 2025ekoaren jardunean, berriz, oso ahul, behin bakarrik entzun ahal izan baita.

Azkenik, igurzkari lepokariaren galera sudurkariaren aurretik zein txistukariaren ondorengo herskariaren ahoskabetzea ere (1990eko grabazioko berriemaileek indartsu zituzten bilakabideak) 2025eko grabazioko berriemaileak ahulduta dituela azaleratu du lan honek.

Nabarmendu behar da aldaketa fonologiko horiek guztiak ziur asko ez direla modu kontzientean eginak, baizik eta elkarrizketatuen harreman-sareen, eskolatzeko-prozesuaren eta hizkuntza estandarraren eraginaren ondorio direla, besteak beste. Euskara batuak eta hiri-hizkeraren presentziak berebiziko eragina dute, eta baliteke horrek jatorrizko euskalkiaren zenbait ezaugarri galtzea ekarri izana: adibidez,  $[e \rightarrow i / \_a]$  eta  $[o \rightarrow u / \_a]$  disimilazioak edota sabaikari epentetikoa ( $[i \rightarrow ij / \_a, e, o]$ ).

Laburbilduz, lan honetan aztertutako bi belaunaldien arteko fonologiaren konparaketak iradokitzen digu hizkuntza-aldaera lokalek denboraren poderioz estandarizazioaren eta kanpo-eragileen eraginez zenbait ezaugarri galtzen edo aldatzen dituztela. Lan hau, bere dimentsioa kontuan hartuta, ez da aldaketa hori frogatzeko gai, baina zenbait zantzu erakusten ditu. Nolanahi ere, sistema fonologikoaren oinarriak (paradigmatikoak) nahiko sendo mantentzen direla dirudi, hizkuntza baten sistema fonologikoa ez baita egun batetik bestera errotik aldatzen. Etorkizuneko ikerketa sakonagoek, corpus zabalagoarekin eta ikuspegi akustiko zehatzago baten laguntzarekin, beharrezko behar lukete izan hemen hasitako bideari jarraipena emateko.

## Bibliografia

CAMINO, Iñaki (2000). «Abiaburu bat Donostiako euskera aztertze». In K. Zuazo (koord.). *Dialektologia gaiak*. Arabako Foru Aldundia, Kultura Saila.

DONEGAN, Patricia Jane eta STAMPE, David (1979). «The study of Natural Phonology». In D.A. Dinnsen (arg.), *Current approaches to Phonological Theory* Indiana. University Press.

ITURAIN, Iñaki eta LOIDI, Loren (1995). *Orioko euskara*. Orioko Udala, Euskara Batzordea.

IZAGIRRE, Estitxu (2023). *Hegoaldeko eta Iparraldeko proiektuen audioen digitalizazioa* (Gradu-amaierako lan argitaragabea, EHU).

OÑEDERRA, Miren Lourdes (2004). *Fonetika fonologia hitzez hitz*. Euskal Herriko Unibertsitatea.

OÑEDERRA, Miren Lourdes (2023). «Fonologia, fonologiak: Fonologia Naturalari buruzko gogoetak J. I. Hualderen omenez». *Anuario del Seminario de Filología Vasca «Julio de Urquijo»*, 57 (1-2), 739-755. <https://doi.org/10.1387/asju.25973>

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA (2021). «Hizkuntzen erabileraren kale neurketa: udalerriak, 2021». 2025eko apirilaren 10ean kontsultatua. <https://soziolinguistika.eus/es/proiektua/hizkuntzen-erabileraren-kale-neurketa-udalerriak-2021/>

TRASK, Robert Laurence (1994). *Language change*. Routledge.

ZUAZO, Koldo (2014). *Euskalkiak*. Elkar.

**Liburu aipamenak**

**Reseñas de libros**

**Comptes rendus de livres**

**Book reviews**



# Language, Policy and Territory

A Festschrift for COLIN H. Williams

Edited by Wilson MACLEOD, Robert DUNBAR, Kathryn JONES, and John WALSH

Palgrave-Macmillan

Springer Nature Switzerland AG

Published in 2022, 433 pages

ISBN: 978-3-030-94345-5

DOI: <https://doi.org/10.1007/978-3-030-94346-2>

URRUTIA BADIOLA, Andres M.

Euskaltzainburua

[aurretia@euskaltzaindia.eus](mailto:aurretia@euskaltzaindia.eus)

ORCID: <https://orcid.org/0000-0002-2139-7137>

DOI: <https://doi.org/10.59866/eia.v2026i71.338>



Linguistic policy is a key field of research, especially in the territories where several languages coexist. In these questions, Professor Williams' interdisciplinary expertise is crucial to connecting this book's three themes: language, policy, and territory. This collection of essays is an academic tribute to him from his scholarly peers. The essays, grouped into four main themes on language policy, conclude with an Afterword by Prof. Williams.

At first glance, such questions relate closely to the Basque language and its territory. Williams has shown a strong interest in Basque, though he is best known for his work on Wales, Canada, Ireland, Scotland, and Catalonia. These places shape Professor Williams' academic path.

The essays in the volume —eighteen in total— are grouped into four main parts or sections, each exploring a key aspect of language policy.

Part one (I) is devoted to the theorising of language policy and regulation.

The open essay of Huw Lewis and Elin Royles shows the ties between political factors and linguistic policy. Analysing the Welsh language situation within a neo-institutionalist framework, they emphasise the importance of the United Kingdom's legal and constitutional position as an institutional factor in Welsh language policy.

The author of the next essay is Emyr Lewis, who considers the concept of linguistic human rights and the “right to chat” included in Part 6 of the Welsh Language Measures 2011, arguing that the right to chat could benefit not only speakers of indigenous minority languages but also speakers of all languages.

Bernardette O'Rourke's arguments are situated within disciplines such as human geography, sociology, and political science, which have marginalized questions of linguistic diversity and failed to recognize links between language identity and ethnicity. Far away from the geographical motto “one language, one nation”, there is an established tie between the geographical dimensions and the new speakers in a multilingual Europe.

In the last essay in this Part, François Grin, a well-known researcher in this field about language and economic value, writes about the concept of language as a public good, advancing beyond the rejection of the relation between language and economics. The status is different in this case for the minority language because of the disproportionate number of resources required even to maintain their current position. The clarification of concepts is essential for language policymakers to deliver more effective interventions in favour of minority languages.

In Part two (II), the five papers focus on language policy challenges and possibilities about William's native Wales and the Welsh language.

Meirion Prys Jones analyses the Welsh Language Board (1994-2012) and the key role it played following the enactment of the Welsh Language Act 1993, promoting initiatives such as Twf (transmission within families), Mentrau Iaith (community language initiatives, and Area Development plans in key areas of Wales). The author defends that language planning must involve the speakers and the communities in which they live, with encouragement from local, regional, and national authorities.

Robert Dunbar insists on the concept of “legislative turn” used by Prof. Williams to examine the recent pieces of the linguistic legislation on the Welsh language. It emphasizes that linguistic policy-making in areas not obviously related to language, such as economic development, transport, communications, health and social care, housing, and spatial land-use planning, may have a significant impact on a language’s vitality. They show a broader communal interest in the language that policymakers need to consider.

Rhys Jones, following the course of Williams and Smith’s precedents, highlights the way in which a homogeneous and uniform linguistic territory can be complicated by drawing on more networked understandings of social and spatial relations, signalling as he does so the significance of such alternative conceptions of the Welsh linguistic territory for language policy in Wales.

After that, Kathryn Jones draws on her experience at IAITH (Welsh Centre for Language Planning) to discuss links between land-use and language planning. She emphasizes using land-planning tools to assess impacts and maximise benefits.

Eleri Hedd James examines Welsh language policies on placenames, maps, and signage to ensure Welsh use in Onomastics and toponymic items. She highlights growing issues of anglicisation in private property, business, and topographical names that are not covered by current legislation.

The last essay in this Part is Steve Morris’s text on how adults acquire a minority language in areas where it is not widely used. A bottom-up, rather

than a top-down, approach may encourage Welsh speakers to use the language confidently.

Part three (III) is dedicated to the perspective on language policy challenges of Canada (both in French and English) and serves as another reference for Prof. Williams.

In the first essay, Linda Cardinal and Anastasia Llewellyn examine the impact on Colin H. Williams' work of the question of language in the provision of public services and the territorial application of measures to ensure service delivery through minority languages.

Immediately, Graham Fraser explores the pioneering impact of F. R. Scott (1899-1985) on the development of language policy in Canada and in his native province of Quebec. After this, his opposition to 1970s legislation to make Quebec a unilingual French province brought a breach with francophone writers and poets, despite the continued influence of his thinking after his death.

Charles Castonguay next traces the vulnerability of the French language, in and out of Quebec. He argues that if Canada's English-French linguistic duality is to be cherished, the federal government must radically change its policy, which so far has focused more on countering Quebec nationalism than truly supporting French.

Richard Y. Bourhis focuses on the linguistic vitality of the province of Quebec. He manages three variables: demographics, levels of institutional support, and status, as well as subjective vitality. He notes the increasing proportion of bilingualism in French and English owed to the English school system in Quebec.

The last Part (IV) focuses on linguistic policy challenges in Ireland, Scotland and Catalonia.

John Walsh underlines the traditional scope of the geographical and territorial reality of minority languages like Irish. In fact, a new network has been established around the Irish Language Network and Gaeltacht Service Town, which appears more fluid and dynamic than the previous schemes.

Janet Muller explores the Irish language policy in Northern Ireland. The conclusion is too harsh: the proposals are deeply flawed, as they increase the Irish language voluntary sector's dependence on government structures and have failed to deliver fundamental change.

Wilson McLeod, from the other side, shows the influence of Wales on Scotland's Gaelic policy development: the challenges that face Gaelic policymakers must be understood in the context of Gaelic in Scotland and therefore require particularised, specifically tailored approaches.

Finally, Maite Puigdedwall cites the organisation *Voluntariat per la Llengua* as the best practice for supporting minoritised linguistic groups, offering participants more profound knowledge of Catalan culture and access to employment, training, and education resources.

Closing the volume, it is the afterword of Prof. Williams himself who shows his compromise with the minority languages:

While we would never play down the advantages of knowing and using two or three languages simultaneously, we must acknowledge the degree of tension and the energy drain this creates for the sustenance of the weaker of these languages in our repertoire [...]. Promoting threatened languages requires advocacy and intelligence. Living in and through a threatened language is far more than an earnest endeavour, a duty-bound set of behaviours. It also involves creativity, spontaneity, and joy, capturing the myriad senses, sensations, and nuanced realities of our complex existence (417).

The volume is completed with a Welsh poem and the lists of contributors, figures and tables, closing with an index of voices, very useful for the reader and researcher. A book plenty of references and ideas, especially for Basques, who are members of a bilingual society into their territory with the Basque language characterized by a minority language situation.

Basic theoretical principles and day-to-day realities of a true linguistic policy are offered in the book, putting on the table a veritable reference in a theme fully interesting for the Basque Country and Basque language.



# *Antzinaroko sustrai indoeuoparreko jende izenak: Araba eta Nafarroako sartaldea*

## *[Los nombres de persona de raigambre indoeuropea de la Antigüedad: Álava y occidente de Navarra]*

ZALDUA ETXABE, Luis Mari

Publicado en 2024, 173 p.

ISBN: 978-84-128382-4-4

DOI: <https://doi.org/10.59866/9788412838244>

ZALDUA ETXABE, Luis Mari

Investigador independiente

Comisión de Onomástica, Real Academia de la Lengua Vasca

[luismarizaldua@gmail.com](mailto:luismarizaldua@gmail.com)

ORCID: <https://orcid.org/0000-0002-5376-6232>

DOI: <https://doi.org/10.59866/eia.v2026i71.339>



Este texto es una síntesis de la obra *Antzinaroko sustrai indoeuoparreko jende izenak: Araba eta Nafarroako sartaldea* publicada por la Real Academia de la Lengua Vasca en 2024.

A Eduardo Alfaro Peña.

## 1. Las ideas lingüísticas sobre las lenguas del occidente de Vasconia en la Antigüedad

La idea de que hace poco más de dos mil años, al comienzo de la romanización, la lengua vasca era extraña en gran parte de Vasconia no es, precisamente, novedosa. La publicó por primera vez un euskaldún, el suleitino Arnaud Oihenart, en el siglo XVII.

Dicha hipótesis recibió el impulso definitivo en la primera mitad del siglo XX, gracias sobre todo a la labor de Manuel Gómez-Moreno (1925) y, en parte, también, a la de Gerhard Bähr (1940 [1948]). Ambos basan su teoría en argumentos de tipo onomástico. Pocas décadas después, el lingüista alemán Ulrich Schmoll (1959) llevó la conjetura al extremo, y propuso que el *Auskisch* (vasco antiguo) se expandió o extendió al resto del territorio que ha sido históricamente vascófono de la mano de una invasión que debió de tener lugar a comienzos de la Edad Media.

Hoy en día hay autores que —siguiendo la estela de Gómez-Moreno, Bähr y Schmoll— continúan sustentando que a la llegada de Roma en el oeste de Vasconia predominaba alguna lengua celtohispanica (celtíbero...). Huelga decir que hay vascólogos que —al igual que Caro Baroja o Michelena— desdennan esa teoría, tal y como hacen lingüistas como Gorrochategui, Lakarra o Salaberri, e historiadores como Monteano.

